

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2022

Antolatzailea: Euskal Herriko Bertsozale Elkartea

Koordinazioa, kronikak eta bertso hautaketa: Euskal Herriko Bertsozale Elkartea

Bertsoen transkripzioa: Xan Alkhat Duhart, Rosita Anakabe Solabarrieta, Irati Bravo Bereinkua, Jon Gurrutxaga Urbieta, Izar Mendiguren Cosgaya, Idoia Granizo

Audioen bilketa eta edizioa: Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Doinuen azterketa: Bertsozale Elkarteko Doinutegi Batzordea

Partituren prestaketa: Miren Izagirre Etxebeste eta Itziar Navarro Ibañez

Argazkiak: Alberto Elozegi Erdozia, Gari Garaialde Etxaburu, Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Zuzenketak: Euskal Herriko Bertsozale Elkartea

Azaleko irudia, diseinua eta maketazioa: Dixidu Diseinu Grafikoa

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2022

Antolatzailea: Euskal Herriko Bertsozale Elkartea

Koordinazioa, kronikak eta bertso hautaketa: Euskal Herriko Bertsozale Elkartea

Bertsoen transkripzioa: Xan Alkhat Duhart, Rosita Anakabe Solabarrieta, Irati Bravo Bereinkua, Jon Gurrutxaga Urbieto, Izar Mendiguren Cosgaya, Idoia Granizo
Audioen bilketa eta edizioa: Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Doinuen azterketa: Doinutegi Batzordea

Partituren prestaketa: Miren Izagirre Etxebeste eta Itziar Navarro Ibañez

Argazkiak: Alberto Elosegi Erdozia, Gari Garaialde Etxaburu, Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Zuzenketak: Euskal Herriko Bertsozale Elkartea

Azaleko irudia, diseinua eta maketazioa: Dixidu Diseinu Grafikoa

© EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA

.....

Argitaratzailea:

EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA
Kale Nagusia 70
20150 Amasa-Villabona

e-maila: bertsozale@bertsozale.eus
www.bertsozale.eus

Diseinua eta maketazioa: Dixidu Diseinu Grafikoa

.....

I.S.B.N.: 978-84-892836-3-3
L.G.: D 01091-2023

.....

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein berregintza, komunikazio publiko edo moldaketa, aurrez jabetzea intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa, jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke (Kode Penaleko 270 eta hurengo artikulua). CEDRO erakundeak (www.cedro.org) babesten ditu aipatu eskubide horiek.

....

Bertsolari Txapelketa Nagusia 2022

....



bertsozale
elkarte

Aurkibidea

Atarikoa	9
----------------	---

KRONIKAK ETA BERTSO HAUTATUAK

Lehenengo fasea

Getxo	12
Arrasate	24
Gotaine-Irabarne	40
Gasteiz	56
Donostia	68
Lizarra	82

Finalaurrekoak

Elizondo	98
Donibane Garazi	116
Irun	130
Durango	146
Amurrio	162
Baiona	178
Bilbo	196
Finaleko bertsogintza aztergai.....	217

Finala

Iruñea	232
--------------	-----

IRITZIAK	347
----------------	-----

DOINUTEGIA

Erabilitako doinuen zerrenda	390
Bertsotarako doinu berriak	398

ERANSKINAK

Bertsolari Txapelketa Nagusiaren historia	414
Txapelketaren antolaketa eta egitura	416
Ariketak	417
Egutegia	419
Bertsolari parte hartzaileak	420
Sailkapena	423

ARGIBIDEAK

Liburu honetako bertsoak Bertsozale Elkarteak kaleratutako *Bat-bateko bertsoak idatziz emateko irizpideak* izeneko irizpideetan oinarrituta transkribatu dira.

Bi zutabetan daude bertso lanak idatzita. Lehenik, ezkerreko zutabea irakurtzen da goitik behera, eta ondoren, eskuinekoa.

QR honi jarraituz bertsoaldi guztien audioak aurkituko dituzu.



2021. urtea behar baino luzeago joan zen.

Prestaketa lanak aspaldian hasiak genituen, bai, baina egoera aldrebesak ez zigun aukerarik eman behar zen tenorean txapelketa abiarazteko; itxarotea besterik ez genuen.

Azkenean, 2022an garaiz ailegatu zen Bertsolari Txapelketa Nagusia.

Hala ere, txapelketarekin aurrera egitea erabaki genuenean oraindik ere laino ilunak ziren nonahi: pandemiak eta ondorengoek egoera gogorra ekarri zuten, bai bertsolaritzara, baita kulturgintzara ere.


Esan izan dugu askotan bertso plaza dela bertsolaritzaren hauspoa, eta hura gabe ez dela txapelketa ulertzerik. Bada, bertso plaza herren zegoen “Aurten bai!” esan genuenean, eta galdera ikur ugari ziren airean dantzan.

Testuingurua gordina zen hastapenean, baina gerora panoramak beste kolore bat hartu zuen: aurreikusi moduan, hiru hilabetez hamalau saio Euskal Herriko zazpi herrialdeetan, eta berriro ere bertsozaleen harrera ezin hobea ekimenari. Zorionez, txapelketa baten ohiko eztabaidek eta kontuek protagonismoa lapurtu zieten iraganeko mamuei. “Normaltasuna” hori bada, ongi etorria izan dadila.

Igarotakoak igarota, katea ez da eten, eta oraingoan ere bertsogintzaren ikuspuntutik ekarpen ugari utzi dizkigu txapelketak. Besteak beste, formatuak ezartzen dituen baldintza bereziekin, txapelketa bertso plazan dagoen aniztasunaren eta errealitatearen isla izan da.

Liburu hau txapelketaren lagin zabal bat besterik ez da, ez baitira bertan entzundako bertso guztiak sartzen, eta ezin baita bizi izandako zirrarak orriotara ekarri.

“Zaindu maite duzun hori” gaztigatu ziguten aspaldi. Horretan segituko dugu, handian zein txikian, herriz herri eta plazaz plaza bidea egiten.



The image features a light gray background with a series of wavy, overlapping lines that create a sense of depth and movement. These lines are more densely packed on the left side and spread out towards the right. In the lower right quadrant, there is a dark, irregular, rounded shape that appears to be a shadow or a solid object. A dark gray horizontal band is positioned across the middle of the image, containing the text 'LEHENENGO FASEA' in white, bold, uppercase letters.

LEHENENGO FASEA



Agin Laburu Rezola



Alaia Martin Etxebeste



Nerea Elustondo Plazaola



Oihana Bartra Arenas



Peru Abarrategi Sarrionandia



Unai Mendizabal Jauregi

GETXO

2022/09/24, LARUNBATA, 17:00

MUXIKEBARRI ZENTROA

LEHENENGO FASEA. LEHEN SAIOA

Bertsolariak:

Agin Laburu Rezola

Alaia Martin Etxebeste

Nerea Elustondo Plazaola

Oihana Bartra Arenas

Peru Abarrategi Sarrionandia

Unai Mendizabal Jauregi

Gai-emailea: **Imanol Artola Arretxe *Felix***

Epaimahaiko kideak: **Egoitz Iradier Martinez de Albeniz, Eneko Bidegain Aire, Jurgi Fuentes Goikoetxea, Karlos Ibarguren Olalde, Leire Beloki Lizarralde, Miriam Juaristi Urizar eta Saioa Mitxelena Irazoki**

Ia uda osoan zerura begira izan dira herritarrak euria noiz iritsiko; bertsozaleei luze egin zaie txapelketarik gabeko tartea. Amaitu dira itxaronaldiak, irailaren hogeita laugarrenak ekarri ditu euria eta txapelketako lehen saioa.

Getxoko Muxikebarririk hartuko du lehen seikotea. Ez du asko falta betetzeko, aulki bakar batzuk gelditu dira libre. Azpiegitura berria eta erraldoia da Algortako San Nikolas plazakoa: deigarria kanpotik, gertukoa eta beroa behin barrura sartuta. Areto jantziek seriotasun handia gehitzen diote txapelketako saioei, baina ilusioa eta gogoia sumatzen da. Aukeran pankartak jartzeko espazioak falta ditu Muxikebarririk, ezinean ibili baitira bertso eskoletako lagunak.

Azken astean aldaketak izan dira saioko seikotean, ondoezik den Eneko Lazkozen ordeaz Alaia Martinek kantatuko baitu. Ondoan izango ditu Nerea Elustondo, Peru Abarrategi, Oihana Bartra, Agin Laburu eta Unai Mendizabal. Imanol Artola Arretxe *Felix* ariko da gaiak jartzen. Bertsozale Elkarteak kartela aldatzeko tartea ere izan du. Lehen saioa eta azkena ez dira errazenak izaten. Baina ederra joan da saioa eta karteletako azken gonbidatuak irabazi du, Alaia Martinek alegia. Besteek puntuazioen zain egon beharko dute.

HASIERAKO AGURRA

O. Bartra

Neurria: Hamarrekoa, ertainaren moldekoa, 7 puntuz

Doinua: *Ke azpitik su gainetik*

Bat-batean txapelketa
den gure unibertso
obsesibo, intentso
horren kanpoko oasi
bihur zaitezke Getxo! (bis)
Bizitza zurrun hartuta
egiten da luzetxo
nahiz ta gaur egon tentso
irabazteko zuek ta
galtzeko ez dugu ezertxo
goazen ba bertsoz bertso!



ZORTZIKO HANDIA

O. Bartra - N. Elustondo

Gaia: Zuek, Oihana eta Nerea, bikotea zarete. Lagundutako ugalketa bidez izan dituzue seme-alabak. Zuk, Oihana, kontatu beharra sentitzen duzu. Nereak, berriz, nahiago du isilean gorde.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Menditarra naiz eta gogoan*

O. Bartra

Nola naturak ematen zigun
momentu baten bizkarra
lagundutako ugalketakin
asetu genuen harra
ta sentitzen dut hau inguruan
nik konpartitu beharra
ama izateko eduki dugun
aukera bakar-bakarra.

N. Elustondo

Bi ama izanik aukera hori
bakarrik dugu iraupen
nahiz eta adi egon natzaizun
zure alboan entzuten
zertan aritu gure bideak
kontatzen eta erruten?
Besteek ere ez dute esaten
nola enkargatu duten.

O. Bartra

Lehen aukera lez adopzioa
halan genuen aztertu
ta bigarrena in vitroa zen
eta biok geunden gertu.
Ezin zen eta azkenerako
nekatu eta aspertu
eta ulertu nahi ez duenak
ba ez dezala ulertu!

N. Elustondo

Bakar-bakarrik ezin gendula
guztiek dakite jakin
ume bat nola ezin den izan
bi obuluren etekin.
Hala ta guztiz kontatzeari
zer dela-ta hemen ekin
arazo haundina neronek badet
besteen begiradarekin?

O. Bartra

Gu pixkanaka hor egon gara
etapa guztiak errez
ta beste batzuk ugaldtu eta
dana egiten dute errez
“Haurra erosi egin duzue”
esaten dute haserrez
nik inori ez diot esaten
zer erosi eta zer ez!

N. Elustondo

Baina besteen bizia neurtzen
aritzen gara oparo
nahiz ezezkoa eztabaidatzen
aritu naizen luzaro
bale amore emango dut nik
ezin dut eutsi gehiago
zu zoriontsu ikustearren
edozertako prest nago.

U. Mendizabal - A. Martin

Gaia: Lagunak zarete, Unai eta Alaia. Badira urte batzuk arropak eskuz egiten hasi zinetela. Hasieran zuentzat egiten zenituzten; ondoren baita inguruko lagunentzat ere. Zuk, Unai, zuen sorkuntzak salgai jartzeko gogoia daukazu. Alaiak, berriz, ez.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Beste bateko inularretan*

U. Mendizabal

Kotoizko jertse egiten jarri
genuen hainbat enpeño
ta gure lana besteei salgai
gaur zertako ez jarri? Ño!
Gure herria Bershka ta Zaraz
betea da leporaino
hobe dirua gugana etorri
Amantziorenera baino! (bis)

A. Martin

Baina Amantzio ta konpainia
nolatan utzi ahantzita?
Larunbatero egiten dute
zentro handitara bisita.
Gure patrikak hobeak dira
eta arropa polita
baina jendeak kontsumitzen du
baloreak erantzita! (bis)

U. Mendizabal

Hiru makina, lau armario
presta dezagun sotoa
gure arropak balorea du
ta maila dauka goikoa.
Berta-bertako piparrak eta
sardin ta atun potoa...
Arropak ere beharko luke
kilometro zerokoa! (bis)

A. Martin

Baina begira haien beirate
eta eskaparateko
kristal handiak konpetentzia
dira guretzat kalteko.
Hirurehun euron dago kuota
justu lentejak jateko
egun aberats izan behar da
autonomo izateko. (bis)

U. Mendizabal

Hori gerora ikusiko da
irabazik gorabehera
nere ustetan hementxe degu
gure biziko aukera.
Zergatik eta Skunkfunk hortxe
Puntutanen sudadera...
Bide hontatik behin hasi ziren
bakarrak ere ez gera! (bis)

A. Martin

Nahiz eta ongi irteten diren
bizitzan apustu batzuk
ez gara Onddo ta punto eta
gainera ez gara Skunkfunk!
Zuk elikatu zure Instagram
zure Twitter, zure Facebook¹
eta erronka eginez gero
zuri erosiko dizut! (bis)

¹ “Feizbuk” ahoskatu zuen.

ZORTZIKO TXIKIA

N. Elustondo - A. Laburu

Gaia: Zuek, Nerea eta Agin, lankideak zarete. Nerea, Aginek azken bost urteetan kandela kopuru bera jartzen du bere urtebetetze-pastelean. Orain arte ezikusiarena egin baduzu ere, gaur zerbait esatea erabaki duzu.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Gizona da zoroa*

N. Elustondo

Bizitzan zahartzea
ez da misterio
baina zu horrek jartzen
baitzaitu serio
hogeikandela jarriz
zabiltza propio
ba zure aurpegiak
beste zerbait dio! (bis)

A. Laburu

Erlatiboak dira
urteak, egunak
batzuk gogorak dira
besteak leunak
aurpegiaz zer dio
gaur nire lagunak
inoiz pastelik ere
ekartzen ez dunak? (bis)

N. Elustondo

Gozogintzarik ez dut
ekarri ohi klaro!
Diabetia baitut
geroz ta gorago!
Nik berrogeiko langa
jada det igaro
ta sentitzen naiz inoiz
baino gazteago! (bis)

A. Laburu

Gazte senti zaitezke
nigatik bizitzan
ni ere horrelaxe
ibili ohi nintzan.
Nahiz ta kejakten zeran
diabeti gisan
pastela probatzian
ez du kejik izan. (bis)

N. Elustondo

Sakarina zulakon
egin det aproba
azukrea bazuen
ez nago gustora!
Ez bazera pasatzen
hogeitikan gorra
ez zara iritsiko
jubilaziora! (bis)

A. Laburu

Iritsiko bazina
ojala! Ojala!
Uste det Pedro Sanchez
pentsatzen ai dala
urteak luzatzea
eta berehala
pentsatze al dezu zu
helduko zerala? (bis)

BAKARKA, GAIA ETA PUNTUA EMANDA

N. Elustondo

Gaia: Turismoa

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orain hasi bihagu*

Izan ote liteke berez jasagarri?

Donostin bizi denai
puntu hau ez jarri!
Jendea ugaritu
da ikaragarri
ta bertakoak gabiltz
estu eta larri!

Turistaz betetzen da udan kostaldea

ta esan dizut biktima
bat dela Nerea!
Nahiz ta gustoko ez izan
datorren jendea
ni´re turista izan
naiteke ordea.

Barnealdean ere bisitariz lepo

badago ta hamaika
gauza ikusteko
direla minak eta
mendia besteko
konplexurik ez izan
hara joateko!

U. Mendizabal

Gaia: Suteak

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

Landa lur asko dago suak kiskalita

guztia sasiz lepo
baitago jarrita
nahiz ta baserritarrei
maiz egin kritika
haiek egiten dute
langintza polita.

Beroteek ez dute askorik laguntzen

freskura ari baita
gugandik urruntzen
Iruña alde hortan
sua´re gertu zen
saiatu behar degu
hau dana gelditzen!

Behar adina zaintzen al dugu mendia?

Ezetz esanda aitor
nezake egia!
Sasitza haundi batek
hartu du erdia
eta hortikan dator
gure miseria.

HAMARREKO TXIKIA

P. Abarrategi - A. Martin

Gaia: Bikotea zarete, Peru eta Alaia. Urteak dira lan egonkorra lortu, etxea erosi eta elkarrekin bizi zaretela. Peru, gaur Alaiak proposatu dizu lana uztea, etxea saltzea eta munduko beste txoko batean hutsetik hastea.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Hamalau heriotzena I*

P. Abarrategi

Lanpostua, etxea
guztia berdina
aurrera ateratzen
gure ahalegina.
Aspertu egin zara
maitea jakina
nahiz aldaketarako
zuk daukazu grina
non geratuko zaigu
aurretik egin?

A. Martin

Lehen sentitzen nintzen
ahalik ta ondoen
dena ze berrikuntza
bizitasun, sormen!
Baina faltan botatzen
dut zenbait eromen
ez, ez naiz aspertu ta
ea ze izango den:
alde egin nahi nuke
aspertu baino lehen.

P. Abarrategi

Tentazio aurpegiz
albotik iseka
urrun joatea duzu
helburu ta meta.
Monotonia apurtu
behar da tarteka
baina lortu behar da
Alaia oreka
ez da mesedegarri
beti aldaketa.

A. Martin

Ez nuke nahi berdina
betikotzen jardun
beti hain formal, zintzo
lehor ta euskaldun.
Kolorez bete nahi dut
mila ta bat album
begiak zabal izan
bizitu eta boom!²
Bizitza bat daukagu
gozatu dezagun!

P. Abarrategi

Beraz gure bizitza
gozatzen saiatu
Karibeko irletan
bekatuz bekatu.
Ni ez naiz holakoa
maitea barkatu
nola gaur ezustean
nauzun harrapatu
almohadarekin nahi dut
behintzat kontsultatu.

A. Martin

Almohada izaten da
sarri arnasbide
nik itsas olatuak
nahi ditut maindire.
Bide hau gure ote
edo ote nire?
Lasai pentsatu zazu
lasai adiskide
zurekin edo gabe
izango naiz libre!



GANBARAKO LANA

A. Laburu

Gaia: Epailen aurrera ekarri zaituzte. Esaten duzunak ez du zugan bakarrik eragingo.

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz

Doinua: *Cola Caorikan ez edatea*

Udaletxeko zinegotzia
askotan izerditan blai!
Eta ondoren aldundiraino
aukera berri baten zai
egin ditugu hamaika lagun
ta egin hamaika etsai.
Nere alderdiko talai
honetan nenbilen alai
baino lehengoa ta oraingoa
bereizitako bi garai
esandakoak eragina du
isiltzen denak ere bai! (bis)

Beraz fiskalak galdetu eta
hasi behar det kantari
esku batekin helduko diot
dardarka dagon hankari.
Erantzukizun haundia daukat
hori bistan da nabari
lotzen gaituztenak hari
sendoak dira ugari
baina guztia kontatuko det
ez naiz gezurretan ari
ez det izan nahi asko bezela
Iberdrolan kontseilari. (bis)

Alde batetik bestera nahiz ta
egiten nuen jauzia
korrupzioko lokatz honetan
bukatuko da auzia.
Akusatuen artean nago
ez da nere nagusia
ni nintzen zinegotzia
alderditik egotzia
ta mendekua su motelean
izango da egosia!
Nere hitzekin idatziko det
alderdiko autopsia! (bis)





Gorka Pagonabarraga Agorria.



Iñaki Apalategi Astigarraga



Joanes Illarregi Marzol



Miren Amuriza Plaza



Saioa Alkaiza Guallar



Xabat Illarregi Marzol

ARRASATE

2022/09/25, IGANDEA, 17:00

AMAIA UDAL ANTZOKIA

LEHENENGO FASEA. BIGARREN SAIOA

Bertsolariak:

Gorka Pagonabarraga Agorria

Iñaki Apalategi Astigarraga

Joanes Illarregi Marzol

Miren Amuriza Plaza

Saioa Alkaiza Guallar

Xabat Illarregi Marzol

Gai-emailea: **Ander Aranburu Arriola**

Epaimahaiko kideak: **Egoitz Iradier Martinez de Albeniz, Eneko Bidegain Aire, Jurgi Fuentes Goikoetxea, Karlos Ibarguren Olalde, Leire Beloki Lizarralde, Miriam Juaristi Urizar eta Saioa Mitxelena Irazoki**

Hiru asteburutan larunbat eta igande beteko digu agenda Bertsolari Txapelketa Nagusiak. Interes handia sumatzen da publikoan. Horren adibide, internet bidezko sarrerak astean zehar amaitu dira, eta di-da batean amaitu dira egunean bertan Amaia Zentroko txarteldegian jarritakoak ere.

Aretoen aldeko apustua egin du Bertsozale Elkartek lehen faserako. Bezperakoa berria zen bezala, bertsozaleak ongi ezagutzen du Amaia Antzokia. Aurretik ere txapelketako saio asko jokatu dira Amaian eta ondoan duen Uarkape pilotalekuan, Gipuzkoako Txapelketako saioak gehienak.

Aldaketaz aldaketa gabilta txapelketa hasiera honetan. Azken ordukoa da Xabier Silveirak ez duela abestuko, eta Xabat Illarregik hartuko du bere lekua, eskubide guztiekin. Joanes Illarregi, Iñaki Apalategi, Saioa Alkaiza, Miren Amuriza eta Gorka Pagonabarraga izango ditu ondoan eta Ander Aranburu Arriolaren esanetara arituko dira. Bi anaia saio berean elkarrekin kantuan. Uriatarrek -Jonek eta Imanolek- eta Arzallustarren -Ametsek eta Maddalenek- izan dezakete saio berean kantatzeko aukera eta arriskua.

Giro ederrean sartu dira bertsolariak oholtzara. Gora-beheratsuagoa izan da saioa baina ale ederrak entzun ditugu. Anaia zaharrenak irabazi du saioa, Joanes Illarregik.



HASIERAKO AGURRA

M. Amuriza

Neurria: Hamabiko handia

Doinua: *Irrintziekin esnatzen dira*

Irrintziekin esnatzen dira
erromerietan plazak
edo hiletetan minak uzkurto
ditzakeen gihar masak
irrintziekin Pirinioak
Appalacheak, Atlasak
zutik lokartzen diren zaldiak
ta euren begirada basak
arratsaldeon dar-dar ditugu
erresonantzia kaxak
eta goia jo artean iraun
diezagula arnasak.

ZORTZIKO HANDIA

J. Illarregi – G. Pagonabarraga

Gaia: Joanes eta Gorka lankideak zarete. Posta elektronikoa ugarri jasotzen duzue eguneko edozein ordutan. Joanes, zuk laneko posta elektronikoa instalatu duzu zure mugikorrean uneoro eskura izateko. Gorkak ez du hori egiteko inongo asmorik.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Menditarra naiz eta gogoan*

J. Illarregi

Nahiz ta lanean pasatzen dugun
sarri gaua ta eguna
medikuntza da arlo bat oso
sakona eta iluna
guk kontratuan sartu genuen
eskuragarritasuna
are gehiago gure esku bada
beste batzuen osasuna.

G. Pagonabarraga

Gure firma bat jarri genuen
ez dakit ze kontratutan
beti prest egon behar gendula
horixe daukat gomutan
baina egiak letra hoietatik
gelditzen dira lekutan!
Eskuragarri nago egunero
baina ez edozein ordutan.

Joanes Illarregi

Nahiz minutuak soilik ditugun
bakoitzarentzako hiru
listan jendea bertan dagona
pilatzen ari baitzaigu
nahiz ez kobratu behar adina
ez jaso hainbeste diru
jakin gabe joan eta goizean
nondik hasi ez dakigu.

G. Pagonabarraga

Baina ez dut nahi etxera heldu
ta mugikorrean sua
eduki nahi dut orain arte lez
klinika irripartsua
ta egunero hartu nahi nuke
ez da ta horren antzua
bihar berriro bueltatu nadin
behar dudak deskantsua.

J. Illarregi

Noski sarritan gure burua
deskantsatzera behartu
deskonektatu ezin dugula
ez ote zara ohartu
mugikorrean aukera gisan
soilik nahiko nuke hartu
eta gero nik pentsatuko dut
noiz sartu ta noiz ez sartu.

G. Pagonabarraga

Behar dugula diozu dela
aplikazio bat soilik
bide horretan dena den ez dut
emango orain pausorik
mobila gudan sartzen da eta
hartzten baikaitu osorik
martxa honetan zuk eta biok
amaitu baietz gaixorik.

S. Alkaiza – J. Illarregi

Gaia: Saioa eta Joanes bikotea zarete. Saioa, aspaldi isun bat jarri zioten Joanesi baina arrazoia berak zuela-eta, ez zuen ordaindu nahi izan. Gaur eskutitz bat iritsi da etxera, isuna hirukoiztu dela esanez.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Nere senarrarekin I*

S. Alkaiza

Nere azukre koxkorra
hain da arlotea
isuna hirukoiztu da
zelako kolpea!
Ederra da ordea
neronen zortea
ez dugu konpartitzen
kontu korrontea. (bis)

J. Illarregi

Orduan ez nauzu nahi
honekin babestu
karta hori denean
etxean aurkeztu
hirukoiztu dela ta
hartu nauzu estu
ordea arrazoiak
preziorik ez du. (bis)

S. Alkaiza

Arrazoia ordaindu
behar duzu, ta nola!
Kotxean baitzenbiltzan
borborka odola
ta isuna bihurtu
da zure kaiola
hobetu behar zenuke
zure *autokontrola*. (bis)

J. Illarregi

Kontrolaren horrekin
egin duzu burla
aitortu nahi dut esan
ez nuna sekula
egun hortan kotxea
ebatsi nizula
eta Ertzainek dute
zure matrikula. (bis)

S. Alkaiza

Kariñito ze majo
hain modu eztian
nere kotxea dago
bere iragazkian
baina ez dut sinatuko
isunan azpian
argi azaltzen baitzara
bertako argazkian. (bis)

J. Illarregi

Hain gogorra zinenik
nik ez nuen uste
maitasuna gorago
igo nahiko nuke
bizitza elkarbanatzen
hamazazpi urte
multa ere elkarbanatu
beharko genuke. (bis)



BAKARKA, GAIA ETA PUNTUA EMANDA

I. Apalategi

Gaia: Euskal Herria

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orain hasi bihagu*

Aturritik Ebrora bada zer ikusi.

Gauza eder asko ta
pare bat itsusi
oraindik denetara
ni ez naiz iritsi
baina haiek guztiak
nahi nituzke bizi.

Ezagutzen al dugu guk gure herria?

Sarri egiten dugu
horren aldarria
baina Gotaine nun da?
Han mapan jarria...
Gure artean asko
dago elbarria.

Aniztasuna dugu zinezko altxorra

eta orekarako
gauza derrigorra
baina ez baldin bada
hain gustoko horra
beti egiten zaigu
antzu ta gogorra.

X. Illarregi

Gaia: Apustu etxeak

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

Gero eta gehiago auzo txiroetan

nahiz ta pintadak egin
euren kristaletan
guztirik erroturik
dauzkagu kaleetan
aberatsak pozik ta
besteok penetan.

Jokoa adikzio bihurtzen da sarri

nahiz eta jolas gisa
azaldu elkarri
korbatadunen batek
baitzuen ekarri
egin behar da kendu
egin ahala jarri.

Irabazteko baino galtzeko gehiago.

Beti ez da irabazle
irteten hordago
baina salgaiak geroz
eta salgaiago
ni horiek kentzeko
ahaleginez nago.

HAMARREKO TXIKIA

M. Amuriza – X. Illarregi

Gaia: Miren eta Xabat. Miren eta Xabat zuen lagun bat zendu zen duela hilabete batzuk. Miren, gaur Xabatek proposatu dizu hura oroitzeko omenaldi festa bat antolatzea.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Hamalau heriotzena I*

M. Amuriza

Nahiz eta oraindik denok
gauden lehertzeaz
agur bat antolatu
behar genuke lar
itxaron barik geure
sugar, geure kedar
bakarrik egin dugu
egunotan zehar
ta orain egin dezagun
elkarrekin negar.

X. Illarregi

Umetako kuadrilla
deitzen diot tribu
bertan hoge bat lagun
ez bi ta ez hiru
Jokin joan zen eta
mundua isildu
ez dugu hitz egin ta
gaur arte ez bildu
terapia modura
balioko digu.

M. Amuriza

Bere buruaz beste
egin eta gerla
bat bukatu zuen han
ta gure papela
da orain atontzea
despedida gela
ez dezagun ixildu
egia ahal dela
esan dezagun berak
nahita joan zela.

X. Illarregi

Haseran pasa dugu
garai bat umela
baina uste dut ezin
dugula horrela
irri egin dezagun
berekin bezela
ziur nago ta handik
beida egonen dela
seguro berak irri
eginen duela.

M. Amuriza

Lehenengo egunetan
nahiz ta nobedade
moduan iritsi zen
gaude parez pare
mendira joan gaitezke
bere lagun talde
oso ta aritu
mihinik erre gabe
ta kantatuko dugu
bizitzaren alde.

X. Illarregi

Mendi magal horretan
loretxo bat dago
eta emozionatu
egin naiz zeharo
hau egin behar dela
ni seguru nago
joan den unean inoiz
baino urrunago
gu egon gaitezen inoiz
baino gertuago.

I. Apalategi – J. Illarregi

Gaia: Iñaki eta Joanes. Bulego bereko abokatuak zarete. Iñaki hasiberria eta Joanes beteteranoa. Bulegora kasu entzutetsu bat iritsi zen, irabazteko ia ezinezkoa zirudiena. Iñaki, Joanesek esan zizun zu arduratzeko defentsaz. Auzia irabazi egin duzu eta Joanesek proposatu dizu elkarrekin prentsurrekoa ematea.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Lagundurikan danoi II*

I. Apalategi

Ezabaezina da
sarri iragana
baina nik hartu nuen
hortarako lana
orain irabazita
ospakizun plana
ados emango degu
biok erdi bana
ta han konta ezazu
esan zenidana.

J. Illarregi

Haseran zirudien
genula triskantza
baina ongi duzu
epaitegi dantza
egia esan nahi duzu
zure nahia antza
jendeak jakin dezan
ez izan zalantza
zenek eduki zuen
zuga konfiantza.

I. Apalategi

Sendo ikusten zaitut
orain abenturan
baina garai batean
hor zenbiltzan dudan
kasu garaitezina
omen zen itxuran
nigana konfiantzaz
hor zatoz liluran
baina inoiz eduki
al zenuen zugar?

J. Illarregi

Nik jakin nuenean
momentu horretan
pentsatu nuen zure
hango aukeretan
ez banizu eskeini
aukera benetan
betiko egongo zinen
iltzatuta bertan
zakurren kustodia
konpartituetan.

I. Apalategi

Kolperik jo ez eta
atzetik barrea
ulertuko dezu ba
nere haserrea
mundu hau hola bada
ze mundu errea
bekarioak lana
jefeak sobrea
hau zure bufeta da
ez buffet librea.

J. Illarregi

Pasa ditut lehenago
zenbait komeria
kasurik ez zen heltzen
mila miseria
orain zuk ez zazula
kontatu egia
isil-isilik gera
zaitez alegia
eta emango dizut
sobrean erdia.

GANBARAKO LANA

M. Amuriza

Gaia: Autoa hartu duzu bila joateko. Iristear zinela, ordea, buelta ematea erabaki duzu.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Larunbat gauean hamar*

Larunbat gauean hamar eta erdietan lana amaituta eseri naiz sofara jaurtiaz zama hiru-lau kate pasatu dut pelikula andana ta liburu bat hartu dut total berdina da dana ta bapatean mobila ta alarma; alabagana “Bai, zer nahi duzu?” esan diot “Nabaritzen dizut xarma” “Ez dut bakarrik joan nahi kaletik etxera barna baina aspertuta nago ta etor zaitetz bila ama”. (bis)	Espero nuen gaur gauez hau bezalako momento bat suerta zitekeela ta sentitzea biolento ziztadak gora ta behera ibili da ta hobeto egotea nahi nukeen arren gutxi daukat emoteko kotxeaz hurreratu naiz kale dena dago lepo baina bila joaten banaiz bera nigaz etorteko konfirmatzen arituko naiz ta ni neu dagoneko motiboak dituela beldurtuta egoteko. (bis)
---	--

Erdigunera hurbildu naiz
jendez bete-bete dago
eta gure alaba hor
ene ze nerabezaro!
Mobiletik deitu diot
berak ein baino lehenago
arduratuta beldurrez
jauzi ez dadin zerraldo
esan diot “Egon lasai
nahiz ta sentitu arraro
lortu dezakezu eta
zure mamuak akabo
aparkatu dut tabernak
baino pixka bat harago
ta etor zaite bakarrik
zuri itxaroten nago”. (bis)

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2022



X. Illarregi

Gaia: Autoa hartu duzu bila joateko. Iristear zinela, ordea, buelta ematea erabaki duzu.

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz

Doinua: *Txikitatikan edukia dut*

Bizitzak aro eta etapa
denak errazak balitu
ez genukeen hala ibili
beharrik ezin aurkitu
bere besotan jaio nintzen ta
hazten horrela segitu
bai baina orain begitu
ezer ezin entenditu
buelta eman dut bide erdian
ta masail biak ez siku
zahar-etxerako hartu behar nuen
baina ez naiz atrebitu. (bis)

Berdin zait ama izango badut
nere etxean nere kargu
azken finean bizitza ziklo
berri bat gugan dakargu
berak gu ere izan gintuen
urte askotan enkargu
ez dut nahi amarik saldu
gu egon gaitezen salbu
anai-arrebak haserre egon
arren ezberdin gara gu
kontzientzia lasai izango dunak
nahi badu eramango du. (bis)

Ama etxean zain egongo da
baina ikusi gizarte
honek zertara eraman nauen
ez balore ez izate
anai-arrebok erabakia
baina beharturik naukate
berez joan behar nintzake
ezin atera hitzak'e
ordea ez dut hara eramango
hori da herio kate
amaren eta nere nahiaren
kontra joatea litzake. (bis)



Ane Labaka Mayoz.



Eneko Lazkoz Martinez



Julio Soto Ezkurdia



Nerea Ibarzabal Salegi



Oihana Iguaran Barandiaran



Patxi Iriart Hiribarren

GOTAIN-IRABARNE

2022/10/01, LARUNBATA, 17:00

HERRIKO GELA

LEHENENGO FASEA. HIRUGARREN SAIOA

Bertsolariak:

Ane Labaka Mayo

Eneko Lazkoz Martinez

Julio Soto Ezkurdia

Nerea Ibarzabal Salegi

Oihana Iguaran Barandiaran

Patxi Iriart Hiribarren.

Gai emalea: **Aritz Bidegain Aire**

Epaimahaiko kideak: **Egoitz Iradier Martinez de Albeniz, Eneko Bidegain Aire, Jurgi Fuentes Goikoetxea, Karlos Iburguren Olalde, Leire Beloki Lizarralde, Miriam Juaristi Urizar eta Saioa Mitxelena Irazoki.**

Ia lauogei mila biztanle ditu Getxok, Txapelketako lehen saioa jokatu zen herriak. Hirugarrena Gotaine-Irabarnen jokatuko da, 500 biztanlez azpiko Maule ondoko herrian. Bertsozale Elkarteak herrialde eta neurri ezberdinetako herrietan antolatu ditu Bertsolari Txapelketa Nagusiko saioak. Hori bai, edozein herrik hartuko luke beretzat txapelketako saioa jokatuko den gela. Xiru jaialdia hartzen du urtero eta bertan aritu izan da Euskal Herriko eta atzerriko artista asko.

Abotia kultur elkarteko lagunek prestatu dute taberna. Saio aurreko kafea, eta ondoreneko otartekoa. Halere, aretoan egiten duen beroak lanean jarri du garagardo upategia. Ilara luzeak egin dira komunean, zerbaiten seinale da hori. Atarian Euskaldunon Topaguneko lagunek Euskaraldia iragartzeko karpa jarri dute. Hitzunak aktibatzeke ariketa jendetsua egingo da udazkenean, azaroaren 18tik abenduaren 2ra.

Euskal Irratiak-eko lagunek zuzenean eskaini dute saioa. Antza arazoak izan dira Internetarekin eta emisioa ez da espero zen kalitatekoa izan. Halere, ez da arazorik izan Maindi Murua eta Ramuntxo Christyren iruzkinak entzuteko.

Getxoko aldetaren buelta gertatu da kartelean. Eneko Lazkoz ariko da Patxi Iriart, Ane Labaka, Julio Soto, Nerea Ibarzabal eta Oihana Iguaranekin batera. Aritz Bidegainen esanetara osatu dute saioa. Zoragarri osatu ere. Gaur arteko saiorik ederrena izan da, zortziko handitik bakarkakoetara saio osoa egin dute bertsolariek. Nerea Ibarzabal gailendu da eta lau bertsolari arazorik gabe pasako dira finalurrekoetara.

HASIERAKO AGURRAK

P. Iriart

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Norbere mundu intimo*

Arratsalde on, Gotaine
ze kaztinga! A ze plana!
Nafarroako zalduna
eta errege izana
Gipuzkoko bi anddere
nabela eta labana
neskenegünin, nola ez
Bizkaiako lehen dama
eta ni denen artean
norte urruneko xarma.
Gaur ez dut ü-rik eginen
erre³ bada aski zama
Matalazik gabe nator
jaunttoen lurretan barna
etxetiar kasuala
zuen zerbitzura emana. (bis)

3 Frantsesezko ahoskera ubularra nabarmendu zuen
(rr-ak ahoskera hortzobikaria du hego Euskal Herrian)

O. Iguaran

Neurria: Hamahirukoa, berdinaren moldekoa, zazpi puntuz

Doinua: *Hor bide eguzkitsu bat*

Hor bide eguzkitsu bat
bertsoaren ibileran
ortzimugan zuriz deika
Pirineoak ileran
hitzak gure ganbarara
datoz oinez eskileran (bis)
artean egonak ziegan
hazten nabaritzen dugu
txorrotxio bat guregan.
Airea bete nahi dugu
zuek ikusteko eran
zabal ditzagun kaiolak
ta has daitezela hegan (bis)
(zuek ikusteko eran).⁴

⁴ Aurrez kantatu puntua errepikatu zuen.

ZORTZIKO HANDIA

O. Iguaran – N. Ibarzabal

Gaia: Oihana eta Nerea, senideak zarete. Amak hazi eta hezi zaituzte. Zuen aita ez da orain arte zuen bizitzan agertu. Orain, adinean gora egin duenean, zuengana gerturatzeko hasi da. Zuk, Oihana, ez duzu ezer jakin nahi aitaz; Nerea, berriz, aitarekin egon nahian dago.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Oraindik hango oihartzun hots bat*

O. Iguaran

Bera hutsune ta beltzune da
bion haurtzaro alaietan
bi alabatxo jolasti zeuzkan
eta ez zun egon nahi han
deika aritu naiz amets gaiztotan
azalpen bat jaso nahian
orain ez diot deirik egingo
behar ez dudana garaietan.

N. Ibarzabal

Baina pertsona bakoitzak dauzka
arrazoiak, iragana
oin umil-umil gerturatu da
aita gurea gugana
zaharra dago ta helduko da
laster hiltzearen zama
hor betirako damutuko zait
hitzik egin ez izana.

O. Iguaran

Zahartu eta gugana dator
barkamen zein zaintza xede
bere hutsuneak zauri modura
ja ez du aski botere
hil balitz ere, zer ajola du?
Hori ez al da bizilege?
Hogei urtean ez dugu jakin
bizirik zegoen ere.

N. Ibarzabal

Ez genekien non zebilen ta
gugan mamu bat genuen
ta bat-batean haragizko da
parean, hor bost zentzumen
nik gure aurrean eduki nahi dut
eta ahalik gertuen
berandu, baina ulertu dezan
berak zenbat galdu duen.

O. Iguaran

Zuk esan duzu gu galdu gaitu
ta barkamena da luxu
nik nahiago dut amari eman
lehen hark eman beste muxu.
Baina premia sumatzen dizut
ta lasaitzen bazaitu zu
zu laguntzera joan ninteke
ta ondoan izango nauzu.

N. Ibarzabal

Ba beharbada eskertuko dut
zure presentzi hurbila
agure hori datorrenean
burumakur ta umila
hainbeste urte pasa ta gero
nahi lukeen barkamen bila
besarkada bat emango diot
eta lasai hil dadila.



ZORTZIKO TXIKIA

P. Iriart – O. Iguaran

Gaia: Patxi eta Oihana, irakasleak zarete. Usu egiten duzue topo irakasle gelako kafe makinan. Patxi, gaur ere, aste honetan hirugarrenez, Oihanak txanponik ez duela eta, kafe bat aterako ote diozun eskatu dizu.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Gizona da zoroa*

P. Iriart

Begiratu egin dit
beste behin begira
eta honek ze nahi duen
bederen argi da
lankideak gira ta
ze alternatiba!
Zu ikasleak baino
txarragoa zira. (bis)

O. Iguaran

Ez, lankidetzan ona
naizela badakit
ta azalduko dizut
joko hau zergatik:
txanpon hotsa dakarzu
bi patriketatik
lankide bati zama
arintzeagatik. (bis)

P. Iriart

Zuk pentsu duzu dela
hau zure etxea
eta zuk patriketan
duzuna haizea
ez nuen pensatuko
hontara heltzea
ta gainera nahiko du
kafekonletxea. (bis)

O. Iguaran

Esne tanta batekin
juxtu mantxatua
epaitu nahi al dezu
gustua, hautua?
Hogei xentimogatik
holako tratua!
Hartu behar zenuke
deskafeinatua. (bis)

P. Iriart

Nik ez nuen espero
hain buru gogorrik
bainan ezin segitu
horrela beharrik
kontra egiteko're
gehio ez dut indarrik
zurekin gehio ez dut
nik kafe beharrik. (bis)

O. Iguaran

Patxi ez hartu gaizki
ez al da jokoa?
Kafe garaia ez bedi
izan oztopoa
zuk bi hilez ordaindu
egunerokoa
ze txanponen faltan det
hogei eurokoa. (bis)

N. Ibarzabal – J. Soto

Gaia: Nerea eta Julio, mendira elkarrekin joaten zarete. Aurreko bi saiakeretan galdurik egon ondotik, mendi itzuli bera egiteko gelditu zarete. Nerea, aldi honetan, Juliok dena ongi begiratu eta prestatu duela esan dizu, baina gaur ere galdu egin zarete.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Nere senarrarekin I*

N. Ibarzabal

Hirugarren aldian
esan dugu “Guazen!”
zazpi aldiz behatu
duzu Google Mapsen
eta berriro galdu
zer zaigu gertatzen?
Badaezpada hasiko naiz
papurrak botatzen. (bis)

J. Soto

Bide eman ez hemengo
tontor ta eguzkik
galdu garela eta
demandan zatozkit
bisitatu gaituzte
hiru tanta bustik
eta argibideak
urratu egin zaizkit. (bis)

N. Ibarzabal

Euria hasi digu
orain berehala
ba apokalipsiak
harrapa gaitzala.
Zorrotz ta altu zaude
zuk duzun itzala
baliagarri da eguzki
erloju bezala. (bis)

J. Soto

Gure Salomon botak
gure galtza Trango
Orhira egin dugu
beste behin’e txango.
Baina ez zaitez kezkatu
prestatuta nago:
gailurra ikusiko dut
zuk baino lehenago. (bis)

N. Ibarzabal

Altua zarelako
eta tipi-tapa
bizkor egiten duzu
mendiko etapa
gailurrera hel gaitzeko
baina a ze marka!
Hiru putre dauzkagu
buruan bueltaka. (bis)

J. Soto

Ez dut entzuten zu zer
zabiltzan esaten
nahiz badaukazun igual
nik aina azalpen
mundura sortu nintzen
gizona behin baten
ta ez nuen ikasi
atzetik joaten. (bis)

BAKARKA, GAIA ETA PUNTUA EMANDA

J. Soto

Gaia: Online bideo-jokoak

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

Lagunekin batera partida berean

jolasten hasten gara
roboten legean
moda horixe dago
gaur gure mendean
elkarrekin, bai, baina
bakoitza berean.

Tamainan aritzea ez da gauza txarra

baina pantailak luza
ohi du hatzaparra
ahaztu arte zein den
zuk duzun biharra
uste dut badugula
hausnartu beharra.

Mundu birtualean bizi dira asko.

Mundu birtual hori
al den egiazko
aspaldian jartzen dut
nahiko zalantzazko.
Mundu diferente bat
nahi nuke biharko.



HAMARREKO TXIKIA

E. Lazkoz – O. Iguaran

Gaia: Eneko eta Oihana, zazpi urte elkarrekin daraman bikotea zarete. Eneko, bikote-krisiaz hainbeste entzun ondotik beldurtuta zaude azkenaldian, horregatik Oihanak zuen bizitzan biper pixka bat sartzea proposatu dizu.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Gizakiak harri bat*

E. Lazkoz

Zazpi urtean biok
elkarren gertuko
ta beldur naiz ez ote
zaigun hau lehertuko
ikara horrek nola
ez nau beldurtuko?
Nahiz ta piper pixka bat
badudan gustuko
piper gehiegik ez al
gaitu pipertuko? (bis)

O. Iguaran

Bikote asko dago
pausa bat egina
ta nere zalantzetan
dauka eragina.
Elkarrekin egingo
degu ahalegina
piperrak ez du zertan
atera hain mina
mina ta pikantea
ez dira berdina. (bis)

E. Lazkoz

Ta pikante-pikante
zabiltza kantari
piperminetik ekin
nahian geroari.
Gu akomodatuta
gabiltza aspaldi
zergatik dugu hobe
ekin berriari
ta ez eutsi gaur arte
ongi joan denari? (bis)

O. Iguaran

Gurea ez nuke nahi
ikusi etena
ta errutinak zabaldu
ohi du erretena
beldur naiz distantzia
ekar lezakeena
nabaritzen hasia
nago udazkena...
Noiz harritu zintudan
Eneko, azkena? (bis)

E. Lazkoz

Pasa ditugu hainbat
harridura aro
baina horiek gertatu
ohi ziren lehenago.
Azken aldian gabiltz
itxaro ta itxaro
eta aukeratxo bat
ematear nago
zuk beti duzulako
arrazoi gehiago. (bis)

O. Iguaran

Ta ez badut ere eman
badaezpada, kontuz!
Harri hortan ez dut nahi
nik egin estropuz
ez dut nahi gogoz kontra
aritu zu lotuz
baizik ta arrazoiak
egunero lortuz
elkarri deskubrituz
ta elkarrekin sortuz. (bis)

N. Ibarzabal – A. Labaka

Gaia: Nerea eta Ane, erretretadunak edo jubilatutakoak zarete. Duzuen diru sarrerarekin oinarrizko gastuak estaltzeko larri zabilzate. Nerea, gaur Anek erran dizu jantoki sozialean banatzen duten afari beroa hartzera joanen dela.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Lagundurikan danoi II*

N. Ibarzabal

Gure pentsiotxoak
bakarrik bi zero
umiliazio gorena
horixe honezkero.
Jantoki sozialean
jan ta salda bero
hontara iristerik
ez nuen espero
horrenbeste urtean
lan egin ta gero.

A. Labaka

Ja txekeek ez dute
nire zigilua
ta mila zati egin
ohi zait ispilua
bihotzean kolpeka
sentituz mailua.
Baina diruarena
ez da jostailua
prest nago irensteko
nere argulua.

N. Ibarzabal

Emakume helduak
argiak gara gu
urguilu bezain bake
handia daukagu
justu-justuan egin
pare bat enkargu
governua ez denez
egin gutaz kargu
orain karitateak
estali behar du.

A. Labaka

Governuak egin du
soilik paripea
zein da alargun batek
daukan limitea?
Nahiz ondo egin nuen
berez tramitea
duina izan liteke
harantz ekitea
beste aukera bada
barau egitea.

N. Ibarzabal

Baraua helduko da
agian gaur bertan
herriak segi behar
badu gaur zorretan
eta eskubideak
berriz oportetan
beraz bi pieza gaude
aulki motorretan
luzatzen etengabe
ilara horretan.

A. Labaka

Ta bitartean batzuk
hainbeste etekin!
Billeteak maiz sutan
baitira errekin
giza-piramideak
gu ez gaitu erpin.
Hementxe bi alargun
hemen bi erregin
lotsa ematen dit ta
etorri nerekin.

GANBARAKO LANA

N. Ibarzabal

Gaia: Medikuaen kontsultatik irten berri zara. Telefonoa sakelatik atera duzu.

Neurria: Hamalauko handia

Doinua: *Lurraren pean sar nindateke*

Hamasei urte baino ez dauzkat
ene ze nerabezaro!
Ta gau batean zu ezagutu
ta maitemindu zeharo.
Esku ta beso, hanka ta bular
elkartutako bi aho
gau batzuk baino ez ziren izan
ez zenuen nahi gehiago.
Gero hilekorik ez zen etorri
ta orduantxe akabo!
Gela hotz baten eduki naute
zeozeren zain luzaro.
Nahastu biok nahastu ginen
baina orain bakarrik nago. (bis)

Parean daukat zenbakia ta
ni zalantzaren menpeko
deitu dezaket gaur abortatu
ein dudala esateko
baina agian ez gara izango
sekula parez pareko
beraz, mobila berriro gorde
ta urruntzea hobeto.
Nerabea naiz, baina urte asko
dauzkat oraindik tarteko
eta neurriak hartuko ditut
berriz sexuan urtzeko
ta batez ere zure moduko
inor ez ezagutzeko. (bis)

Itxarongelan izan gaituzte
aulkietan zenbait jende
bakoitza bere tripari beha
hamaika beldurren mende.
Firmatu ditut horko paperak
horko baldintza ta lege
barruan dudan bizi papur hau
ezabatzea zen xede.
Orain mobila hartu dut eta
markatzeko ez naiz trebe.
Ze gauza eskatu diezazuket
ze hitz eta ze mesede?
Zu ez bazara kapaza izan
hona laguntzeko ere. (bis)

A. Labaka

Gaia: Medikuaren kontsultatik irten berri zara. Telefonoa sakelatik atera duzu.

Neurria: Hamalauko berdina, zazpi puntuz eta zortzi silabaz

Doinua: *Lumak ezin nindezakeen*

Kolore iluna hartzen
du bizitzaren oihanak
ta nahi ez dena erakartzen
digu sarritan imanak
azkenaldian bizitza
dira mediku programak
noiz etorri ta noiz joan
agintzen du kronogramak.
Nahiz eta gehienak diren
gris ta beltz kolore gamak
nahiz ta ama izan diren
nere inguruko danak
nik ere ama izan nahian
denbora asko daramat. (bis)

Berak ez zekien ezer
eta ez daki zer egin
batzutan nekeza baita
dena azaltzea hitzekin.
“Asko pozten naiz” esan dit
ta disimulatu ezin.
“Aita ere pozik dago
biok gaude elkarrekin”.
“Orain artean eginda
behar hainbeste ahalegin
nahiz ta ama bakar gisa
bide honi nion ekin
hurrengo kontsultetara
etorri zaitez nirekin”. (bis)

Gaurkoz enegarren aldiz
etorri naiz klinikara
ustez laguntza eskeini
behar zidan kontsultara
orain artean izan det
lagun bakartzat almuada
eta mamu bilakatu
zaizkit hainbeste izara!
Ama izan nahi nuen ta
bidean hainbeste traba!
Gaur hemendik irtetean
telefonoak dardara
amari esan baitiot
“Amona izango zara”. (bis)





Amaia Iturriotz Etxarri



Haritz Mujika Lasa



Iban Urdangarin Lardizabal



Manex Agirre Arriolabengoa



Miren Artetxe Sarasola



Xabat Gallettebeitia Abaroa

GASTEIZ

2022/10/02, IGANDEA, 17:00

**MARIA DE MAEZTU ENTZUNARETOA - EUROPA BILTZAR JAUREGIA
LEHENENGO FASEA. LAUGARREN SAIOA**

Bertsolariak:

Amaia Iturriotz Etxarri

Haritz Mujika Lasa

Iban Urdangarin Lardizabal

Manex Agirre Arriolabengoa

Miren Artetxe Sarasola

Xabat Gallettebeitia Abaroa

Gai emalea: **Oier Azkarraga Grajales.**

Epaimahaiko kideak: **Egoitz Iradier Martinez de Albeniz, Eneko Bidegain Aire, Jurgi Fuentes Goikoetxea, Karlos Ibareguren Olalde, Leire Beloki Lizarralde, Miriam Juaristi Urizar eta Saioa Mitxelena Irazoki.**

Bertsolari Txapelketa Nagusiak ez du etenik. Kilometro mordoxka eginda dator bi saioak zuzenean entzutea erabaki duen zalea. Baina zuzenekoak ez da aukera bakarra. Igande bazkalostean bezperako bertsoaldi onenak eta bestelako edukiez gozatzeko aukera izaten da ETBko programarik zaharrenetakoan, Hitzetik Hortzeran alegia. Bakarren batek ez du lo handirik egin programako edukiak prestatzen: Eider Perezek Nerea Ibartzabal bezperako saioko lehen sailkatuari oholtzan egindako elkarrizketa ere txertatu dute bertsoaldi hautaketaren artean.

Europa pabiloian prest dira txapelketako uhinak jendea iristerako behar bezala antolatu dute dena profesionalek eta bolondresak. Maria de Maeztu entzunaretoan jokatu zen azken Arabako Bertsolari Txapelketaren finala, erreferentzia hura izango dute bertsozaleek eta bertsolariek. Areto berria da bertsozaleentzat, baina bi aldiz zapaldu dugu hilabete gutxiren tartean. Europa pabiloian bada aurrekaririk Txapelketa Nagusian: 2009. urtean jokatu zen finalaurrekoa. Ordutik berriro ederra eman diote.

Miren Artetxe, Xabat Gallettebeitia, Iban Urdangarin, Amaia Iturriotz, Haritz Mujika eta Manex Agirre aritu dira Oier Azkarragaren esanetara. Ez da bete-beteko saioa izan. Haritz Mujikak irabazi du eta Miren Artetxek ere finalaurrekoetan abestuko du.

HASIERAKO AGURRAK

M. Artetxe

Neurria: Hamabikoa, ertainaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Nehoiz ez da senditzen*

Haize eta harrizko mundu
zahar honen kapritxoak
itsas labarrak hitzak
hartxintxarrak ditxoak
xehezeko ardura du
bertsolarien soak.
Ea gaur erauz ditzakeen
gu guztion mintzoak
nola hitzetik mailuak
hala haizetik bertsoak
fikzio handi hontatik
egia zatitxo bat!

ZORTZIKO HANDIA

X. Galletebeitia - H. Mujika

Gaia: Gasteizen bizi den bikotea zarete. Urteetan izan duzuen autoa matxuratu da eta ez du konponbiderik. Zuk, Xabat, beste auto baten beharra ikusten duzu. Haritzek ez du batere argi.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Oihan beltzean zoinen eder den*

X. Galletebeitia

Hiri berdea dugu aspaldi
gure bizileku zoru
auto zahar hau maite genuen
hondatu da halamodu.
Ezinbestean ordezkoren bat
aurkitu behar diogu
ta Mercedesek justo ekoizpen
katea handituko du!

H. Mujika

Ustekabean izorratu da
etxeko Opel Corsita
baino gaitzerdi pisua degu
guk plazari itsatsita!
Zertarako da Mercedes Benz bat?
Hobe ibili jauzika!
Beste era baten molda gaitezke
hiri erdian bizita!

X. Galletebeitia

Baina hiria beti da hiri
kaltea zein bertutea
etxean, Haritz, aurrezte da
zure ohiko buklea.
Hala ere Opel Corsak bete du
bere hogeigarren urtea
gauza bat dugu zuhurra izatea
eta beste bat kutrea!

H. Mujika

Baina garraio publikoa ere
ederra dauka Arabak
ta bizikletaz pasa litezke
hiribuelako lautadak
utzi kotxea jantzi txandala
ta jarri sasoian Xabat!
Hondamenditik beti atera
bailiteke aukera bat.

X. Galletebeitia

Hondamendia kotxeak dauka
seguru ta atestatu
lanera nola joango garen
zerk behar dun ordezkatu
zugandik noski espero nuen
eta ezin naiz kezkatu
ta neure kasa erosten badut
baietz gero zuk eskatu!

H. Mujika

Keba, ez Xabat, niri ez eskatu
gidatzen hasi nadila
bateko dela depositua
ta zulatu den gurpila!
Baino hori bai zuk ekartzea
litzateke borobila
lana seiretan bukatuko det
eta pasa nire bila!

ZORTZIKO TXIKIA

I. Urdangarin - M. Artetxe

Gaia: Konfinamenduaren ondoren kirola egiten gogotsu hasi zineten. Geroztik horixe izaten da zuen asteburuetakoa plana. Zu Iban, festaren baten falta sumatzen hasi zara. Miren gustura dabil egungo bizimoduarekin.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Behin batean Loiolan III*

I. Urdangarin

Zapatilak jantzita
noiz pasako marra
kopeta izarditan
bustita bizkarra
baina gogoratu zait
tabernako barra
dantzan izerditzea
ere ez da txarra!

M. Artetxe

Zuk biak nahi dituzu
dantza eta zurrut
parrandero bizitza
lehendik duzu zuk!
Nik izerdiaren ta
ahaleginaren truk
Isostar tragotxo bat
hartuta aski dut!

I. Urdangarin

Gustora hasi ginen
kirolai ekinez
baina ez nabil zu bezain
gizabide finez!
Lehen kirolari nintzen
kirolari zinez
a ze kilometroak
eseak eginez!

M. Artetxe

Nik ere zuk bezala
ai! Iban, lehenago!
Alfabeto osoa
pasata nahiago
parranda ta kirola
biak hain oparo
hau adikzio gisa
onartua dago!

I. Urdangarin

Goazen parrandara
goazen honez gero
txupitoean faltarik
ez zazu espero
eta dantza eginda
ez bazaude bero
bizkarrean eraman
nazakezu gero.

M. Artetxe

Barkatu baina biok
lagunak bagara
utzidazu joaten
hona eta hara
eta gizon probekin
ni pakean laga!
Lasto fardoa baino
astunagoa da!

H. Mujika - M. Agirre

Gaia: Haritz, Manexek zurekin egoteko gogoia zuela eta, elkarrekin oporretara joateko konbentzitu zintuen. Lau egun daramatzazue oporretan eta Manex hirugarren liburua irakurtzen hasi da.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orioko balearena*

H. Mujika

Amesten nitun musu
amets ta igurtzi
baino oporrak hori
ez du erakutsi.
Lehen gutxi egoten ginen
orain oso gutxi
azala beste ezer
ez dizut ikusi.

M. Agirre

Eta azal ederra
ez zazu egin duda
nik ere egin nahi nuen
festa, abentura!
Baina berehala joan naiz
nire liburura
zure argumentua
azkar bukatu da!

H. Mujika

Akabo argumentua
akabo patxada
zure jarrerak joder
egiten dit traba
Pragara etorri eta
eskutan Obaba
Asteasutik hortako
atera al gara?

M. Agirre

Asteasutik pozik
nator atzerrira
baina lerro artean
nolako disdira
nire opor idealak
hauek dira, tira!
Ni irakurtzen ta zu
ondoan begira!

H. Mujika

Ba nik ez det ikusten
horren balioa
amesten nun masaje
eta olioia
ta hara ondoan hemen
supergarfioa
idatz dezagun honen
epitafioa!

M. Agirre

Etxera bueltatzea
nahi zenuke, en fin!
Ba ez, ni gustora nago
gaur Haritz zurekin
etorri ondo-ondora
liburuarekin
ta disfrutatu nire
konpainiarekin!

HAMARREKO TXIKIA

A. Iturriotz - H. Mujika

Gaia: Zu, Amaia, ikastetxeko zuzendaria zara eta Haritz, eskola-kiroleko arduraduna.
Amaia, udan jolastokia eraberritu duzue, berdegune eta txoko lasai gehiago sortuz.
Gaur Haritz etorri zaizu eskola-kirolerako nahikoa lekurik ez dagoela esanez.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Lagundurikan danoi II*

A. Iturriotz

Kezkatuta etorri
zera zu benetan
ta halaxe jarri gara
gu biok hizketan
berritu berri dugun
zelai hontan bertan.
Nahiko larri zabilta
zure kirolean
mundua ez dabil zure
inguruan bueltan!

H. Mujika

Baloi zein bateari
eskuekin heldu
gorputzen mugimendu
ta hanken ubeldu
haien onurez luze
jardun dezakegu
ta umeekin ordu
luzeetan gaude gu
ta ohitura onak hartzen
laguntzen diegu.



A. Iturriotz

Ez al zaizu gustatu
parkean dagona
hau da aldaketa bat
eman geniona
ez dago porteri ta
frontoieko horma
baina berdin-berdin da
umeentzat ona
alda diezaiogun
kirolari forma!

H. Mujika

Ni ez naiz ari zuri
erasotzen, mintzen
gure egoera zein den
esaten ai nintzen:
hirurogehi haur hemen
ez gera kabitzen
beraz hasi zelaia
berriro haunditzen
edo lagundu'idazu
taldeak txikitzen!

A. Iturriotz

Ez pentsa ez dizudanik
zuri entzun adi
taldeak daukazula
oso-oso handi.
Parkea hortxe dago
eta da nabari
ta kantxa behar duzu
ulertu dut argi
ta eskatuko diot
udaletxeari!

H. Mujika

Beraz, haiei eskatu
biontzat pakea
ta Amaia nirekin
lagun ein zaitea!
Haunditu espazioak
belarra, parkea...
Kirolaren lekuan
dantza ta artea
biontzat ona izan
leike enpatea!



GANBARAKO LANA

I. Urdangarin

Gaia: Diru kantitate handia eskaini dizute. Onartu egin duzu.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *ETAren su-etenetik*

Bertsolariak badaki
famatu samarra dala
baina diru kontuetan
igarra eta makala
gerria mehea dadukat
eta bizkarra zabala
perfilez ateratzeko
nahiko mutiko formala
nahiz nik ere badakidan
mitxelinak ditudala
latza egin beharrean nago
eskatu didate, hala:
biluzik bete behar det
Interviuko azala!

Nahiz etxekoek eskuak
bota dituzten buru'a
hau pasatuta nerea
izan behar da mundua!
Kaleratzen denean, bai
lehenbiziko apurua
baina ezkutatzea da
nik daukadan helburua
piña kolada basoan
whiskia eta purua...
Berriz hemen ikustea
ez da oso segurua
inpernura joan aurretik
bizi behar det zerua!

Hartu ditut prestatzaile
masajista ta mediku
soineko kamisetetan
ia ezin naiz kabitu
makillaje mordo batek
itzalak dizkit garbitu
han azalduko naiz eta
ez zaitez tela harritu!
Bostehun milioi izan dira
aditu ondo, aditu!
Lotsa ba omen da baina
nerean ez da gelditu
diruak munduko lotsa
guztiak tapatzen ditu.



eus

X. Galletebeitia

Gaia: Diru kantitate handia eskaini dizute. Onartu egin duzu.

Neurria: Hamahirukoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz

Doinua: *Bizkorra ez naiz baina badaukat*

Zin egin nuen eta kantatu
himnoaren abestia
oposaketak gainditu eta
hain zetorren lan ezta...
Orduz geroztik gaizkileei
ematen diet ostia
gure herrian hain hedatua
da drogaren industria...
Ertzaintzan, ze angustia! (bis)
Hartu ohi dugu urre gorritzko
hauts puru bezain bustia
ta biltegian ez da kabitzen
atzemandako guztia!

Ertzaintza gara ta herritarrak
baino ez ditugu entzuten
soldata kutre samarra dugu
ea igotzen diguten!
Ta langileak ez al gara gu?
Bagabiltza bizirauten!
Bokazioa ahaztu dezaket
bizitza badut iraupen
jauzia eman dut aurten. (bis)
Drogaz ez, baina nola gaur diruz
ondo ordainduko nauten
beste aldera begiratzeko guk
ikasi dugu Arkauten!

Hedabideetan aspaldi hontan
jarri gaituzte jomugan
ote gabiltza lana medio
gaizkileekin joskuran?
Lankideek zer egiten dudan
oso ondo dakigu han
Barne Sailera abiatu naiz
larri ta abiaduran
guztia kontatu guran (bis)
erantzunen bat jasotzekotan
hor gelditu naiz zain, dudan
ta esan didate ea nik ere
nire parte nahi dudan!





Aitor Etxebarriazarraga Gabiola



Beñat Iguaran Amondarain



Eñaut Martikorena Lizaso



Jone Uria Albizuri



Maddalen Arzallus Antia



Onintza Enbeita Maguregi

DONOSTIA

2022/10/08, LARUNBATA, 17:00

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

LEHENENGO FASEA. BOSTGARREN SAIOA

Bertsolariak:

Aitor Etxebarriazarraga Gabiola

Beñat Iguaran Amondarain

Eñaut Martikorena Lizaso

Jone Uria Albizuri

Maddalen Arzallus Antia

Onintza Enbeita Maguregi

Gai-emailea: **Leire Garatxena Larrabe.**

Epaimahaiko kideak: **Egoitz Iradier Martinez de Albeniz, Eneko Bidegain Aire, Jurgi Fuentes Goikoetxea, Karlos Iburguren Olalde, Leire Beloki Lizarralde, Miriam Juaristi Urizar eta Saioa Mitxelena Irazoki.**

Gipuzkoako hiriburuan jokatu ziren Txapelketa Nagusiaren lehen finalak, 2005. urtean Barakaldon egin zen arte. 2009. urtean finalaurrekoa jokatu zen Antonio Elortza belodromoan. Geroztik ez du txapelketak geldialdirik egin Bilintxen jaioterrian. Gaur Victoria Eugenia antzokiak zabaldu dizkio ateak. Agurrean izan da garai bateko txapelketen erreferentziarik.

900 bertsozale inguru bilduko dira tertziopelo gorritan. Ez dago sarrerarik, ez da takilarik zabaldu. www.eitb.eus eta www.bertsoa.eus atarian zuzenean ikusi ahalko da saioa. Antolakuntzak eskainitako datuaren arabera 1300 lagunek jarraitu dute ekitaldia internet bitartez.

Ederra da estanpa. Butakak, plateak eta oilategia goraino beteta sartu dira sei bertsolariak mimoz prestatutako oholtzara. Eñaut Martikorena, Maddalen Arzallus, Aitor Etxeberriazaga, Jone Uria, Beñat Iguaran eta Onintza Enbeita egokitu dira Leire Garatxenak aurkeztu duen saioan.

Ederra izan da saioa, txaloz hartu du publikoak bertsolarien lana. Jone Uriak lortu du puntu gehien eta bost bertsolarik egingo dute aurrera hemengo seikotetik.

HASIERAKO AGURRA

B. Iguaran

Neurria: Hamabikoa, ertainaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Nehoiz ez da senditzen*

Arratsalde on danoi
joe a ze glamurra!
Sarrerik ez zegola
nunbait ez zan gezurra
lasai bertsuan erdian
ximurtze ba't sudurra
edo mikruan aurrian
jartzen badet muturra
giro berua dago
exitua ziuorra
ondoegi egiteak
ematen dit bildurra.



ZORTZIKO HANDIA

On. Enbeita – M. Arzallus

Gaia: Berrogeina urteko bikotea zarete. Ekonomikoki oso une larria bizi duzue eta ez dirudi etorkizun hurbilean hobera egingo duenik. Zuk, Onintza, hala ere, guraso izan nahi duzu; Maddalenek, berriz, ez du uste une egokia denik.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Beste bateko inularretan*

On. Enbeita:

Berrogei urte bete ditugu
ez gara gazte nerabe
ta egin nahiko nituzkeen gauzak
oraindik ere hor daude
guraso izaten saia gaitezen
Maialen suabe-suabe
gu ere hezi gintuzten eta
oraingo koplarik gabe. (bis)

M. Arzallus

Onintza ongi uler dezaket
orain esaten duzuna
gutxi izanik ere saltoka
pasatzen nuen eguna
baina kontutan hartu itzazu
jana eta osasuna
haur bat hazteko ez dira aski
gogoia ta maitasuna. (bis)

On. Enbeita

Gure egoera ez da izango
idilikoa, itzela
baina badakit gura ezkerro
ondo egingo genukeela
ekar dezagun neska, ume bat
denek diote horrela:
beso azpian ogi batekin
jaiotzen omen direla. (bis)

M. Arzallus

Zuk haunditu nahi zenuke beraz
orain daukagun sendia
ba Onintza neri iruditzen zait
gailur gabeko mendia
ogi batekin etortzen dela
nahiz eta ez den egia
nere haurrari ez diot emango
beti atzoko ogia. (bis)

On. Enbeita

Baina akaso bizi gintezke
kapritxo gutxitxo janda
ken dezakegu arropa pixka't
ken dezakegu parranda
ta igual ondo beteko dugu
guk umearen demanda
gu biongandik zerbait kenduta
berari asko emanda. (bis)

M. Arzallus

Baina emateko guk ez daukagu
ez janari ta ez diru
eta emango genizkioke
bai gose ta bai kastigu
bi sartzen diren lekuan hiru
sartzen dira, badakigu
baina ez gara bi sartzen eta
ezin gara sartu hiru. (bis)

E. Martikorena – J. Uria

Gaia: Eñaut eta Jone urte luzez politikari ezagunak izan zineten. Gaur egun, ordea, gutxik dakite nor zireten. Zuri Eñaut zer pentsatua ematen dizu, Joneri berdin zaio.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

E. Martikorena

Orain urtea lortu genuen
parlamentuko epela
eta sekula ez det eduki
baldintzaz hain lan itzela
baina gaur ez gera ezaguna
ta haiantzat ze krudela
ez al dakite oraindik ere
guri ordaintzen daudela?

J. Uria

Arrazoi duzu lana ez genuen
sekula egin debalde
parlamentuan ta senatuan
ibiliak aldez alde
ez zait inporta ez ezagutzea
topatua parez pare
ni oso ondo nago Petronorren
diana baten egon gabe.

E. Martikorena

Bai nik e oso ondo betetze t
oraindikan poltsikoa
baina erabat galdu gabe det
gazte garai etikoa
ta bakarrikan nagon uneetan
irteten zait instintoa
ze bajua den gizarte hontan
kultura politikoa!

J. Uria

Jendeak ez du ondo bereizten
aurrea eta atzea
hori tristea dugula izan
dugu zure balantzea
nahi bazenuen jendea zutaz
gerora gogoratzea
hobe zenuen Rajoyren gisan
tarteka hanka sartzea.

E. Martikorena

Ez, nik sartzen nun hanka sarritan
Rajoyek baino maizago
nahiz ortografi azterketak nik
igual pasa errexago
nahiz ta berari deitzen dioten
presidente akats, babo!
Bai, aitortzen det protagonismo
faltan inbiditan nago.

J. Uria

Eta horrela ikusi besteen
aipu, aipamen, argazki
zer nahi zenukeen nahiz ta ez dudan
Eñaut ulertzen zehazki
amorratuta penatan zaude
ni ez nago horren gaizki
batzuk egoa behar duzue
nik diruarekin aski.



ZORTZIKO TXIKIA

M. Arzallus - E. Martikorena

Gaia: Maddalen eta Eñaut pisukideak zarete. Maddalen, gaur Eñauti tokatzen zitzaion afaria prestatzea. Gustatzen ez zaizula badakien arren, berriro ere patata tortilla tipularekin egin du.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Gizona da zoroa*

M. Arzallus

Um! Patata tortilla
nolako suertea!
Sukaldaria dugu
ona ta fuertea
tipula jarri duzu
ai Eñaut maitea
nahi al zenuen berriz
negar egitea? (bis)

E. Martikorena

Hau ez da Juantxokoen
etxera zerbitzu
iya hogeita hamar eta
tipularen izu
adintxoak daukazu
ta zer darabilzu?
Denetik jan behar da
hoi're ez al dakizu? (bis)

M. Arzallus

Oso lotsagabea
da gure mutila
eta ez da geratzen
gainera isila
denetik jan behar da
bai mutil abila
eta ez eguneroko
patata tortilla! (bis)

E. Martikorena

Hara barreek neregana
nolako itzala
prestatzen det onena
banintza bezala
euskal kulturara honek
esan nahi du hala:
ilargira ta bueltan
maite zaitudala. (bis)

M. Arzallus

Eta orain bota dit
sekulako lora
tira egin behar dut
orduak aproba
tortilla ekarri zazu
platera ondora
bai bihar gosaltzeko
ona egongo da. (bis)

E. Martikorena

Pisukide latza naiz
kontu nabaria
sukaldean denetan
hain trebe aria
neri gaur tokatua
gaurko afaria
gainera inda dezu
bihar gosaria. (bis)

BAKARKA, GAIA ETA PUNTUA EMANDA

A. Etxeberriazarraga

Gaia: Izan Bidea ekimena

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

Ekimenak Illunben du gaur amaiera

ibilian-ibilian
zebilen bidera
atera ginen denok
aldarrikatzera
euskal preso guztiak
ekartzeko etxera.

Eskubideen alde pausoak emanez

zigor neurrigabe hau
luze zijoanez
irauli behar izan da
herriaren lanez
eman nahi ez zutena
eskatzera joanez.

Etixerako garaia ez al dute jada?

Hortarako garaia
aspaldi pasa da
denok batera eman
oin azken bultzada
ta ohartu orduko denok
elkartuko gara.



On. Enbeita

Gaia: Zahartzea

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

**Onartuko bagenu
nork bere adina**

askoz ere hobeak
ginake jakina
baina zahartzaroa
onartu ezina
gure gizartearen
gaur egungo mina.

**Alferrik ez da eta
pasatzen denbora**

pasatzea gainera
ona izango da
nahiz ta beti ez garen
gaztetako lora
zahartuko ez dena
joan zen zulora.

**Eder senti gaitezke
adin guztietan**

hori pentsatzen dugu
guztiok gaztetan
baina edertasunik
ba al da zimurretan?
Igual adibide bat
neu nauzue bertan.

HAMARREKO TXIKIA

A. Etxebarriazarraga - On. Enbeita

Gaia: Aitor eta Onintza kirolariak zarete. Adinean gora joanagatik ere oso errendimendu ona ari zarete izaten. Aitor, Onintzak esan dizu hasi berri den denboraldi hau izango duela azkena.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Agur sagar beltzeran*

A. Etxebarriazarraga

Nola likra azalera
itsasten den udan
maratoietan nahi dut
segi itsasten zugaran
geneukanak elite
kirola jomugan
utzi behar duzula
ta utzi nauzu dudan
nik ez dakit zu gabe
jarraitu ahalko dudan.

On. Enbeita:

Begira, kostatu zait
ondo pentsatzea
eta erabaki bat
hotzean hartzea
nahiz eta polita den
dominak batzea
maratoiak han dauka
beti bere atzea
eta gurako nuke
duin amaitzea.

A. Etxebarriazarraga

Baina ez ote da hau
gustatzen zaiguna?
Esfortzua, nekea
domina, podiuma...
Oraindik begibistan
duzu osasuna
ta nahiz ta nabaritu
argi daukazuna
non askatuko duzu
lehiakortasuna?

On. Enbeita


Entrenamenduetan
hartuta pasada
etxera erdi nekez
beti joaten gara
kirolari begira
hona eta hara
baina egungo bizitza
bera ere zer da ba?
Bizirik irautea
nahikoa lehia da.

A. Etxebarriazarraga

Ni ere banaiz baina
zu besteko adina
leihakor, eta ez da
pisutsu adina
behintzat piztu nahi dizut
despedida grina
batera egin dezagun
azken ahalegina
lortu dezazun azken
urrezko domina.

On. Enbeita:

Gura eta ezinak
ematen du pena
ta amaieran litzake
oso nabarmena
bakarrik ein nahi nuke
neuk ahal nukeena
orain arte iraun dut
lehietan barrena
ta hori da niretzat
domina onena.



B. Iguaran - E. Martikorena

Gaia: Beñat eta Eñaut. Beñat biloba eta Eñaut aitona zarete. Beñat, Eñaut duela urte batzuk alargundu zen. Gaur eskatu dizu bikotekidea bilatzeko aplikazio batean profila sortzen laguntzeko.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Agur sagar beltzeran*

B. Iguaran

Hontaz hitz egin degu
tarteka-tarteka
ta orain etorri zera
irrikaz beteta
nik sortu, sor nezake
eta eman buelta
baino ekarriko dizu
ziur desoreka
whatsappak erantzuten
ez dakizu eta.

E. Martikorena

Nahiz ta teknologian
ni ez nabarmendu
daukadan akats hori
nahi nuke zuzendu
nolabaitean beldur
hoyek danak kendu
ligoteo kontuan
ze entretenimendu!
Zui baliyo bazizun
latz funtzionatzen du!



B. Iguaran

Oso politta ez naiz
attonan antzera
kalabazakin sarri
joana etxera
baina ez nuen uste
hontara heltzera
ligatuz ibili nahi
aurrera-atzera
baino nola izate' zan
go'atze' al zera?

E. Martikorena

Nahiz kimikarik gabe
ez asko zurrundu
oraindik gogoz ez naiz
geyegi urrundu
ta ez ditut nahi ametsak
alperrik lurrundu
denbo gutxi daukat ja
laster agur mundu!
Attonak behar du ta
mesedez lagundu.

B. Iguaran

Attonak eskatuta
ondotik horrela
jakizu saiakera
bat izango dela
Tinder jarriko dizut
nahi dezun bezela
ta iruditzen bazaizu
kristoren pastela
First Dates-era⁵ joan
zintezke bestela.

E. Martikorena

Ez hor ikusiko nau
oso'ik familiak
nik ezkutuan bildu
nahi ditut liliak
bukaera izan dezan
nere bijiliak
berriz ere sentitu
nik kili-kiliak
hemen guztitakuak
baitira filiak.

⁵ Cuatro Espainiako telebista kateko saioa.

GANBARAKO LANA

E. Martikorena

Gaia: Badakizu min egingo diola, baina pentsatzen duzuna esatea erabaki duzu.

Neurria: Hamalaukoa, handiaren moldekoa, 9 puntuz

Doinua: *Munduko ilunabarra*

Nahiz justu-justu kabitu
asko kostata erditu
baneukan nahiko meritu
bultzaka nintzen harritu
inguru horta' gerturatuak
erizain eta mediku
hankatik jarri zintzilik eta
toailarekin garbitu
arnasa azkar hartu zuen ta
ez nintzan asko larritu
baina denbora badoa eta
bera ezin da mugitu
oraindik ere etxen bizi da
ta hogeita zazpi ditu! (bis)

Txapelketa zun gainera
ta publikoa gainera
nahiz ta ez dan jun gainbehera
ta be ustez in aurrera
agurra fuerte bota du baina
puntuatutan txarrera
gixarajuak honetan ere
topatu baitu barrera
erdi negarrez hor iritsi zait
afalorduan etxera
esan behar diot "Lasaitu zaitez
ume koskor bat ez zera
ta han bialdu'izuten bezela
zoaz hemendik kalera!". (bis)

Ikasi ingeneritza
nahiz ta maite duen hitza
hortxe joan zan bere gisa
unian nahiko ekintza
nahiz ta jadanik izango duen
maisua aina jakintza
obsesiboki maite du harek
izan' e bertsolaritza
gero lanikan ez du topatzen
gaztiak hola dabilta
ta hau etxian tokatzea're
benetan ez al da grisa?
Ai lanerako bertsotan aina
hau saiatuko balitza! (bis)

J. Uria

Gaia: Badakizu min egingo diola, baina pentsatzen duzuna esatea erabaki duzu.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Ze ederra ta ze polita*

Denbora ez da joaten
sarritan nahi bezain geldo
nork non bukatuko duen
sarri ezin da espero
gaztetan ibiltzen ginen
han ta hemen juergan bero
gazte garaian hori da
gauza normalena edo
baina hogeita hamar urte
badauzkagu honezkero
eta berak segitzen du
garai baten bezain ero
lehen hona-hara genbiltzan
dana juerga, *dale fuego!*
Lehen asteburuero zen
baina orain egunero.

Ta kontatu dizkit mila
aitzaki ta istorio
nere hitzek izan dute
aski oihartzun, ondorio
segundu baten bihurtu
nauelako arerio
egiak min ematen du
eta ze erremedio
baina zer egin nezakeen
bestela ze demonio!
Nahiz eta haserretu den
nire esaldia medio
bere oraingo haserreak
ez dit gehiegi balio
gaur mina egin dionak
bihar laguntzen badio.

Garai baten soilik zena
dibertsioko formula
Garazirentzat orain da
eguneko pelikula
askok bizkarrera zenbat
kritika ta zenbat burla
baina daukana zera da
adikzio bat mardula
gauean speeda dena
goizez resaka pilula
aldatu beharko luke
bebingoan bere brujula
hala esan diot hartuz
ahots goxo ta ahula
“Ez al zara konturatzen
arazo bat daukazula?”.



Aitor Bizkarra Ruiz



Asier Azpiroz Iztueta



Imanol Uria Albizuri



Iñigo Mantzizidor Larrañaga *Mantxi*



Maialen Akizu Bidegain



Unai Gaztelumendi Arandia

LIZARRA

2022/10/09, IGANDEA, 17:00

LOS LLANOS ARETOA

LEHENENGO FASEA. SEIGARREN SAIOA

Bertsolariak:

Aitor Bizkarra Ruiz

Asier Azpiroz Iztueta

Imanol Uria Albizuri

Iñigo Mantzizidor Larrañaga Mantxi

Maialen Akizu Bidegain

Unai Gaztelumendi Arandia

Gai-emailea: **Amaiur Lujanbio Agirre.**

Epaimahaiko kideak: **Egoitz Iradier Martinez de Albeniz, Eneko Bidegain Aire, Jurgi Fuentes Goikoetxea, Karlos Iburguren Olalde, Leire Beloki Lizarralde, Miriam Juaristi Urizar eta Saioa Mitxelena Irazoki.**

Lehen aldiz jokatu da Lizarran Bertsolari Txapelketa Nagusiko saio bat. Bertsozaleak kilometro mordoxka egin ditu lehen fase honetan, larunbat eta igande beteta edo betetzear izan dira aretoak. Gasolinaren prezioa ikusita eskertzekoa da saioz saio zaleek emandako erantzuna. Aretotik kanpo ere aukera handiak baitaude bertsoaldiak entzuteko. www.bertsoa.eus ataria da erreferentzia nagusia eta kudeatzaileen datuen arabera eta azken txapelketa nagusiko datuekin alderatuta, %25 hazi da bisita kopurua.

Eguzkitsu dago igande arratsaldea, gozo, bero handiegirik gabe. Parke ederrak daude Los Llanos aretoaren inguruan, baina bertsozalea iritsi ahala sartu da aretora. Behin lekua hartuta batekin eta bestearekin hitz egiteko baliatu du. Badago zer hitz egina, bezperan saio ederra entzun zutelako eta gaur amaitzen delako lehen fasea. Gehienek 660 punturen bueltan jarri dute langa.

Goraino dago beteta aretoa, eta Nerea Erbiti leitzarrak taldean ondu duen sintonia entzunda isildu da jendea eta bertsolariak eskilaran behera agertzean txaloka hasi dira. Imanol Uria, Iñigo Mantzizidor Mantxi, Asier Azpiroz, Maialen Akizu, Aitor Bizkarra eta Unai Gaztelumendi aritu dira Amaiur Lujanbioren esanetara.

Aitor Bizkarrak irabazi du saioa. Amaieran finalurreko fasera pasako diren bertsolarien zerrenda eskaini du aurkezleak.



HASIERAKO AGURRAK

A. Azpiroz

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Astearte eguna I-A*

Kaixo Lizarra, hau da
plazaren diztira
azken final laurdena
geure lehen partida
bersotan egitea
asmoa hori da
tentsio partikulak
nabaritzen dira
bersotan egitea
asmoa hori da
matematikak utzi
ta zuei begira.

U. Gaztelumendi

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Mundu honetan holako gauzak*

Arratsalde on, bertsozalea
ez dezu pinta eskasa
faseak eta puntuak ahazten
gaur ez daukagu erraza
denok egongo zeraten hontan
zein pasa ta zein ez pasa
bihurrikeri pixka bat nahi det
patxada eta jolasa
txapelketako dekoratuan
ikusi dadila plaza.

ZORTZIKO HANDIA

A. Bizkarra – M. Akizu

Gaia: Aitor eta Maialen, ikasturte honetan unibertsitatea hasi berri duten bi ikasle zarete. Aitor, Maialen pozik doa egunero, ilusioz. Zu, berriz, uztekotan zara.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Oraindik hango oihartzun hots bat*

A. Bizkarra

Filosofia ikasketekin
egin gendun apustua
buru irekitzen ari zarela
da zuk daukazu juzkua.
Ba niretzat da galera huts bat
hau da bizi injustua!
Desilusio bikoitza baita
ilusio zapuztua.

M. Akizu

Platon ez degu hain platoniko
ta Deskartes galerako
asteartetan, ostegunetan
ere ez gera aterako.
Ilusioa ja galdu dezu
dena gure kalterako
ai, Aitor, hori bagenekien
honaino etortzerako.

A. Bizkarra

Eta orduan zuk zertarako
egiten duzu bisita?
Kafetegia aski duzula
ote zaude iritzita?
Ikasten dugu Logika pixka't
ta Enpresaren Etika
askoz gehiago ikas liteke
begi biak irekita.

M. Akizu

Herri txikian bizi naiz eta
gure unibertsitatea
zenbat jende ta zenbat istori
estereotipo, pakea.
Egia esan, ze nahi dezu ba
nere hontatik esatea?
Ni pixkanaka sortzen ari naiz
nere identitatea.

A. Bizkarra

Kafetegian kaña batzuk ta
sudur gainean eulia
egiaz ere zuk sortu duzu
identitate zolia
nik betirako utzi behar dut
campuseko itzulia
baina mantendu gurako nuke
gure kafe-tertulia.

M. Akizu

Noski, kafea ta tertulia
ez nituzke nahi aparte
bihur dezagun gure ikasgela
auditorio ta parke
egun berriek, kurtso berriek
beti sorpresa dakarte
gutxienean aguanta'zazu
abendu bukaera arte.



ZORTZIKO TXIKIA

M. Akizu – I. Uria

Gaia: Maialen eta Imanol, lagunak zarete. Maialen, badira hilabete batzuk ohartu zarela Imanolek ez duela ongi ikusten. Ukatzen duen arren, oraingoan ere, liburua irakurtzen besoak luze-luze eginda topatu duzu.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nijoa*

M. Akizu

Lagunari lagundu
behar zaio berez
ta ni ibili ohi naiz
horrekiko xedez.
Homero irakurtzen du
ta Imanol mesedez
Itaka urrun dago
baina hainbeste ez. (bis)

I. Uria

Itaka urrun dela
ondo dakit jakin
nik enfokatzen baitut
begiradarekin.
Baina urrunduz nago
ekin eta ekin
irakurri nahi baitut
perspektibarekin. (bis)

M. Akizu

Ba perspektibak ere
bere aldaketa
behar du eta egin
ezazu tarteka.
Tipo galaia degu
ta beti zer gerta
interesantearena
egin nahi du eta. (bis)

I. Uria

Bai, interesak beti
besotan hartu nau
ikusten naute eta
pentsatzen dute guau!
Urrutiko intxaurreak
gerturatu ta lau
urrundik ikusita
askoz hobe da hau. (bis)

M. Akizu

Beraz hartua duzu
literatur traza
betiko lagun baina
nolako jolasa!
Gertutik ta urrundik
nahiz denbora pasa
hau irakurtzen inoiz
ez dago erraza. (bis)

I. Uria

Irakurtzea beti
dugu gure patu
eta nahiz nahi zenuen
gaur nirekin sartu
urrun dudala ondo
zara zu fijatu
ta alderantziz dudala
ez zara ohartu. (bis)

HAMARREKO TXIKIA

I. Uria - Mantxi

Gaia: Imanol eta Mantxi. Imanol 16 urteko semea eta Mantxi aita zarete. Imanol herriko antzerki taldean zabiltza eta Mantxik erran dizu berak ere antzerki taldean parte hartu nahi duela.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Espainian behera*

I. Uria

Nik antzerkia beti
izan dut gustuko
ta zu zinen ikusle
ta nire lekuko
ez zaitut eduki nahi
aita hain gertuko
ta ja pentsatzen nuen
zahartu orduko
bertsotaz ez zinela
inoiz nekatuko. (bis)

Mantxi

Zu ikustera joan naiz
bertsotik bertsora
zu ai zarena egiten
nolako ganora!
Gero untxiarena
behera eta gora
nik ere egin nahi det
ordea afroga
zure artista sena
nondikan dator ba? (bis)

I. Uria

Ba edukiko dut
igual zure partez
baina azken aldian
ez nabil aldrebes
nire lagun kuadrilla
egin dut hor berez
apuntatzen bazara
honetan, mesedez
Inersoko taldean
apuntatu zaitez. (bis)

Mantxi

Hola hitz egiterik
ez det ba sinesten
obran hasi nahi nuke
naizen hori hezten.
Zertarako Inersonean?
Azkenetan azken!
Utzi'idazu zure
lagunez nahasten
haiekin jardun nahi det
gidoia ikasten. (bis)

I. Uria

Aita, ulertzen ditut
zure gurariak
baina ezin ditugu
egin mirariak
gure gidoiak dira
bastante lodiak
zuri ahazten zaizkizu
zure historiak
ta ez dizu ematen
jada memoriak. (bis)

Mantxi

Irudikatu nauzu
ahul ta pendizan
baina argi egingo det
neure izar printzan
Shakespeare degu gaurko obran
ezagun bizitzan
ta bertara joango naiz
nik desio gisan
orain zeuk aukeratu
izan edo ez izan. (bis)



A. Azpiroz – A. Bizkarra

Gaia: Asier eta Aitor bikotea zarete eta lantoki berean lan egiten duzue. Asier, gaur Aitorrek erran dizu lantokiz aldatu nahi duela.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Gizakiak harri bat*

A. Azpiroz

Irakasle izatea
dago oso modan
eskola berdinean
indarrrik ez sobran
zure iritziz azkena
omen zera kolan
zuzendaria naiz ta
badezu nahiko lan
zuk etxean agindu
eta nik eskolan. (bis)

A. Bizkarra

Zuzendaritzak badu
zenbait gorabehera
pasillora irtenda
hortxe dago bera
holakotan urduri
jartzen da norbera.
Etxera lana eraman
hori ez da manera
ta are gutxiago
etxea lanera. (bis)

A. Azpiroz

Agintaldia daukat
lau urtetakoa
ta neurria hartzea
hoixe da gakoa
etxera lana eraman
nolako saltoa!
Zuzendari txit goren
altu ta guapoa
ta zu berriz zer zera?
Gimnasiakoa. (bis)

A. Bizkarra

Ni kirola egiten
nabil jo ta hautsi
soinketa ze ote den
nahi dut erakutsi.
Holako burlarik ez!
Zerorrek ikusi
gero etxera heltzean
nahiz goiari eutsi
gaur zuk egingo duzu
gimnasia gutxi. (bis)

A. Azpiroz

Galanta bota dezu
a ze numeroa!
Sexua da gustuko
dudan generoa
ta pixkanantza gora
doakit egoa
hori esan duzu ta
sartu zait beroa
momentuz hutsik dago
nere bulegoa. (bis)

A. Bizkarra

Duela bost bat urte
esango bazendu
esango nizkizuke
hamaika lausengu.
Ordea, lehengo burlak
ez zaizkit atzendu
eta gelak morboa
gaur guztiz galtzen du
utzi eskolak eta
geurea zuzendu. (bis)

U. Gaztelumendi – M. Akizu

Gaia: Unai eta Maialen, herriko hainbat saltsatan dabilzan lagunak zarete. Biak ere ilusioz, baina estresatuta zabiltzate. Unai, Maialenek ezetz esaten hasi beharko zenuketela dio.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Lagundurikan danoi I*

U. Gaztelumendi

Militantzia libre
eta gu esklabo
horrela zenbat urte
ditugun igaro!
Pandemia joan da
problema akabo
baino begira herria
erdi hutsik dago
orain gera inoiz baino
garrantzitsuago.

M. Akizu

Garrantzitsua degu
norbere lepoa
gure bigarren etxe
batzar aretoa
herritarra izan naiz
ta honen aldekoa
baina ezetza ere
dugu balekoa
hemen inortxo ez da
ezinbestekoa.



U. Gaztelumendi

Ezinbesteko inor
ez dala izaten
ba urteak halaxe
doaz hemen joaten.
Baino aber ze festa
lirateke aurten
DJ xeibre batzuk
gauak eramaten
eta gu bitartean
azkazalak jaten.

M. Akizu

Festetan nahiz ta geran
hamaika elkartzen
gero bileretara
ez dira ba sartzen
baiezkoa zen dena
ezetza behar zen
gazte jende honekin
bainaiz ni ohartzen
ardura utzi ezean
ez dutela hartzen.

U. Gaztelumendi

Baino gero egongo
nintzake gainean
gu baikera pilotu
herriko trenean
egoa elikatzen
digu barrenean
erreleboa eman
bale, azkenean
gure seme-alabak
hazten direnean.

M. Akizu

Nerea txikia da
zurea nerabe
denok egiten dugu
gurearen alde
baina urte luzetan
zenbat malabare!
Utzi edo ez utzi
ez da A ala B
herria egiteko
modu asko daude.



GANBARAKO LANA

A. Bizkarra

Gaia: Zure egoera, orain arte, ezkutuan mantendu duzu. Gaur, laguntza eskatu beharrean zaude.


Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Larogeita hamar urte*

Negarrez harrapatzen nau
egunaren lehen txanpak
tonelada bat tristura
pisatzen du oheko mantak
kalera irten orduko
dar-dar baten dauzkat hankak
baja ere eskatuko dut
nireak ez dira plantak. (bis)
“Joan talde-terapira”
agindu dit barne kautak
eta gelara sartu naiz
bizi-bizi bihotz taupak
nire burua aurkeztu dut
jarraituz bertako pautak:
“Kaixo, Aitor izena dut
ta depresioa daukat”. (bis)

Orain arte ezkututzen
zentratu dut nire ahala
baina hain sentitzen naiz estu!
Lurra ez da hain zabala...
Psikiatrak igarriko al dit
nire osasun mentala
pitzatuta dagoela
depresioa dudala? (bis)
Gaur arte gorde naiz sator
bat lur azpian bezala
baina osasun mentala
ez da gero gai axala!
Taldea hontan bilatzen dut
norbaitek uler nazala
ta konplizitate keinu
bat egin diezadala. (bis)

Dena dut ezinegona
ez naiz gustura ezertan
hiru pilula gauetan
ta beste hiru goizetan.
Bart gauez irentsi nuen
horrenbeste Lorazepam
zalantza egin bainuen
bizitzak zentzurik zeukan. (bis)
Sei hilez euki gaituzte
giltzatuak lau hormetan
ta nik berdin jarraitzen dut
post-pandemia honetan.
Bakarrik nago minean
bakarrik nago penetan
ordea, taldean soilik
senda naiteke benetan. (bis)



The image features a light gray background with a series of wavy, overlapping lines in a slightly darker shade of gray. These lines curve from the top left towards the bottom right. In the lower right quadrant, there is a solid, dark gray, rounded shape that resembles a stylized rock or a drop. A horizontal dark gray band crosses the middle of the image, containing the text 'FINALAURREKOAK' in white, bold, uppercase letters.

FINALAURREKOAK



Agin Laburu Rezola



Alaia Martin Etxebeste



Iñaki Apalategi Astigarraga



Joanes Illarregi Marzol



Onintza Enbeita Maguregi



Unai Agirre Goia

ELIZONDO

2022/10/22, LARUNBATA, 17:00

BAZTAN PILOTALEKUA

LEHENENGO FINALAURREKOA

Bertsolariak:

Agin Laburu Rezola

Alaia Martin Etxebeste

Iñaki Apalategi Astigarraga

Joanes Illarregi Marzol

Onintza Enbeita Maguregi

Unai Agirre Goia

Gai-emailea: **Amaia Castorene Luro**

Epaimahaiko kideak: Ainhoa Arregi Elosua, Bakarne Urreaga Etxeberria, Ekaitz Elorriaga Anduaga, Eneritz Azkue Basurko, Joseba Beltza Bengoetxea, Joseba Santxo Uriarte eta Maialen Berra Zubieta.

Elizondon hasiko da gaur finalaurrekoen lehen itzulia. 1.450 lagun bildu dira Baztan pilotalekuan, zirkulu erdia marraztu dute oholtzaren bueltan. 2017. urteko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalistak ere kantuan izango dira datozen lau larunbatetan. Epaile taldea berria da, fasetik fasera ia ekipo osoa aldatu ohi du Bertsozale Elkartek. Pilotalekuan dira Ilaski Serrano eta Jon Martin Bertsozale Elkarteko hedapen lantalde osoaren laguntzarekin; ETB4 katean zuzenean eskainiko da saioa. Hedabideen mahaia ere luzeagoa da. Giroan nabari da beste giro bat, kontatzen zaila den hori. Unai Agirre, Alaia Martin, Agin Laburu, Onintza Enbeita, Iñaki Apalategi eta Joanes Illarregi aritu dira Amaia Castoreneren esanetara.

Eguzkitsu dago Baztan, eta pilotaleku barruan bero. Abanikoak eta emergentzia ateak zabalik beroaren aurka. Saioa ere oso bero joan da, ofizio onak kateatu dira elkarren segidan eta hori da gozamenaren giltza. Lehen agurretik txalo asko entzun ditugu, eta zortziko txikian jo du goia saioak Alaia Martinen eta Joanes Illarregiren bertsoaldian. Martin izan da saioko irabazlea eta bigarren izan da Illarregi.

HASIERAKO AGURRA

I. Apalategi

Neurria: Hogeita bat puntuko berezia

Doinua: *Kaixo Elizondo*

Kaixo Elizondo
ez zera egongo
aspalditik bertso goseak
ulertzen dizut ze
guretzako luze
joan dira bost urte paseak
beraz gogoz bapo
gatoz bertsoak
goi, erdi eta behe klaseak
ze hemen nik uste
banatzen dituzte
hurrengo errondako paseak
ilusio gordina
guztioi berdina
sortzen digu bertan sartzeak
deus ez da ziurrik
ta beraz beldurrik
ez du eman behar saiatzeak
hori da polita
sutan ipinita
probatu ditzagun eltzeak. (bis)





ZORTZIKO HANDIA

U. Agirre – J. Illarregi

Gaia: Unai eta Joanes, Espainiako Gerra Zibileko desobiratze lanetan ari diren bi lagun zarete. Lanean ari zareten hobi komunean uste zenutena baino askoz gorpuzki gehiago aurkitu duzue.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Kintak jarrita ondorenian*

U. Agirre

Desobiratzen jarri gaituzte
ez dakit zenbat aditu
zuloa egin behera ta behera
eta hezurak aurkitu
lana akitu behar genduen
baina ezin da akitu
gorputz gehiago daude hemen ta
norbaitek faltako ditu. (bis)

J. Illarregi

Zulo honetan pasa ditugu
aste hauetan orenak
zulatu eta zulatu ari
bukatu ezin direnak
hezur pila bat aurkitu dira
erdi ustelak gehienak
orain bigarren lana aurkitzea
hauen izen-abizenak. (bis)

U. Agirre

Gu lanerako etorri gera
horrek ez du ezer txarrik
ez degu falta borondaterik
ez degu falta indarrik.
Familietan pentsatu eta
nago kezkatu xamarrik
hezur pila bat dago hemen baina
ez da hezurra bakarrik. (bis)

J. Illarregi

Etorri ginen eskutan hartuz
mailuak eta aitzurrak
uste genuen hemen zeudela
lehengo arrasto apurrak
nahiz ta topatu ditugun hauek
bakarrik izan hezurak
hemen ageri geratu dira
kontatutako gezurrak. (bis)

U. Agirre

Egia da bai, egitik bada
hemen nahikoa eskasi
etxe danetan arazoren bat
izango genduan kasi
hemengo gerra bukatu arren
toki askotan da hasi
iruditzen zait gizaki honek
ez duela deus ikasi. (bis)

J. Illarregi

Hezur guztiak ikusi eta
dantzan jarri zait barrena
famili batzuk jakingo dute
hori da gauza onena
ta gizakiak zer izandu da
luze ikasi duena?
Gu desikasten hasi gaitezen
irakatsi digutena. (bis)

A. Martin – O. Enbeita

Gaia: Alaia eta Onintza suhiltzaileak zarete. Maiz duzuen ordutegi eta txandekin ederki bizi zaretela aditu behar izaten duzue. Atzo istripu larri batean lan egin behar izan zenuten jendea ateratzen.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Goizean goizik jeiki ninduzun I*

A. Martin

Nahiz ta denbora gozatzen dugun
ta ez dugun inoiz galtzen
eta lagunek esaten duten
“Zuen lan guztia hau al zen?”
gertatzen dena kasu batzutan
zaila da hitzez azaltzen
eta etxera joandakoan
barruko sua itzaltzen.

O. Enbeita

Batzuentzako gu bizi gara
lan gutxi eginda, bapo
baina guztia zailtzen denean
denbora dugu kontrako.
Sarri adarra jotzen digute
gorputz ona dugulako
baina bizitza ez da erreza
egutegiatik kanpo.

A. Martin

Egutegia gorri kolorez
nahiz ta ikusi atsegin
egun guztiak ez dira berdin
kolorez dira desberdin
norbait itzaltzen bada parean
nahiz egin mila ahalegin
etxerakoan pentsatu ohi dut
ez dudala aski egin.

O. Enbeita

Sua hasten da txispa batekin
eta gero zenbat neke!
Iraun dezake ordubete bat
edo eta astebete
gure egunak kontatzen dira
guregandik kanpo merke
deskantsatuko ez bagendu igual
erotu eingo ginateke.

A. Martin

Batzutan behar da atsedena
besteetan perspektiba
heriok segaz begiratzean
adi gure aurpegira.
Nahiz ta soldata ta jai-egunak
ederrak diren, argi da
istriputako *flashback* ilunak
betiko geratzen dira.

O. Enbeita

Gauetz bueltaka izaten dugu
egunez ikusi hura
amets gaiztoek ekartzen dute
bueltan sua eta ura
baina berriro ezer badator
sartu ohi gara barrura
hortik aurrera gure lana ez da
beste inoren ardura.





ZORTZIKO TXIKIA

U. Agirre – A. Apalategi

Gaia: Unai, goizero hartzen duzu kafea Iñakiren tabernan. Bada astebete irakurri ohi duzun egunkaria Iñakik ez duela ekarri.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orioko balearena*

U. Agirre

Hemen zer pasatzen da
ondo nabarmendu.
Tonto xamarra dela
hala ematen du
negoziyua dezu
ederki zuzendu
kafia garestitu
eta prentsa kendu. (bis)

A. Apalategi

Barra ixkinaraino
joan pausuz pausu
gero prentsa guztia
fusilatu usu
bi ordu t'erdia ere
pasata dauzkazu
orain lerro artean
irakurri'zazu. (bis)

U. Agirre

Horri zer erantzungo
hor bertan zegoen zai
izurratuko zaitut
egon zaitez lasai
pixka baten badoa
hemendikan Unai
egunkaririk gabe
kaferik ez det nahi. (bis)

A. Apalategi

Ba ez dizut esango
geratzeko, barka
nahi badezu ondokora
joan zaitez bueltaka
baina, hori bai, bertan
ez daukate Marca
ze ondo ilustratzeko
garaia bada ta. (bis)

U. Agirre

Kamareroak jarri
hainbat enbarazu
hasarretu nahi nindun
gaur berak jo ta su
ordun egunkaririk
hemen ez daukazu
zuk azukarilloa
irakurri'zazu. (bis)

A. Apalategi

Behingoz topatu gera
bi asmo elkarzut
badaude biontzako
konponbide batzuk
hainbeste irakur grin
baldin baduzu zuk
lasai, bezperakoak
gordeko dizkizut. (bis)

J. Illarregi – A. Martin

Gaia: Joanes semea eta Alaia gurasoa zarete. Zu Joanes sex-shop edo denda erotiko batean hasi berri zara lanean. Lehen eguna duzu gaurkoa. Denda ireki berri duzu eta zure lehen bezeroa sartu da: Alaia, zure gurasoa.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nijoa*

J. Illarregi

Zer esan behar zaio
gaurko kasu horri?
Kuriositatea
daukazu jatorri
irrifar bat ahoan
bi muxuak gorri
animo esatera
ez zara etorri! (bis)

A. Martin

Animatzera nator
gustura-gustura
ta zure kolorea
kolpez txuritu da
nik ere sumatzen dut
azpian azkura
nola etorri zinen
bestela mundura? (bis)

J. Illarregi

Hori entzun dut eta
belarriko mina
amak kontatu nahi du
pasarte zikina
sekula ez nintzake
jaioko, jakina
jostailuekin ari
izandu bazina. (bis)

A. Martin

Jostailu premia dugu
nik eta senarrak
zikinetik deus ez du
hor beheko aparrak
nola tallajez diren
arraro xamarrak
probatu al nitzake
bola txinatarrak? (bis)

J. Illarregi

Bola egiten ari zait
gainera benetan...
Satisfyerrak⁶ daude
beherapenetan
zer nahi duzun idatzi
papertxo horretan
ta oparituko dizut
urtebetetzeetan. (bis)

A. Martin

Magia topa dezan
Evaren saiheitsak
honekin bete leizke
amaren ametsak
ondo ezagutu ditzan
alu baten ertzak
ekarri liburu bat
zure aitarentzat. (bis)

⁶ Bertsolariak "Satisfaierrak"
ahoskatu du.



www.bert



PUNTUTAN ZORTZIKO TXIKIAN

A. Martin – U. Agirre

Gaia: Alaia eta Unai, berriki kiroldegian eman duzue izena elkarrekin. Makinen artean nondik hasi ez dakizuela zaudete.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Ezagutu zuenak*

- | | | | |
|------------|--|------------|---------------------------------------|
| A. Martin: | Hainbeste daude eta non hasi ez dakit | A. Martin: | Denak ari baitira gaizki begirutzen |
| U. Agirre: | horretan esplikatzeko ezin lagundu nik | U. Agirre: | gu ikusi orduko burua jiratzen |
| A. Martin: | normalean hasten naiz kafe makinatik | A. Martin: | eliptikan ari naiz ia deliratzeko |
| U. Agirre: | hori non dagon ere ez dakit oraindik. | U. Agirre: | nik hola egotia ez det desiratzen. |
| U. Agirre: | Zuk indarra behar dezun abiadura | U. Agirre: | Medikuak esan dit etorri nadila |
| A. Martin: | aulkian eserita nago ni gustura | A. Martin: | eta ni laguntzaile gertuko, abila |
| U. Agirre: | bijilatzen dituzu hau, hori ta hura | U. Agirre: | Alaia, etorri zera baina zeren bila? |
| A. Martin: | guk osatuko dugun alperrenen kluba. | A. Martin: | Bizikletak ez al du hautsita gurpila? |

A. Martin: Eman ta eman eta ez doa aurrera
U. Agirre: orduan bertan lasai geratuko gera.
A. Martin: Tourmaletean egin nahi nuen karrera
U. Agirre: hementxe aritzea aukeran hobe da.

U. Agirre: Kilometro askokoa baita Tourmaleta
A. Martin: eta nahiko baldarra dugu bizikleta
U. Agirre: beste hori ez al dago muskuluz beteta?
A. Martin: Nik ere asko dauzkat bai, baina gordeta.

A. Martin: Nik askoz nahiago dut niregan fitnessa
U. Agirre: muskuluak bilatzen ez dezu erreza
A. Martin: hargatik egingo dut dozena bat pesa
U. Agirre: iya nun kristo dauzkan esplikatu beza.

U. Agirre: Gordian Unaik dauzka zuk dituzu bistan
A. Martin: aurki aterako naiz igual telebistan
U. Agirre: korrika egiten du hori bai, tximistan
A. Martin: lehenengo izango naiz karrera ziklistan.

J. Illarregi – A. Laburu

Gaia: Joanes eta Agin, Foruzainak zarete. Zuen txanda amaitzeko denbora egiten ari zarete autoa behar ez den lekuan utzita. Beste polizia auto bat hurbiltzen ari zaizue. Nagusiarena da.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Lurralde dena dabil I*

J. Illarregi: Doble filan jarri ta
kafe bat hartuta

A. Laburu: turnoa behar baita
hasi eta buka

J. Illarregi: lotsarik ez dugula
ezin da izkuta

A. Laburu: alperrak izatea
ez da gure culpa.

A. Laburu: Horrela jaio ginan
mundu honetara

J. Illarregi: ta hala joan gara
bertatik bertara

A. Laburu: polizia ez dena
irakaslea da

J. Illarregi: bonbero izateko
alferregi gara.

J. Illarregi: Kotxearen kapoan
ipurdia jarri

A. Laburu: eta kontu polittak
kontatu elkarri.

J. Illarregi: Nagusia heldu da ta
ipurdia larri

A. Laburu: baino bera ere hola
egoten da sarri.

A. Laburu: Guk ere baitiogu
hari ikasia

J. Illarregi: soldata ezer egin
gabe irabazia

A. Laburu: nik ere izan nahi det
nere nagusia

J. Illarregi: poliziak herrian
a ze garrantzia!

J. Illarregi: Hiru zerbezarekin
heldu da gugana
A. Laburu: eta tokatu zaigu
kriston panorama
J. Illarregi: ze nolako mozkorra
gainean daukana!
A. Laburu: Lasai, nagusia da
ez da zure ama.

A. Laburu: Harreman ona degu
nagusiarekin
J. Illarregi: beti edaten gabiltz
ekin eta ekin
A. Laburu: eta hor datorrenez
zerbeza horrekin
J. Illarregi: proba egin dezagun
alkohol probarekin.

J. Illarregi: Ea zeinek ematen
duen gaur gehiago
A. Laburu: apustu kontuetan
ni ohituta nago
J. Illarregi: hortan'e nagusia
gaisetikan dago
A. Laburu: harrek whiskitik ere
egiten du trago.

A. Laburu: Beraz juango gera
danok berehala
J. Illarregi: gure kuartelillora
afaltzera hala
A. Laburu: kuadrilla ona gera
ta beraz normala
J. Illarregi: azken tragoa berak
ordaindu dezala.

GANBARAKO LANA

A. Martin

Gaia: Eskua hartu dizu. Indartsuago sentitu zara.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Goizean altxatu eta*

Goiz berezia denean
pertsiana da beruna
ta ezin armairuan gorde
nire mamuen bilduma
beti ez dugu goxoki
hartu ohi datorkiguna
ta gaur tunel amaiera
ere ikusten dut iluna.
Lehen sendo sentitzen nintzen
orain sentitzen naiz luma
baina esku gainean dut
amaren esku biguna (bis)
gaur dut eskola haundiko
nire lehenengo eguna.

Eskolarantza goaz ta
zenbat ume garraxika!
Ni diximuloan sendo
ez nabil negar antsika
maistra berri bat daukagu
ta egin nahi diot bisita
bizitza ederragoa
baita ausardiz bizita.
Ta eskua askatu dit
nik hartu dut ziur pinta
pentsatu nahi dut gaurkoa
dugula egun polita (bis)
noizbaiten erortzen banaiz
eskua helduko dit ta.

Besteek ze esango dute?
Egingo al didate traba?
Denak ni bezain izuti
ote datoz eskolara?
Nahiz pardela kendu dudan
kaka eginda nago jada
arnasa sakon hartzea
da onena beharbada.
Ama adi-adi daukat
nigan bere begirada
eskutan suma nezake
bere bero ta taupada (bis)
eskuak batuta sortzen
da arima-besarkada.

BUKAERAKO AGURRA

U. Agirre

Neurria: Hamabiko handia

Doinua: *Kantu larrian edo bertsotan*

Bailara hontako doinu eder hau
jarri nahi det azken mastan
bertako jende asko baitegu
sortu degun abaraskan.
Txapelketako lehia ilunean
danak puntu harrapaskan
pentsatzeraino honetarako
gure burua kapaz dan.
Honenbestean despeditzen naiz
agur bertsozale laztan
gogorra baino ederra izan da
ta eskerrik asko, Baztan.



Aitor Etxebarriazarraga Gabiola



Amets Arzallus Antia



Asier Azpiroz Iztueta



Haritz Mujika Lasa



Nerea Elustondo Plazaola



Oihana Iguaran Barandiaran

DONIBANE GARAZI

2022/10/29, LARUNBATA, 17:00

JAI ALAI

BIGARREN FINALAURREKOA

Bertsolariak:

Aitor Etxebarriazarraga Gabiola

Amets Arzallus Antia

Asier Azpiroz Iztueta

Haritz Mujika Lasa

Nerea Elustondo Plazaola

Oihana Iguaran Barandiaran

Gai-emailea: **Zihara Enbeita Gardoki**

Epaimahaiko kideak: Ainhoa Arregi Elosua, Bakarne Urreaga Etxeberria, Ekaitz Elorriaga Anduaga, Eneritz Azkue Basurko, Joseba Beltza Bengoetxea, Joseba Santxo Uriarte eta Maialen Berra Zubieta.

21 urte ziren (2001-10-21) Txapelketa Nagusiak ez zuela Donibane Garazin geldialdirik egiten. Erromesak ez ezik, bertsozale mordoxka ere etorri da motxilan bazkaria hartuta. Denak balio du goseak dagoenarentzat; ronpuenean, biribilgunean, mahaia jarrita bazkaldu duenik ere bada.

Plan osoena Ahots Baten egonaldiko gazteena izango da: Amaiurren pasako dute asteburua Euskal Herriko 27 gazte inguruk. Antzerkia, bertsoa, kantagintza eta literatura, euskarazko sormenaren bueltan saretzen eta zaletzen dira gazteak. Mintzola egitasmoko proiektua Euskaltzaindiak bideratu du aurten. Hitzetik Hortzerako aurkezle den Eider Perez eta lankideak ikusi ditugu artaldea bideratzen. Herrigunetik urrutitxo gelditzen da Jai Alai Biltokia. Ederra dago ataria sartzerako. Herriko festetan adina postu bada: Euskaraldiko puntua, Puntutan arropa denda, Garaziko Ikastolaren txosna, ume eta neska kozkorrak txokolatezko kutixiak saltzen. Gazitik eta gozotik, txapelketako saioek bezala.

Gaur 2017 edizioko beste finalista bat izango dugu lanean: Amets Arzallus. Ondoan izango ditu Asier Azpiroz, Aitor Etxebarriazarraga, Oihana Iguaran, Haritz Mujika eta Nerea Elustondo. Aurrez txapelketako saio batean kantatu izanaren abantaila izango du boskoteak. Oihana Iguaranek batu du puntu gehien eta puntu erdira sailkatu da Amets Arzallus.

Udazkena esker oneko dabil, saio garaian beroegi egiten du gaur ere. Hori bai, giro dago saioa amaitu eta Garaziko Ikastolak prestatu dituen taloak dastatzeko. Saioak ere eman du zeresanik.

HASIERAKO AGURRA

A. Azpiroz

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Zibilak esan naute*

Kaixo bertsozalea
ez zera hutsala!
Izerdiak norberak
sikatu ditzala
udazkenean udako
giroz gabiltzala
gasaren prezioan
jarri da itzala!
(Udazkenean udako
giroz gabiltzala)⁷
hego haizeak denok
txoratu gaitzala!

O. Iguaran

Neurria: Hogeikoa, txikiaren moldekoa, 15 puntuz

Doinua: *Lehiak kinielan*

Orbela airean
zoruaz aidean
gaur zure begiradak
eusten du parean.
Udak luze darrai
ta guk ere jarrai
nahi dugu udazken hau
luzatuz noranahi!
Orbelaren berdin
gora hega dadin
gure hitzari behetik
zuk ere putz egin!
Lehen haize kolpea
gaur da korrontea
elkarlan oso bat da
hemen egotea.
(Orbelaren berdin
gora hega dadin
gure hitzari behetik
zuk ere putz egin!)⁸
Ilea ta azala
haizeak bezala
barrutik datorrenak
astindu gaitzala!

⁸ Aurrez kantatu bi puntuak berriz kantatu zituen.

ZORTZIKO HANDIA

A. Azpiroz – A. Etxebarriazarraga

Gaia: Zuek biok jatetxe bat duzue elkarrekin. Ez da denbora asko prezioak igo zenituztela, baina gastuek gora egiten jarraitzen dutenez, eguneko menua oraindik ere garestiago jarri ala ez erabakitzen ari zarete.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Beti penetan beti penetan*

A. Azpiroz

Ura debalde ez degu izaten
ez da sukaldeko kea
ta eguerdiro eukiagatik
jatetxe bete-betea
irabazia hutsala degu
sekulakoa nekea...
Munduan dagon gauz txarrena da
alperrik lan egitea.

A. Etxebarriazarraga

Hiru lehenengo, hiru bigarren
nahi badugu ematea
pasta, arrain zopa, kalamarea
xerra ala ahatea...
Nahiz eta gero iritsiko den
bezeroen atakea
beste aukerarik ez dut ikusten
eusteko kalitatea!

A. Azpiroz

Ni're horrekin ados naukazu
ta lasai egon zaitezke
hemen jendea etortzen baita
kalitatearen eske
zuk esan dezu: ahatetxo
konfita, xerra ta beste
gurean ondo jaten da eta
euro bat ez da hainbeste!

A. Etxebarriazarraga

Baina euroa ere seguru
digutela antzemango
nahiz aztoratu behar ditugun
berdin hemengo ta hango
kartel batean jarri dezagun
zuk hemen jatean ondo
zu agian bai, baina bestea
ez dela ondo egongo!

A. Azpiroz

Ederki dakit etxe askotan
piztu direla sirenak
hamabi euroan kitatzen ziren
lehen gure etxeko problemak
orain hamahiru kartel batean
eskatzen digu sistemak
eta azpian letra txikiana
“Barkatu eragozpenak”.

A. Etxebarriazarraga

Argia, gasa ta ur fakturak
darrai izaten berdina
ta hemen denok egin beharko
dugu orain ahalegina
ez bada menu bakoitzarentzat
hobetzen mozkin marjina
hau salbatzeko beharko dugu
Lourdeseke Ama Birjina!



H. Mujika – A. Arzallus

Gaia: Espetxean ezagutu zenuten elkar. Bertan, igeltsero lanbidea ikasi zenuten.

Aske gelditu eta elkarrekin negozioa jarri berri duzue martxan.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Kintak jarrita ondorenian*

H. Mujika

Espetxearen barruan gendun
igeltsero onen fama
kanpora atera eta horretan
hasi gera erdibana
hartu ladrillu eta hartu ur
eta ekarri porlana!
Bizimodua eraikitzea
dugu lehenbiziko lana. (bis)

A. Arzallus

Isolamendu ziegan luzaro
kondena latz ta grabea
eskain dezagun etxe berri bat
hausteko bakardadea
denak batera ganbara, kular
sala eta sukaldea
ahal baldin bada zabal-zabala
itxiturarik gabea! (bis)

H. Mujika

Espetxepean egote hori
ez baita gauza merkea
handik atera ta egokitzeko
behar da indar fuertea!
Hala egingo degu bi gela
ta askatasunez betea
lehen ere ohituta gaude egiten
norberaren aterpea! (bis)

A. Arzallus

Ai baina Haritz bereizten ditut
nik oraina eta lehena
behingoagatik geure bizitzan
geuk hartu dugunez lema
egin ditzagun leiho zabalak
sortalderantz zabal dena
hain zuzen ere hogeitau urteetan
falta izan genuena. (bis)

H. Mujika

Hala ordaindu genuelako
governu baten kasketa
ta hara begira egon nahi duzu
egunero ta asteka
baina zalantza sortu zait eta
isil dezadan hizketa
ez dakit ziur ipini behar
ote diogun krisketa. (bis)

A. Arzallus

Hori erosleak ikusiko du
haren kontzientzian fida
baina kartzelan hain ohitu ginen
eguneroko nagira.
Hartu porlana, nahasi ura
ta hondar pixka bat tira
zeren etxerik ez da egiten
erraminteri begira. (bis)



ZORTZIKO TXIKIA

N. Elustondo – A. Arzallus

Gaia: Zuek biok pisukideak zarete. Nerea, konturatu zara, garbigailua jartzen duzunean Ametsen arropa kopuruz zurearen bikoitza dela.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Nere senarrarekin I*

N. Elustondo

Garbitzea ez dugu
inoren kaltean
ze kaltzontzilo pila
kulero tartean!
Galdera bat sortu zait
orain esatean
zenbat pertsona zara
bizitza batean? (bis)

A. Arzallus

Goizean kirolean
nabil jo ta fuego
gero ikasle, gauean
bertsolari edo
beraz, hiru pertsona
hor daukazu bero
zu ere bai nerekin
ibili ezkerro! (bis)

N. Elustondo

Beraz alda naiteke
zure arabera
baina ez dakit ibil
gaitezkeen batera.
Zu gizon-gizon zara
ta uste det zera
titizorro hau ere
zurea ote da? (bis)

A. Arzallus

Honek du jakinmina
honek du premia
entrenatzen pasatu
nuen pandemia.
Atzo gauean izan
nuen konpainia,
ez da nerea baina
neri eskainia! (bis)

N. Elustondo

Kuartotik entzuten zen
“Gora!” eta “Biba!”
ta opari ta guzti
egin despedida.
Nere proposamena
kontuan harira
nere neskame lana
hoge euro dira. (bis)

A. Arzallus

Ba horren kontra azaldu
beharko natzaizu
ta lanak banatzeko
ez bazara gai zu
jantzi kolore pixka’t
hartu zazu aizu
hola umorea ere
argituko zaizu. (bis)

PUNTUTAN ZORTZIKO TXIKIAN**H. Mujika – A. Azpiroz**

Gaia: Zuek biok bi nerabe zarete. Zuen herrian, etxez etxe, Seaskako egutegiak saltzea tokatu zaizue. Oraintxe hasiko duzue ibilbidea.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Ezagutu zuenak*

H. Mujika	Berriz jarri digute urteroko lana	A. Azpiroz	Honek ez du erosiko hori det seguru
A. Azpiroz	baina oso gustora egiten dudana!	H. Mujika	<i>putada</i> egitea da gure helburu.
H. Mujika	Alperrik ari gera, beraz erdi-bana!	A. Azpiroz	Eskaileretan gora segi behar dugu
A. Azpiroz	Lehenengo honek dauka zuhurraren fama.	H. Mujika	honi erregalatu egingo diogu!
A. Azpiroz	Atea jo degu ta irten da amona	H. Mujika	Seguru asko emango diolako mina
H. Mujika	ta atzetik marmarka seguru aitona	A. Azpiroz	espainola da eta da gauza jakina
A. Azpiroz	“Egutegi bat degu merkea ta ona!”	H. Mujika	frantses ere majo du nolako doktrina!
H. Mujika	Berriz erantzun digu “Ez etorri hona!”	A. Azpiroz	Hemen egin behar degu Haritz ahalegina.
H. Mujika	Beraz joan beharko ondoko atera	A. Azpiroz	Ume txiki-txiki bat kolorea txuri
A. Azpiroz	beste bateri ere txapa ematera!	H. Mujika	jaten ez diotela ematen dirudi!
H. Mujika	Ta aurpegi onarekin ez zaigu atera	A. Azpiroz	Euroarekin dator ta bai eman guri
A. Azpiroz	nik behintzat hartu diot espainol tankera!	H. Mujika	Axi mutil majuak geralako gu bi!

.....
Bertsolari Txapelketa Nagusia 2022
.....

H. Mujika Baina saldu deguna
da Axi bakarra!
A. Azpiroz Ez dute egingo ez
eskola earra
H. Mujika Seaskak badulako
gehioren beharra
A. Azpiroz bikote hau ez degu
hortaino azkarra!

A. Azpiroz Aldatu behar degu
gure marketina
H. Mujika asko saltzeko ez dago
hain txukun egina
A. Azpiroz Seaskak aberasteko
badaukanez grina
H. Mujika hobe da Ikastola
izango bagina!



SEIKO MOTZA**O. Iguaran – H. Mujika**

Gaia: Oihana, gurasoa, eta Haritz, 12 urteko semea zarete. Haritz pilotan ibiltzen da, eta zu Oihana bere botileroa⁹ zara. Oihana, partida hogeita bana dela, aurkaria negarrez hasi da, eta Haritz etorri zaizu zer egin dezakeen galdezka.

Neurria: Zortzikoa, berdinarean moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Dozena bat bertso berri A*

O. Iguaran

Hire pelota duk bala
ta disgustoa aibala!
Hor intzirika zioz doala
partidu makala.
Joan hadi horra ala!
Galdegin hurbildu ahala
arerio ta kide haizela
ikusi dezala! (bis)

H. Mujika

Beraz bere bizkarzaina
izatea da ordaina
orain galtzeak beregan sortu
dezake orbaina
baina ez denez ni haina
hartu nahi nioke gaina
kiroltasunak ere dezente
balio du baina. (bis)

O. Iguaran

Hi bahengo hutsunean
minaren bihurgunean
kidea bertan nahiko huke hik
lagunduz unean.
Jarri jarrera xumean
gertura, ez urrunean
nere semeak ezin dik galdu
kiroltasunean. (bis)

H. Mujika

Goikalde eta behekalde
hemen ez geranez alde
partida gera ta gero auskalo
deus ez da debalde!
Beregana egin alde
norbera norbere alde
kontrarioez ez da askorik
kezkatzen Larralde! (bis)

O. Iguaran

Ezin duk eman atzea
tokatzen zaik tratatzea
eta eredu hobeagoren
bat aukeratzea!
Ez dit nahi bera saltzea
tokatzen zaik azaltzea:
ez dek berdina hik irabazi
ta berak galtzea! (bis)

H. Mujika

Zabalik dago atea
ta hori eramatea
gure artean izan liteke
ama debatea!
Urrea denez pakea
hobe babestuz joatea
ta epaileari esango diot
“Utzi enpatea”. (bis)

⁹ Pilotariaren partidetako laguntzaile edo aholkularia.

GANBARAKO LANA

A. Etxebarriazarraga

Gaia: Azkenean probatu duzu, eta jabetu zara ez dela espero zenuena.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Laurogeita hamar urte*

Gure etxean amona
izan genuen eredu
gurasoak ez baitziren
bereziki bi aingeru
aita aspaldi joan zen
ama enpleguz enplegu
eta esaten zidanez
geneuzkan hainbat mailegu. (bis)
Lanean jarri ninduen
gutxira amona zendu
ta etxea bihurtu zen
tristezia kanpamendu
zerotik hasi nahi nuen
zurrunbilotik aldendu
baina sarri erori denak
dena bitan pentsatzen du. (bis)

Joatea erraza da
irautea da zailena
nola ez nintzen jabetu
gastua bikoitza dena
konpra egin, sukaldatu
garbitu, mantendu ordena...
Ta nire bakardadea ere
ez da konpaini gorena. (bis)
Ez nagoela gustura
hain da gauza nabarmena
barkamena eskatuta
bueltatzea da onena
baina apustuaren alde
eman duzunean dena
kosta egiten da onartzen
ez zela nahi zenuena. (bis)

Hogeita bat urterekin
ez naiz bizi besteen gisan
badaukat soldatatzat bat
ez hainbeste beharizan
baina etxetik joatea
hartuta daukat peskizan
bakarrik bizitzeak ere
ezin du hain zaila izan. (bis)
Ama gelara deitu dut
nere asmoak entzun ditzan
listo banao etxetik
begira nola gabiltzan!
Berak haserre erantzun dit
egiaren jabe bailitzan:
“Harrokeriak garesti
ordaintzen dira bizitzan”. (bis)

O. Iguaran

Gaia: Azkenean probatu duzu, eta jabetu zara ez dela espero zenuena.

Neurria: Hamahirukoa, berdinarean moldekoa, zazpi puntuz

Doinua: *Hor bide eguzkitsu bat*

Biok hamalau urte ta
biok desio argia
lehen aldiz aritzeko
gogoia zen nabaria
ta musuka pilatuta
geneukanez ausardia (bis)
prestatu nuen kabia
nik bai baina nire neskak
ez du bete guraria
galopan hasi aurretik
geratu baita zaldia
ta ez da izan espero
genuen lehen aldia (bis)
(geratu baita zaldia)¹⁰

Askotan espektatibek
ondorio hau dakarte
ni ahaleginduagatik
berak sentitu bitarte
nonbait ez det erakutsi
nik nahi nukeen beste arte (bis)
ta sua egin behar ke.
Gainera sentipena dut
bera ez dela izan parte
barkamena eskatu diot
ta esan “Ez joan aparte
zurekin saiatu nahi dut
nola egin asmatu arte” (bis)
(ez zaitez joan aparte)

Mutiko batek berez du
hontan aritzeko sena
mila aldiz begiratu
det pantailatan eszena
eta eraikia neukan
gozamenaren eskema (bis)
nere zilborretik dena
ez det sumatu mugitzen
Alaitzek dun sentipena
ta orain dudatan nago
bietan zein den problema
edo den gertatu dena
edo espero nuena (bis)
(bietan zein den problema)

¹⁰ Aurrez kantatu puntua errepikatu zuen; gauza bera egin zuen hurrengo bertsoan eta ia gauza bera hirugarrengoa.



Ane Labaka Mayoz



Jone Uria Albizuri



Maddalen Arzallus Antia



Miren Artetxe Sarasola



Nerea Ibarzabal Salegi



Sustrai Colina Acordarrementeria

IRUN

2022/11/05, LARUNBATA, 17:00

FICоба

HIRUGARREN FINALAURREKOA

Bertsolariak:

Ane Labaka Mayo

Jone Uria Albizuri

Maddalen Arzallus Antia

Miren Artetxe Sarasola

Nerea Ibarzabal Salegi

Sustrai Colina Acordarrementeria

Gai-emailea: **Maialen Belarra Eneterreaga**

Epaimahaiko kideak: Ainhoa Arregi Elosua, Bakarne Urreaga Etxeberria, Ekaitz Elorriaga Anduaga, Eneritz Azkue Basurko, Joseba Beltza Bengoetxea, Joseba Santxo Uriarte eta Maialen Berra Zubieta.

Irunen jokatu da hirugarren finalaurrekoa. Bertsozaleen memorian iltzatuta gelditu zen duela bost urte Artaleku kiroldegian jokatu tako saioa. Gaur Ficobak zabaldu dizkio ateak bertsozaleari. Kolorea eta berotasuna galdu dugu espazioa irabazteko. Erantzun du bertsozaleak; antolakuntzak jarritako 2.510 aulkia beteko dira.

Berehala sartu gara aretoa, Bertsozale Elkartek petodun ejertito handia jarri du sarreran segurtasuna eta erosotasuna bermatzeko. Korridorean ez da posturik falta, Bertsozale Elkarteara ez ezik Puntutan dendak zaleen eskura jarri ditu kamiseta eta sudaderak Aurrerago dago taberna; zale ugarik hartu du tragoa aulkian eseri aurretik. Luzea da aretoa, lepoa luzatuta ikusten ditugu atze samarrea eseri diren entzuleak. Txaloz hartu dituzte bertsolariak; protagonistak oholtzara bidean doazela zutitu egin dira entzule gutxi batzuk. Bero dago giroa Irunen, eta ez da arratsalde osoan zehar epelduko. Bost emakume eta gizonezko bat kantuan; hizpide izan da saio aurretik eta lehen agurretan. Sustrai Colina aurreko edizioako finalistak kantukide izango ditu Ane Labaka, Jone Uria, Nerea Ibarzabal, Maddalen Arzallus eta Miren Artetxe.

Bertsoaldi ederrak kateatu dira elkarren segidan. Puntukakoan asmatu dute gutxien, baino ale ederrak entzun ditugu zortziko nagusian, txikian, sei puntuko motzean eta ganbaran. Sustrai Colinak irabazi du saioa. Puntuazioa entzun ostean zurrumurru handiak entzun dira; antza, ez datoz bat bertsozaleen eta epaileen sentsazioak. Hau ere txapelketa da.





HASIERAKO AGURRA

A. Labaka

Neurria: Hamabostekoa, handiaren moldekoa, 11 puntuz

Doinua: *Izarren hautsa egun batean*

Alarde egin nahi degu libre
irrintzi eta deiadar
behetik bultzaka dauzkagulako
horrenbeste gorputz adar
gaur inor ez da saioko neska
egin dezala plazak gainezka
bere zulo, bere labar
pozik nengoke oholtza honetan
ezer ez balitz estandar
baizik eztandak sortu ditzagun
mila argi izpi ñabar
saia gaitezen hitzak etzaten
mihiek dantza egin dezaten
ta ahal bada bidenabar
oinek dirdir, soinek dardar.

ZORTZIKO HANDIA

N. Ibarzabal - S. Colina

Gaia: Nerea eta Sustrai, duela zenbait aste, zuen auzoko etxean lapurrak sartu ziren. Geroztik zaintza kameran eta alarma sistemen iragarkiak heldu zaizkizue gutunontzira.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Goizian goizik jeiki ninduzun I*

N. Ibarzabal

Bizilagunei egokituta
zenbait ondasun galtzea
orain ohiko da papela aurkitu
ta buzoia zabaltzea
interesgarri izan daiteke
jendea asaldatzea
beraien lana bene-benetan
baita alarma saltzea.

S. Colina

Ez zazu ahaztu lapurreta bat
lapurreta bat dela ño!
Hortik aurrera dena ez al da
amarru eta ke-laino?
Segurtasuna helduko al da
gu paralizatzeraino?
Iragarkiei beldur gehiago
diet lapurreri baino.

N. Ibarzabal

Hainbeste diru lortzen baitute
enpresa hauek guztira
iragarkitan, denean daude
esnatu eta gutxira
jende heldua Susanna Grison¹¹
programa horri begira
ta ez dagoen mamu gris baten
beldurretan bizi dira.

S. Colina

Nahiz Securitas Directek aisa
konpon lezaken bizia
pobrearentzat ez da ogia
aberatsen kutizia
zainetan dugu eskuinaren
gizarte analisia
eta horrela bihurtzen gara
norberaren polizia.

N. Ibarzabal

Oraindik beraz heltzeko daude
gure garai gordinenak
bata bestean kontrolatzaile
ta zelatari finenak
kamerak kale ertzetan eta
poliziaren sirenak
hor kontrolatzen dira lapurrak
ta lapurrak ez direnak.

S. Colina

Nahiz gizarteak esan behar lukeen
“Libre izaten ausartu”
nahiago dugu gure eskolan
barneratu ta zahartu
ordea dudan baldin bagaude
alarma hartu, ez hartu
jada zeozer ostu digute
nahiz ta etxean ez sartu.

11 Espainiako telebista kate pribatu bateko aurkezlea.

ZORTZIKO TXIKIA

J. Uria - M. Arzallus

Gaia: Jone eta Maddalen sendabelar ikastaro bat egin duzue elkarrekin. Ukendu bat egiteko belar bila atera zarete mendira. Jone, Maddalen bidean ikusten duen edozein belar jasotzen ari da.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orioko balearena*

J. Uria

Nik oraindik izen ta
espeziei bueltaka
nire apunteen kuaderno
hori aterata
ta zu hau eta beste
hartuz tiki-taka
asunen bat hartzea
baino ez zaizu falta. (bis)

M. Arzallus

Kuadernoa uztea
duzu zuk onena
nik badakit itxura
badakit izena
beti izan naiz fana
ni Asterixena
ta Panoramixekin
ikasi dut dena. (bis)

J. Uria

Panoramix zen druida
kasi perfektua
ta nahiz ta ustez dena
duzun ulertua
nola dena duzun hor
sortan aletua
egingo dizu efektu
ta kontraefektua. (bis)

M. Arzallus

Lasai egon basora
etortzen naiz usu
hemengo larre denak
nereak dituzu
zerbait prestatu dut ta
lasai egon aizu!
Total lehenengo zuk
probatuko duzu. (bis)

J. Uria

Agintzen ere hasi
halakoren baten
Panoramix, Asterix
dena duzu ematen
dena dakizu hau eta
bestea esaten
ikastaroa igual zuk
eman zenezakeen. (bis)

M. Arzallus

Baina ez naiz ausarta
naiz nahiko koldarra
hara asko bildu ditut
dauzkat barra-barra
izena ere hola
du: sendabelarra.
Hola izena badu
ezin da izan txarra. (bis)





S. Colina - M. Artetxe

Gaia: Sustrai eta Miren, lagunak zarete. Sustrai, etxean erreforma egin nahi zenuen, eta Miren boluntario agertu zen. Hasi da lanean eta ohartzeko behar ez zen horma bat botatzen ari dela konturatu zara.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nijoa*

S. Colina

Dena egiten duzu
zuk lagunen alde
beti baitzaude gertu
gainera debalde
baina utziko duzu
halaxe bazaude
gure laguntasuna
zutaberik gabe. (bis)

M. Artetxe

Mazarekin hasita
piztu zait odola
eta horma bota dut
galdu dut kontrola
sala ta sukaldea
batu ditut hola
ezin duzu ukatu
hobeto dagola. (bis)

S. Colina

Etxe bat ikusten nun
eder ta amesti
ta ezerezean utzi
dit bat eta ez bi
hola konturatu naiz
minkor bezain ezti
merkea beti atera
ohi dela garesti. (bis)

M. Artetxe

Ba ez dakit badaukazun
hau ordaintzeko lain
utzi dizut moderno
utzi dizut apain
minimalist style-a
uztazu nere gain
ze honi *open concept*
deitzen zaio orain. (bis)

S. Colina

Ta orain dator adar
jotzearen txanda
zer egin behar dut nik
obra hontatik landa
aizu Miren ni ez naiz
Urkulluren banda
ez nauzu engainatzen
inglesez esanda. (bis)

M. Artetxe

Inglesezko hitz denak
ezin dira zenba
PNVk luzea
dauka ta zerrenda
baina lagunak gara
eta Sustrai bengal!
*Euskadi, auzolana*¹²
atera merienda. (bis)

12 Eusko Jaurlaritzaren marketing
kanpaina bateko leloa.

SEI PUNTUKO MOTZA

N. Ibarzabal - M. Arzallus

Gaia: Nerea eta Maddalen bikotea zarete. Duela gutxi etxalde batean bizitzen hasi zineten, eta zuen kontsumorako abere batzuk haztea erabaki zenuten. Nerea, unea iritsi denean Maddalenek abereak ez hiltzea proposatu dizu.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Dozena bat bertso berri A*

N. Ibarzabal

Gure atxur ta aizkora
ortu txiki eta lora
oilo ta txerri ta arkumeak
haziaz gustora
baina joanez denbora
leku hau pasatuko da
gure baserri jasangarritik
zoologikora. (bis)

M. Arzallus

Hiria botaz askara
etorri ginen Sarara
zoologiko bat montatzea ere
ote dugu traba?
Arkume txikia hara
bihozgabea al zara?
Nerea ezin dut jasan bere
triste begirada. (bis)

N. Ibarzabal

Ba ez nago oso trankila
ez baitzara hain abila
leku honetan erein ditugu
esperantza pila
gure arkumetxo umila
etxean gera dadila
ta gero dendan erosi beste
baten txuletilla. (bis)

M. Arzallus

Ba dendan saltzen badute
gustora hartuko nuke
ziur prezio merkeagoan ere
salduko digute
zu horren zara ilustre
jakintsu ta haundiuste
animaliek eskubideak
izango dituzte? (bis)

N. Ibarzabal

Eskubideen demanda
zabiltza dinbi ta danba
eskubideei ondo eustea
hemen nahiko lan da
pasata urteen langa
gera daitezen etzanda
biziko gara bildotsan partez
ardi zaharra janda. (bis)

M. Arzallus

Hogei badaude gutzira
ze ederra, ze ditzira
antxume eta ardi zahar denak
zaintzea desira
hain ongi bizi badira
proposamen bat begira:
proba egiteko gaur gauean joan
zu oilotegira. (bis)

S. Colina - A. Labaka

Gaia: Sustrai eta Ane senide bana duzue kartzelan. Azken urteotan elkarrekin joan zarete ehundaka kilometrora bisitan. Sustrai, gaur Anek telefonoz deitu dizu bere senidea Euskal Herriko kartzela batera ekarriko dutela erranez.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Aresoarren bandera*

S. Colina

Daukat eltzea egosten
ez dut gezurrik erosten
nahiz ta zurea neretzat ez den
Ane eragozpen
nabari dut zainak hozten
ta arteriak izozten
baina bizitzak erakutsi dit
besteengatik pozten. (bis)

A. Labaka

Kartzelako alderdia
zepo barruko erbia
orain artean batera bota
degu izerdia
ai gu bion sinergia
bihurtzen da energia
nik poz haundia daukat gaur baina
soilik poz erdia. (bis)

S. Colina

Nola asmatu formetan
egonez onez onetan
baten kaltea besteen mesede
den bizi honetan.
Nerea noiz dator bueltan?
Zurea hemen da bertan.
Beti galtzaile irteten gara
konparaketetan. (bis)

A. Labaka

Bada nahiko barne ekaitz
konparaketa ta bekaitz
zuk esan dezu sarri askotan
egiten dute gaitz
laguntzeko hizketagaiz
bidea egin degu maiz
eta zurea ekarri arte
zurekin joango naiz. (bis)

S. Colina

Zuk segi zurea zaintzen
bere muxuak usaintzen
eta ez hasi erreala ez
den ezer eskaintzen
nahiz mendeku sineskaitzen
zauririk ez den orbaintzen
nik segiko dut nerea ez den
kondena ordaintzen. (bis)

A. Labaka

Sartu zituzten lezera
biolentora, hezera
eta ordutik gure bizitzan
nahikoa haize da
muxu bat zure ertzera
goazen adoretzera
Madril aldetik Zaballaraino
ta handik etxera. (bis)



M. Artetxe - J. Uria

Gaia: Miren eta Jone minbiziaren ondorioz bular bana kendu zieten bi emakume zarete. Miren, gaixotasuna gainditu duzue eta Jonek bular bakarrarekin bizitzeko hautua egin duela erran dizu.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Aresoarren bandera*

M. Artetxe

Jone gure minbiziko
garaia ez dugu biziko
berriz jarrita medikuek bi
bular protesiko
nahiz ta ez dugun ahantziko
hutsune horrek betiko
ez ote digu bizitakoa
gogoraraziko? (bis)

J. Uria

Protesiaren epela
probatu, nola bestela?
Baina ezeroso eta zeozer
infektatu zela
nahiz izan den flash itzela
diotsut izan bezela
erdiarekin osatuagoa
sentitzen naizela. (bis)

M. Artetxe

Ispiluari begira
bihotza taupan ari da
ikusiz nire orbain luzeak
dakarren ditzira
dena aldatuko da tira
gure lanaren harira!
Ni ohituko naiz baina besteak
ohituko al dira? (bis)

J. Uria

Zu baldin bazaude pozik
arraroak izan ezik
zure inguruak ere ez du egingo
kontrarako hitzik
protesien zenbait fantasik
gu behartzeraino kasik
baina ez dute gugan pentsatzen
besteengan baizik. (bis)

M. Artetxe

Ospital hotzeko gela
diagnostiko xaramela
ze melodia iluna eta
ze aro krudela
ez zen ez bukatu bela
eskutik helduz horrela
ospa dezagun libre izatea
bizirik gaudela! (bis)

J. Uria

Hori ere ez da broma
maiz muga hortan egona
ta nik nirea kontatu nahian
etorri naiz hona
sentimendu ta hormona
jarri, kendu, hautu forma
argi utzi nahi dut edozein dela
erabaki ona. (bis)

GANBARAKO LANA

S. Colina

Gaia: Kalean zoazela haren ahotsa entzun duzu. Hunkitu egin zara.

Neurria: Hamabostekoa, handiaren moldekoa, 11 puntuz

Doinua: *Izarren hautsa egun batean*

Gorabehera asko izaten dira
bizitzaren erliebean
inoiz edo behin ahanzteraino
jende garela jendean
keinu bat egin didazunez zuk
kartoi artean ikusi zaitut
hotzak harturik mendean
garai batean klasekideak
aprobatzeko xedean
orain bizitzak kokatu gaitu
bakoitza bere fedean
klasekideak ginenak lehen
orain hor zaude eta ni hemen
zu zurean, ni nerean
baina ez klase berean.

Azala oskol bilakatu zait
ta trikutu zait sabela
nere barnean pentsatzeraino
Hustu behar nuke sakela
ezin direnak inolaz bete
zoritxarrean ez al zarete
zu eta zure kapela?
Igual pintxo bat ordain nezakeen
edo ordaindu hotela
zure ahotsa gogoratzean
ume garaian bezela
hurbildu ondoren zure ertzero
buru makurka joan naiz etxera
gaur badakit dena dela
ni ere izan nintekeela.

Matematikan trebea zinen
beti moldatzen zinen fin
orain kapelan dauzkazun sosak
halare zenbatu ezin
nahiz zu ondotik hizketan jardun
entzuten senti ohi naiz errudun
eta noski erruek min
zure ondora joan nintekeen
eta esan: kaixo Fermin!
Baina malkoei eusteko egin
dut horrenbeste ahalegin
ta zuk hizketan babestu nauzu
ta besarkada eman didazu
zugana hurbildu nendin
baina ez dut jakin zer egin.

BUKAERAKO AGURRA

M. Arzallus

Neurria: Zortzikoa, berdinen moldekoa, 6 puntu

Doinua: *Lagunen bat desterruan / Motxila barruan*

Bertsoa hitzaren bide
gure komunikabide
bertsoa Euskal Herri bat bizi
dela adibide
bertsoa minean kide
gure, zuen eta nire
isilarazten badute ere
kantatzen du libre! (bis)



Aitor Bizkarra Ruiz



Aitor Mendiluze Gonzalez



Beñat Gaztelumendi Arandia



Eñaut Martikorena Lizaso



Julio Soto Ezkurdia



Saioa Alkaiza Guallar

DURANGO

2022/11/12, LARUNBATA, 17:00

LANDAKO GUNEA

LAUGARREN FINALAURREKOA

Bertsolariak:

Aitor Bizkarra Ruiz

Aitor Mendiluze Gonzalez

Beñat Gaztelumendi Arandia

Eñaut Martikorena Lizaso

Julio Soto Ezkurdia

Saioa Alkaiza Guallar

Gai-emailea: **Ane Ezenarro Beristain.**

Epaimahaiko kideak: Ainhoa Arregi Elosua, Bakarne Urreaga Etxeberria, Ekaitz Elorriaga Anduaga, Eneritz Azkue Basurko, Joseba Beltza Bengoetxea, Joseba Santxo Uriarte eta Maialen Berra Zubieta.

Giro eguzkitsuak eta epelak ohikoak bihurtzen ari diren udazken honetan badira aldatzen ez diren gauzak. Klasiko bat: zail dago Durangon autoa aparkatzea, bai behintzat Landako gunetik gertu utzi nahi duenarentzat. Nahi baino kale batzuk atzerago utzi dugu autoa, pausu batzuk eginez Iurretan barrena ibiltzeko aukera eman digu atarikoak.

Landakoko atea gurutzatzean gogoratu dugu gutxi falta dela Azokarako, bi-hiru aste. Txapelketan dabilen jende pila ikusita jendetza batuko da abenduaren 5etik 8ra. Gaur, ordea, libre-libre dauzkagu lehen metroak. Eskuinean komunak eta taberna, hauek elkarren ondoan egon behar dute beti; ezker aldean dendak eta informazio puntua. Stand gisako egiturarik gabe handiagoa ematen du gunek, askoz handiagoa. Behin metro batzuk pasata bestelakoa da itxura. Durangaldeko bertso eskolako lagunek 2.200 aulki jarri dituzte, banan bana eta zuzen asko jarri ere, eskadra eta kartaboiarekin jarrita daudela dirudi. Irunen aldean luzera handia hartu du aretoak, Landako estuagoa delako. Bi aldeetan dituen kristalezko atek areto sentrazioa txikitzen diote. Tarteka umeak ikusten dira kanpoaldean baloiarekin jolasten. Ez da

ezer izan, bakarkakoetan pareko taberna bateko terrazan musikariak hasi direnean izan dugu nahasmenarekin alderatuta. Antza, antolatzaileek azken agurrak hasi arteko tarte adostu dute musikariekin eta tabernariekin. Azkar isildu dira, agurrak hasi diren arte. Gaitzerdi, beraz.

Durangon amaituko da finalurrekoen lehen fasea, osteko hiru saioek erabakiko dute finaleko zortzikotea. Gaur kantuan izango dira 2017ko finalistetako azken biak: Aitor Mendiluze eta Beñat Gaztelumendi. Ondoan izango dituzte Eñaut Martikorena, Aitor Bizkarra, Saioa Alkaiza eta Julio Soto. Aitor Bizkarra abadiñarrak jaso du txalo gehien, ondoko herrian aritzeak bietatik du, animo eta presioa opari. Bakarkakoan asmatu eta jendea piztu da. Orokorrean saio ederra joan da, giroan bero eta puntuazioz lau bertsolari behintzat finalerako lan erdiak eginda gelditu direlako: Bizkarra eta Soto oso gertu; Gaztelumendi eta Mendiluze barruan. Azken honek irabazi du saioa, seguru eta ariketa guztietan ale onak utzi ditu andoaindarrak.



ZORTZIKO HANDIA

S. Alkaiza - B. Gaztelumendi

Gaia: Saioa eta Beñat aktoreak zarete. Azken boladan egin dituzuen castingetan, lana lortzeko ezinbesteko baldintza izan duzue sare sozialetan aktibo egotea.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Oraindik hango oihartzun hots bat*

S. Alkaiza

Besteen begira galdera ikurra baino ez da aktorea asko ikasi nun, teknika daukat zorrotza ta dotorea. TikTok, Facebooka edo Twitterra ez nago bertan gordea erakusleihu izan liteke preso hartzen gaitu ordea.

B. Gaztelumendi

Preso hartu arren ni beti nabil produktoreen esaneko beti zeozer komentatzeko beti zerbait esateko! Facebook, Instagram eta TikToken bateko eta besteko beste oholtza bat baino ez dira aktoreak izateko.

S. Alkaiza

Estadoetan ze egoera zer da lanaren kartzela? Fokupea da beti epai bat baina epai bat ustela. Pantaila handian erakutsi dut kapaza naizela bela zeluloidean egin dudana baloratu dezatela.

B. Gaztelumendi

Baina mundua ez doa horrantz egin zaidazu mesede sare sozialek gaur egin dute kaleak beste botere. Horrenbeste troll ta txiolari edozein jartzeko berde hemen paper bat jokatzten baitu aktore ez denak ere.

S. Alkaiza

Papera edonork jokatu ohi du gidoian tenkatuz soka "Twitterren egin" esaten dute ta sentitzen naiz itota intsumisoak izan behar gara ta ez nabil adar joka sortzaile batek beti egiten du korronte handien kontra.

B. Gaztelumendi

Baina korronte haundi xamarra dugu lehengoen aldean ni saiatzen naiz beti ibiltzen zeozer jartzen alean zuk nahi baduzu zure ekarpena egin ezazu kalean nik fokupean jarraituko dut ta zuk nire itzalean.

J. Soto - A. Mendiluze

Gaia: Julio eta Aitor bikotea zarete. Julio gaur da zure urtebetetze eguna. Aitorrek erretzeari uzteko partxeak oparitu dizkizu.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Gizona da zoroa*

J. Soto

Non atera zenuen
nobio karneta?
Utziarazi asmoz
neri zigarreta
partxe batzuei jarri
diezu arreta
ez dakit baino nago
pixka bat erreta. (bis)

A. Mendiluze

Laztana barka baina
esazu egia
nola mudatu zaizu
orain aurpegia?
Erreta omen zaude
entzuten det ia
hau da zu erre zeran
lehenengo aldia. (bis)

J. Soto

Lehenbiziko urtean
musu eta musu
egingo ninduzula
beti zorientsu.
Despistatu samarrik
zabiltza geroz zu
partxeari partxea
ipintzen diozu. (bis)

A. Mendiluze

Erre ordeztu musua
hau zen apustua
baina bizioak du
guztiz zapuztua.
Aspaldion musua
da juxtu juxtua
Julio ez zait gustatzen
hautsontzi gustua. (bis)

J. Soto

Kea emate´al dizut
nik musu-trukean?
Gozatu bi ezpainoz
ezpainak uztean
gurea apurua
dagoen ustean
puru bat oparitu
hurrengo urtean. (bis)

A. Mendiluze

Tabakoari jarri
diot nik eskela
ez al det garbi utzi
goxoa ez dela?
Ziur partxeek lagun
ahal zaituztela
jarri besoan edo
ahoan bestela. (bis)



BINAKA PUNTUTAN, GAIA EMANDA

A. Mendiluze - E. Martikorena

Gaia: Aitor eta Eñaut parrandatik bueltan trenean lo gelditu zarete. Esnatu zaretenean, trenea aparkalekuan dago, hutsik.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Maritxu nora zoaz I*

- | | | | |
|----------------|--|----------------|---|
| A. Mendiluze | Eñaut hau ze kristo da? Nun zaude? Nun nago? | E. Martikorena | Behar ez direnean gerturatzten dira |
| E. Martikorena | Nik ez dakit ba Aitor zuk baino gehiago. | A. Mendiluze | ojala gaur halaxe etorri balira! |
| A. Mendiluze | Eraman gaituzte nahi baino urrunago. | E. Martikorena | Nork esango zigun gui hortako desira? |
| E. Martikorena | Hor Martiko jartzen du baina ze arraro! | A. Mendiluze | Iritsi gera behar ez zen geltokira. |
| E. Martikorena | Martiko hemen ez zan lehenago izana | A. Mendiluze | Honi esaten zaio erretira txarra |
| A. Mendiluze | ba pentsa nik ulertzen zaila daukadana! | E. Martikorena | hurrengoan hontatik ikasi beharra |
| E. Martikorena | Tokin gelditu dira Durango ta Trama. | A. Mendiluze | oinez bueltatu behar degu tirri-tarra |
| A. Mendiluze | Utzi kartelak eta bueltatu nigana. | E. Martikorena | oinez Hernaniraino da bide kaxkarra. |
| A. Mendiluze | Zuk ez al zeneukan ba alarma jarria? | E. Martikorena | A-8an ni behintzat ez naiz ta sartuko. |
| E. Martikorena | Baina fallatu in dit ta orain larria! | A. Mendiluze | Eramango zaituzte azaldu orduko. |
| A. Mendiluze | Mobila kargatuta ezin ekarria. | E. Martikorena | Gero kamioiren bat hilketan lekuko. |
| E. Martikorena | Pikari laguntzeko egin aldarria. | A. Mendiluze | Dedo ez behintzat egin ez zaituzte hartuko. |

A. Mendiluze Akaso onena da
etxera deitzea
E. Martikorena hobe degu bakarrik
guk abiatzea.
A. Mendiluze Bai bateririk ez da
ta nun da etxea?
E. Martikorena PESAn aukera degu
diruz pagatzea.

E. Martikorena Baina karteran daukat
kriston mixeria
A. Mendiluze beti bezela zaude
berriz alegia
E. Martikorena txoferraren aurrian
tonto aurpegia.
A. Mendiluze Nik ordainduko det ta
buelatatu erdia.



B. Gaztelumendi - J. Soto

Gaia: Beñat eta Julio hurrengo fasera pasatzeko lehian dauden bi bertsolari zarete.
Faseko azkeneko saioa da gaurkoa eta publikoan zaudete elkarren ondoan.
Aurkezlea aktaren zain dago.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Mendiko umea naiz*

B. Gaztelumendi	Hau da giro tristea! Hau da saio txarra!	J. Soto	Baina bueno ez pentsa hori ere justu.
J. Soto	Nik uste daukatela hobetu beharra!	B. Gaztelumendi	Ez dela pasatuko egin det apustu.
B. Gaztelumendi	Nundik atera da hain kuadrilla baldarra?	J. Soto	Zazpiehun puntu ezetz lehenengoak hustu.
J. Soto	Gaztelumendi flojo ta eskas Bizkarra.	B. Gaztelumendi	Haien ametsak baietz gaurkoan zapuztu!
J. Soto	Ta Mendiluze ere espero nun gehio.	B. Gaztelumendi	Ta Saioa Alkaiza ondo hasi da baina
B. Gaztelumendi	Hona etorri ez balitz igual berak nahio.	J. Soto	nik uste, uste zula ote zen Egaña.
J. Soto	Haserako agurretan denek “Gaur zer saio!”	B. Gaztelumendi	Hori nahiko dotore joan zaio alajaina!
B. Gaztelumendi	saioa nahiko luze nunbait egin zaio.	J. Soto	Ez du nahi bezela gaur dantzatu mingaina.
B. Gaztelumendi	Gaztelumendi hori bai dela zozoa!	J. Soto	Nafarroko finala egin zun edarra
J. Soto	Bertso edarrak baino ez mamiz osoa!	B. Gaztelumendi	Juliok zeukan pixka’t hobetu beharra!
B. Gaztelumendi	Ez dakit nora duen hark zuzentzen soa.	J. Soto	Suerte txarrak ekartzen du halabeharra
J. Soto	Gaur hoberena Soto ze grazioso!	B. Gaztelumendi	baina ez da izaten soilik suerte txarra.

- B. Gaztelumendi Baina Juliorekin
ez dezagun segi
- J. Soto Eñaut bere taberna
ta sagardotegi
- B. Gaztelumendi inoiz ez da egoten
isilik ta geldi!
- J. Soto Gu pasatuko gara
ta halare gaitzerdi.
- J. Soto Baino heldu da eta
kantatu dezala!
- B. Gaztelumendi Idazkaria ere
joan denez hala
- J. Soto Brum! Brum! Brum! Tanbor hotsak
puntuak ta hala!
- B. Gaztelumendi Ospa dezagun lortu
bagenu bezala.



SEI PUNTUKO MOTZA

J. Soto - S. Alkaiza

Gaia: Julio eta Saioa surflariak zarete. Zu Julio lapurtarra eta Saioa bizkaitarra. Julio, Saioak esan dizu euskal selekzioarekin aritzeko gonbidapena iritsi zaiola.

Neurria: Zortzikoa, berdinarenean moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Aresoarren bandera*

J. Soto

Neoprenozko bi mauka
olatu gainean taupa
ta selekzio euskaldun batek
zaitzakela hauta.
Suertea daukazu, aupa!
Ni're ez nengoke aurka
Euskal Herriko urak ordea
bi emari dauzka. (bis)

S. Alkaiza

Olatuen zipriztina
mugen kolore zikina
hartu olatua eta banoa
hain naiz hankarina!
Ordea duzu ezina
mugaz bestalde ekina
ze eginen zenun ordea nere
lekuan bazina? (bis)

J. Soto

Etorri zaigun trantzea
da bi uren balantzea
zure poza ta nere tristura
aurea ta atzea
ta neroni hautatzea
balitz ni zukan sartzea
ze eginen nukeen? Bada aukera
aprobetxatzea! (bis)

S. Alkaiza

Beti txakurrak ortozik
baina ernatu zara goizik
ta aitortu duzu berdina eginen
zenukeela pozik.
Zaurian ez bota gatzik
biok ados gaude kasik
hau ez da Euskal Selektzioa
partxetxo bat baizik. (bis)

J. Soto

Borroka ez da amaitu
egin behar da jarraitu
ta selekzio berak hartuko
al gaitu noizbait gu?
Herriak hala nahi baitu
zuk zure baitari aitu
ta egin surf ta lasai gu urak
elkartuko gaitu. (bis)

S. Alkaiza

Surf, pilota edo *puenting*
modernoenentzat *twerking!*
Urak batuta elkartu ahal dira
akaso sei erpin.
Beraz borrokari ekin
aldarriz nabil zurekin
tsunamiren bat surfeatuko
dugu elkarrekin. (bis)

A. Mendiluze - B. Gaztelumendi

Gaia: Aitor eta Beñat lagunak zarete. Gertu bizi arren, azkenaldian gutxitan egoten zarete elkarrekin. Aitor, Beñatek proposatu dizu hemendik aurrera astero hitzordu bat finkatzea.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Dozena bat bertso berri A*

A. Mendiluze

Aspaldi aukera murrizta
ezin egon, ezin mintza
hobe guztia garai batean
bezela balitza!
Bildu ezinik gabilta
konplikutzen da bizitza
eta zeuk ere beteko al dezu
emandako hitza? (bis)

B. Gaztelumendi

Horixe da gizakia
lotu behar den zapia
zu lasai egon beteko baitut
nik nire zatia.
Asteroko terapia
kafearen aitzakia
orain huts banak elkar dezala
lehendik ebakia. (bis)

A. Mendiluze

Bapo adiskide, bapo!
Beraz da kafetarako
aspaldi nunbait aukera haundirik
ez zen hortarako.
Elkartu ez geralako
igual galdetu beharko
Beñat zergatik bildu nahi dezu
eta zertarako? (bis)

B. Gaztelumendi

Baina biltzea bi morroi
Aitor noiztik da ba marroi?
Zer aipatua bada bizitzan
bere behe eta goi.
Ikusi ohi gara doi-doi
joan dira hainbeste sasoi
biltzea bera ez ote da ba
nahikoa arrazoi? (bis)

A. Mendiluze

Elkartzea bera sarri
bilakatzen da lokarri
elkar ikusi ta egotea
biontzat pozgarri.
Baina halere elkarri
zertan loturak ezarri?
Behin bil gaitezen ta ondo badoa
hurrengo bat jarri. (bis)

B. Gaztelumendi

Martxan jartzea errota
hori da gure erronka
elkarrizketa hasi dezagun
lerroka-lerroka.
Ez nazazula gorrota
ahaztu dezagun borroka
zuk badaezpada zure kafera
azukrea bota. (bis)

GANBARAKO LANA

A. Bizkarra

Gaia: Lehen aldiz egin duzu negar haren aurrean. Lasaitua hartu duzu.

Neurria: Hamalauko, handiaren moldekoa, 8 puntuz

Doinua: *Azken urteetan gure herrian*

Litrona batzuk, polen harri bat
zure etxepeko plaza
tornillo musu bat eman eta
eten zenidan arnasa.
Ni Mec de La Rue¹³, zu Flow two thousand¹⁴
biok gazte, biok basa
atso-agureek esaten zuten:
“Hori da drogoso traza!”
Zu txispa zinen, ni gasa
sua piztea erraza
baina udako amodioa zen
bi neraberen jolasa
ta ezin izan du udagoienak
jarri dion froga pasa. (bis)

13 Moraden abesti baten izena.

14 Bad Gyalen abesti baten izena.

San Prudentziotan zen bai hor nonbait
ezezagun ginen aurrez
nahiko antzera pentsatzen gendun
politikaz ta abarrez
txiste absurdo antzekoekin
lehertu ohi ginen barrez
azkenik hori izango zen ba
maitemintzea elkarrez
baina sua zoritxarrez
gaur hor dago ta bihar ez
geure artekoa zeuk eten zendun
ostiral ilunabarrez
ta ni kanpotik gizon plantetan
baina barrutik negarrez. (bis)

Hasieretan beti hala zen
zu negarti, zu ezbaiti
bizkar atzetik besoa pasa
ta eusten nizun galaiki.
Pelikuletan ikasitako
jokamoldeei jarraiki
ez garen zerbait erakustea
tokatu zaigu zenbaiti
gaur negarrez nago, maiti!
Zure falta daukat baiki
zalantzan nago malkoak kendu
eta animoa jaiki
edo ahula naizela onartu
ta dena hutsetik eraiki. (bis)



BUKAERAKO AGURRA

B. Gaztelumendi

Neurria: Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz

Doinua: *Betroiarena A*

Askok Donostiako
topaketan mira
beste asko Bilbora
joanda manira
eta gu Durangora
bertsoen mamira
txapelketak egiten
digulako tira.
Hitzaren neurrira
herritik herrira
eta gaur zortzira
Amurrora jira
herri hau berriz martxan
jartzen ari da. (bis)



Agin Laburu Rezola



Aitor Bizkarra Ruiz



Alaia Martin Etxebeste



Miren Artetxe Sarasola



Oihana Iguaran Barandiaran



Onintza Enbeita Maguregi

AMURRIO

2022/11/19, LARUNBATA, 17:00

BAÑUETA KIROLDEGIA

BOSGARREN FINALAURREKOA

Bertsolariak:

Agin Laburu Rezola

Aitor Bizkarra Ruiz

Alaia Martin Etxebeste

Miren Artetxe Sarasola

Oihana Iguaran Barandiaran

Onintza Enbeita Maguregi

Gai-emailea: **Beñat Vidal**

Epaimahaiko kideak: Ainhoa Sarasua Lascaray, Aitor Jimenez Tolosana, Amaia Otxotorena Gamio, Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa, Mirari Azula Aurrekoetxea, Nerea Bruño Artazkoz eta Zigor Leunda Eizmendi.

Bertsolari Txapelketa Nagusiko bi saio jokatu dira Araban: lehen faseko saioa Gasteizen eta gaur Amurrion izango da bigarren ekitaldia. Hain justu, duela bost urte egun berean jokatu zen Amurrion Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finalaurrekoa. Xenpelar Dokumentazio Zentroko lankide batek ekarri digu gogora efemeridea. Bigarren itzuliko finalaurrekoa izan zen orduko hartan ere. Azaroaren hemeretzia Bañueta kiroldagirako gordeta izango du Bertsolari Txapelketa Nagusiak.

Herritik aparte gelditzen da Bañueta, herrigunera erabat sartu gabe egin dugu kiroldegira arteko bidea. Gaurko egunez eskertu du sarbide zuzena bertsozaleak, euria ari baitu gelditu ere egin gabe. Goizeko lehen ordutik etenaldi bakanak izan dira. Ez da salbuespena izan atek irekitzeko unea; jendea ilaran ez bustitzeko hamar minutu lehenago zabaldu dituzte atek Bertsozale Elkarteko lagunek. Sarreran moketa ere jarri dute, baina ez dute sailhestu entzule batek irrist egin eta erortzea. Korrika txikian lekua hartzera doanak arriskua izaten du, kableak babesteko gomekin izaten da gehienetan. Gaur Gurutze Gorriko lagunez gain Amurrioko Babes Zibilekoak etorri dira gunea zaintzera. Esku honetan gaude. Ez da finalaurrekorik jendetsuena izango, baina mila berrehun bertsozale inguru bilduko gara kiroldegian. Harmaila

gutxi batzuk daude ezker eskubi, eta kantxan eseriko da jende multzo handiena. Oholtzara begiratu eta bada aldaketarik. Detaileak dira: bertsolarien mikroetan publizitate iragarkiak ikusten ditugu jarrita, gai-emailearenean txapelketa osoan egon den bezala. Publikoak ez ditu erraz ikusten, baina telebistako planoan presentzia handia hartzen dute. Laboral Kutxa, Euskal Sagardoa eta Getariako Txakolina dira gaurko etiketak. Bertsolari Txapelketa Nagusia amaierara iristen ari da eta interes guneak handitzen ari dira. Etxetik atera aurretik ETB1 katean ikusi dugu finalaren baitako egun osoko emisioa iragartzen duen iragarkia, kameralariek kantatutako bertso eta guzti.

Bertsozaleak, ordea, urrun sentitzen du finala, zer esanik ez kantuan ari diren bertsolariek. Alaia Martin, Oihana Iguaran, Agin Laburu, Aitor Bizkarra, Miren Artetxe eta Onintza Enbeitak bigarren aukera izango dute esku artean. Gaiak jartzen Beñat Vidal leioaztarra arituko da, hiru anaietan zaharrena.

Labur joan izanaren sentsazioa utzi digu saioak. Zortziko handian hasi partez hamarreko txikian aritzeak, eta bakarka gaiari erantzun aurretik bi puntu erantzuteak azkartzen ditu ariketak. Gainontzean, finalurreko baten logikari erantzun dio saioak. Ale onak bai, baina irristadak ere izan dira. Bertsolari guztiek asmatu dute saioen batean edo bestean. Bizkarra, esaterako, ofiziotan hobeto eta bakarkakoan borobildu ezinik, Iguarnek bakarkoan osatu du arratsaldeko bertsoaldirik osoena. Finalaren atarian geldituko dira biak. Martinek patrikan dauka finalerako pasea, gaurko saioan berak batu du punturik gehien eta ia seguru Nafarroa Arenan entzungo dugu kantuan bertsolari oiartzuarra.



HAMARREKO TXIKIA

M. Artetxe – O. Iguaran

Gaia: Enpresa bereko informatikariak zarete. Susmoa duzue nagusiak paradisu fiskaletan dirua gordetzen duela. Miren, Oihanak nagusiaren ordenagailua hackeatzea proposatu dizu.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Lagundurikan danoi I*

M. Artetxe

Honek izan ditzake
sei milioi inguru
hara ta hona mugituz
etekin aiduru
ta nik jakin nahi dudan
ez nago seguru
ta zuk hackeatzea
daukazu helburu
gero zer egiteko
aurkitzen badugu?

O. Iguaran

Miren, hau lan bat dugu
ta ez pasioa
ez du hemen babesten
noski nazioa.
Miaketan egingo
dugu akzioa
negoziatzea da
gure okasioa
Miren boterea da
informazioa.

M. Artetxe

Informatikari naiz
langile arrunta
ez naiz Teresa eta
hau ez da Kalkuta.
Ez dut nahi deus argitu
hasi eta buka
nere soldatarekin
nahikoa badut ta
Windowsa urtean behin
eguneratuta.

O. Iguaran

Windowsarena ez al da
murrizta, itxia?
Hainbeste milioitara
bera iritsia
paradisu batena
da susmo bitxia
bila dezagun ondo
izan malizia
ta eskatu komisio
edo justizia.

M. Artetxe

Gure lan hontan berez
da injustizia
honek mafiarekin
dauka igurtzia.
Baietz langabe amaitu
albora utzia
ez da merezimenduz
hark daukan guztia
zerbaitengatik baita
gure nagusia.

O. Iguaran

Nagusi izatea
baitzait enbarazu
ta hari miresmenez
hor ari zara zu
ni bila hasiko naiz
zuk ez egin kasu
harrapatzen banaute
pantailei eman su
ta nik hasitakoa
zuk buka ezazu.

A. Laburu – A. Bizkarra

Gaia: Balleta egiten duten bi nerabe zarete. Txikitatik elkarrekin ibili zarete entseguetan. Agin, Aitorrek esan dizu nekatu dela eta uztea pentsatu duela.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Gizakiak harri bat*

A. Laburu

Dantzari onak gera
hori da suertea!
Baina mutil kuadrilla
ez da hain merkea
hamabost urte adin
adin ta epea
nahiz ta barrua utzi
ohi digun betea
barrutik o kanpotik
al dator nekea? (bis)

A. Bizkarra

Pozik betetzen dugu
dantzari papera
ordea gerokoaz
lagunen artera
kanpotik heldu edo
barrutik atera
niri pisuegi zaizkit
bi gauzak batera
nire zalantzak eta
haien pentsakera. (bis)

A. Laburu

Zalantza eurek sortu
al dizute berez?
Noski inguratuta
gaudelako jendez
alperretik kanbiatu
ote gera mendez?
Ez nazazu bakarrik
utzi ni mesedez
errespetatzen zaitut
baino ulertu ez. (bis)

A. Bizkarra


Ez diot ez duzunik
laguna arrazoi
ordea bi mallakin
hor dantzan bi morroi
gaur egunean ere
ez da gustatu ohi
nahiz oskolez moderno
garen sasoiz sasoi
mamiz segitzen dugu
oso atzerakoi. (bis)

A. Laburu

Mamia ta azala
bereizirik bapo
beste aukerarikan
ez da guretzako
artalde hontan ardi
beltzak geralako
atzerakoi diozu
baino alto! Alto!
Hankak lurrean baino
egin zazu salto! (bis)

A. Bizkarra

Ta haien aurreiritziak
asko ez elikatu
hanka puntetan jardun
nahi dut delikatu.
Bai arrazoi daukazu
ta nahiz konturatu
bi aukera soilik dauzkat
ta ez asaldatu
afizioak edo
lagunak aldatu. (bis)



A. Martin – On. Enbeita

Gaia: Hilabeteak dira sexu lagunak zaretela. Orain arte argi zenuten zuen harremana sexura mugatzen zela. Alai, gaur Onintzak aitortu dizu zurekin maitemindu dela.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Zer da gaur Donostian*

A. Martin

Fruitua eman dizu
gutaz hausnartzeak
ta poza ematen dit
hortan ausartzeak.
Zer esan nahi ote du
berez maitatzeak?
Nahiz poz ematen didan
gu biok batzeak
beldurra ematen dit
gero min hartzeak. (bis)

On. Enbeita

Baina bizitzak mina
ematen digu maiz
gauza eder guztiek
daukate zerbait gaitz.
Handi ikusten zaitut
gorputzez ta bisaiz
ta hobe argitzea
egoera garaiz
sua eman zenidan
ta erre egin naiz. (bis)

A. Martin

Lasai berez ez dizut
nik zertan eman min
gure ezpainetan zenbat
bero, zenbat karmin!
Gure harremana da
plazeraren lagin
hola jarraitu nahi dut
ligez lige, arin
morbo pixka't behar da
txispa itzal ez dadin. (bis)

On. Enbeita

Teoria ondo dakit
izanez, izenez
baina praktikan nago
apurtuta senez.
Zutaz maiteminduta
oso nagoenez
egoera konpontzen
ez daukagu errez
nik ez dut uzterik nahi
baina hau ere ez. (bis)

A. Martin

Gure arteko txispak
behar du hartu su
gorroto ta maitasun
dira bi lehengusu.
Beraz segi dezagun
bero eta sutsu
maite, ez maite, ez dakit
gustuko zaitut zu.
Ahaztu etiketak ta
emaidazu musu! (bis)

On. Enbeita

Kasik nengoenean
premenopausika
ondora etorri zinen
hain bizi, korrika.
Ta orain hemen nago
hain kursi jarrita
musu eman ta egin
dezagun polita
azkenekoz larrutan
kontuak utzita. (bis)



ZORTZIKO HANDIA

A. Bizkarra – A. Martin

Gaia: Haur jaioberri baten gurasoak zarete. Epaileak ez du zuen umeari ipini nahi diozuen izena onartzen, eta beste bat ipintzea erabaki du.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Menditarra naiz eta gogoan*

A. Bizkarra

Guk umetxoa izen ederrez
haztea genuen xede
ta izentxo bat amenazu bat
ote dugu? Alafede!
Lehenago gure adarrak mozten
jardun izan ziren trebe
dagoeneko ez digute uzten
*haziak*¹⁵ ereiten ere.

A. Martin

Epaile batzuk ez baitaukate
ez errespetu, ez senik
euskarafobo izaten dira
hor dauden asko maizenik!
Ez zuen uste Hazia izena
izen egokia zenik
epaile horrek egindakoak
niretzat ez du izenik.

A. Bizkarra

Ta hornituak al daude haiek
askoz ere izen hobez?
Hobeto gaude Milagros eta
Suplicios horiek gordez!
Euskal izenek gure bizitza
betetzen dute kolorez
nola edo hala lortu nahi dute
bizi gaitezen dolorez.

A. Martin

Ta polemika itzali nahian
gogor egin dute lana
debekatzea, dudan jartzea
hori baita euren plana.
Guk izentxo bat jarri diogu
ta jarri diote zama
ta orain berak eraikiko du
zein duen bere izana.

A. Bizkarra

Nahiz ta izena jartzen ez utzi
izanik ezin esleitu
gerora dena urratsik urrats
norberak egiten baitu.
Baina aintzinako sasioan gisan
konponbide bat dut, beitu:
NANean jarri dezala Marta
eta guk Hazia deitu.

A. Martin

Marta gehiegi iruditzen zait
geratuko zaio handi
baina epaileak ta gertukoak
egongo garenez adi
Hazia deitu eta haziak
lur azpitik gorantz jalgi
gure hizkuntza loratu dadin
belaunaldiz belaunaldi.

15 Errealitateko kasuan, Hazia zen gurasoek ipini nahi zuten izena.

O. Iguaran – A. Laburu

Gaia: Gizarte mugimendu bateko soldatapeko langileak zarete. Elkartearen aurreikuspen ekonomikoak ez dira onak. Badirudi datorren urtean ere ezingo direla zuen soldatak igo.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Kintak jarrita ondorenia*

O. Iguaran

Mugimenduak zutik iraun du
krisiz krisi, mendez mende
borondatean ari delako
lanean hainbeste jende.
Soldatak ezin direla igo
baina ez gaude hoiene mende
aspaldi joan ginen hemendik
diruagatik bageunde. (bis)

A. Laburu

Gure ideien defentsa ez da
izaten gure minbizi
baino borroka ere ez danez
ekintza hutsen gutizi
mila arrazoi, mila aitzaki
eta beste mila krisi
baina Oihana haizetik ere
beti ezin gera bizi. (bis)

O. Iguaran

Soldata jetsi, ez zaigu jaitsi
ez da izan horren txar ba!
Ezin diogu bazkideari
garestitze bat enkarga
soldata igo ezin bazaigu
arintzeko bizi karga
sarrera igo ezin denean
gastua jaitsi behar da. (bis)

A. Laburu

Gastua jetsi behar degula
nik Oihana ez dakit ba!
Dirulaguntzei ere nahiz eta
egin hamaika kritika
ez dakit nora helduko geran
gure gastuak jetsita
kapitalista ematen dezu
hola hizketan hasita. (bis)

O. Iguaran

Ez dakit baina hori haustea
ez al zen gure erronka?
Ez ote genuen gure bidea
hasi hoiekin borroka?
Baina halere zergatik jardun
bi elkarrekin orroka?
Diruan alde zu ari zara
ta ni aldiz euren kontra. (bis)

A. Laburu

Dirua degu sarri mesede
ta falta denean traba
bestaldekoa ere ikusi
degu bertatik bertara
bat alde eta bestea kontra
normalena hori hara
mundu honetan inportantea
oreka mantentzea da. (bis)

ZORTZIKO TXIKIA

O. Iguaran – A. Martin

Gaia: Oihana, autoa aparkatzen ari zarela, Alaia espaloitik hasi zaizu keinuka, laguntzeko asmoz. Aurpegi txarra ipini diozun arren, tematuta jarraitu du Alaiak. Oihana, azkenean kasu egin diozu, eta lehenengo oharrarekin batera, atzeko autoari kolpe handia eman diozu.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nijoa*

O. Iguaran

Azafata bat zinen
kosta zait lotzea
ta azkenerako lortu
duzu erotzea
kasu egin aurretik
on zan aitortzea
jotzea nahi zenula
atzeko kotxea. (bis)

A. Martin

Zuk aparkatzen duzu
L baten legez
bolantea helduta
halako boterez
hasieran ez zendun
nahikoa interes
egin zaidazu kasu
baina hainbeste ez! (bis)

O. Iguaran

Istripua sortuta
gainetik zuk burlan
keinua egin dezu
egoskor, mardul han!
L-a nahiz ta jantzi
nuen lehen sekulan
orain J daramat
ta ez matrikulan. (bis)

A. Martin

Egia esan nahiko
sujerente noa
aparkatzeko era
era modernoa!
Ia aterrizatu duzu
todoterrenoa
orain altxatu zazu
eskuko frenoak. (bis)

O. Iguaran

Oraindik aholkua
dakarzu buruak
kasu hau ez du hartzen
eskuliburuak
paperak egin bitez
hemen apuruak
hau pagatuko al du
zure seguruak? (bis)

A. Martin

Ez baina emango dizut
bost xentimo paga
gainetik kendu asmoz
laser begirada.
Barka hola sartzea
zure bizitzara
ertzain jubilatua
holakoak gara. (bis)

A. Bizkarra – On. Enbeita

Gaia: Lagunak zarete. Aitor, egunean zehar emandako pauso guztiak zenbatzen dituen aplikazioa instalatu duzue sakelako telefonoan. Geroztik, oinez zoazten bakoitzean Onintza telefonoari begira ikusten duzu.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Durangotik gorako*

A. Bizkarra

Zuk mobilak dezente
dituzu gustuko
aplikazio hoiek
ez zaizkit ahaztuko
baina pantaila horri
egiozu uko
begiratzeak ez du
pausorik gehituko. (bis)

On. Enbeita

Ni emozioz nabil
pasioz beteta
mobila ateratzen dut
pausuka, kolpeka
nekea, deskantsua
zaintzeko oreka
markagailua ez dut
lehertu nahi eta. (bis)

A. Bizkarra

Sportiva berriak
ta buruan zinta
pasiuan zabilta
gel bati haginka
eskuan mobila ta
zu arin-arinka.
Onintza kirolean
dena ez da pinta! (bis)

On. Enbeita

Zaindu egin behar da
itxura, tipoa
elikatu behar da
estereotipoa.
Baina lasai badaukat
pausuen pikoia
hamar milara heltzean
marianitoa. (bis)

A. Bizkarra

Beraz horretxegatik
jotzen duzu goia
marianitoa eta
gero txuletoia.
Onintza zuk daukazu
eduki sasoi!
Poteoan egingo
dugu maratoia. (bis)

On. Enbeita

Uste dut honek oso
urrun naramala
ni txikitxoia naiz zu
altua bezala
pausu bi ematen ditut
zuk bat eman ahala
ta uste dut gaurkoz jada
nahiko egin dudala. (bis)

GANBARAKO LANA **BAKARKA GAIA EMANDA**

M. Artetxe

Gaia: Gaur arte ez zara ausartu. Oraingoan erantzun egin duzu.

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz

Doinua: *Atmosferatik atera eta*

Etxera sartzen banaiz ni ez naiz
sartzen leku segurura
burua apal hurbildu ohi naiz
senarraren ingurura
berdin du zer den esandakoa
edota nere itxura
baina gainditu du muga
eta garaia heldu da
sartu denean zure ahotik
nere burumuin barrura
milioi bat eta ehungarren aldiz
“Zuk zer jakingo duzu ba?” (bis)

Ta kafesnea hartuz nik ere
eraiki dut zenbait mito
zure hileta irudikatuz
goxo-goxo nirekiko.
Begi nekatuotatik ez da
malko bakar bat jausiko.
Hilkutxa lau soka tinko
bera jetsi eta kitto!
Harrian kanka! Jotzen duenean
ez da beherago etsiko
zu niri bezain hotz eta astun
bekizu lurra betiko. (bis)

Entzun dut eta inertziz ditut
nere begiak aparta
baina sakelan botilatxo bat
dut ta zianuroa dauka.
Kafesnea hartu ta bota diot
likidoa tantaz-tanta
hari begira zeharka
nahi gabe baina dardarka
ta esan diot “Hortxe tostada
kafesnea eta Marca”
ta pentsatu dut goza ezazu
azken gosaria da ta. (bis)



A. Martin

Gaia: Gaur arte ez zara ausartu. Oraingoan erantzun egin duzu.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *ETAren su-etenetik*

Kafetegian nengoen
pozik nire aldarlean
txikia ta biok lehen
egonak ginen parkean.
Kafe bat eskatu dut ta
eseri gara atean
ta ondoan begiradak
mintzeko borondatean...

“Oraindik ere titian?
Oraindik ere katean?”
Ta hala erantzun diot
defentsan ez, atakean:
“Bularra emango diot
hala nahi dugun artean”. (bis)

Bi urteetan pasatuak
hainbat ta hainbat une txar
zenbat titiburu zauriz
eta zenbat sendabelar!
Baina ikasten joan gara
denbora dago galtzear
ta oraindik ere zara
hain hauskor eta hain mehar!
Beraz nere txiki polit
zuk behar banauzu behar
har zazu lasai titia
eta lasai egin negar
ta nahi dugun erritmoan
askatuko dugu elkar. (bis)

Ta ondoko bikotea
plantxatu egin da seko!
Eta altxa egin dira
minduenaren antzeko
bidali egin baditut
gu biontzako hobeto.
Azkenean ausartu naiz
ez daukat hitzik jateko
bestela ere andreok
askotan gara kateko
eta ez dut deus entzun nahi
aholkuak dauzkat lepo
eskubiderik ez dute
iritzia emateko. (bis)

BUKAERAKO AGURRA

M. Artetxe

Neurria: Hamaseikoa, handiaren moldekoa, 9 puntuz

Doinua: *Nere gorputza dardarka daukat*

Gauzak ez dira nahi bezain azkar
aldatu ohi batzuetan
inkontzienteak hartu egiten du
muga ez diren mugetan.
Baina hemen gaude eta hori nork
esango zigun umetan?
Ez gara bertan goxo egonak
bista intxaur urrunetan
gurea ez da elur bustia
area esku ahurretan
ez da sutautsa uretan
mapa busti bat unetan
hau gasolina bidoi hotz bat da
purpurina ilunpetan
ta ia argia ikus daiteke
zuen begi barruetan!



Beñat Gaztelumendi Arandia



Eñaut Martikorena Lizaso



Julio Soto Ezkurdia



Nerea Ibarzabal Salegi



Unai Agirre Goia



Sustrai Colina Acordarrementeria

BAIONA

2022/11/26, LARUNBATA, 17:00

LAUGA

SEIGARREN FINALAURREKOA

Bertsolariak:

Beñat Gaztelumendi Arandia

Eñaut Martikorena Lizaso

Julio Soto Ezkurdia

Nerea Ibarzabal Salegi

Unai Agirre Goia

Sustrai Colina Acordarrementeria

Gai-emailea: **Ainhoa Larretxea Agirre**

Epaimahaiko kideak: Ainoa Sarasua Lascaray, Aitor Jimenez Tolosana, Amaia Otxotorena Gamio, Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa, Mirari Azula Aurrekoetxea, Nerea Bruño Artazkoz eta Zigor Leunda Eizmendi.

Ondo ikasia daukagu Baionako Laugako bidea. Bertan jokatu dira Zuberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko bertsolari txapelketaren azken hiru edizioen finalak; 2012. urtetik 2016. urtera artekoak. Amets Arzallus behin eta Sustrai Colina bi alditan ikusi ditugu txapela janzten bertan.

Gaurkoan ez dago sarrerarik, betekada handia espero da. Zoragarria da lekua. Kanturako ederra, gozoa, kiroldegiko pista baliabidez ongi hornitua: atzeko aforamendua, neurritz nabarmen handiagoa den oholtza egoki bildua, argiztapen ekipo indartsua, ez da ezer falta. 2.200 entzuleren aurrean kantatzeko baldintza ezin egokiagoak. Baionako Udalak ekitaldi mordoxka antolatzen ditu kiroldegian, eta eleganzia handiz janzten du aretoa. Bezperan, esaterako, Pierre-Emmanuel Barréren bakarrizketa izan da bertan.

Aurpegi ezagunak bistaz kontrolatu eta berriketaldietan entzuten den euskara aintzat hartuta Euskal Herri osoko jendea bildu gara Laugan. Iparraldeko saio batean ezin baitu bestela izan, atarian makina postu zenbatu ditugu: Herri Urrats, bi Ikastola, Laugan bertan taberna... Denentzako dago lekua, baita txarangarentzat ere. Halere, ordu erdi faltan barruan izango gara hamarretik zortzi. Eta barruan giro dago, giro ederra.

.....
Bertsolari Txapelketa Nagusia 2022
.....

Langa agerian utzi zuen Amurrioko saioak. Iruñean bertsotan egin nahi duenak Iguaran eta Bizkarraren aurretik egin beharko du, eta besteren bat atzean utzi. Lan handiak dira horiek. Kantuan seikotea: Nerea Ibarzabal, Sustrai Colina, Unai Agirre, Julio Soto, Eñaut Martikorena eta Beñat Gaztelumendi. Begiratuak lehen itzulian etxeko lanak eginda edo erdi eginda utzi zituzten bertsolariengan. Nerea Ibarzabalen hasierako agurrak ondo laburbiltzen du txapelketaren “bai ala ez” sentipen hori. Markinarrak berak irabazi du saioa, gertu izan du Sustrai Colina. Beñat Gaztelumendik ere Iruñeko finalean abestuko du.



AGURRA

B. Gaztelumendi

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Norbere mundu intimo*

Askok sinistu ez arren
hemen herri bat badela
bertso-saioz bertso-saio
herriz herri gelaz gela
bistan da geografia
gorpuzten ari garela
gure bertsoak oinarri
ahula luke bestela
ganbara betetzen dugu
nahiz ez den hustu kartzela
seguru kantatzen dugu
hala bageunde bezela
arratsaldeon Baiona
ta bertsozale fidela
jar zaitezte eroso ta
gozatu dezazuela. (bis)

HAMARREKO TXIKIA

N. Ibarzabal - U. Agirre

Gaia: Nerea eta Unai Baionako karriketan saltoki txiki bana duzue. Nerea, Unai
erran dizu salmentek bere horretan segituz gero, bere saltokia itxiko duela.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Lagundurikan danoi I*

N. Ibarzabal

Black Friday ta Amazonek
horrenbeste kalte
bihurtu dira gure
eskuburdin kate
baina guk biltzen dugu
hainbeste jendarte
ta sinetsi nahi nuke
laguna gaur arte
ez garela bakarrik
paisaiaren parte.

U. Agirre

Baina horrela urterik
ez liteke josi
jateko behar ditut
nik hamaika dosi
gure etxeetan nola
lentejak egosi?
Jendearekin badet
hainbeste jelosi
txikia famatu ta
haundian erosi.

N. Ibarzabal

Gustora joan arren
leku haunditara
gero errekaduak
geure etxean laga
konfiantza baita hau
bertatik bertara
agian etorkizun
posible bat bada
txikienon artean
elkartzen bagara.

U. Agirre

Orain mingainetikan
nahiko al dit tira?
Hemen jarri zatzaizkit
aurretik begira
garai baten bagendun
ospe ta diztira
baina krisia joan da
oso urrutira
Nerea elkartzeko
beranduegi da.

N. Ibarzabal

Badakit badauzkagu
mila desengaino
ortzimugan guztia
lanbro ta behelaino
zure arropa denda
goxo eta ñaño
nahiago dut sartzea
neure etxeraino
zurean frankizi bat
aurkitzea baino.

U. Agirre

Baina ni jarraitzeko
gaur ez naiz kapaza
nor etorriko zaigun
hartu dezu traza
asko igo dituzte
argia ta gasa
laister lapurtu baietz
ura ta arnasa
oraindikan ez degu
okerrena pasa.

B. Gaztelumendi - N. Ibarzabal

Gaia: Seaskako ikasleak zarete. Azken urte duzue Lizeoan. Azterketak euskaraz egiteko trabak egon arren, borrokan segitzen duzue.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Oraindik hango oihartzun hots bat*

B. Gaztelumendi

Berez Seaskan ibili gara
nahikoa modu lasaian
baina Frantzia hain da itxia
sarri hizkuntzaren gaian
besteengandik ikasi behar
omen genukeen garaian
hemen gabiltza helduagoei
lezioak eman nahian.

N. Ibarzabal

Eta Bordelen egokitu da
isiltasuna haustea
Frantziak nahi du gure hizkuntza
paperetik erauztea
ai baina zer den baikorrak izan
ta tristuran ez jaustea!
Garaipen bat da hainbeste urtez
borroka bati eustea.

B. Gaztelumendi

Bai Bordeletik esaten dute
sarri nola aritu gu
Frantziak bere gurasokeri
papera aisa hartu du
hainbeste urte borroka baten
eta berdin dihardugu
zapalkuntzak zer esan nahi duen
ederki ikasi dugu.

N. Ibarzabal

Behintzat brebeta erdi euskaraz
genuena ezagutu
gerora zati hoiiek erauzi
ta Frantzia dago mutu
ezkututzen da hormen atzean
isiltasun ta ezkutu
nahi duenean askatzen baitu
nahi duenean estutu.

B. Gaztelumendi

Baina estutze ta askatze soilez
ez gara aise aseko
zenbat borroka egin ditugun
honaino ailegatzeko
periferian elkartzen gara
ez garenak ardatzeko
beste leku bat eraiki dugu
mundura begiratzeko.

N. Ibarzabal

Begirada bat geure-geurea
jarriaz mundu erdira
eta euskarak eduki dezan
mundu horretan kabida
orain bertsoa ia ondare
inmaterial da tira!
Baina hortarako baliabide
materialak behar dira.

J. Soto - E. Martikorena

Gaia: Julio eta Eñaut pisukideak zarete. Emakumeenganako indarkeriaren aurkako elkarretaratzera iritsi berri zarete. Bertan ikusi duzue bikotekideari tratu txarrak ematen dizkion bizilaguna.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Menditarra naiz eta gogoan*

J. Soto

Zertan ukatu denok garela
oraindik arrak arrear
bizilagunak bortizkeria
darabilki sen arrear
pankarta zuri letradun horren
eskubiko baztarrean
begira zazu zein harro dagon
pin morea paparrean.

E. Martikorena

Pankarta zuri hau zuriago
zalantza izpirik gabe
hemen gabilta portal bereko
bosgarren C eta 4-B
egia esan hau ikusita
oaintxe flipatzen gaude
gu itxurati gerala baino
okerraguak badaude.

J. Soto

Diskurso berri bat ikasia
dugu arian-arian
estetika're berritu eta
ipini ginen abian
baina gu ere bi gizon zuri
feministen gizaldian
geure burua zuritu nahian
etortzen gara agian.

E. Martikorena

Hori hala da nahiz nahi genukeen
beste zeozer sinestu
guri aipamen txikina egin
ta orduan zeinen estu!
Hala're honek gure helburu
hori betetzerik ez du
zuritu nahian etorri gera
ta orain kopeta belztu.

J. Soto

Bizilaguna ikusi eta
piztu den zurrumurruan
nahiz ta gu ere izandu garen
beste bi adreilu murruan
gizon guztiok hobe genuke
jausi gabe amarruan
behingoz onartu denok dugula
bizilagun bat barruan.

E. Martikorena

Baina ukatzen ari ohi gera
eman gabe amorea
esaten genuen txantxa hutsa zen
beste gabe umorea
eta hementxe elkartu gera
guk soinean pin morea
baina sarritan soriasitik
dator azal tumorea.

E. Martikorena - N. Ibarzabal

Gaia: Eñaut eta Nerea umoregileak zarete. Eñaut, Nereari elkarrekin emanaldi bat sortzea proposatu zenion, eta segidan erran zizun baietz. Eñaut, gaur da lehen lan saioa, eta Nereak hasi orduko trabak besterik ez dizkizu jartzen.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Gizona da zoroa*

E. Martikorena

Bertso kantua nola
hain degun ziurra
fallatzeko ez nekan
inungo beldurra
baina ai bizitza hau
horren da makurra
ia-ia dirudi
Eñauten agurra. (bis)

N. Ibarzabal

Eñauten agur hori
hobe da aparta
nahiz ta abiadura
baduzun aparta
Eñaut oholtaza gainera
erdi zarataka
argia piztu aurretik
igotzen zara-ta. (bis)

E. Martikorena

Bai ni nauzu geldian
gutxitxo irauna
hargatik deitzen naute
abailaren jauna
nahiz zure alde degun
plaza undergrounda¹⁶
barka Nerea baina
zu ez zera clowna¹⁷. (bis)

N. Ibarzabal

Nik zure mailakoa
izan nahiko nuke
umorerako txispa
argi eta txute
baina tarte haundia
dago bion truke
zuk ahoa zabaldu
ta barre eiten dute. (bis)

E. Martikorena

Pentsatuaz aho hoi
ezin da estali
beida ze diametro
a ze anomali
zuk bertsoan ite'zu
txispakin kiskali
baina neurria kendu
ta ordun itzali. (bis)

N. Ibarzabal

Ba pena litzateke
hitza itzaltzean
pozik nago ahoa
biok zabaltzean
erabil nazakezu
bentrilokuo antzean
ni ipini aurrean
eta zu atzean. (bis)

¹⁶ "Andegrauna" ahoskatu zuen.

¹⁷ "Klauna" ahoskatu zuen.



B. Gaztelumendi - S. Colina

Gaia: Beñat tatuatzailea eta Sustrai bezeroa zarete. Beñat, Sustrai etorri zaizu estudiora azalean tatuatutako izena ezkutatzeko eta berria idazteko eskatuz. Hirugarren aldia da gauza bera egiten duena.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orioko balearena*

B. Gaztelumendi

Lehenik Uxoarekin
egin nizun kasu
ta gero Leirerekin
zenbat enbarazu!
Eguraldia bezain
aldakor zera zu
hurrena pegatinak
ipini itzazu. (bis)

S. Colina

Maitaleei pegatzen
nataie jo ta su
gehiegi iritzi ta
gero kasu-kasu
kendu ezazu Leire
ta Malen jar zazu
behintzat beherapen bat
egingo didazu? (bis)

B. Gaztelumendi

Beherapen garaia
ja dago pasea
lehen tatuatu nizun
ipurdi atzea
bizkarra ta bularra
nolako klasea
nahi al duzu hurrena
kopetan jartzea? (bis)

S. Colina

Begira jarri zara
nere kopetara
baina ez atrebitu
orratz kolpetara
bizi bainaiz izenak
jarri ta ezaba
maitasunean azal
gogorra behar da. (bis)

B. Gaztelumendi

Baina zureak Sustrai
sortzen dit ikara
beti kromoa aldatzen
hona eta hara
“Azal gogorra behar”
entzun dizut jada
baina Sustrai zurea
gogorregia da. (bis)

S. Colina

Ipurdi ta bularrei
nahiz egin fereka
arren pakean utzi
zaidazu kopeta
ta ez zaidazu egin
burla ta iseka
zure negozioa nik
mantentzen dut eta. (bis)

U. Agirre - J. Soto

Gaia: Unai eta Julio lagunak zarete. Unai, Julio psikologia ikasten hasi da aurten.
Azkenaldian uneoro ibiltzen da zure jarrera guztiak aztertzen.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nijoa*

U. Agirre

Gaur bi lagun ederrak
hemen gera batu
nere bizitza nahi du
nolabait jiratu
ni ederki bizi naiz
ta zuk desiratu
arren Julio hola
nei ez begiratu. (bis)

J. Soto

Hala ez nintzan baina
bihurtu nauzula
konturatu naiz minez
esan didazula
gaur duzu zeru beltza
ta gero azula
nik uste haurtzaroko
trauma bat duzula. (bis)

J. Soto

Lasai gauza ona da
begien zeharra
zure hizketa daukat
aztertu beharra
orain negarra eta
gero irriparra
nik uste dut zarela
pixka't bipolarra. (bis)

U. Agirre

Amak erditu eta
pasa zan han bertan
eta geroztik nago
triste ta penetan
aizu Julio lagun
diotsut benetan
ez dizut ordainduko
jarraitu hizketan. (bis)

U. Agirre

Lagunak egiten dit
hainbat enbarazu
ze atxake ditudan
esanaz jo ta su
bipolarra omen naiz
hara zenbat kasu!
Hala ez nintzan baina
zuk bihurtu nauzu. (bis)

J. Soto

Guk osatzen duguna
ai zer lagun talde
aztertzen zaitut nola
goiz ta arratsalde
beti disimulan
galde eta galde
bipolarra bai baina
konsultak debalde. (bis)

GANBARAKO LANA **LEHEN PUNTUAK EMANDA**

E. Martikorena

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

**Ametsak betetzea
zer gauza polita**
baino holakorikan
ezin ikusita
nik bizitza daramat
ta jada etsita
simulazio honek
nun dauka *exita*?

**Zer amesten zenuen
haurra zinenean?**
Ziur txorakeriak
gehien-gehienean
halaxe egiten det
heldu naizenean
horixe gertatzen da
txoro zarenean.

B. Gaztelumendi

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

**Ametsak betetzea
zer gauza polita**
ni horretan ari naiz
gutxika-gutxika
Durangoko saioa
atzean utzita
lehenbiziko harria
daukagu jarrita.

**Zer amesten zenuen
haurra zinenean?**
Euskal Herri aske bat
bere onenean
euskera ardatzean ta
dena ordenean
ea kunplitzen ote
dugun azkenean!

GANBARAKO LANA BAKARKA GAIA EMANDA

N. Ibarzabal

Gaia: Bihar da egun handia. Ez joatea erabaki duzu.

Neurria: Hamalauko handia

Doinua: *Beste bateko inularretan*

Gaur hamar urte eman genuen
azkenengo besarkada
ta etxeokak ta ni ordutik
dezente urrundu gara
hain desberdina nintzen izaki
haiek eguna, ni gaba
bakoitzak bere bidezidorrak
hautatuak badaezpada
baina bizitza izan daiteke
telefono dei bat hara!
Izeba hila omen dago ta
bihar doa lurpetara
baina nik ez dut itzuli gura
familia horretara. (bis)

Beraz ez naute han aurkituko
beilatokiko atean
ea bizitzak batzen gaituen
beste aukeraren batean
nik nahiago dut kandela piztu
bakarrik bake-bakean
eta pentsatu izebarengan
negarrean eta kean
bere gorpua sartu ahala
suzko labea, harpean
barkatu izeba sentitzen dut zu
joatea apartean
baina pertsonak maite behar dira
bizirik dauden artean. (bis)

Ez dira egon nire minean
pozean ta hasarrean
beste etxe bat sortu nuen nik
beraien kontrakarrean
ta orain denekin elkartu behar
arratsalde bakarrean
irri txikiak, keinu lasaiak
hoztasuna beharrean
beilatokiko gezur artean
ahapeko marmarrean
horrek guztiak ipiniko nau
oso umore txarrean
famili on bat bagina legez
herri osoaren aurrean. (bis)

S. Colina

Gaia: Bihar da egun handia. Ez joatea erabaki duzu.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Norbere mundu intimo*

Agian ni entzutea
egingo zaizu arraro
bizkarrean daramaten
hilkutxa baten bainago
familiko bazkaria
bihar genuen ta klaro
lehenagotik ere nengon
preso hartuta zeharo.
Dena ez denez konpontzen
txuleta, arkume ta ardo
mundu hontatik joan naiz
neure sen ta neure garbo
min hau jasatea baino
libre izatea nahiago
bizitza antzerkia da
ta heriotza gehiago. (bis)

Elizan lehen ilaran
ikusten ditut gehienak
familiko bazkarian
bihar egongo direnak
konpartituko al dituzte
euren min ta sentipenak?
Konturatu familiarian
sortzen direla problemak
nahiz ta liberazio bat
ekarri azken orenak
susmoa daukat nerekin
joango direla denak
oroitzapenen damuak
damuen oroitzapenak
sentitzen nituenak ta
kontatzen ez nituenak. (bis)

Jadanik alferrik ditut
zuen txuleta ta arrai
bilakatu bainauzue
neure buruaren etsai
elizan agurtzeraino
nahiz eta nik ez nuen nahi
nonbait ohiturak bigarren
azala izaten darrai
ikusten ditut Otegi
Chivite ta Etxegarai
bertsoa Egañak bota du
bai, oraindik bizi da bai!
Nahiz eta izarren hautsa
bilakatzen den bizigai
bihar ez naiz joango eta
egin zazue lo lasai. (bis)

GANBARAKO LANA **LEHEN PUNTUAK EMANDA**

J. Soto

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

**Ametsak betetzea
zer gauza polita.**
Ametsa izaten da
gauzez ibilita
baina neri egunez
etorri naiz zita
ta amets egin nahi dut
hona iritsita.

**Zer amesten zenuen
haurra zinenean?**
Heriotzari beldur
nion gehiengan
ez nintzela inoiz hilko
nik oroimenean
ta amets berbera daukat
gaur'e barrenean.



BUKAERAKO AGURRA

U. Agirre

Neurria: Hamabiko txikia

Doinua: *Kantuz egin behar det*

Hau Baionako plaza
ze bero, ze giro
nahiz ta kartzelan egin
familira tiro.
Aurrera zoaztenak
koska eta jiro
mundua konpontzera
oholtzara igo
nik behin probatu nuen
ezin da aldiro
eta entzule zuri
eskerrak berriro.





Aitor Mendiluze Gonzalez



Amets Arzallus Antia



Joanes Illarregi Marzol



Jone Uria Albizuri



Maddalen Arzallus Antia



Saioa Alkaiza Guallar

BILBO

2022/12/03, LARUNBATA, 17:00

BIZKAIA FRONTOIA

BOSTGARREN FINALAURREKOA

Bertsolariak:

Aitor Mendiluze Gonzalez

Ametz Arzallus Antia

Joanes Illarregi Marzol

Jone Uria Albizuri

Maddalen Arzallus Antia

Saioa Alkaiza Guallar

Gai-emalea: **Idoia Anzorandia Kareaga.**

Epaimahaiko kideak: Ainhoa Sarasua Lascaray, Aitor Jimenez Tolosana, Amaia Otxotorena Gamio, Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa, Mirari Azula Aurrekoetxea, Nerea Bruño Artazkoz eta Zigor Leunda Eizmendi.

Euskararen Egunean jokatu da Bertsolari Txapelketa Nagusiaren azken finalurrekoa. Euskaraldia amaitu berritan, oraindik ere txapak ikusten dira bertsozaleen arropetan. Abenduaren hirugarrena Espainiako egutegiko jai egunek eta zubiek zein Durangoko azokak ezberdin bihurtzen duten aste luzeko larunbata ere bada. Astelehenik gabeko larunbata askorentzat, astelehen handikoa beste batzuentzat.

Bizkaia pilotalekua aukeratu du Bertsozale Elkarteak zortzikotea erabakitzeko. Fresko-fresko daukagu frontoi honetako lehen koadroetan Ezkurdiak eta Altunak jokatu zuten lau t'erdiko finala. Azaroaren 20an izan zen hura, bi aste lehenago, kalitatez eta emozioz bete.

Final usaina dago gaur ere hiru solairuko pilotalekuan. Inpresioa egiten du harmailen maldak, errebote aldearen handitasunak bezalatsu. 3.600 bertsozale bilduko dira Miribillan. Laurak eta erdietarako errebotean bakarrik zegoen esertzeko lekua. Goiz dabil bertsozalea txapelketa osoan, eta azken aurrekoan ere gutxi batzuk luzatu dute bazkalostea.

Txaloz hartu dituzte sei bertsolariak: Aitor Mendiluze, Joanes Illaregi, Amets Arzallus, Saioa Alkaiza, Jone Uria eta Maddalen Arzallus ariko dira kantuan Idoia Anzorandiaren esanetara. Lehen hirurek aukera handiak dituzte finalean kantatzeko. Baina azken saioak ez dira errazenak izaten, finalaren aurrekoak direlako eta gehiegi dagoelako jokoan.

Publikoak asko eskertu ditu saioan zeharreko ale borobilenak: Saioa Alkaizaren eta Jone Uriaren zortziko txikia eta Jone Uriaren bakarkakoa, esaterako. Mendiluzek irabazi du saioa. Amets Arzallusek puntu sorta handia bildu du eta Illarregik ozta-ozta lortu du finalerako behar zuen puntu kopurua.



HASIERAKO AGURRA

A. Arzallus

Neurria: Hamabiko handia¹⁸

Doinua: *Hormatxoriak negu gorrian*

Anttoni! Anttoni!
Ate ondoan nago ni!
Ai Antton! Ai Antton!
Ate ondoan hor konpon!
Txapelketa da zenbaki saltsa
kritika ta elemele
hargin andaluz zahar baten horma
bilakatua gotele
ta nik dinbili eta danbala
ia dirudit Dembele
ez naiz zozoei harrika hasiko
ni neu banaiz nahiko bele
nola bertsotan hala bizitzan
izan naiz pentsatu zale
inoren aurka nekatu baino
hobe dela geure alde.
Anttoni! Anttoni!
Ate ondoan nago ni!
Segi Antton jotzen
ta ea barrura zatozen.

18 Zortziko handikoa den doinua hamabiko handira ekartzeaz gain, errepika erabili du.

HAMARREKO TXIKIA

A. Mendiluze - A. Arzallus

Gaia: Aitor eta Amets alderdi bereko politikariak zarete. Aitor, urte luzez izan zara alkate. Udal hauteskunde hauetan, Amets izan da zerrendaburu, eta hauteskundeak irabazi dituenek, bera izango da hurrengo alkatea. Gaur deitu dizu, eskualdatzea adosteko eta abiatzeko.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Zer da gaur Donostian*

A. Mendiluze

Urtetan etorri naiz
udal beharrera
behar zen aurpegia
behar zen jarrera
ohitu nintzen onera
ta ohitu txarrera
gaur eskuinaz kargua
pasa ta aurrera!
Beste zerbaite pasako
dizut ezkerrera. (bis)

A. Arzallus

Dinastia guztiek
dute akabera!
Mahai azpitik dirua
gainetik papera
hala afiliatu ginen
gu PNVra
alkatetza hartzeko
hauxe dut galdera:
oraindik kutxan zerbaite
gelditzen ote da? (bis)

A. Mendiluze

Nahikoa egin dezu
hori esatea
ni ez nintzen alperrik
egin alkatea.
Zuk nahi zenuke kutxan
asko izatea
nik horren kontu bizi
ta bapo jatea
norberak hustutzen du
norberak betea. (bis)

A. Arzallus

Bai, bai, diru faltarik
hor ez da ageri
nahiz egingo zenuen
hamaika aberi!
Nik ere segiko dut
azeri-azeri
utzi zure tronua
eta ni eseri
eta zuk Aitor lasai
Petronorren segi. (bis)

A. Mendiluze

Hoixe zen ezkerrean
nekarren egia
hau tranpolin bat izan
dela alegia!
Orain zuretzat lana
eta komeria
torizu aholku bat
Amets, zilegia:
arazoen aurrean
beti Alderdia! (bis)

A. Arzallus

Lasai ni Alderditik
ez noa eskapo
gainera hornituak
gu kopetaz bapo
ongi zainduko ditut
nagusi ta kapo
eta diru partidak
eraikuntzarako
eta azken papurrak
euskerarentzako. (bis)

M. Arzallus - J. Uria

Gaia: Maddalen eta Jone elkarrekin bizi diren adineko ahizpak zarete. Maddalen, Jonek zuenera txakur bat ekartzea proposatu dizu.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Antton eta Maria I*

M. Arzallus

Gaur arte konpainirik
ez genuen falta
baina bota didazu
ideia galanta
ni beti sukaldean
garbitzen bueltaka
horko grasa zatia
horko zikin marka
ta nork garbituko du
txakurraren kaka? (bis)

J. Uria

Banatu ohi ditugu
etxerako lanak
ta hor ere ez ditu
batek eingo danak
baina kezka sortu dit
gure panoramak
ez digu onik egin
urteen joanak
konpainia beharko du
azkena doanak. (bis)

M. Arzallus

Ni zaharragoa naiz ta
ez egin iseka!
Ni lehenago joango naiz
buelta eta buelta
total zurekin nago
dexente erreta
nik ez dut erosiko
txakurren kroketa
zu elikatzen lehendik
nahiko lan dut eta. (bis)

J. Uria

Zenbat maite zaitudan
irain eta txantxa!
Nola sartzen didazun
barrura arantza!
Joaten zarenean
beste mundurantz
txakurra ekarrita
badut esperantza
ia ba hartzen duen
jabearen antza. (bis)

M. Arzallus

Jone ongi hitz egitera
behingoan goazen
zure antza baldin badu
zenbat oihu ozen!
Ni zerura joatean
lur hontatik zuzen
ez zaitut ba ikusten
Pintto paseatzen
ogia eroatera ere
ez zara ateratzen. (bis)

J. Uria

Txakur bat ekartzeko
ilusioz nintzen
baina ahizpa honekin
bistan da, ezin zen!
Partekatzen ditugu
hamalau abizen
beraz segi dezagun
hasi ta segitzen
katuak ta txakurrak
bezala bizitzen. (bis)

ZORTZIKO HANDIA

A. Arzallus - M. Arzallus

Gaia: Amets eta Maddalen arkeologoak zarete. Euskal Herriaren historiarako garrantzitsua den aurkikuntza egin duzue Irulegiko herrixkan.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

A. Arzallus

Euskaldun zaharrak omen zirela
barbaro, agrafo, beltzak
maiz esan dute politikoez
zientzilari ta jendetzak.
Irulegiko esku honekin
pozetan dauzkat bi ertzak
gureztat a ze bostekoa ta
masailekoa besteentzat.

M. Arzallus

Egia da bai egin dugula
sekulako aurkikuntza
baina euskara ezin da izan
arkeologia hutsa
zuk esan duzun politikoez
beharko diote bultza
beste bi mila urtetan ere
biziko bada hizkuntza.

A. Arzallus

Biziko da bai ez dut dudarik
ez hasi hori baztertzen
lau lerro ditu eskuak eta
dabiltz hizkiak aletzen
ulertzen asko kostatzen dela
ta hor dabiltza galdetzen
neri gehiago kosta izan zait
Chiviterena ulertzen.

M. Arzallus

Eta ez dugu asko ulertuko
dena aldatu ezean
egia esan min bat badaukat
orain nere bihotzean
bai, bai, Chivite aipatu duzu
ta haren hitzak sortzean
prentsurrekoa eman ziguten
gero erdara hutsean.

A. Arzallus

Mila urte joango dira Chivite
egin aurretik euskaldun
baina geroa bihurtu denez
ja iraganaren lagun
Irulegiko eskuai esker
munduan gara ezagun
Irulegiko ardoa hartu
ta topa egin dezagun!

M. Arzallus

Bai aurkikuntza ez denez izan
txikia eta ustela
ospa dezagun une batean
zertan gabiltza bestela?
Eta Chivite eta horiek
preparatu daitezela
seguru nago herrixka hortan
altxor gehiago daudela.



S. Alkaiza - A. Mendiluze

Gaia: Saioa eta Aitor metalgintzako langileak zarete. Gaur ere, goizeko bostetan atera zarete etxetik greba piketeetan parte hartzeko.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Egun lanerat abiatu zait*

S. Alkaiza

Goizeko bostak ta eguzkia
dago egunsentia urtzen
Artea aldean gabiltz oihuka
zipaioak gu egurtzen.
Gu metalaren sinbolo gara
erreza dugu laburtzen:
gori ipintzen gaituzte baina
ez gara erraz makurtzen.

A. Mendiluze

Zure epika, zure indarra
neurritz kanpokoak kasik
ez ginাতেке hemen egongo
arazo bat izan ezik
ni zure ondoan nago Saioa
baina ez zu bezain pozik
hau ez delako aukera on bat
aukera bakarra baizik.

S. Alkaiza

Zure ezkortasun erraietako
eta erretxin petrala
izan litekeen barrikadetan
daukagun dardo letala.
Pentsa dezagun irabazlea
izanen dela metala
ta lehen muga botako dugu
geronen muga mentala.

A. Mendiluze

Beraz metala gailenduko da
aldatuko da mundua
sindikatoen konsigna zaharrez
bete dizute burua.
Nere bizitza ziurtatzea
hori det nik helburua
bizilagunei ez eskatzeko
eskolako liburua.

S. Alkaiza

Ikastetxeko liburuak zein
zurituta maindireak
denak eskatu beharrik ez da
ta laga adiskideak.
Goazen orain fabriketara
ta izan amets libreak
eskubideak lortu asmotan
itxi ditzagun bideak!

A. Mendiluze

Beste behin ere hitz potoloez
aritu zatzaizkit trebe
nahiago nuke nik ere banu
geroan zuk aina fede
egin ditzagun amets libreak
ametsak beti mesede
baina borroka honek behar du
errealitatetik ere.

J. Uria - J. Illarregi

Gaia: Jone eta Joanes hirugarren graduan dauden bi euskal preso politiko zarete. Azkenengo berriak entzunda, bigarren gradura aldatu, eta berriro espetxeratuko zaituzteten beldur zarete.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Beti penetan beti penetan*

J. Uria

Ez dakigu noiz eta zergatik
lehertu ohi diren haserrez
nahiz eta hori kalkulatzeari
ez zaigun gertatzen errez
bitartean hor segitzen dugu
etengabeko dardarrez
ez da erreza bizi beharra
beti mendeku beldurrez.

J. Illarregi

Nik espetxean pasatu ditut
ia hogeita bost urte
eta hemendik aurrerakoa
lasai bizi nahiko nuke
konponbidea beraz batzuek
horrela ulertzen dute
esperantza bat eman ta gero
dena kenduko digute.

J. Uria

Esperantza ez da sekula izan
gu biontzako opari
batzuentzako gara gaizkile
besteentzako gudari
bi gradu edo hiru gradutan
belaunaldiz belaunaldi
ehun ta laurogei gradu bira
eman behar zuen aspaldi.

J. Illarregi

Krudeltasuna guk bizi dugu
horren gordin azalean
gure etxeok ezin ditugu
lasai hartu magalean.
Martxa honetan inoiz ez gara
aske izango kalean
iraganen iltzatua den
estatu espainolean.

J. Uria

Hasieratik beraiek goian
ta euskaldunok azpian
egin zituzten zikinkeriak
hemen, mila sarraski han.
Nik hala ere esperantza dut
herri honen argazkian
ea kaleak betetzen diren
urtarrilaren zazpian.

J. Illarregi

Bai urtarrilak zazpian Bilbon
kaleak guztiak lehertuta
ikus nahiko nituzke nik´re
jende guztia batuta
baina oraindik ez dezagula
izan kopeta belztuta
espekulatzen aritu gara
baina ez da gertatu ta.




ZORTZIKO TXIKIA

A. Arzallus - J. Illarregi

Gaia: Amets biloba eta Joanes aitita zarete. Zu Amets ohartuta zaude, kartetan ari zaretenean, Joanes aititak tranpak egiten dituela, zuri irabazi ahal izateko. Orain ere hala ari da.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orioko balearena*



A. Arzallus

Eskoban ari ginen
gu biak gozaten
kartak juntatu eta
hamabost osatzen
aitona atera kartak
pentsatzera goazen
sei urte dauzkat baina
badakit kontaktzen. (bis)

J. Illarregi

Tranpa gaur egin dizut
lehen egiten nizun
ta aurpegia hara
nola aldatu zaizun!
Zuk ilusioz ekin
nik tranpaz erantzun
bizitza ze gogorra
den jakin dezazun. (bis)

A. Arzallus

Baina aitona ez naiz
ni ume mukizu
ta bizitzak ez nauka
ni zu bezain izu
kartak kontaktzen hemen
erdi tranpan aizu!
Adinai tranpa egiten
kosta behar zaizu. (bis)

J. Illarregi

Bizitza gogorra da
bere jo ta kean
urteak aurrerantza
hala joatean
nahiz ta orain zabiltzan
haserre batean
eskertuko didazu
heldu izatean. (bis)

A. Arzallus

Heldu izan baino lehen
hasi naiz ohartzen
nahiz eta errespetuz
ez naizen oldartzen
aitona eskoban ongi
jokatzera goazen
edo bestela hasi
eskoba pasatzen. (bis)

J. Illarregi

Eskoba pasatzea
gustatzen zait arrunt
baina tranpak egiten
harrapatua zuk
bat-batean hala esan:
“Harrapatu zaitut”
baina aurretik beste
hamar egin ditut. (bis)

GANBARAKO LANA
LEHEN PUNTUA EMANDA

A. Mendiluze

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

**Beti korrika eta
presaka gabiltza**
denera iristea
delako baldintza
erlojuaren mende
arnasa murrizta
ta eskuartetik joaten
ari da bizitza!

**Zertarako hartu nahi
zenuke denbora?**

Etzanda egoteko
begiratzen gora
ez joan beharrik izan
presaka inora
igual jubilatzea
hoixe izango da.



GANBARAKO LANA BAKARKA GAIA EMANDA

A. Arzallus

Gaia: Kanporatu egin zintuzten. Bizitza erabat aldatu zaizu.

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 8 puntuz

Doinua: *Baneza eta banitu*

Haurtzaro osoan zehar
izerditu ta lehertzeaz
futbola nuen neure har
hargatik nago hain mehar
gure herriko futbol zelaia
zen erdi lokatz ta belar
nik banekien Bartzelonatik
ez nituela deitzeaz
maiz entzun nuen “Hi txarra haiz ta
egin beharko duk negar!”
Plazer hartzeko bezain on nintzen
ta ez nuen gehiago behar. (bis)

Ez nintzen oroitzen Messiz
josia bainintzen hesiz
neure mugaz ta gabeziz
ohartzuz joan nintzen heziz
ta ez nintzen bizi inoiz izango
ez nintzen hura sinetsiz
makala nintzen, baldarra nintzen
dena aitaren herentziz
nahiz ta askotan galtzen genuen
ta batzutan diferentziz
pozik nentorren txokolatezko
bokadilo bat irentsiz. (bis)

Beti miresten da goia
han dagona da heroia
bere brillu ta herdoia
pasa zen nere bagoia.
Nere galtza motx, nere galtzerdi
eta nere espaloia
Garitanoren niki zahar bat
bi hizki bistan doi-doia
nahiz kanporatu ninduten eta
han bukatu zen lehoia
nik bizitzari hanka tartetik
pasatzen diot baloia. (bis)

J. Uria

Gaia: Kanporatu egin zintuzten. Bizitza erabat aldatu zaizu.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Ze ederra ta ze polita*

Tesi bat aurkeztu nuen
hori lehenbiziko froga
katedratiko ospetsu
bihurtu nintzen gerora
hainbeste ikasle gazte
zetozkidan bulegora
Whatsappetik txateatzen
aritzen nintzen gustora
baina gero iritsi zen
feminismoaren moda
eta nire kalterako
aurrera joan zen denbora
salaketak heldu ziren
ahotsak behera ta gora
ta bota egin ninduten
fakultatetik kanpora.

Ai, nola aldatzen diren
bizimodu eta garai!
Aljebran, topologian
oraindik dut aski dohai
baina lehen paseatzen
nintzena harro ta galai
orain burumakur nabil
ez orduan bezain alai
nola aldatu zitzaidan
dena une horretan, ai!
Orain dena da ezikusi
begiratu eta epai
ni lehen nintzena edonori
bere ahoa ixteko gai
ta orain bere parean
inork ez nau ikusi nahi.

Garai batean ospetsu
eta katedratikoa
noizbait izan nahi zuena
irakasle emerittoa
ustez hilko nintzen noizbait
izanik denen jainkoa
baina harrapatu ninduten
eta gauza logikoa
badut jubilazio bat
hori omen da ohikoa
bidali ninduten eta
eginda numerittoa
baina orain naiz gixajo
triste ta patetikoa
hau izango da entzuten den
justizi poetikoa.

S. Alkaiza

Gaia: Kanporatu egin zintuzten. Bizitza erabat aldatu zaizu.


Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Goizean altxatu eta*

Otxarkoaga auzoan
arratsalde euritsua
abenduaren bata zen
ze egun arranditsua!
Kopeta belzturik nuen
azala izerditsua
kanporatu behar ninduten
eta niregan izua
poliziaren furgonak
ta ni nintzen mukizua
ez otso, ez lukurreri
baizik bankuko abisua (bis)
eta kendu egin zidaten
alokairuzko pisua.

Sirenak eta kaskoak
poliziak, arsenalak
guk aldiz gure gorputzak
zula ezin diren balak
jarri genituen bertan
bihotzak eta azalak
baina bota egin gintuzten
eta ordutik itzalak
beti ez dira irabazten
bataila sentimentalak
funts putreetako jabeak
edo langile apalak (bis)
historiak zehaztuko du
nortzuk ziren kriminalak.

Animal Print mallak eta
zulatuta jertse beltzak
zilegi liratekeen
arren batzutan ihesak
nerekin zegon herria
nireak ziren babesak
baina zer gara pobreak?
Bota litezkeen klinexak?
Kale gorrian utzita
funts putre baten enpresak
herriak zehaztu behar
lituzke bere ametsak (bis)
zerk balio dun gehiago
bizitzak edo jabetzak?



The background features a dark gray field with a series of light gray, wavy, parallel lines that curve from the top left towards the center. A large, white, irregularly shaped circle is positioned in the lower right quadrant, partially overlapping the wavy lines. A horizontal gray band with white text is centered across the middle of the page.

FINALAURREETAKO BERTSOGINTZA AZTERGAI

Finalaurreetako bertsogintza aztergai

EKHI ERREMUNDEGI
OIHANA ARANA
JOSU GOIKOETXEA
XAN ALKHAT

BTN22ko finalerdietako bertsogintzaz aritzeko elkartu ditugu Ekhi Erramundegi, Oihana Arana eta Josu Goikoetxea, Xan Alkhaten gidaritzapean. Ekhi, bertsolari eta kazetari lapurtarra da; Oihana bertsolari eta ikertzaile gipuzkoarra; Josu gai-jartzaile ohi eta editore bizkaitarra. Eta Xan, berriz, bertsolaritza irakasle eta kazetari baxenafarra. Biziki giro goxoan iragan da bertso-tertulia, bertsogintzari buruzko sakoneko zein azaleko gaiak jorratu dituzte hizlariok; eta erantzun dezan, bota diote BTN22ko antolakuntzari hurrengo BTN26a aitzin ihardetsi beharreko punturik.

ELIZONDO

Xan Alkhat. BNT22ko finalaurrekoek bertsogintza mailan eman dutenaz aritzeko elkartu gara egun. Saioz saioko ibilbidea eginen dugu, eta saio bakoitzean gai nagusi bat proposatuko dizuet iritzia eman dezazuen. Elizondon izan zen lehen finalaurrekoa, eta hura gogoan, gaiez aritzea galdekatuko dizuet; izan ziren gai mamitsuak eta ez hain mamitsuak menturaz, zortziko txikian Alaiak eta Joanesez ukan zutena, konparazione.

Oihana Arana. Uste dut badirela jendearekin errazago konektatzen duten gai batzuk. Eta horiek ematen dute abantaila hori, baina holakoekin asmatu ezean nabarmenago geratzen da bertsolaria, gai erraz batekin gaizki egitea da egin dezakezun gauzarik okerrena. Ofizio horretan oso ondo aritu ziren, nahiz eta bakoitzak bertso txar bana kantatu zuen, nire ustez. Ofizio horrek funtzionatu zuen ondoen, eta segidakoa okerren, Agin eta Onintzaren artekoa, editorea eta idazlearena. Agin eta Onintzarenak askoz ere lan gehiago eskatzen zion bertsolariari: editore lanaz jakin behar duzu, kalean egin zuten topo... Gai askoz konplexuagoa zen, eta nekezagoa zen publikoarekin konektatzea. Hala ere, horrekin ez dut justifikatu nahi Agin eta Onintzaren bertsoaldia. Gaian bertan txistea egoteak eragin dezake bertsolariengan; batzuetan gaia entzun eta jendeak barre egiten du, eta hori mesederako izan daiteke bertsolariantzat, baldin eta gero asmatzen badu.

Josu Goikoetxea. Txapelketa pasatuta jende guztia oroitzen da finaleko gaiez, inor ez da oroitzen finalaurreko gaiez, areago lehen fasekoetz. Zenbait txapelketatan

gai-jartzaile taldean aritu naiz eta hor beti dago ahalegina; ustez oso gai egokiak prestatuak dituzu saio bakoitzerako... Gero, egia da gaiekin eztabaidak izaten direla taldean, baina saio bakoitzerako hautatuek lortu dute halako adostasun bat taldean. Hala ere, gaia jarri arte ez dakizu funtzionatuko duen ala ez. BTN22an ez dut uste gai txarrik entzun dudarik; gai desegokiak edo aurrekoarekiko desorekatuak beharbada bai, baina txarrik ez. Zortziko txikiko lehen ofizioan, Apalategi eta Agirre oso ongi hasi ziren eta gero erori egin zen bertsoaldia, zergatik? Gaiak ez zuelako gehiago ematen? Bertsolariek ez zutelako eman? Ez dakit. Batzuetan gaia abiapuntu bat da bertsolarientzat, eta hala ulertu behar da.

Ekhi Erremundegi. Ez dakit gai batzuk besteak baino hobekak diren, nahiz egia den gai batzuk helduleku gehiago dituztela, edo jendearekin konektatzeko errazagoak direla. Biziki zaila iruditzen zait fase oso batean gai guztien arteko oreka atzematea, eta funtsean horretarako ere egiten da zozketa. Beraz, gerta liteke bertsolari batzuek xantza ukatea, Joanesez Elizondon bezala, ala ez, Patxik eta Lazkozek Gotainen izan zen bezala. Gainera, bertsolari batzuk hobeki ari dira emoziotik, beste batzuk umoretik, gaia edozein dela ere. Bestalde iruditzen zait gai batzuek eskatzen dutela bertsolarien aldetik gehiago konkretatzea, eta egin ezean bertsoaldi osoa airean gera daitekeela. Adibidez, Amurrioren Agin eta Oihana aritu ziren bertsoaldian ez zen konkretatu, eta, aldiz, Bilbon Mendiluze eta Amets aritu ziren hartan, bai. Erreferentzia konkretuak aipatuz gero publikoarekin konexioa askoz errazagoa da.

O.A. Ez da erreferentzia kontua bakarrik; Donibane Garaziko aterkiaren gaian zer erreferentzia konkretu balia zezaketen? Batzuetan horri ere heldzea ezinezkoa da.

J.G. Nik teoria bat daukat, eta da: gaia eta bertsoaldia onak dira, baldin eta gairik jakin gabe bertsoaldia entzun ondoren gaia identifikatzen baduzu. Hori Elizondoko gimnasioaren gaian adibidez, argi ikusten da.

O.A. Eta aldiz, besaulkian ikuskizuna hasi zain zeuden artistaren gurasoen gaia... Hasteko, ez da sinesgarria zeren besaulkian isilik zaude... Ez da kasualitatea 3 ofiziotatik 2 ongi atera izana eta bestea ez. Gimnasioan elementuak dituzu; ikuskizunarenean zeri buruz ariko zara, teloiari buruz?

J.G. Puntukako beste gaian bazen elementu politiko bat, helduleku bat, antzezpenaren gaian ordea ezaguna ez zen haur bati buruz aritu behar zen, identifikazioa zailagoa zen.

DONIBANE GARAZI

X.A. Donibane Garaziko saiora eginen dugu jauzi, eta han, hitanoaren erabilera nabarmendu zen. Urrats garrantzitsua iruditzen zait, bertsoan ez baita usu ageri hitanoa, eta beraz, eskertzeko ahalegina dela uste dut, nahiz eta hutsak egin ziren. Batek besteek baino gehiago baliatu zuen, Oihana Iguaranek, ondoko saioetan ez da entzun... Nola baloratzen duzue hitanoan aritzeko saiakera hori?

O.A. Hautu bezala interesgarria iruditu zitzaidan, lehendabiziko aldian Oihana eta Asierren ekarpena iruditu zitzaidan. Momentuan ez nion garrantzirik eman, baina gero iruditu zitzaidan hitanoz egin ezean onartuko ez genituzkeen gauza batzuk egin zirela euskalkiaren kontuan Amets eta Oihana aritu zirenean; gaiari nora arte heldu zioten... Nabaritu zen aurretik hitzartuta zutela... Aldiz, Oihana Nerearekin ez zen aritu, eta kritikatu zitzaion, baina seguru aski izango zen Nerearekin ez delako noka aritzen, eta bestela ere zilegi zen zuka egitea.

E.E. Interesgarria iruditu zitzaidan berrikuntza zen aldetik, ez baitugu ohiturarik. Nire bertso eskolako jendea toka ari dena duela gutxi arte ez da toka aritu bertsoan. Gaiaren arabera erabiltzea pertinentea izan daiteke ala ez, eta gero, zer ekartzen dio bertsoaldiari? Errealismoa eta sinesgarritasuna. Baina ez bada egoki baliatzen bertsoaldia trakestu dezake, eta uste dut hori gertatu zela Donibane Garazin.

J.G. Ez dut uste hitanoren afera txapelketari konpontzea eskatu ahal zaionik. Hitanoaren afera oso konplexua da herri honetan, jende gehienak ez duela erabiltzen esango nuke, idatziz zerbait gehiago. Egia da bertsolariari eskatzen ahal zaiola hizkuntza mailako ahalegin bat, baina hitanoarena... ez dakit. Gero, pertsonen arteko harremanak orotarikoak dira: Xabier Arenazak Twitterren zioen bere bikotearekin hika aritzen zela eta gero zuka aritzera pasatu direla; edo Azpeitian hainbat neska noka beharrean toka aritzen direla; zenbait lekutan gaizki egiten da... Hau da, ez da egiten, eta egiten denean oso egoera desberdinak daude. Gero, tokatu zaizun bertsolariarekin konfiantzarik baduzu hikaz aritzeko, ba aurrera. Ezin dena da bata hika eta bestea zuka, tira, hori ere gertatzen da e!

IRUN

X.A. Irungo saioan kokatuko zaituztet orain, eta gaia epai irizpideak izanen dira. Gogoan dugu mukuru betea zela Irungo Ficoba gela, eta puntuazioa bertsolari guztientzat apala izan zela entzun zen eskuin ezker...

J.G. Saio horretatik minduta atera zen jende asko. Badakit giro ederra zegoela, poz

kolektibo bat, saio on bat entzunaren sentsazioa, eta halako puntuazioa entzun eta gero, zaputzaldia gertatu zela. Beharbada, ez dakit e, beharbada gutxiago puntuatu zen, baina ez dut uste bost emakume eta gizonezko bat zeudelako izan zenik. Txapelketa guztietan egoten da gutxiago puntuatzen den bertso saioaren bat, beti daude gorabeherak. Uste dut Jone Uria BTN22an merezi baino gutxiago puntuatua izan dela, ez dakit Irunen, bai Bilbon, argi eta garbi nire ustez, batez ere bakarkako lanean. Irunen Nerearen bakarkakoa; nik ere neurtu nuen eta ia 4 minutu hartu zituen guztira 3 bertsoak hasteko, eta epai irizpideek argi eta garbi esaten dute 3 minututik gora hartuz gero, bertsoak ez direla ontzat emango; zer esan nahi du horrek? Nik ez dakit! Gero, Nerearen horretan ez da bakarrik denbora, lehenengo bertsoan errepika batean huts egiten du, eta azken puntuan ere, zera... nahiz eta bigarren eta hirugarren bertsoak bikainak izan.

O.A. Gauza batzuetan ados nago, besteetan ez. Aipatu duzu aldiro dagoela baju puntuatzen den saio bat; ez dut uste kasualitatea izan zenik Irungo saioa izatea baju puntuatu zena, eta ez Durangokoa, adibidez. Zuk ez [J.G.] baina aipatu izan da Irungo saioan emakume gehiago zeudela epailetan gizonezkoak baino; baina emakume izateak ez zaitu feminista egiten! Emakumeen arteko lehia bada feminismoan agerian dagoen auzi bat, eta konprobatuta dago emakumeak zorrotzago epaitzen duela emakumea, edozein esparrutan. Bestalde, uste dut Anek oso saio ona egin zuela, uste dut Gotaine-Irabarnen baino hobeto kantatu zuela Irunen, baina puntuetan ez zen hori ikusi. Eta laprastadak konparatuta, Nerea Ibarzabalena [Irunen] eta Maddalen Arzallusena [Bilbon] uste dut hor badaudela desoreka nabarmenak; laprastadak laprastadak dira eta zigortu egin behar dira, objetiboki zigorgarria den zerbait bada eta epai irizpideetan hala jasota dagoenez. Eta berdin denbora hartzearen kontuarekin. Baina saritu ere egin behar dira gauzak, eta uste dut Irunen zigortu zela zigortu beharrekoa, baina ez zela saritu.

J.G. Epaila taldea ordea desberdina izan da lehen fasean eta finalurreko bi itzulietan...

O.A. Ni epailea banintz zorrotza izango nintzateke, baina beste saioetan egon da denboraren afera eta ez da zigortu hainbeste... Ematen du Irunen aritu zirela zorrotz.

E.E. Beti izango da epaileen erabakiarekin ados ez den norbait. Uste dut BTN05ean izan zela, azken finalerdia jokatu zen, Sustrai pasa zen finalera eta Jokin Uranga ez, eta publiko guztia “Jokin! Jokin! Jokin!” oihuka, pentsatzen zuelako Jokinek bazuela Sustrai baino leku gehiago finalean. Eta orduan airean zen ustea zen, eliteko bertsolariak gehiago saritzeko joera bazela, gazteak gehiago zigortzen zirela

eta abar. Beti badira kexak eta kexa horiek esplikatzeko arrazoiak; orain feminismotik jotzen da eta erabat zilegia izan daiteke, baina ematen diren argumentuak ez naute bereziki konbentzitzen, eta kontrakoek ere ez. Beharbada epaileek eduki dezaketen kanpo eraginean da gakoa; nire ustez Elizondon oso goitik puntuatu zuten, Donibane Garazin aski puntuazio apala izan zen, bertsoaldien arabera nire ustez, eta hori gogoan doaz epaileak Irungora, eta ez dakit zenbateraino eragiten duen horrek guztiak epailearengan nota emateko orduan. Nerea Ibarzabalen bakarkakora etorrira, bertso biziki politak dira, bada laprast aski handi bat eta bada denborarena. Epai irizpideak hartzen baditugu, 2 minutura hasi behar dela diote, eta orotara bertsoak asteko denborak ezin duela 3 minutu baino gehiagokoa izan, bestela ez dela ontzat emango bertsoaldia. Baina zer arraio da “ez da ontzat emango”? Zenbat puntu dira “ez da ontzat emango”? Lehen bertsoari eragiten dio? Bertsoaldi osoari? Hor bada zinezko arazo bat. Epai irizpideen zehazte bat ezinbestekoa da. Durangoko finalerdia baino lehen Karlos Aizpuruak Twitterren aipatu zuen txiste modura baina interesgarria iruditu zitzaidan, halako zer bait: “Durangoko Azokako prezioak (BEZik gabe). Trabatzea: txikia 0.5; ertaina 1; handia 1.5. Gehiegizko denbora: minutu erdia 1; minutua 2; minutu eta erdia 3. Potoa: lapsusa 1; semantikoa 1.5; garbia 2-3 artean”. Iruditzen zait epai irizpideetan halako zehaztapen maila batera iritsi beharko genukeela, horrek asko lagunduko luke epailearen lana.

J.G. Baina zer irabaziko genuke horrekin?

E.E Zehaztasuna.

J.G. Baina ni ziur nago epaile bakoitzak badakiela zenbat zigortu akats bakoitza; poto bat, denborarena zigortuko duen ala ez...

O.A. Baina ikusi da ezetz, ze kasu batzuetan gehiago zigortu da...

J.G. Ikusi da ezetz edo ikusi da epaile batzuek ez dutela egin edo... ez dakigu, ez dakigu. Nik uste dut epaileek hori guztia aztertuko dutela. Nik uste dut epaileak ere pertsonak direla; berdin epaitzen da Maialen Lujanbioren bertso bat eta zera...? Nik batzuetan pentsatu izan dut ezetz, baina beharbada bai, eta epaile batek esango dit “Ba bai, berdin epaitzen dira”. Oso deigarria iruditu zait Bilboko saioa eta gero, nola atera diren beraien adierazpenetan, oso desberdin, Aitor Mendiluze eta Amets Arzallus. Aitor Mendiluze, nire ustez akatsa egin zuen, hasi zen esaten bere bakarkakoa txarra izan zela, nahiz puntuazioan ez zen halakorik jaso... Bere burua zigortu zuen adierazpenetan, eta hori desabantaila da beretzat finalera begira. Zer esan zuen Amets Arzallusek? “Ondo, zoragarri, eskerrik asko...” Zer da hori? Esperientzia.

E.E. Aitor Mendiluzek badu esperientzia!

O.A. Kontutan hartu nondik zetorren Amets, zer egitetik Bilbon, hobekuntza...

J.G. Hobekuntza bai, baina nik ez dut ikusi Amets e!

O.A. Donibane Garazikoa egin izan balu Bilbon igual kanpoan legoke Amets, eta Mendiluzerentzat Durangotik Bilbokora kristoren kolpea izan zen.

J.G. Bai, bai, bai, baina bere burua zigortu zuen publikoki! Eta Ametsek ez zuen egin inolaz ere. Mendiluzerena ez da inteligentea txapelketari begira.

E.E. Lehen zenionetik Josu, bertsoa nork kantatzen duen eragiten duela uste dut.

J.G. Beti komentatu da hori.

E.E. Bertso bera kantatu Amets Arzallusek edo Julio Sotok, ez da berdin epaituko. Amets Arzallus mikrorra hurbiltzean bertso on bat espero duzu.

J.G. Eta ez baduzu ulertu pentsatzen duzu “Seguru aski ona izan da, nahiz eta nik ulertu ez” [irriak].

E.E. Zuk norbaitengandik bertso ona espero baduzu eta ez bada ona, pentsatzen duzu “Ba, ez zen hain txarra, hala ere”. Eta alderantziz; bertsolari kaxkarrago batengandik bertso kaxkarra entzuten baduzu, ustea konfirmatzen zaizu.

O.A. Zenbakietara eramanda, 8ko bat espero baduzu eta 6ko bat kantatzen badu, 7ko bat jasotzen du. Eta 6koa espero baduzu eta ona kantatzen badu, ba 7koa izango zen...

J.G. Kantaeran ere berdin; Sebastian Lizasok bertso txarra kantatzen zuenean ahotsa goratzen zuen.

O.A. Joanesez ere oso ondo saltzen du, eta Xabatek berdin. Arrasateko saioa jendeak uste zuen Xabatek irabazi behar zuela, zergatik? Ba altu kantatzen ari zelako. Eta gero irakurtzen dituzu bertso horiek eta... Baina hola da.

E.E. Azken gogoeta gisa, erran nahi nuke, epai irizpideak gogoetatuko badira, uste dut epaile nork izan behar duen ere gogoetatu behar dela; nolako epaileak nahi ditugun. Hau da, nolako perfileko jendea nahi dugun hor. Nik oso gustura ikusiko nituzke bertsolari ohi batzuk epaile lanetan, gaur egun txapelketan ari ez direnak.

X.A. Laguntasun kontuak badira hor...

O.A. Oraingo epaileak ere izan daitezke lagunak... Proba interesgarri bat izan daiteke.

E.E. Xilaban Maddi Sarasuak kantatu zuen eta Ainhoa Sarasua, ahizpa, epaile aritu zen...

DURANGO

X.A. Finalerdietako lehen itzuliko azken saioa Durangon izan zen. Hor azkartasuna aipatu nahiko nuke, laster pasatu baitzen saioa. Ariketak ere aipatzen ahal ditugu; BTN22an lehen aldikoz kantatu baitzen puntutan eta seiko motzean. Gogoan dituzue puntutako eta seiko motzeko bertsoaldiak?

O.A. Ze ariketa ziren jakin nuenean harritu nintzen; logikoena ariketan zailtasuna progresiboki handitzea iruditzen zitzaidan, eta finalerdietan, lehen itzuliko ariketak zailagoak izan dira bigarren itzulikoak baino. Bigarren itzulian bertso bat gutxiago izateak ere harritu ninduen. Puntukako bertsoaldi oso onak ez dira asko izan eta seiko motzeko on batzuk entzun ditugu. Durangon, adibidez, Mendiluze eta Beñat Gaztelumendiren artekoa; batez ere Beñatek egin zuen sekulako lana. Saioa eta Juliorena izan zen apalena. Desoreka handiak eragin zituen ariketa izan zen seiko motzarena; Irunen oso onak joan ziren [seiko motzeko] hirurak.

E.E. Osoki ados. Bereziki seiko motzekoa diferentzia sortzailea izan daiteke puntukakoa baino gehiago, duen zailtasunarengatik. Bi ariketak saio berean egon behar dira ala bakoitza itzuli desberdinean? Nik aurtengoan itzulien ordena aldatuko nuke. Ariketa berezien eskasa sentitu dut, fase bakoitza aski berdina izan da ariketa moten aldetik. Puntukakoa eta seiko motzarena sartu ziren lehen itzulian, baina gainerakoak beti ariketa berdina izan dira. Bakarkako guztiak ganbara moduan eman dira, ez zaio eman bakoitzari bakarkako gai diferenterik. Garaian egin izan da seiko motzean edo Iparragirre doinuan kartzelan... Ariketa bereziagoak, desberdinagoak eskertuko nituzkeen.

J.G. Bai, ariketena nahiko plano dago. Puntukakoak ematen dio halako berezitasun bat, baina bertsoaldi txarrak ateratzen direnean oso txarrak ateratzen dira, eta bertsolariak nahiko biluzik geratzen dira. Bakoitzari bakarkako desberdina... gai asko dira, beti ez da posible orekatuak sartzea, beharbada posible izan beharko luke txapelketa batean gaudelako, baina orekatua izatea oso zaila da, eta ez jartzeko arrazoi nagusia hori da; finalean bakarrik ja zaila da...

O.A. Puntuen erantzunak direla eta, ganbara baino lehen eta ganbaran izan dira, oso modu diferentean; batean aktualitatea sartzeko eta bestean super orokorrak, bizitza, denbora...

J.G. Aspaldi esan nuen puntu erantzunek bertsolariei pertsonalki zuzendutakoak beharko luketela izan, izen eta abizenekin.

O.A. Bufff! Ez dakit e!

J.G. Ezezko borobila jaso nuen. Bestalde, txapelketa honetan pentsatu izan dut, zergatik ez egin sei bakarkako eta ganbarakoan ofizio bat ezarri? Buruz burukoan egiten da. Kontutan izan behar dugu, bertsolariak oso kontserbadoreak direla txapelketan, batez ere aukerak dituztenean irabazteko edo finalean sartzeko, botere eta iritzi indartsuak dituzte bertsolari horiek Elkarteko bileretan “hobe ez aldatu mesedez gauzak finalean sartu nahi dudalako...”.

AMURRIO

X.A. Finalerdietako bigarren itzulia Amurrion hasi zen, lau emazte baziren bertan, eta lauek ikuspegi jakin bat ekarri zuten ganbarako lanean: etxean pairatutako tratu txarrak, Oihanak eta Mirenek; lan munduko jazarpena Onintzak eta Alaiak amatasuna. Gogoeta pertsonal batez gain gogoeta kolektibo bat sentitzen da hor.

O.A. Emakume bertsolarien artean bada hausnarketa kolektibo bat. Amurrioko ganbarakoena ez zitzaidan kasualitatea iruditu. Gotaine-Irabarnen ere gertatu zen amatasunarekin zehazki. Gero ematen du emakumeek holako gaiei buruz bakarrik kanta dezaketela; politika edo Qatarreko mundialari buruz edo ustelkeriari buruz gizonek bakarrik hitz egin dezaketela dirudi. Ez dut esaten hori pentsatzen dugula, baina hori gertatzen da, eta uste dut azpimarratu behar dela, zeren bestela ematen du “ongi ari zarete, segi zuen gaiei buruz kantatzen baina ez sartu gurera” gertatzen dela. Eta uste dut hori ere pentsatu behar dugula bakoitzaren konfort eremua zein den eta bakoitzak zeri kantatzen dion ere hautu bat dela, zure diskurtsoa zilegiztatzeko, edo zilegitasuna kentzeko diskurtso bati, Jone Uriaren kasua izan daitekeen bezala. Baina era berean joera bat sortzera eramaten gaitu eta arriskutsua iruditzen zait. Artetxek kantatuko balu ustelkeriari buruz, beharbada ez litzaioke emango Labururi ematen zaion besteko zilegitasunik publikoaren aldetik, oro har.

J.G. Ni plazatik aparte nago baina ezagutu nuen *Ez da kasualitatea* fenomenoak. Azken urteetan ez dut ezagutu halako ilusio eta intentsitaterik bertso saioetan. Normalean bertsolariak joaten ziren ondo edo hobeto, baina errespetuz esanda, saio arruntetan ez zegoen halako pultsio, indarrik emankizuna ondo egiteko, elkarrekin ondo egiteko eta abar. Txapelketan holako gai bat ez da xisteratik ateratzen, lan bat egina dago. Orain uste dut hemen badagoela egokitzapen fase bat, hau barneratu eta ja ikusten da plazan emakumearen presentzia; ez presentzia, ahotsa, ahotsa hasi dela normaltzen, eta publikoak onartzen. Badakit oraindik badaudela erretizentziak eta txoko ilunak... baina finalean 3 emakume ikusiko ditugu, beharbada 4 izan behar zuten, eta ni seguru nago datorren txapelketan gehiago izango direla. Kezkatzen

nauena da ea 12 urte barru denak emakumeak izango diren, hori nahi dugu? Hori da urte batzuetara sortuko den eztabaida bat. BBK sariketako argazki bat ikusi nuen lehengoan eta denak ziren emakumeak, literaturan ere gertatzen da, dantzan... ez dakit bertsolaritzan gertatuko den. Gizonak abandonatu egiten baditu kultur adierazpideak, gizonaren zera da “doazela zakutik hartzera”...

O.A. Ez da gertatuko lasai.

J.G. Nik zalantzak ditut; gizonari kentzen diozunean bere terreno pixka bat, posible da gizonak esatea “A bai? Banoa hemendik!”... Nire ustez txapelketa honetan bertsolaririk onena Alaia Martin izan da, baina gehiago ari gara hitz egiten beste bertsolari batzuei buruz. Ez da kopurua bakarrik aldatu dena, diskurtsoa badago, sortzen ari da.

O.A. Diskurtsoaren lanketaren adibide bat Julio Soto da.

J.G. Gizonezkoak alde horretatik galduta dabilta, literaturan ere bai; esateko, zer esateko? Betiko zaharkeria eta zerak. Diskurtso berri bat, sinistekoa eta borrokatzeko daukatenak emakumezkoak dira.

E.E. Gizartean ere hortik doa bidea; lehen gatazka politikoari buruz kantatzen zen bezala orain feminismotik kantatzen da, gizartean dagoen indar harremana hor dagoelako. Euskalgintzan ez da indar harremanik, naziogintzan ere ez. Beraz, gai horiek tentsioan ez direnez, beharko lukete baina ez gara asmatzen ari horretan. Iruditzen zait badela emakume bertsolarien arteko saretze lan bat, intentzionalitate bat ere gai batzuk plazara eramateko txapelketako plaza publiko eta politiko hori erabiltzeko asmoarekin, hortik ulertzen dut Amurrion gertatu zena, eta besteetan ere eragiten du. Durangon Kattalin Minerrek [Twitterren] egin zuen komentarioa “A ze maskulinitate tailerra atera zaien”. Haritz Mujikak ere Donibane Garazin hortik kantatu zuen, bere maskulinitatea zalantzan emanez; Bizkarraren Durangoko eta Amurrioko bakarkakoak ere genero aldetik joan ziren...

O.A. Ikusi beharko litzateke diskurtso hori errentagarria delako edo beste arrazoi batengatik egiten den.

E.E. Garaian “presoak etxera” kantatzen zen bezala.

J.G. Plazan gizonezkoek egiten dute halako planteamendurik?

O.A. Bai. Julio txapelketan gaira ez zetorreanean ere saiatzen zen, nabaritzen zitzaion bere intentzionalitatea bazela hori, baina beste kasu batzuetan, ganbara tra! Puntuak batzeko garaia. Baina gero zortziko txikian, igual ahaztu egiten zaigu.

BAIONA

X.A. Doinuek badute bere garrantzia, doinu berri gutxi agertu dira momentukozen BTN22an, 7 orotara, finalurrekoetan 2. BTN17an 23 doinu berri plazaratu ziren. Azken berria Baionako ganbaran Julio Sotok plazaratu zuena. Peto bat bezala ikus daiteke doinu berria ganbaran plazaratzea? Juliok ez baitzuen doinu berria agurrean plazaratu Oihana Iguaranek Gotaine-Irabarnen egin bezala. Julioaren kasuan, entzuleek, epaileek ... ganbaran jaso zuten doinu berri hori, eta beharbada bere diskurtsoa, testua, ez zen hain ongi sartu. Zer diozue horri buruz?

O.A. Doinu berriak sortzea oso ondo iruditzen zait. Gero, Julioaren bertsoak beste doinu batean izan balira, epaileengan ez dakit, baina publikoarengan beste erreakzio bat sortuko lukete. Alde horretatik, Oihana oso inteligentea izan zen doinu berria agurrean plazaratuta, ze bazen errepika bat eta abar. Gainera, Oihanarena doinu ezagun baten gainean egindakoa da, eta horrek badauka eragina, nire ustez.

E.E. Niri Julioarena momentuan ez zitzaidan batere gustatu, eta komunikazioa erabat moztu zidan. Uste dut bere bertsoak ez nituela entzun, ez nuela ulertu; momentu batez gaiz kanpo ari ote zen iruditu zitzaidan. Etxean berriz entzutean, beste konzentrazio batekin eta, uste dut kantakerak gehiago eragin zidala doinuak baino, oso motel kantatu baitzuen. Gehiago konzentratu nintzen errima noiz etorriko eta neurria nolakoa zen horretan, bertsoa entzuten baino gehiago. Ni ez naiz doinu berriak erabiltzearen kontra, baina batzuetan ez da pertinetea, ez baldin bada oso argi neurria eta doinua nora doan. Uste dut Maialen Lujanbiok esan zuela aurreko txapelketan badirela mila doinu erabilgarri badirela, moldatu daitezkeenak eta balio dutenak. Zer ekartzen du doinu berri batek? Iguaranen kasuan argi geratu da errepikapen horrekin. Pila bat landu du, oso egoki geratzen da, bertsoa askoz gehiago luzi arazten du. Beste kasu batzuetan ez da halakorik gertatzen.

O.A. Doinu berri bat plazaratu behar baduzu izan behar du aportazio bat egiteko edo zure bertsokerari fabore egiten diolako: *Irun badaukazu zerbait* Sarriegi, oso ondo; Miren Amurizaren *Chavelarena* oso ondo... *Tabuak min direnean* oso txarto.

J.G. Nik uste dut erreparatu behar diegula baita ere ofiziotan erabiltzen diren doinuei, batzuetan oso doinu ezagunak dira, egiten dira ahaleginak, Unai Agirreren kasuan adibidez, Aitor Bizkarrak ere bai...

E.E. Azken txapelketetan aldaketa bat eman da doinuei dagokionez, eta ofiziotako doinuetan hainbaten falta sumatu dut: *Kantatzera nijo, Nere senarrarekin, Dama gazte xarmant bat, Haizeak bidali du ...* Horiek indar aldetik askoz egokiagoak dira

eta bertsoari balio erantsi gehiago ematen diotela uste dut, gaur egun erabiltzen diren beste batzuek baino.

X.A. Kurios nintzateke BTN17ko 23 doinu horietatik zenbat erabili diren gero plazetan.

BILBO

X.A. Azken finalerdia Bilbokoa izan zen, eta hor bertsolariiek ganbarako gaiari nola heldu zioten nahi nuke aipa dezazuen. Bilboko saioan Jone Uriak heldu zion ontsa, baina puntuetan Amets Arzallus nagusitu zen. Beharbada batzuek gaia ekartzen dute aurretik egindako gogoeta batera, eta ez dakit lotura hain argi den beti.

O.A. Zilegi iruditzen zait aurretik egiten den lan guztia; pentsatzea zer esan nahi duzun eta abar, baina gaia gaia da. Eta gaiari erantzutea da gaiak aipatzen dituen elementu guztiak bertsoetan sartzea. Gaia ez da abiapuntu bat, ez; gaia da gaia. Gaiak “zinen” esaten badu iraganean da; eta “erabat aldatu zaizu” badio, erabat aldatu zaizu, ez da “hil egin da lehoia” [irriak]. Melillara joateko ez da itsasoa gurutzatu behar; eta “aldatu zaizu bizitza” baina lehengo bera da... Mendiluzek bere burua zigortu zuen adierazpenetan, baina epaileek ez zuten zigortu.

E.E. Biziki ados. Gauza bat da plazan nola jokutzen den gaiarekin, batzuetan hala moduzko gaiak ematen dizkiete eta bertsolariiek ihes egiten diote gaiari, baina txapelketan gaia gaia da.

J.G. Bilbon izan nintzen eta oso deigarria egin zitzaidan “kanporatu egin zintuzten” eta “bizitza erabat aldatu zaizu”; “zaizu” eta ez “zitzaizun”. Gai-jartzaileen intentzionalitatea argi eta garbi dago. “Zitzaizun” izan balitz sartuko litzateke Ametsena. Jonek heldu zion bete-betean gaiari. Batzuek diote modu lasaiagoan erabili behar ditugula gaiak, baina hor intentzionalitate bat dago, eta Jonek egiten duen bertsoaldia bikaina da. Niretzat harrigarria da Joneren puntuazioa. Epaileen lana errespetatzen dut, eta badakit asko landu dutela, baina harrigarria iruditzen zait Joneren kasua. Mendiluzerena deskartatuta, Melillarena eta... Eta Ametsena, bizitza aldatu “zitzaion”, aldaketa deitu ahal bazaio horri, oso bertso politikak baina...

E.E. Uste dut behin baino gehiagotan gertatu dela gaiari ez heltzearena, eta ofiziotan ere bai. Eta puntuazioari begiratzen bazaio ez da eraginik, nire ustez epaimahaia ez du behar bezala neurtzen bertsolariak gaiari ongi heltzen dion ala ez. Durangoko Bizkarrarena hor dago; sekulako bertsoak dira, baina gaiari ez diote erantzuten, “bere aurrean negar egin duzu” baina ez du negar egiten...

J.G. Batzuk esango dizute gaiari heltzen diola; nik ez.

O.A. Ganbarakoan ez badiozu heltzen gaiari zure burua kaltetzen duzu, baina ofiziotan ez badiozu heltzen zure kideari ere kalte egiten diozu. Baionako saioan bi aldiz gertatu zen hori; Sustraik bi alditan; Sustrai eta Julio aritu zirenean, eta bestea, Unai Agirrerekin; prentsaurrekoarena.

E.E. Iruditzen zait Sustraik baduela joera bat, legitimoa dena txapelketan estrategia bezala, plazako artifizioak erabiltzeko txapelketan; Juliorekin hamarrekotxikian eta prentsaurrekoren gaian, gaia hartzen du baina gaia aitzakia bat da kasik, eta bihurtzen du aitatasunari buruzko ideia potoloak botatzeko aukera. Gero, ganbarakoan gaiari heltzen diola iruditzen zait baina ez du zehazten; familia bazkari bat izan daiteke egun handi bat? Nik uste dut baietz, baina esplikazioa falta da. Ideia polita du, hilkutxatik kantatzearena, eta gero erabiltzen ditu plazako artifizioak...

J.G. Gero eta gauza gehiago eskatzen dizkiegu bertsolariei. Duela 30 urteko txapelketak ikusten dituzu eta hauek askoz ere gorago daude mailaz, teknikoki, eduki aldetik...

E.E. Uste dut Sustraik gaiari erantzuten diola baina ez da legitimoa Baionako saioko ganbararik puntuatuena izatea, ezta Beñatena ere Nerearenaren aitzinetik joatea. Beñatek ideia faltaz edo puntuak galtzeko beldurrez, hiru bertso garbiak botatzen ditu, ez du deus funtsezkorik erraten...

O.A. Ba nik zalantza eta asteriskoekin ikusten dut Beñatena; zure bikoteari ezer esan gabe ez zara ez ezkonduko; eta antolatzen duzu bidai bat hortik, egun batetik bestera?

X.A. Bukatzeko, finalari begira zer erranen zenukete? Nola ikusten duzue? Badira 3 berri, 3 gazte...


O.A. 2009, 2013 eta 2017an puntuazio altuenarekin finalera pasatu denak irabazi du, eta aurten Alaia da. Datu bat da, baina gertatu da.

E.E. Nik ez dut inoiz hain lauso ikusi. Bi bloke ikusten ditut, beteranoak eta gazteak; Maialen Lujanbiok gaizki kanta dazakenez ez dut sinisten, esperantza handia dut Maialenek eman dezaketik, zain naiz ea ze berritasun ekarriko duen, beti ekarri izan duen bezala. Sustrai eta Aitor ikusten ditut sekulako gogoekin baina finalaurrekoetan ez didate erakutsi haiengandik espero nuen bezainbat, eta Amets burua beste nonbait duela ikusten dut, Donibane Garaziko maila eman dezake, baina Xilabako bakarkakoan egin bezala maila ere eman dezake. Alaia akatsik egiten ez duen makina bat da, ez da sekula jausten, ikusi behar da finaleko presioa nola

bizitzen duen, Joanes eta Nerearen gisan. Joanes Elizondotik Bilbora apal bukatu du, eta Nerea alderantziz, Baionan sekulako indarra hartuta heldu da finalera, eta hortzak erakutsiz kantatzen badu asko espero dut Nerearengandik. Beñat espero baino ahulago ikusten dut aurten, baina Alaia bezala makina bat da. Apustu egiten dut Maialen-Sustrai, eta amets egiten dut Maialen-Nerea.

O.A. Lehenengo eta azken postuak garbi ditut; Maialen eta Joanes. Eta gainerakotan zalantza; oso bertsolariaren aldaratearen arabera izango dela uste dut. Beñatek egiten badu Baionakoa zazpigarrenetik ez da igoko, baina egiten badu Durangokoa baaa... Alaiaren oso aldekoa naiz, oso gogotsu ikusten dut, batez ere bazetorrelako Gipuzkoako finaletik, nire ustez, kolpe larri samar bat hartzetik. Eta uste dut bertsolaritzari sinbolikoki ondo datorkiola, eta komeni zaigula, Maialenek irabaztea mitoa ondo... [irriak] Egia da, Egaña mito bihurtu da eta Egañari buruz hitz egiten da eta bere bertsokera ikertu da eta planteatu da eragin duela aldaketa bat... Eta Maialeni ez zaio hori... Nik nahi dut Alaiak irabaztea, ez du irabaziko baina...

J.G. Maialen Lujanbio da faborittoa, bera delako txapelduna, eta hori ezin zaio kendu. Baina saio bakarrera... BTN13an sufritzen ikusi nuen goizean. Egun bakarreko txapelketak arriskutsuak dira, eta gainera ez dakigu nola dagoen bertsotan, plazan bai, baina... Eta buruz burukorako, nik uste BTN22ko bertsolaririk onena Alaia Martin izan dela, eta uste dut prest dagoela buruz burukora heltzeko; ikusten zaio anbizioa, irribarrea, lasaitasuna... Joanes kenduta beste guztiak dira hautagaiak buruz burukora iristeko, baina beharbada ez da Joanes azkena izango e!



The image features a light gray background with a series of wavy, overlapping lines that create a sense of depth and movement. A dark gray horizontal band is positioned across the middle, containing the word "FINALA" in white, bold, uppercase letters. Below this band, a dark gray, rounded, teardrop-shaped object is visible, partially obscured by the wavy lines.

FINALA



Aitor Mendiluze Gonzalez



Alaia Martin Etxebeste



Amets Arzallus Antia



Beñat Gaztelumendi Arandia



Joanes Illarregi Marzol



Maialen Lujanbio Zugasti



Nerea Ibarzabal Salegi



Sustrai Colina Acordarrementeria

IRUÑEA

2022/12/18, IGANDEA, 11:00

NAFARROA ARENA

FINALA – GOIZEKO SAIOA

Bertsolariak:

Aitor Mendiluze Gonzalez

Alaia Martin Etxebeste

Amets Arzallus Antia

Beñat Gaztelumendi Arandia

Joanes Illarregi Marzol

Maialen Lujanbio Zugasti

Nerea Ibarzabal Salegi


Sustrai Colina Acordarrementeria

Gai-emailea: **Ion Zaldua Brit**

Epaimahaiko kideak: Ainhoa Sarasua Laskaray, Aitor Jimenez Tolosana, Amaia Otxotorena Gamio, Eneko Bidegain Aire, Eneritz Azkue Basurko, Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa, Joseba Beltza Bengoetxea, Miriam Juaristi Urizar eta Nerea Bruño Artazkoz.

Iritsi da eguna. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak urtebete lehenago iragarri zuen Iruñean izango zela Bertsolari Txapelketa Nagusia 2022 egitasmoaren finala. Urruti zirudien datak iragarri zenean. Udazkenaren neurriko iritsi ere, eguzkitsu eta fresko goizean goizetik. Halere, sinatzeko moduko eguraldia da abenduan eta Nafarroako hiriburuan izateko.

Nafarroa Arena eta Sadar futbol zelaiaren inguruetan autokarabana eta furgoneta mordoxka ikusten dira. Bezperatik etorri dira, bakarren batzuk asteburu osoa pasatzera ere bai. Hatortxu Rock jaialdiarekin egin du bat bertsozaleen zita nagusiak. Nostalgikoenek Barakaldon izan dute finalaren aurreko pasea, duela bost urte finala jokatu zen lekuan eman baititu Hertzainak talde mitikoak agurreko birako bi kontzertu. Lo gehiago edo gutxiago eginda, behar duten guztiak hiri buruzagian



dira gaur, goizean goizetik. Autobusez etorri dira asko, 2.800 Bertsozale Elkartek antolatutako sarean: goizeko zazpietan irten dira Mauletik, 07:40ean Portugaletetik eta Ondarroatik. Zenbait bertso eskolek bere kasa antolatu dituzte autobusak; 65 ibilgailu inguru pilatu dira Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kirol instalazioetan prestatu den aparkalekuan. Hamarrak laurden gutxi aldera iritsi dira azkenak, zenbait bertsozalerentzat berandu izango da. Denek goiz sartu nahi dute leku ona hartzeko. Halere, autoz hurbildu dira gehienak. Goiztiarrenek oso getu aparkatu dute, lasaien ibili direnek 700 metro inguru egin behar izan dituzte oinez Nafarroa Arenara iritsi aurretik. Elkarlanean aritu dira bolondres koadrilla eta Iruñeko udaltzainak.

Ilara bakarrera ohitu gintuen Barakaldoko atrio luze estaliak. Nafarroa Arenaren konposizioak pista, harmaila eta errebotea bereizi ditu. Bost atetan sakabanatu dira bertsozaleak, sarrera motaren arabera. Banaketa honek sortu du buruhausterik, banatu ditu betiko bertsozaleak, familiak eta kuadrillak. Baina hamaikak alderako areto barruan ziren guztiak, eta hori ez da lan erraza izaten.

Goizeko zazpiak eta erdietan iritsi dira Nafarroa Arenako atarira lehen bertsozaleak. Bederatzietan zabaldu dira ateak eta korrika txikiak eginez hartu dute lekua goiztiarrenek. Oholtzaren bueltako aulkiak dira estimazio handiena dutenak, telebistako kamerek gehien erakusten dituztenak izan arren. Beste urte batez Euskal Irrati Telebistak jarraipen zabala egingo dio txapelketari eta finalean 40tik gora langile izango dira Iruñean, etxetik finala behar bezala jarraitzeko. Ilaski Serranok eta Jon Martinek iruzkinduko dituzte hamalau kamerek hartutako irudiak. Futbol zelaietan nola, alderik alde airetik aretoa gurutzatzen duen tirolina deituriko kamera, buruberoa, trenaren gisa karrilen gainean doana. Halere, oholtzako irudian txertatu den kamerak sortu du zeresan gehien, kantuan ari den bertsolariaren bista eta erreakzioak jasotzen dituenak. Biharamunean jakin ditugu audientzia datuak. ETB1 katean egindako emankizunak 88.000 ikusleko audientzia metatua izan zuen, eta plataforma digital ezberdinetan 7.000 erabiltzailek jarraitu zutela finala.

Tabernak ere lanean ari dira goizean goizetik. Bertako ostalariek emandako datuen arabera, 7.500 kafe eskainiko dira egun osoan zehar. Taberna ugari muntatu dira perimetro osoan, eta gertutasun handia izan arren, ez du bertsoen entzutea oztopatu. Horretan, zeresan handia izan du borondatezko taldeak. Laurogei inguru aritu dira balidazioan, beste hainbeste segurtasunean eta mordoxka talde txikietan. Lehen ofizioa abiatuta sartu dira elkarren segidan kanpoko lanak amaituta. Eguneko irudietako bat izan da; sare sozialetan ere aipatu da peto laranjadun ejertzitoak Nafarroa Arenan egindako sarrera.

Aurretik bizitu dugu ordea, eguneko momentu berezietakoa. Aritz Bidegainek sarrera emanda sartu dira zortzi finalistak, Jon Zaldua gai-jartzailearen atzetik. Luze-luzea da aretoa, eta EITBko kameralariek markatu erritmoan eta jendearen txalo artean egin dute oholtzarako bidea Aitor Mendiluzek, Amets Arzallusek, Alaia Martinek, Nerea Ibarzabalek, Maialen Lujanbiok, Joanes Illarregik, Sustrai Colinak eta Beñat Gaztelumendik. Zutitu da zalea eta zutitu dira bertsolariak mikro parera etorrita. Aurpegi serioak eta emozioz beteak nabari dira oholztan. Lanerako datoz. Izan da barru-barrutik kantatutako agurrik, jostalariagorik, intentzioak erakustea helburu zuenik... Goizean, ofiziotan eta bakarka entzun dira ale onak.

Berandu amaitu da goizeko saioa. Hirurak laurden gutxi ziren ia, Joanes Illarregik "kafearen ttantta etxearen kontu" iragarri duenerako. Berehala hustu da Nafarroa Arena, askotarikoak baitira bazkaltzeko planak. 1.500 lagun bilduko dira Nafarroako Unibertsitate Publikoko kiroldegian Zubillaga etxeak prestatuko menu beganoa edo haragiduna dastatzera. 5.000-6.000 lagun Sadarren bildu dira, berrogei pausutara baitago Osasuna futbol taldearen estadioa. Goizetik gauzak uzteko aukera izan dute propio prestatu den kontsignan. Gazte Txarangak alaitu du bazkari tarte, estadio kanpoan eta barruan San Fermin giroa zabaldu da. Egun ederra gelditu da edozein kale bazterretan bokadilo erdia jan eta goizeko saioak eman duena komentatzeko.

Eguerdian Bertsozale Elkarteko gonbidatuekin egoteko parada izan dugu. Elkarlanean ari diren erakundeez gain, atzerriko eta Euskal Herriko ikertzaile eta inprobisatzaileak izan dira finala zuzenean ikusten, Bertsozale Elkarteko Ikerkuntza saileko lagunak izan dituzte ondoan. Euskal Herriko zenbait unibertsitatetako ordezkarietaz gain Kuba, Brasil, Sardinia, Madeira, Asturias, Galizia eta Herrialde Katalanetako ordezkariak etorri dira finalaz gozatzera. Baina ez dira atzerritar bakarrak izan; euren kabuz sarrera hartuta etorri baitira beste 70 lagun, gaztelaniara egindako itzulpenaz baliatu direnak bertsoen edukia ulertzeko. Gustura sumatzen ditugu, esker oneko eta mirespeneko hitzak besterik ez dituzte. Ahozko kantu inprobisatuak hainbeste jende bildu izanak harritzen ditu. Sari banaketan, besteak beste, Paulu Zeddak, Sardiniako cantadoriak, hartuko du parte, 2003. urteaz geroztik oso harreman jarraia izan baitute Sardiniako eta Euskal Herriko kantu inprobisatuetako ordezkariak.

Arratsaldeko saioa bostetan zen hastekoa eta mukuru betea da berriz Nafarroa Arena. Giroan sumatzen da beste berotasun bat; bertsolariek asmatzen dutenean errez lehertzen da txalo zarta. Sei puntuko motzean eta puntutan nabarmendu da hori. Are gehiago, buruz buru ariko diren bi bertsolarien izenak eman dituztenean. Hortik aurrerakoa ez dago idatzita utzi beharrik, memorian iltzatuta geldituko dira

Ametsek eta Maialenen ale ederrak eta Iruñeko aldartea. Hirugarren buruz burukoa dute biek eta hernaniarra txapeldun hirugarren aldiz. Iñaki Muruak jantzi dio txapela, hamarkada eta erdi Bertsozale Elkarteko lehendakari izan denak. Maialen Lujanbio txapeldun.

HASIERAKO AGURRAK

A. Mendiluze

Neurria: Hamabiko txikia

Doinua: *Kantuz egin behar det*

Kaixo Nafarroari
hola Arenari!
Aupa hemen etxean
sentitzen den hari
gaur zortzi ahots gatoz
zortzi hitz emari
geure ahalak gehituz
zuen kemenari
sentitzen baitet nola
ari garen ari
begirada zabaltzen
itsutzen denari.

N. Ibarzabal

Neurria: Hamalaukoa, handiaren moldekoa, 9 puntuz

Doinua: *Munduko ilunabarra*

Aro berrien jaiotza
egun on, a ze malkotza
zuentzat gure aitortza
odol mamitan bihotza
ortozik doan hizkuntza honek
beti hanketako hotza
baina erretzen suma daiteke
gaur Iruñeko oholtza
emozioen magma gori bat
bada gutako bakotxa
ustekabeen lehertzen denean
lur azpiko berben poltsa
ea ze mundu posibletarantz
labaintzen zaigun ahotsa.

A. Arzallus

Neurria: Zazpikoa, txikiaren moldekoa, 4 puntuz

Doinua: *Kantatzera noazu I*

Kaixo lagun guztiak
gu ez gara Hertzainak (bis)
gaur erreko ditugu
aurtengo gaztainak
gaztainak, lehertu arte zainak
hainbeste merezi du
hain plaza bikainak. (bis)

Barkatu ni ez banaiz
errotxapearra
baina neuk ere badut
alderdi makarra
hemen gehitxo entzuten
da musika zaharra
da zaharra, BECeko izarra
herri honek badu letra
berrien beharra. (bis)

Otsagabi, Tutera
Baigorri, Lizarra
behingoz bertsoak moztu
duenez bizarra
nafarra, arena, hondarra
zu dantzan jartzea da
nahi dugun bakarra. (bis)

J. Illarregi

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Irun badaukazu zerbait*

Hau da jendetza dagona
dena masifikatua
egun on Euskal Herria
lehen agur sakratua
merkatu beltza izan da
sarreraren merkatua
Arenan nonbait garesti
dago metro karratua
pista, rebote ta grada
hiru zonaz banatua
Nafarroa berriz ere
dago zonifikatua
jolasa eta jokoa
hitzez elkar banatua
elkartuko gaituena
izan dadila kantua! (bis)



A. Martin

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz

Doinua: *Gregario edo laguntzaile naiz*

A ze hondartza puska dagoen
gaur Nafarroa Arenan
irrika daukat oinen punttetan
ta eguzki usaina kreman
bagatoz gure hezur, haragi
desio eta harreman
gaur baietz festa antzeman
historiaren tabernan (bis)
egun argi bat filmatu nahi dut
zuen begien zineman
gure herri hau oinarri hartu
eta naizenetik eman. (bis)

M. Lujanbio

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz

Doinua: *Bizkorra ez naiz baina badaukat*

Bertsogintza den sokatira hontan
gogo, belarri ta aho
zer eta nola nork eta nori
non eta nondik esango
aurrera nahiak atzera kargak
ta urratu gabe ez dago
arte hori da eta finalak
gaur Nafarroa arraro
izan izan da, arrago (bis)
gauzak gertatu daitezkeenean
gertatzen direla nago
beti gertatu behar zuketena
baino beranduxeago. (bis)

S. Colina

Neurria: Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz

Doinua: *Betroiarena A*

Nahiz eta hala bazan
ta hala ez bazan
ipuina amaitu ohi
den kalabazan
ni berpiztu edo ez
egon naiz zalantzan
eta Irulegiko
eskuaren trazan
tatxan, tatxan, tatxan
hara hor nun natzan
Iruñeko plazan
libre ta konfiantzan
zuen eskuak hegan
eraman nazan! (bis)

B. Gaztelumendi

Neurria: Hamarrekoa, handiaren moldekoa, 10 puntuz

Doinua: *Izarren hautsa egun batean*

Egun on! Hara zortzi eztarri
ta Nafarroa Arena
bertsoa izan zen gordeleku bat
ume beldurtti harena
hitzek isurtzen duten lurruna
ispilu malgu, gorputz zurruna
gure maskaran gardena
pitzadura bat gure diglosi
inposatuan barrena
udazkenean piztu den herri
honen nerbio sistema
niretzat hori baita bertsoa
printza bat eta unibertsoa
gu sortzen ari garena
ta gu sortzen gaituena.

ZORTZIKO HANDIA

A. Mendiluze – N. Ibarzabal

Gaia: Ikertzaileak zarete. Urteak daramatzazue ikerketa batean. Diru iturri falta dela-eta, egoera prekarioan ari zarete lanean. Zuk, Aitor, ikerketa bertan behera utzi nahi duzu. Zuk, Nerea, amaitu arte jarraitu nahi duzu.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Beti penetan beti penetan*

A. Mendiluze

Zenbait minbizi nola sendatu
ikerketa eta tesi
asko egin degu baina dirua
gero joaten da ihesi
gizartearen ardura hontatik
behar genuke berezi
ez duelako zaintzen ez duen
ikerlaririk merezi.

N. Ibarzabal

Agintariak egiten dute
diru-laguntzekin burla
ez zaie inporta esperimendu
lanketa edo formula
baina honetan nik ikasi dut
ta ez da ahaztu behar sekula
uste ez denean agertzen dela
itxaropen molekula.

A. Mendiluze

Molekula hau noiz agertuko
gu zain gaude aspaldian
materialak birziklatuak
gure laborategian
hori bai, batzuk, ta gutxi batzuk
gaixotuz gero agian
kanpora joango dira presaka
abiadura handian.

N. Ibarzabal

Dirua beti beste norabait
arrazoi duzu horretan
bai porlanezko, bai kristalezko
hiriburuko dorreetan
baina iritsi egin gaitezke
trenean zein bizikletan
zientzialari denon lana da
jarraitzea bilaketan.

A. Mendiluze

Gu bilaketan gabiltza baina
esklabutzatik gertuen
eta ikusi Osakidetzak
nola tratatzen gaituen
trena ez bada beste obra bat
horrek agintzen du hemen
gizarte batek jakin behar luke
lehentasuna non duen.

N. Ibarzabal

Gizarte batek bereiz dezake
onean edo gaizkian
baina azkenean beti ez al gaude
kudeaketen azpian?
Eta zeozer lortu ezkeru
txispa bat argi izpian
guk ez diegu leku egingo
azkenengo argazkian.



A. Arzallus – J. Illarregi

Gaia: 55 urte dituzue. Herrian beti izan zarete oso aktiboak, eta ekimen gehienen antolakuntzan parte hartu duzue. Azkenaldian lekuz kanpo sentitzen hasiak zarete. Amets, pauso bat atzera ematea erabaki duzu. Joanesek jarraitu nahi du.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Oraindik hango oihartzun hots bat*

A. Arzallus

Gure garaian Jota Martina
ta Chill Mafiarik ez zen
hala ta guztiz saiatu ginen
geure ildoak mantentzen
burusoinetan hasiak zaizkit
aje dezente agertzen
dantza pausorik ez dakit eta
gainera ez diet ulertzen.

J. Illarregi

Urte luzeetan gure herrian
lanean aritu gara
oinordekotza eman beharko
genukeela baina, hara!
Ez dituzula ezer ulertzen
normala da beharbada
baina eurek gu konprenitzea
garrantzitsuagoa da.

A. Arzallus

Zalantzaren bat baldin badute
hortxe egongo gara gu
baina Joanes karga guk urte
gehiegian daramagu
sari diogu “Gaztea ez da
erreleboaren kargu”
baina hortarako zaharrak ere
uzten asmatu behar du.

J. Illarregi

Baina inortxok ez digu esan
“Arren urrundu zaitezte”
espreski inor ez da hurbildu
atzerapausoen eske
urte luzeetan egunero guk
lan egin dugu hainbeste
aurretikan ez, baina beraien
ondoan joan gaitezke.

A. Arzallus

Eta ondoan eman'zaiegun
zaintza ta errespetua
baina Joanes asteburu hau
da bistara agertua
gazte errebeldeek hortxe daukate
Hatortxu Rocken lekua
eta guretzat prestatu dute
Hertzainaken kontzertua.

J. Illarregi

Hertzainak edo Hatortxu Rocken
neretzat berdin-berdin du
gazteenekin hala batera
nahi nukelako hurbildu
askoz hobea ez da izango
atzeko lerrora bildu
bi aurpegiak ezkutatu ta
gero atzetik agindu.

A. Martin – M. Lujanbio

Gaia: Denda duzue elkarrekin itsasertzean. Klima aldaketaren ondorioak geroz eta nabarmenagoak dira zuenean. Zuk, Alaia, denda lekuz aldatu nahi duzu. Zuk, Maialen, bertan jarraitu nahi duzu.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Kintak jarrita ondorenia*

A. Martin

Hainbat urteetan hainbat kolore
oihal eta gogoeta
arorik aro mantendu dugu
tonu arteko oreka
zaindu nahi bada gure txapela
galtza luze ta txaketa
lehen olatua etorri aurretik
egin behar da aldaketa. (bis)

M. Lujanbio

Esaten dute ia ez dagola
udara ta udazkenik
itsaso maila gora ta gora
ailegatuko ez denik
Alaia aldatzen joan gaitzke
mantendu gabe eskemik
orain oihalak, gero txankletak
flotagailuak azkenik. (bis)

A. Martin

Eta ondoren arrain txikiak
baino ez gure sarean
jeitsiera bat suma liteke
diru sarreren marean
onar dezagun gure egoera
aparra dago arean
ez dezagula bufanda jarri
gure begien parean. (bis)

M. Lujanbio

Biok bisio errealista
izango baldin bagendu
igual ezin da epe luzean
denda txiki hau mantendu
errez diozu “Donostiako
portutik hobe da kendu”
Alde Zaharrea orain lokal bat
edozeinek erosten du! (bis)

A. Martin

Egia esan Alde Zaharrak
salduta dauka arima
ta inbertitzeko egin behar da
bi patriketan kilima
pentsa dezagun denborarekin
non jarri behar den bitrina
bero ipini aurretik gero
gu bion arteko klima. (bis)

M. Lujanbio

Ez naiz zurekin haserretuko
beti izan zaitut begiko
hankak bustita biok freskatu
gaitzkeela nereko
ekonomia zirkular hori
hau baldin bada, ba kito!
Lehenengo¹ justu, ondoren pobre
ta azkenerako ito. (bis)

¹ Errepikapenean “Haseran” abestu du bertsolariak.

S. Colina – B. Gaztelumendi

Gaia: Sustrai eta Beñat bi nerabe zarete, eta astean zehar apustu makinetan jokatzeko ohitura duzue. Gaur, ikastetxean, ludopatiari buruzko hitzaldi bat eman dizuete. Zu, Sustrai, identifikatuta sentitu zara; Beñat, ez.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Goizian goizik jeiki ninduzun I*

S. Colina

Institutoan ispilu hautsi bat
ipinirik parez pare
berriz osatu ala txikitu
beharrean ez al gaude?
Jokatu ezean sentitzen bainaiz
izu, dena ansiedade
igual apustu egin behar dut
neure buruaren alde.

B. Gaztelumendi

Ez zaite pasa ederki asko
joan zaigu udazkena
Mundiala ta bertsolariak
a zer nolako eskema!
Niretzako zen astean behingo
aisialdiko eztena
gaixotasuntzat ez zazu hartu
jolas bat baino ez dena.

S. Colina

Gu amildegi ertzean goaz
ta irrist egingo bagendu
ez litzateke zaila asmatzen
oreka nola mantendu
nahiz eta aitak esaten didan
“Makina aurretik kendu”
ordea, berak kiniela egin ta
loteria erosten du.

B. Gaztelumendi

Eta tarteka asmatzea're
tokatu izan da, benga!
Ez zazu pentsa begi parean
nik daramadanik benda
hango Codere ta horko Reta
ikasía daukat xenda
nire aita ere lanetik bueltan
egunero pasatzen da.

S. Colina

Nahiz gurasoak ibiltzen diren
apustu egiten gaurik gau
nere baitara har bat sartu da
eta dena jaten dirau
ez dut ulertzen nola heldu zaidan
hitzaldia entzun arau
irabazteko dena izanda
dena galtzeko beldur hau.

B. Gaztelumendi

Baina begira ipini zaitez
zure barru ta inguru
klima erotzen ari omen da
ta gerran zenbat apuru
karrera bueltan langabezia
tokatuko da seguru.
Sustrai bizitzan nozbait zeozer
irabazi beharko dugu.

ZORTZIKO TXIKIA

A. Mendiluze – A. Arzallus

Gaia: Arotzak edo zurginak zarete. Aitor, ohartu zara Amets azken hilabeteetan ezkutuan kutxa bat egiten ari dela. Zertan dabilen galdetzea erabaki duzu, eta esan dizu bere hilkutxa egiten ari dela.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Gizona da zoroa*

A. Mendiluze

Berrogei urte doi-doi
munduan emana
dauzkazunez kezka bat
heldu da nigana
bromatan hartu dezu
hartu dezun lana
edo zerbait dakizu
nik ez dakidana? (bis)

A. Arzallus

Mailu eta zintzelez
hor nabil jo ta ke
bere lauburu eta
bisagra ta kate
nere neurrira egin dut
dena elegante
baina zuretzat ere
balio lezake. (bis)

A. Mendiluze

Zuretzat luzeroan
buka ezinean
neretzat gehitxo behar du
hemen ixkinean
zirika izango zen
hori azken finean
biak ez gera sartzen
kutxa berdinean! (bis)

A. Arzallus

Biak batera kutxan
ze gauza sorgina!
Aitor bada egi bat
gainera gordina
kutxa honen neurriak du
ironia fina
zuk ere duzu nere
altura berdina. (bis)

A. Mendiluze

Ai! Baina materialak
kezkatura nauka
gereziz hasi dezu
ta haritzetaz buka
hobe zenuen sobran
zeudenak hartuta
zu hildakoan erre
behar zaitugu ta! (bis)

A. Arzallus

Aitor zuk zuhaitzetaz
ez dakizu deusik
materiala haltza da
dena haltza kasik!
Ni hiltzen nautenean
sar nazazu pozik
eta kantatu *Haltzak*
ez dauka bihotzik (bis)

N. Ibarzabal – J. Illarregi

Gaia: Aspaldiko ezagunak zarete Nerea eta Joanes. Gaztetan ez zineten batere ondo konpontzen. Orain, zuen seme-alabak ikasgela berean daude, eta oso lagunak dira. Denbora asko eman behar izaten duzue elkarrekin.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Nere senarrarekin I*

N. Ibarzabal

Banatz bokatillo
ta mahaiko platerak
banatz oporraldi
portal, eskaierak
ze ondo laguntxo bat
hautatu du berak
ederrak bizitzako
bigarren aukerak. (bis)

J. Illarregi

Nerea ta zurea
elkarren laguna
ustez egiten dute
bikote txukuna
nik erakutsia du
hark gizatasuna
justu zure ttikiak
pixka't falta duna. (bis)

J. Illarregi

Gaztegotan izanak
elkarrentzako gaitz
zorionez banandu
ginen eta garaiz
parkean, patioan
tokatzen gara maiz
orain *déjà vu*² txar bat
izaten ari naiz. (bis)

N. Ibarzabal

Hori esaten al duzu
orain ni mintzeko
edota gauza denak
argi ipintzeko?
Nik beti agintzen diot
bera da hitzeko
zure etxeko komuna
ondo zikintzeko. (bis)

N. Ibarzabal

Umeetan ez geneukan
diskusio faltik
ez zenidan ematen
bokatillo batik
zurea jatorra da
badakit zergatik
zure bikotearen
genetikagatik. (bis)

J. Illarregi

Ta sarritan etxean
hori da gertatu
bera hemen lotara
delako geratu
gehiotan etor bedi
Nerea, barkatu
hemen ikasiko du
nola konportatu. (bis)

A. Martin - S. Colina

Gaia: Alaia eta Sustrai, Iruñeko erraldoiak dantzatzera animatu zineten, eta gaur da kalejiran aterako zareten lehenengo eguna. Alaia, elkarren aurrean dantzan ari zaretela, gero eta okertuago ikusten duzu Sustrai.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Gizona da zoroa*

A. Martin

Zu beti izan zara
tipo xelebrea
ta eragin didazu
orain haserrea
zu diferente zaude
eta ni errea
lehen erraldoi ta orain
Pisako dorrea! (bis)

S. Colina

Animatzen joan gara
gaitaren eskutik
baina ezin naiz irten
hain trantze estutik
hala ere eusten diot
gogor arriskutik
ni okertuta baina
Toko-toko zutik. (bis)

A. Martin

Izan behar da ona
eta sensiblea
farolak eraitsiaz
eginez bidea
ta orain ikusten dut
zeure maindirea
Caravinagre hori
ez baita nirea. (bis)

S. Colina

Hauei eusteko behar
da indar itzela
eta ni sortu nintzen
mamu bat bezela
erori egingo naiz
ezin da bestela
mesedez Alde Zaharra
zabal dezatela. (bis)

A. Martin

Ta zuk birika hoiek
zabaldu, zabaldu
zure okerdura honek
artezik ba al du?
Hurrena fundamentu
pixka'tez azaldu
ta mesedez ez zazu
pattarrik gosaldu. (bis)

S. Colina

Nahiz aholku gozoak
ondotik eman zut
ezin diot barkatu
zer esan duzu zuk?
Jada jausi egin naiz
jada nago kaput!
Baina jausitakoan
Maya zapaldu dut. (bis)

M. Lujanbio – B. Gaztelumendi

Gaia: Elkarrekin bazkaltzera joan diren bi lagun zarete. Maialen, Beñatek jaten hasi aurretik plater guztiei argazkia ateratzeko ohitura du. Postrea jaten hasi zaretenean, Beñatek kargu hartu dizu postrea jaten hasi zarela berak argazkia atera aurretik.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orioko balearena.*

M. Lujanbio

Bat enkuadre onekin
ta bat mugitua
Instagramen jartzeko
bere predikua
ba bai, jaten hasi naiz
ez da delitua!
Flana irtengo da oso
faborezitua! (bis)

B. Gaztelumendi

Maialen gauza beti
izan da oreka
flana irentsi eta
zenbat gogoeta
patxada pixka't izan
ezazu tarteka
beti irteten zara
ahoa beteta. (bis)



M. Lujanbio

Ba zuk gauza berbera
Beñat esan ezin!
Ze onak dauden kontatzen
zabiltza hatzekin
herria ta globoa
enteratu dedin
eta probatu ere
ez dituzu egin! (bis)

B. Gaztelumendi

Probatu gabe hala
ipintzen da nota
mobila aterata
argazkiak bota
atsegin dut-ak jaso
ditzadan zientoka
gero gustatzen zaidan
ez dio inporta. (bis)

M. Lujanbio

Eta ni harrituta
geratzen natzaizu
gehien azkeneko hau
gustatuko zaizu
ekarri dute nota
berrehun euro, aizu
atera fotoa ta
pagatu ezazu! (bis)

B. Gaztelumendi

A ze sustoa eman
didan arranoa!
Bi orritako notak
dirudi planoa
berrehun euro faktura?
Hau ez da sanao
itxaron mugikorra
kargatzera noa. (bis)



BAKARKA, GAIA ETA PUNTUA EMANDA

A. Mendiluze

Gaia: Musika taldeen itzulera

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

Hertzainakek omen du bere azken bira.

Aspaldian halaxe
esaten ari da
baino atzoko argazki
ederrei begira
igual berriro ere
agurtuko dira!

Aspaldiko taldeak oholtzara bueltan.

Nunbait jendearekin
sentitu zorretan
ez dakit nostalgia
ote den benetan
ala beste interes bat
baduten horretan.

Zein talde nahi zenuke berriz itzultzea?

Igual nahi nuke Itoiz
oholtzara heltzea
beraien kontzertuan
aurrean jartzea
eta etxera bueltan
behingoz bidaltzea.

N. Ibarzabal

Gaia: Zaballa espetxeko bertso eskola

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orain hasi bihagu*

**Zaballara iritsi
da bertso eskola**
espero zitekeenik
ezin zen inola
pozten naiz badabiltza
kantuz kantu hola
hitzari ezin zaio
ezarri kontrola!

**Presoen hitza aske
izan al daiteke?**
Nahiz ta gehienak dauden
gela itxien menpe
ez dugu kartzelarik
gehiago nahi bete
kalean nahi ditugu
horrenbeste jente.

**Txapelketan ganbara
Zaballan kartzela**
Hobe izango balute
guk dugun partzela
denak librexeago
leudeke horrela
badakit egun hori
iristear dela.

A. Arzallus

Gaia: Politikariak

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

**Beti ibiltzen dira
elkarri oihuka**
hitza eman orduko jan
eta gero uka
zirko politikoa
da gauza arrunta
beren artean egin
bezate burruka!

**Herriak jasotzen du
bozkatu duena.**
Ba nik aspaldi galdu
nuen sinismena
hauteskunde biharamun
ohi da astelehena
ta neretzat orduan
hasi ohi da dena.

**Izan nahi al zenuke
nozibait agintari?**
Amets hori pentsatzen
ez den hemen ari
lehen ere bai Arzallus
baziren ugari
baina gu ez gara bat
beharririk gara bi.

J. Illarregi

Gaia: Munduko inprobisatzaileak

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orain hasi bihagu*

**Berezia da kantu
inprobisatua**
herrialde ezberdinetan
askok asmatua
batzuek egina ta
besteek gozatua
hizkuntzaren bidea
delako kantua.

**Jardun al zara beste
hizkuntza batean?**
Ez, bakarrik euskeraz
hortan jo ta kean
agian gazteleraz
noizbait atakean
baina oraingoz hobe
uztea pakean!

**Iruditzen zitzaigun
bakarrak ginela**
baina ikusi dugu
gehiago daudela
aberasgarrigoa
da dena horrela
eta beraiek ere
segi dezatela.

A. Martin

Gaia: Pentsioak

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

**Gogor lan egin eta
miseria jaso**

horrela aiton-amona
lagun ta guraso
erretiro garaia
bihurtuz arazo
egoera irauli
liteke akaso.

**Hil amaiera ez da
denentzat berdina.**

Batzuentzat aukera
besteentzat ezina
denok daukagu berez
bizitzeko grina
ta pobre bizitzea
ez da atsegina.

**Pentsiorik espero
al duzu gerora?**

Egoerak egingo
ote du mejora?
Jadanik jarri dute
milatikan gora
gehiago borrokatu
egin beharko da.

M. Lujanbio

Gaia: Gabonetako argiak

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orain hasi bihagu*

Hilabete aurretik

argiak piztuta

kalean gabiltzanak
ezin sinistuta
ekonomia dago
bastante estu ta
hobe luke elizak
hoiek pagatuta!

Batzuk haserre eta

besteak gustura.

Bakoitzak defenditzen
sinisten dun hura
kontsumitzeko ere
badugu kultura
fedea kontsumoan
lurrera sartu da.

Eta zure etxean

piztuta al daude?

Bonbila bakar bat det
hantxe parez pare
Gabon argiekin ez
mila abildade
argi bakar horrekin
gozo-gozo gaude!

S. Colina

Gaia: Gaztetxea

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

**Hamarkada askotan
egin da borroka**
askatasuna egon
ez zedin koloka
baina ez pentsa aldatu
zaigunik epoka
oraindikan zer egin
handia dago ta!

**Herriari ematen
diote bizitza.**
Nahiago nuke nunnahi
halaxe balitza
gaztetxetik sortzen da
herriaren hitza
ta gu berriz hitz hori
kantatzen gabiltza!

**Zein da gazteteekin
duzun harremana?**
Bertan koka liteke
nere iragana
ta esan orain tarteka
kantatzen dudana
han zahartzeko gogo
da nik daukadana.

B. Gaztelumendi

Gaia: Zabortegiak

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orain hasi bihagu*

Guztiok sortzen dugu

zaborra tonaka

ta hoiek botatzeko
gaur lekua falta
birziklapena dugu
aukera galanta
natura ere pixka't
zaindu behar da ta!

Inork ez du ondoan

zabortegirik nahi.

Baina erraustegi bat
egin zuten lasai
ta Gipuzkoan asko
gara horren etsai
hor gaude egunen baten
itxiko duten zai!

Zuk zer egiten duzu

gauzak hobetzeko?

Ba birziklatu ohi dut
batekoz besteko
baina kontsumo honek
gauzkanez menpeko
ziur egin nezake
askozaz hobeto.





SEIKO MOTZA

J. Illarregi – A. Mendiluze

Gaia: Joanes 25 urteko semea, eta Aitor ama zarete. Joanes, Aitor amak esan dizu banandu nahiko lukeela, baina ez duela bizitza berri bat bakarrik hasteko modurik.

Neurria: Zortzikoa, berdinarean moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Aresoarren bandera*

J. Illarregi

Lotuta zaude katean
gure etxeko atean
ta jarraitzea aipatu duzu
duzula kaltean
hori bota bapatean
malkotan, negar batean
esan zaidazu ze eskatzen duzun
lerroen artean! (bis)

A. Mendiluze

Tarteka maitasun hitza
lasai entzuteko ditxa
ez nuke zertan ezer aldatu
posible balitza.
Egoera da bortitza
sufritzen denok gabiltza
berririk ezin hasi ta zaharra
ez baita bizitza. (bis)

J. Illarregi

Benetan kasu bitxia
begi bazterra itxia
azken aldian hiru famili
gisan gabiltz ia.
Bikotearen krisia
belarrira iritsia
zuk zer nahi duzu nire laguntza
edo iritzia? (bis)

A. Mendiluze

Ez goxo ta ez maitasun
hitzik aspaldian entzun
eta badakit zuri ere nola
ailegatu zaizun
nahiz ta zalantzak dauzkazun
ez galderekin erantzun
gauza bakarra nahi det Joanes
ulertu nazazun. (bis)

J. Illarregi

Hala izan beharko da
ez bazabiltza gustora
nahiz gogorra den berriz hastea
berrogeitik gora
joan zaitez edonora
gure etxetik kanpora
ta lasai ama, bilduko gara
elkarren ondora. (bis)

A. Mendiluze

Aita ta biok ez gaude
aspalditik parez pare
baina argi bat ikus nezake
ondoan bazaude
aukera askoren jabe
ez naiz ni baina halare
ia egiten asmatzen dedan
inor mindu gabe. (bis)

N. Ibarzabal – A. Arzallus

Gaia: Neba-arreba abeltzainak zarete. Orain arte behien esnea enpresa bati saltzen zenioten. Nerea, Ametsek proposatu dizu lan egiteko modua aldatzea, eta esnekiak zuzenean saltzen hastea.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Dozena bat bertso berri A*

N. Ibarzabal

Lehen Kaiku izan dugu zain
gure markaren lemazain
nahiz ta ez gendun guk nahiko geunken
adinako ordain
gero pentsa guretik lain
badago nahiko esnegain
lan egiteko gainera gure
gaitasunetik gain. (bis)

A. Arzallus

Gure behien mirariak
enpresaren opariak
Kaikuk uste dut kaikutzat hartzen
gaituela biak
izozkiak, janariak
eta jogurt ugariak
bestela dena irabazten du
bitartekariak. (bis)

N. Ibarzabal

Hori halaxe da tira
baina jendeai begira
Eroskin eta Lidl-en ondo
moldatu ohi dira
gauzak apalen erdira
ta eskuaren neurrira
jendea ez da oinez igoko
gure baserrira. (bis)

A. Arzallus

Zalantza bat nabari da
zeure begien dizdira
geuk ekoiztea baita Nerea
gure alternatiba!
Zu izozkiei begira
jarri zaitez arren, tira!
Ta bezeroak lau hankan ere
etorriko dira. (bis)

N. Ibarzabal

Ez da hain luzea soka
urruti dago azoka
baina ados, bada marketinean
horrenbeste sorta
Mahala ere ate joka
gora igoa dago ta
baina irratiko iragarkian
bertsoa zeuk bota! (bis)

A. Arzallus

Esnea ta izerdia
errima ta hitz erdia
“Zatoz bezero, gozatu zazu
gure energia!”
Horra hor bertso berria
saretuz Euskal Herria
azken finean hori ez al da
gure baserria? (bis)

A. Martin – B. Gaztelumendi

Gaia: Beñat 25 urte eman dituzu kartzelan. Azken urteotan, zu preso sartu zintuztenean jaio gabe zegoen Alaia gazteak eskutitzak idatzi dizkizu. Duela gutxi aske geratu zinen. Gaur, kalean, Alaia gerturatu zaizu esanez bera dela eskutitzak idazten zizkizuna.

Neurria: Zortzikoa, berdinarean moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Aresoarren bandera*

B. Gaztelumendi

Zure indar ta bertute
dena gutun haien truke
mende laurdena nik preso eta
mende laurden zuk'e.
Ai kartzela! Zulo kutre!
Horiek horixe dute
baina ze gutxi eta zenbat den
hogeita bost urte! (bis)

A. Martin

Oparo bezain murrirtza
itzala edo bizitza
patio txiki bat izan duzu
iraute baldintza.
Orain kalean zabilta
eskuetan duzu giltza
ai zeinen pozik idatzi nizun
azken eskutitza! (bis)

B. Gaztelumendi

Bihotza jarri zen ero
orain astebete edo
ziega zuloa han utzi nuen
eta bertan bego.
Sobre hotz eta hitz bero
iristen zirenez gero
nire zulotik atera nauzu
hilero-hilero! (bis)

A. Martin

Kartzela ertzeko taktika
irudimena, kritika...
Ez zen izango garai erraza
ez behintzat polita.
Aldatu da politika
lehor gabiltza apika
baina oraindik ez da agortu
herri honen tinta. (bis)

B. Gaztelumendi

Nor goia eta nor behea
egoera ez da hobea
ez daukat lanik, etorkizuna
ez dut dotorea
mende laurdenez gordea
egon da nire sobrea
orain bizitza orri zuri bat
soilik da ordea. (bis)

A. Martin

Ongi zabilta zeure kasa
nahiz ta sentitu *vintagea*³
“Ongi etorri!”, “Kaixo!” ta “Agur!”
herriko atlasa,
Molda zaitetz, gauzaz gauza
eta ondoren ez pasa
atmosferara ohitu aurretik
har'zazu arnasa. (bis)

³ “Bintaxa” ahoskatu du.

M. Lujanbio – S. Colina

Gaia: Ospitale bateko bi zerbitzu buru zarete. Ez zaudete ados zuen agintari politikoen kudeaketarekin. Maialen, Sustraiak proposatu dizu elkarrekin dimisioa aurkeztea.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Aresoarren bandera*

M. Lujanbio

Gure jakintzaren menpe
hainbat paziente ta jente
ta gero eta murrizagoak
baldintza ta epe
murrizketak atertzeke
zure nahia nola bete?
Dimisioa eurek aurkeztu
beharko lukete! (bis)

S. Colina

Dantza dezagun eztena
badena eta ez dena
hemen ardura ez baita beti
izaten besteena.
Erakutsi gaitzespena
ta hau dela antzezpena
ala ZIUra sartuko dute
osasun sistema. (bis)

M. Lujanbio

Greba batek erreztua
du ala aldresbestua?
Osasungintza ZIUra doa
asko da aurreztua
bide murrizta, estua
Jaurlaritzak babestua
ez dakit batzuk ondasungintzan
ez duten eskua. (bis)

S. Colina

Beranduegi da jada
ta saiatuko al gara
bihotzekoa behingoz bihurtu
dadin bihozkada?
Joan gaitezen grebara
nere dimisioa hara
Osakidetzan zita lortzeko
modu bakarra da. (bis)

M. Lujanbio

Dimisioan afera
ez da ideia ona, zera
protestatzea ez al da hobe?
Ba goazen sartzera
pankarta baten atzera
ospitalean jartzera
ta ea herria noiz irteten den
gu defendatzera. (bis)

S. Colina

Sakondu ezkerro gaian
enkarteladen jarraian
dimisioak jarriko gaitu
protesten talaian
kapitalismo salbaian
jarri gaituzte salmahaian
nahiz eta txalo jotzen ziguten
pandemia garaian. (bis)

GANBARAKO LANA

A. Mendiluze

Gaia: Irribarre konplizea egin diozue elkarri

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 8 puntuz

Doinua: *Baneza eta banitu*

A. Mendiluze

Nik hamabost urte aurten
bertsolaritza ematen
gelatara eramaten
a ze suertea daukaten!
Baina ikasle bat, neskatila bat
ez da eroso izaten.
Berak badaki ta nik badakit
noraino egin dezakeen.
Halere beti behera begira
barne borroka jasaten
beti onena pentsatzen du ta
ez du sekula esaten! (bis)

Sekula ez dago lasai
konplejuak ditu etsai
nik badakit badela gai
esan nahi diot baina ai!
Besteak hasten dira kantari
eta orduan berak jai
bere barruan bertsoak dauzka
baina beste mila ezbai
ondoan harro okerragoak
“Gu bai ausart eta gu *guay*”
nik tira egin nahiko nioke
baina ez det behartu nahi. (bis)

Gaur pentsatu det “Akabo!”
konbentzituta zeharo
ta hasi baino lehenago
esan diot: “Hemen nago
zuk erabaki, baina duzuna
botaz gero nik nahiago
ez baitaukazu une triste hau
zertan bakarrik igaro”.
Ausartu egin da, bota egin du
orain irrifartsu dago
baita ni ere ta esan nahi du
hark uste baino gehiago. (bis)



N. Ibarzabal

Gaia: Irribarre konplizea egin diozue elkarri

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Gure herri ttiki hau da*

Kolpe asko eman dizkit
patuak nire bizitzan
urteak igaro ditut
gizon txar baten gerizan
ta ez dakit epaitegiak
nik ondo zertan dabiltzan
haurran zaintza erdi bana
nonbait hala komeni zan
astez asteko txandetan
begira nola gabiltzan
haurra uzten dudanero
ni beldurraren sasitzan
ta utzidazue pentsatzen
normalena dugun gisan:
kide ona izan ez denak
ezin aita ona izan. (bis)

Nahiz ta ez dizkigun eman
bultzada edo ostiko
pertsonak asma lezake
beste norbait nola ito
ta nire irrifarrea
ezabatu zen betiko
baina alabarenari
eutsi nahi nioke tinko
kotxean noa berekin
bera bi masail gorriko
“Agur” esan dio aitari
ta nik barre neurekiko.
Itxaron beharko gaituzu
denbora luzez txikito
ze gu hurrengo astean
ez gara hona itzuliko. (bis).

Diskrezioz mantendu dut
tokatzen zaidan itxura
susmorik ez dudalako
holakotan piztu gura.
Ez diot nire alabak
niri ez didanik ardura
baizik sortu nahi dudala
bizitza perfektu hura.
Bidea dugu aurrean
milaka, milioika uda
“Alaba, libre izateko
gure ordua heldu da”.
Irribarre bat egin dit
ta biok goaz gustura
alboan bere poza ta
parean gure ortzimuga. (bis)

A. Arzallus

Gaia: Irribarre konplizea egin diozue elkarri

Neurria: Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, zazpi puntuz

Doinua: *Kantuz sortu naiz eta II*

Guk ez dugu hegazkinik
hartzen zuzenean
gu azpimundu bat gara
beltzak azkenean.
Etxetik atera nintzen
asteazkenean
ostegunak ostirala
du begi menean
pentsa zenbat miseria
egunen trenean
desertua bukatzen da
zortzigarrenean
ta desertu haundiena
geure barrenean. (bis)

Neure oinetako higatu
ta neure bizarra
harrera elkarte batek
piztu dit izarra.
Esan dit: "Hor dago muga
hor duzu iparra
polizien ezkututik
segi tirri-tarra!"
Eta iritsi denean
ja ilunabarra
harek neri eskeini dit
azken irriparra
deus ez duenarentzako
hori da indarra. (bis)

Bi hemisferio gara
munduko bi parte
ta zuek bizi zarete
sarri gu bitarte.
Desertuek ta paterek
honaino nakarte
ia ez hitz, autoestima
eta ez aldarte.
Baina zorigaitzengandik
joan naiz aparte
inpernu latz bat izan dut
bidearen parte
Bidasoa ertz hontara
heldu nintzen arte. (bis)

J. Illarregi

Gaia: Irribarre konplizea egin diozue elkarri

Neurria: Hamalauko handia

Doinua: *Maite gaituzten soro zelaiak*

Afaldu eta ohe barrura
joan gara bero-beroan
musu artean maindireekin
hasi gara endredoan
elkar daukagu parean eta
elkar daukagu gogoan
goxo ari gara, oso gustora
baina dena ez da doan.
Begiratu dut albo batera
ta bera daukat ondoan
keinu egin dit begiarekin
irri txiki bat ahoan
ta keinu horrek helarazi dit
hain gaizki ez dela joan. (bis)

Beti izan naiz geldiezina
beti horren urduria
ta lortu dugu bion artean
eraikitzea zubia.
Modu denetan aritu gara
nor zalduna, nor zaldia...
Egia esan sentsazioa
neretzako miraria
bere ondoan hau egitea
nuen nere guraria
ongi joan dela ikusi izana
neretzat ze oparia
beti ez baita ongi irteten
lehendabiziko aldia. (bis)

Gu ohe baten barruan gaude
biluzirik bi nerabe
orain guztia poza daukagu
ez min ta ez atsekabe.
Betiko hemen geratu nahi dut
ez dut egin nahi nik alde
behatzarekin nere bizkarra
laztantzen dit hain suabe
zenbat gozatu lehen aldia
nahiz espero nuen grabe
maindire artean arropa gabe
ta besarkatuta gaude
eta lotara makurtu gara
beste ezer esan gabe. (bis)

A. Martin

Gaia: Irribarre konplizea egin diozue elkarri

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silaba

Doinua: *Goizean altxatu eta*

Ez da berria ohea
berria dugu pausua
arropak erantzi ahala
nahi genuen piztu sua
eta pixkana gorputza
bilakatzea putzua
sinkronizatu artean
arnasa eta pultsua
oheko gerra txiki hau
ez baita arrisksua
bi gauzak partekatzea
niretzako da luxua (bis)
lehenbizi irriparrea
eta ondoren muxua.

Lehendik kafe bat izan zen
ardo bat, gero Kombucha
pixkana musurik musu
hasi zen ezpainen luntxa
kilimak sentitzea da
pinpilinpauxaren funtsa
eta pixkana plazerrak
ere bizi du hazkuntza
azken batean eremu
libre bat baita gorputza
zertan mugatu plazera
bihurtzeraino kamutsa (bis)
eleanitza denean
gure gorputzen hizkuntza?

Beso artea poliki
bilakatzen da kabia
konplizitatez josiaz
gure arteko haria
taupadekin neurtuta
emari ta eskaria
gaur bi tximeleta gara
gaurkoan ez naiz zaldia.
“Ondo al zaude laztana?”
xuxurlazko esaldia
aurrez probatua neukan
mutikoen haragia (bis)
gaur daukat neska batekin
bigarren lehen aldia.



M. Lujanbio

Gaia: Irribarre konplizea egin diozue elkarri

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Norbere mundu intimo*

Abandon metroko atea
zabaldu eta haizea
ta haizearekin batera
halako tipo klasea
sartu zaigu muskuluz ta
tatuaje fatxaz asea
hautatu du ate ondoan
mendekati geratzea
ta zu jeiki egin zara
ni jeiki naizen antzea
suertatu da beste denek
gonbita hau onartzea
tipoak bere burua
eroso ez topatzea
eta hala lortu dugu
bagoietik botatzea. (bis)

Isilkako protesta bat
dateke edukatzea
arrisku den gizonari
sarrera bat ukatzea
iseka zorian hasi
ta guk bi hitz trukatzea
aski izan da ez zen behar
guk malkoak xukatzea
ze jende eskuindar horrek
maite baitu juzkatzea
gu bezin bestelakoak
normala ez gustatzea
nahi baitute egi bakar
ta goren bat sustatzea
burua hautsi baino nahio
besterena puskatzea. (bis)

Behingoan alderantzira
gertatu da gauza hara!
Jende xeheak indarra
tipo sendoak ikara
bizi espazioa zer den
argi behar baita laga
konplizea bagoi hontan
gu guztion begirada
bestelakorik horrela
pasatu ez dedin jada
behin egin izanak eman
behar digu berriz bulkada
zu ta biok bereziki
irria irrietara
gure poltsa ortzadardunez
poz-pezik atera gara. (bis)

S. Colina

Gaia: Irribarre konplizea egin diozue elkarri

Neurria: Hamabostekoa, handiaren moldekoa, 11 puntuz

Doinua: *Izarren hautsa egun batean*

Aldaka hautsi zuenez gero
hanketan ez du indarrik
ezin da bizi bakarrik eta
ez du lehen zuen pindarrik.
Gaur lehen eguna dut Joxe zaintzen
bere alabaren eskea baitzen
ta bost zentzuak itzarrik
sinistu arren bizitza hontan
ez dela ilunabarrik
bere alaba etxera joan da
ta eman gabe bizkarrik
agertu dira bere galderak
ta eskeini diot irribarre bat
ez egiteko negarrik
ez dagolako bakarrik.

Baina ez pentsa natorrenikan
zoriontsu ta aldarreko
ez da erreza bizi beharra
beste inoren meneko
haginlaria nintzen Bogotan
ta Joxe zaindu behar dut Europan
arrazismoa tarteko.
Eskua eman ta tortilla bat
prestatu diot jateko
ikusi baitut irribarre
ez dela izan kalteko
nahiz Joxerentzat beti nagon hor
neretzat hemen ez dago inor
lasai egon esateko
ta irribarre egiteko.

Joxe ohean etzan dut baina
ba ote dauka egunik?
Bizimodua zer bihurtzen da
ez bada askatasunik?
Gure buruak nahiz ta ez salba
harresiren bat pitzatzen al da
irribarrezka jardunik?
Ordaintzerik ba ote daukagu
guk egin nahi ez dugunik?
Ba ote dago boteretikan
libratzen den maitasunik?
Ze amets neukan nere erretinan?
Ta zer topatu dut errutinan?
Galdera asko ditut nik
baina ez dut erantzunik.

B. Gaztelumendi

Gaia: Irribarre konplizea egin diozue elkarri

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Larogeita hamar urte*

Baloia borobila da
ta nire hanka zapala
aspaldi ezagutua
daukat porroten magala.
Jakin arren hamar urte
besterik ez dauzkadala
jolas-orduko jokaldi
bakoitza da azken bala. (bis)
Kanpora joan zait baloia
hau da destinu zitala
ta Aritzek begiratu dit
begietan ze ahala!
Ezpain ertzetik zuzendu
dit irribarre zabala
eta sentiarazi nau
onena banintz bezala. (bis)

Haurrontzat zailak baitira
Iruña zein Donostia
beti bistan uzten dugu
ustekabeen uzkia
eta denera heltzen da
futbolaren industria
gure ahalmen apurra
nahiko genuke ustia. (bis)
Nik sarri baloiarekin
egiten dut tupust ia!
Sentitzen dut amorrua
antsia ta angustia
umea deitzen didate
ahula, oilobustia
ta irribarre hori da
falta zitzaidan guztia. (bis)

Ta gurutzatu ditugu
bizpahiru begirada
babesa bidali nahian
guk elkarren begitara.
Txiki eta txikituak
maiz sentitu gara jada
ni txikia naizelako
ta Aritz ere hala da. (bis)
Haundiek, berriz, elkarri
eupada ta besarkada
guri berriz bideetan
dena oztopo ta traba.
Alperrik egingo dute
irri bertatik bertara
haundiak ez dira haundi
txikiak biltzen bagara. (bis)





BUKAERAKO AGURRA

J. Illarregi

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Sagutxo batzuekin*

Ez baldin bazaizkigu
indarrak agortu
atsaldean bikoitza
nahi genuke lortu
orain lasai bazkaldu
muturrak berotu
gero ebaki bat hartu
ta aulkira lotu
ta kafearen ttantta
etxearen kontu!





IRUÑEA

2022/12/18, IGANDEA, 17:00

NAFARROA ARENA

FINALA – ARRATSALDEKO SAIOA

Bertsolariak:

Aitor Mendiluze Gonzalez

Nerea Ibarzabal Salegi

Amets Arzallus Antia

Joanes Illarregi Marzol

Alaia Martin Etxebeste

Maialen Lujanbio Zugasti

Sustrai Colina Acordarrementeria

Beñat Gaztelumendi Arandia

Gai-emailea: **Alaitz Rekondo Ferrero**

Epaimahaiko kideak: **Ainhoa Sarasua Laskaray, Aitor Jimenez Tolosana, Amaia Otxotorena Gamio, Eneko Bidegain Aire, Eneritz Azkue Basurko, Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa, Joseba Beltza Bengoetxea, Miriam Juaristi Urizar eta Nerea Bruño Artazkoz**

HASIERAKO AGURRA

A. Martin

Neurria: Hamaseiko txikia

Doinua: *Egunsenti batean*

Beno, ase al gara
jatez ta edatez?
Gozatu al duzue
txarangaren kantez?
Postrea prestatuko
dugu kalitatez
beraz entzule maite
goxo eser zaitez.
Oholtzara igo naiz
bale arnas batez
ilusioz, irrikaz
eta borondatez
eta kantatuko dut
hitz bakoitza maitez
irri handi batekin
ta konplizitatez. (bis)

N. Ibarzabal

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Ai gure antzinako*

Kabitzen ote gara
berriz argazkian? (bis)
Ezpatak ta labanak
takillen saskian
utzi al dituzue
berriz arrastian?
Trankil, guk sartu dugu
modu narrastian
asmo punta zorrotz bat
mingainen azpian. (bis)



S. Colina

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Motibo bat nigana*

Hasi pasioak ta
grinak bateratzen
bizirik ez dagona
ez da alteratzen
bihar utzi aurretik
hezurrak beratzen
saiatu nadin azken
txispak ateratzen
azken saltoa eginda
airean geratzen.

M. Lujanbio

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Neskazahar bat tentatzen*

Ia sagardo, ardo
patxaran ta abarren
tragoak hona ere
txinparta dakarren
ganbaran egon gara
palkoan Sadarren
zelaia hutsik eta
Lionel Qatarren
mobilei disimuluz
begiratu arren.

B. Gaztelumendi

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Aita asmo hartu det*

Lehenbizikoa joan da
hau bigarren proba
lehen begira egon naiz
areto hondora
beroki distiratsu
ta txandalak moda
hango mahai, hango aulki
hango kantinplora
Decathlon gure kontu
aberastuko da. (bis)

A. Arzallus

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Nik zonbat pertsu alde*

Bazkalostean pistan
ibili naiz oinez
eta pankartak leitu
ditut atseginez
batean agertzen naiz
hortzetako minez
herri hau borobiltzen
zaila dago zinez
baina lortuko dugu
ezina ekinez
ta egun hau borobildu
dezagun gutxinez.

J. Illarregi

Neurria: Zortzikoa, berdinareen moldekoa, 7 puntuz

Doinua: *Ai hori begi ederra A*

Hamar zein bi koma bosta
zuzen edo estropozka
orain goruntz azken koxka
ez du merezi orain hasteak
tentso mekaguendioska
nahiz ta bazkaltzea kosta
egin nahi dut azken hozka
horretarako gatoz ta.

A. Mendiluze

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Oilarra kukurruka*

Behin pasatzen denean
jateko denbora
animo hitzak datoz
gehienon ahora
heldu elkarri eskutik
eta guazen gora
epaimahaikoek esan
dezatela nora
(heldu elkarri eskutik
eta guazen gora)
geratzen den zatia
latza izango da.

HAMARREKO TXIKIA

A. Martin – A. Mendiluze

Gaia: Aitor, gazte garaiko lagunena bazkaria antolatzen hasi zara. Alaiari deitu diozu izena eman dezan, baina pandemiaren geroztik, jende askorekin elkartzeak deseroso sentiarazten duela erran dizu.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Lagundurikan danoi I*

A. Mendiluze

Lehendabizi e-mail bat
Whatsappez lau mezu
gaur erantzuna hitzez
eman dezakezu
“Zer? Askok al zerate?”
kezka eta keku
taldera elkartzeko
beldurrez zaude zu
sentitzen det sinistu
baldin badiezu.

A. Martin

Zer gertatu zen, Aitor?
Egin memoria.
Zenbat jende isolatu
kontrako zoria
ez da hainbeste aldatu
orain historia
ta ezin dut erantzi
hain zama lodia:
eztarrian daukadan
agorafobia.

A. Mendiluze

Benetan hala dela
sinistu nahi nuke
baina urte bat joan zen
ta laster bi urte
ta agian pentsatu
beharko zenuke
datu, txerto, notizi
ta beldurren truke
bizia ez, bizitza
lapurtu dizute.

A. Martin

Bakoitza bere usteen
eta zirkulantzi
zenbat arau zorrotz ta
hainbeste distantzi
dena bilakatu zen
eraso ta antsi
nahiz txertoa hartu ta
beste hainbat sustantzi
beldurraren maskara
ezin dut erantzi.

A. Mendiluze

Gizarte harremana
nahi zuten ekidin
kanpaina egin zuten
hala izan zedin
alperrik egin ditut
hainbeste ahalegin
baina gu elkartuko
gera berdin-berdin
zure maskara horrekin
nahi dezuna egin.

A. Martin

Nahi dudana egingo dut
hau da nire koba
Platonen itzal eta
beldurren aizkora
zuen bazkari hori
ongi irtengo da
ni ez naiz aterako
burbuilaz kanpora
utzidazu arnasten
nire erritmora.

N. Ibarzabal - M Lujanbio

Gaia: Herri txiki bateko biztanleak zarete Nerea eta Maialen. Zuk Nerea, 80 urte dituzu. Maialenek, berriz, 20. Azken hamarkadetan, poliki-poliki, herrian geroz eta biztanle gutxiago zarete.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Hamalau heriotzena I*

N. Ibarzabal

Itzaltzuko bazterrak
nahiz ederrez blaitu
ez ote da geroa
betiko amaitu?
Zuk ere nahiko duzu
lanerantz jarraitu
gazteak ere indar
nabaria baitu
zu ere hiriburuak
eramango zaitu.

M. Lujanbio

Jendea etortzen da
hartzera atsedean
baina bizi izateko
Itzaltzu aspermen
anbulategirik ez
hamaika hasperen
eskolara Iruñera
pentsa 'zazu zer den!
Ni egoskorkeriak
mantentzen nau hemen.

N. Ibarzabal

Baina egin beharko da
gero nonbaiten lan
ta festa giroan ta
hamaika harreman
eraikitzen izango
duzu hainbeste lan
nahiz egoskorkeria
badagon zuregan
azkenean beharrak
baietz zu eraman.

M. Lujanbio

Ez al zaitu lasaitzen
berrizko ezetzak?
Itzaltzun daude guztiz
dauzkadan ametsak
biziberritu behar
ditut teila beltzak
bihurtu ez daitezen
gure herri ertzak
aborigenen postal
turismoarentzat.



N. Ibarzabal

Onddo bila etorri
ohi dira ugari
horrenbeste turista
izaki herrari
baina amona honek
entzun zaitu adi
pozik nago ta segi
ari eta ari
beste esanahi bat eman
guztion lurrari.

M. Lujanbio

Nahiz lurra daramaten
ia galzorira
bateko kutsadura
besteko Covida
jende hiritarrak ere
kontua hori da
baietz bueltan etorri
gu gauden tokira
bizitza nun dagoen
ohartuko dira.

S. Colina – A. Arzallus

Gaia: Sustrai gurasoa eta Amets 14 urteko semea zarete. Sustrai, gaur Ametsek hiruhileko honetan atera dituen notak erakutsi dizkizu. Orain arte ez bezala, nota txarrak atera ditu.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Zer da gaur Donostian*

S. Colina

Arazo bat duzu ta
ez gara ohartu
nahiz errua nerea
dudala onartu
konponbidera behar
genuke ausartu
nahiz gaur arte amaren
karrilean sartu
orain aitaren antzik
ez'zazula hartu. (bis)

A. Arzallus

Ene aita, guztiak
garenez pertsonak
lehen maitasun harreman
eta lehen hormonak
ezagutzen ari naiz
horren zorionak.
Ze inporta du euskarak
ta zientzien dogmak?
Beste gauza batzutan
dauzkat nota onak. (bis)

S. Colina

Beraz eman diozu
tortillari buelta
eta bizitzan barna
zabiltza zer gerta
seme, *maitematikak*
bazauzka alerta
orain hasten da zure
sexu heziketa
hau da gainditu behar den
ebaluaketa. (bis)

A. Arzallus

Aita, *maitematikak*
ez ekar gogora
nik nahiago dut Patxi
ta Maiteren lora
genero guztiekin
egin dut aproba
horretantxe pasatu
behar dut denbora
eskola gero ere
hortxe egongo da. (bis)

S. Colina

Nahiz ta lehenengo Patxi
gogoz seduzitu
eta gero Aneren
ondoan luzitu
seme, ahal baldin bada
ikasten segitu
baina lehenengo zure
burua aurkitu
arazoak dauzkanak
soluzioak ditu. (bis)

A. Arzallus

Noski badituela
hori ez zait ahazten
eta dena ari naiz
hortik irabazten
harremanik ez baitit
inork galerazten
zure bideei segi
aita, ni ez naiz hasten
ahalegindu zaitetz zu
nigandik ikasten. (bis)

J. Illarregi – B. Gaztelumendi

Gaia: Joanes bezeroa eta Beñat okindegiko langilea zarete. Joanes, okindegira sartu eta zuzenean erdaraz eskatu duzu. Beñat langileak euskaraz erantzun dizu.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Gizakiak harri bat*

J. Illarregi

Hona ez naiz etortzen
sari egunero
gaur lehenengo aldiz
eta hortan bego
zure azal beltzarana
ikusi ezker
barra erdi bat erderaz
eskatu dut gero
gaizki ez ulertu baina
ez nuen espero. (bis)

B. Gaztelumendi

Jardun naiz aditzean
ta jardun baldintzan
hala okindegian
zer-nola gabiltzan.
Azala etiketa
bat dugu bizitzan
erdaraz sartu zara
arrotz baten gisan
lasai, ez zara eta
lehenengoa izan. (bis)

J. Illarregi

Lehenengo momentuan
erori naiz, kaput
nahiz eta ni dendara
heldu tinko ta zut
beraz lehenago ere
joan dira batzuk
zure hobe beharrez
hala egin dizut
eta nere tokian
ipini nauzu zuk. (bis)

B. Gaztelumendi

Gorrituak dauzkazu
zure bi masaila
bi hizkuntzatan hasteak
badu abantaila
buenos días, egun on
lehenbiziko maila
euro bat da *un euro*
nolako abaila
elkar ulertzea ez da
horren gauza zaila. (bis)

J. Illarregi

Ta uste dut elkar ongi
ulertzen dugula
beltzetik arrosera
doa pelikula
lehen esan dut, ez nintzen
etorri sekula
baina nola euskeraz
didazun xuxurla
uste dut bihar ere
izango nauzula. (bis)

B. Gaztelumendi

Lasai etorri zaitez
zu okindegira
mostradore ertzetik
naukazu begira
Euskaraldi garaian
txapa eta biba
baina lehenengo hitza
gazteleraz, tira
gure eguneroko
ogia hori da. (bis)

PUNTUTAN ZORTZIKO TXIKIAN

A. Martin – N. Ibarzabal

Gaia: Alaia eta Nerea bestaz besta janari azkarra saltzen duen furgoneta bat duzue.
Gaur Iruñeko Alde Zaharrean jarri zarete. Goizeko seiak dira eta jendea hurbiltzen hasi zaizue.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Mendiko umea naiz*

A. Martin	Orain jendetza latza dugu parez pare	A. Martin	Gogorra izan baitzen agian finala
N. Ibarzabal	antza, hamar urtean juergaik bota gabe	N. Ibarzabal	uste dut ketxuparen beharretan dala
A. Martin	saltxitxak sobran daude zartaian halare	A. Martin	Maialenek bete du saltxitxez azala
N. Ibarzabal	saltxipapa aurpegiz hemen eurak daude.	N. Ibarzabal	txapela esku baten honela daukala.
N. Ibarzabal	Mingaina ere dute denek lodi-lodi	N. Ibarzabal	Amets ere hor dator ederra mutila
A. Martin	sanjakobo mingaina ez ote da hori?	A. Martin	hori etorriko da hanburgesa bila
N. Ibarzabal	Lurpetik irten diren horrenbeste zonbi	N. Ibarzabal	ba zazpi bat hartuta urrundu dadila
A. Martin	bai, Sustrai etorri da eta dago grogi.	A. Martin	ta Beñat Big Mac-ean dugu hain abila!

A. Martin	Jende azkarra eta janari azkarra	A. Martin	Eta Alaitz badator oso pozik dago
N. Ibarzabal	janaria ba bueno jendea baldarra	N. Ibarzabal	paperik ez du behar ja honek gehiago
A. Martin	nahiz ta saltzen duguna berez den zakarra	A. Martin	saioan ere edan du dozena bat trago
N. Ibarzabal	arratoi okela da ona den bakarra.	N. Ibarzabal	paper denak galduak baititu lehenago.
N. Ibarzabal	Patata prijituak hementxe tonaka	N. Ibarzabal	Ta itxi beharko da gure furgo-farra
A. Martin	lehengo urtekoa da gure azken patata	A. Martin	baina ez da gordeko gure irriparra
N. Ibarzabal	Joanes ere hor dago prakari tiraka	N. Ibarzabal	jada gastatu zaigu zerbezen aparra
A. Martin	lau hankan etorri da ia arrastaka.	A. Martin	eta gogorra dator itxuraz biharra.





M. Lujanbio – A. Mendiluze

Gaia: Maialen eta Aitor begiraleak zarete. Umeekin irteera bat egin duzue. Hamaiketakoaren ordua ailegatu denean, kafe bat hartzera joan zarete, umeak parkean utzita. Bueltatu zaretenean, parkea hutsik dago, eta umeak ez dira inondik ageri.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Ezagutu zuenak*

- | | | | |
|--------------|--|--------------|--------------------------------------|
| M. Lujanbio | Benetan sentitu dut pakea galanta. | M. Lujanbio | Nora alde egin dute? Deabruak denak! |
| A. Mendiluze | Bai, behin etorri eta arazoak falta. | A. Mendiluze | Goxoki dendarantza seguru gehienak. |
| M. Lujanbio | Baina enteratzean ama eta aita | M. Lujanbio | Ba hustuko dituzte bertako barrenak. |
| A. Mendiluze | igual egingo degu sekulako marka! | A. Mendiluze | Errua du dirua ekarri duenak. |
| A. Mendiluze | Gehienak kejan eta batzuk agian ez | A. Mendiluze | Guk ez al genien ba dirua ukatu? |
| M. Lujanbio | batzuk nahiko aspertuta daude agidanez | M. Lujanbio | Gominolengatik nahi al dute trukatu? |
| A. Mendiluze | eta gu haurrak bueltan ezin eramanez | A. Mendiluze | Gurasoek eman ta planak purrukatu |
| M. Lujanbio | txintxo porta zitezen milatan esanez. | M. Lujanbio | ia bada nun dauden Aitor ohiukatu! |

- M. Lujanbio Oihu bat egin zazu
ahal duzun tokira
- A. Mendiluze ei! Umeak non daude?
Ah hortxe! Begira!
- M. Lujanbio Haurrak askatasunez
hezi behar dira
- A. Mendiluze ume kuadrilla alua
parrezka ari da.
- A. Mendiluze Itxoin, itxoin oraindik
etxera joan arte
- M. Lujanbio orain autobusean
pasa behar parte
- A. Mendiluze gaur ez motxila, ez ur
ez muxu, ez parke
- M. Lujanbio hamabost hemen baina
bi dabiltz aparte.
- M. Lujanbio Ta betiko bitxoak
beti igualak
- A. Mendiluze eta gu bilatzaile
fin ta zerbitzalak
- M. Lujanbio guraso txarren ume
horiek beti balak
- A. Mendiluze alperrik dira bengak
alperrik ojalak.
- A. Mendiluze Ojala zintzoago
izan bazinate
- M. Lujanbio gehio ez degu egingo
guk txangorik bat'e
- A. Mendiluze bueno ta galduta zer?
Eurentzako kalte.
- M. Lujanbio Hor konpon gu ja guazen
hemendik aparte.

A. Arzallus - B. Gaztelumendi

Gaia: Amets eta Beñat aireportu batean egiten duzue lan eskanerretik pasatzen den guztia ikuskatzen. Gaur ere harrituta zaudete ikusten ari zaretenarekin.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Lurralde dena dabil I*

A. Arzallus Begira hortxe dator
 euskaldun kuadrilla

B. Gaztelumendi eta maletan dute
 elikagai pila

A. Arzallus lau bokadillo ta bi
 sagardo botila

B. Gaztelumendi batek urdaiazpiko
 besteak opila.

B. Gaztelumendi Ta maleta barruan
 hiru-lau labana

A. Arzallus berriz ere haziko da
 euskaldunen fama

B. Gaztelumendi ilaran hemen daude
 geldi banan bana

A. Arzallus eskerrak destinua
 duten La Habana.

A. Arzallus Ta etorriko dira
 rona erositara

B. Gaztelumendi baino guztia igual
 hegan hustu ti-ta

A. Arzallus hor daude eskuz beren
 maletai josita

B. Gaztelumendi galtza motzak jantzita
 zer nolako pinta!

B. Gaztelumendi Iruñan zero gradu
 egin ditu baina

A. Arzallus Habanan egin behar
 dute bai azaña

B. Gaztelumendi urtaroari hartu
 diote tamaina

A. Arzallus lau txaketekin nora
 doaz alajaina!

- A. Arzallus Eskaner honetan ai
zenbat pelikula!
- B. Gaztelumendi Nik ere aspaldi xamar
galdu dut brujula
- A. Arzallus uste't lanez aldatu
beharko dugula
- B. Gaztelumendi ta lan hau handi xamar
geratu zaigula.
- B. Gaztelumendi Hori dator ehizeko
eskopetarekin
- A. Arzallus hori ezin dela sartu
behar zuen jakin
- B. Gaztelumendi balak kendu beharko
zaizkio behinepin
- A. Arzallus begira atzekoa
bi aizkorarekin.
- A. Arzallus Ez Negu Gorriaken
bisera izan da
- B. Gaztelumendi nik ere egiten nuen
lehenago parranda
- A. Arzallus rock taldeeri pentsa
a ze propaganda!
- B. Gaztelumendi Hemen modak aldatzen
ari dira danba!
- B. Gaztelumendi Batzuk bota beharko
ditugu atzera
- A. Arzallus egunero egin ohi
genuen antzera
- B. Gaztelumendi gaur edonor sartzen da
turista klasera
- A. Arzallus hala hegazkina ia
doa abiatzera!

S. Colina – J. Illarregi

Gaia: Sustrai eta Joanes lan bertikalak egiten dituen enpresa bateko langileak zarete.
Bilboko Iberdrola dorreko leihoak kanpotik garbitzen ari zarete.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Mando baten gainean I*

S. Colina	Berogailua ez zaie iristen kanpora	J. Illarregi	Garbitzen azkarrago izango bagina
J. Illarregi	halere igo gara kristalera gora	S. Colina	jada hamaiketakoan geundeke jakina
S. Colina	faktura pasa dadin hemendik Bilbora	J. Illarregi	hau kanpotik garbia barrutik zikina
J. Illarregi	baina ez gaude seguru berrehun metrora.	S. Colina	mundua dagolako beraiek egina.
J. Illarregi	Soka badugu baina nahikoa ote da?	S. Colina	Holaxe egongo da euren kontzientzia
S. Colina	Nik badaezpada ez dut begiratzen behera	J. Illarregi	kristalak garbitzea nolako zientzia!
J. Illarregi	ba nik begiratzen dut agian sobera	S. Colina	Horretarako behar baita pazientzia
S. Colina	mundua ereriko baitzaigu gainera.	J. Illarregi	ta ahoa ixteko eutsi inertzia.
S. Colina	Gora ta gora goaz faktura bezala	J. Illarregi	Ipurdiakin jo ta puskatuko nuke
J. Illarregi	falta zaiguna dugu atzean hegala	S. Colina	nahio nuke kristala irentsiko balute
S. Colina	ni desinflatzen noa eta zu ez ala?	J. Illarregi	igual oain horixe in behar genuke
J. Illarregi	Ni behera jeitsi nahi dut Sustrai, berehala!	S. Colina	keba, bestela paga kenduko digute.

S. Colina	Horretara ohituta	J. Illarregi	Bueno ia puntara
J. Illarregi	daude hoiek denak	S. Colina	ailegatu gara
S. Colina	zikinak direlako	J. Illarregi	ta atzera egiteko
J. Illarregi	barruko gehienak	S. Colina	berandu da jada
	euren pentsamoldeak		azken kristala zikin
	bai bertikalenak		utzi badaezpada
	euren pentsamoldeak		orain tokatzen dena
	guretzako penak.		hamaiketakoa da.



BANAKA GAIA EMANDA

A. Martin

Gaia: Gobernuz Kanpoko Erakunde (GKE) bateko kide zara. Gazara bidean zoaz bi hilabete pasatzera, bertako hurrekin lan egitera.

Neurria: Hamaseiko txikia

Doinua: *Egunsenti batean*

Umeen lanbidea
ez al da jolasa
libre hitz egitea
ta hartzea arnasa
haziz haziz joatea
goxo euren kasa?
Baina batzuei antza
ezin zaie pasa
pixkana zabalduaz
Pandoraren kaxa
odolez zikindu da
munduko atlasa
baina ohartzuz gero
begitan dut gatza
munduko zaurietan
minena da Gaza. (bis)

Ukrainako gerra
soilik al da txarra?
Gazakoari jeitsi
al zaio aparra?
Han erabaki dena
baita militarra
ta umeak dabilta
izu ttirri-ttarra.
Hargatik auspotuaz
aipu irlandarra
eurengan jarri nahi dut
mimoa, indarra
lurra ez dadin izan
bakarrik bi marra
ta mendeku izan dadin
euren irriparra. (bis)

Gobernuek itxita
bide eta aho
esku-hartzea haiengan
ze gauza arraro!
Laguntza ta mezurik
haientzat ez dago
nahiz ta gerra luzatu
litekeen luzaro
nik daukadan onena
baitut eramango
animo faltsurikan
ez diet esango
hegazkintxo batean
naiz hara joango
ta bueltakoan ez naiz
berdina izango. (bis)

N. Ibarzabal

Gaia: Urte luzez isilik geratu ondotik, txikitan familiako kide batek egindakoa kontatzea erabaki duzu.

Neurria: Hamalauko handia

Doinua: *Beste bateko inularretan*

Nik ez nituen ondo bereizten
ukitua, erasoa
baina barruan ur putzu beltz bat
izan dut ondo jasoa
urte luzetan ez dut ikusi
barreneko arazoa
baina gutxien uste denean
esnatzen da marrazoa
ta olatu bat bezala bueltan
iritsia zait atzoa
bere eskuak, bere begiak
bere arnasa mantsoa
amets gaizto bat bilakatu zen
nire osabaren altzoa. (bis)

Gero etxean izango ditut
bai susmo ta bai galdera
baina nolabait askatu behar
bihotz hontako galera
osaba zaharra dago etxean
ia ezin da atera
ta ondo dakit ez zaizkiola
irainez joango batera
baina bere erruz nire bizitza
ez da izan bizitza bera
eta egia aterako dut
dagokidan arabera
zure izena ez da hain garbi
joango lurraren pera. (bis)

Ta beharbada hau izango da
kontatzeko momentua
ez dakit nondik bilduko dudan
hortarako talentua
erdizka nahi dut aitortza eta
beste erdia mendekua
behingoz famili hontan bakoitzak
hartzeko bere lekua
eta nolabait hauts bihurtzeko
nigan dudan zementua
oroitzen baitut bere hitz hori
bere ahots diskretua:
“Egon isilik, hau izango da
gure arteko sekretua”. (bis)

.....
Finala: Iruñea
.....



S. Colina

Gaia: Pertsona ospetsua zinenean, jende ugari izan zenuen inguruan. Orain, ordea, bakarrik zaude.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Norbere mundu intimo*

Kontatuko dizudana
Arenako estalpean
suertatu dadila kea
nere tubo eskapean
urteak baitaramatzat
itota antsietatean
bakardadeak askatu
ezin dezakeen katean
neretzat oroitzapenak
pasatzen dira kaltean
bizitza honek utzi bainau
denboratik apartean
lehen atezain titular
nintzen Sadarko atean
ta orain atezaina naiz
lurpeko parking batean. (bis)

Gogoan daukat orduan
UEFA jokatzan nuena
ta selekzioak askotan
ere deitzen ninduena
denborak ez du sendatzen
baina zauri minuena
nostalgikoentzat soilik
delako oroitzapena
lehenago mito bat nintzen
miretsia, hoberena
ta gaur egun pisu baten
ta bakarrik bizi dena
erre baitut sarea ta
gastatu dut diru dena
bizitza ez da izaten
inoiz izan zitekeena. (bis)

Ta ez denez bueltatuko
behin egin zuenak alde
ez diezatela egin
lehengo garaiez galde
nahiz eta orduan ginen
lagun eta futbol talde
azken aldian ez ote
gara hamaika bakardade?
Hankak odol bihurturik
ta erraiak, berriz, bare
baina ordua entzule
jokatu erruki gabe
ez beitu goitik behera
begiratu parez pare
ez zara ohartzen baina
zu ere bakarrik zaude. (bis)

M. Lujanbio

Gaia: Egun osoa bertzeen etxeak garbitzen aritu ondotik, zure etxera ailegatu berri zara.

Neurria: Hamalauko handia

Doinua: *Lurraren pean sar nindaiteke*

Lan bat finkorik ez daukat eta
ordea, hiru lan orde
orduka egin eta indarrak
hurrengorako ere gorde
nere jabeen etxeak dira
mila klase ta kolore
dizdizka hantxe ipintzen ditut
euren zilar eta kobre
ezkertiarak, aurrerakoiak
ta zenbait bikote progre
neri ordaintzat ematen dabiltz
beltzean pare bat sobre
ni nere lanaz harro banago
baina harro bezain pobre. (bis)

Goizean goizik neure umeen
motxilatxoen karraio
haiek utzita autobusa hartu
eta patxadari aio
autobusean nere gisako
zenbait kide ta tokaio
auzo aberatsak gu denentzako
zerbait izaten darraio
lan bat hobea diru gehiago
ai izango banu nahio!
Baina garbitzen, erratz pasatzen
hauts kentzen... hor nabil iaio
gizarte zikin honi itxura
horrela txukuntzen zaio. (bis)

Gazteak eta emakumeak
ohi dituzte aukeratzen
ongizatea hola joan zaigu
atzeratzen, atzeratzen...
Ze garbiketa beste lanekin
ez baitute alderatzen
eta guretzat kontratu batik
ere ez dute eratzen
lan jardunetik zortzi t'erditan
gauean naiz ateratzen
errekaduak egin ta gero
neure etxea zeratzen
eskubideak borrokatzeko
astirik ez zait geratzen. (bis)

B. Gaztelumendi

Gaia: Etxea txukuntzen ari zarela, zure nerabegaroko egunerokoa topatu duzu.

Neurria: Hamabostekoa, handiaren moldekoa, 11 puntuz

Doinua: *Izarren hautsa egun batean*

Hara poema romantiko bat!
Beñat, nolako nibela!
Zenbat azukre, ia-ia usteltzen
ere hasi zait gibela!
Orduan neuzkan hamalau urte
ta orduko uste zaharren truke
betetzen nuen papela
bai, Realeko posterrez neukan
bete-betea logela
Urtz gustokoa nuen taldea
beste askori bezela.
Zenbat maitasun erromantiko!
Arrazoi ahul, esaldi tinko
iruditu zait horrela
beste norbaitena dela.

Garai batean sinisten nuen
arrazoian eta gudan
gaur egun, berriz, nire burua
aldiro jartzen dut dudan
galdera ikurra eta zalantza
eguneroko nire balantza
bai, neguan ta bai udan
hala gabiltza estropezuka
ikasteko abenturan
mikro aurrera atera eta
ia auzo-lotsaren mugan
baina halere jakin nahi nuke
egunez egun, urterik urte
lehen nor nintzen menturan
eta nor izan nahi dudan.

Ikurrina bat pegatua du
bere azalean nabarmen
garai bateko utopi haiek
ze indar, ze erakarmen!
Tapan jartzen du: “Gora herria.
Iritsiko da udaberria”
gaur udazkena den arren.
Irakurriaz pentsatu dut: “Bai,
Beñat isil zaitez, arren!”
Mutikoari esango nion
gauzatxoren bat pozarren
hainbeste negu, hainbeste uda
ohartzeko ja pasatu da
bai, aldatu gara, garden
ta eskerrak aldatu garen!





A. Arzallus

Gaia: Izan dituzun azken bikote harremanek ez dute aurrera egin ez duzulako guraso izan nahi.

Neurria: Hamabiko handia

Doinua: *Oso polita zara izatez*

Hiru edo lau harreman dira
ez dira izan hamaika
ta aho gustu mingots berbera
azken muxuei jarraika
gizartearen presio batek
geure atzetik darrai ta
ez naiz eredu baten fan hutsa
egin dut nik neuk nahita
ta neska denei esaten diet
nahiz ta bihotzetik maita:
“Zuk ama izan nahi duzu, baina
nik ez dut izan nahi aita”. (bis)

Ez pentsa gero ni maitekiro
hurbiltzen naiz haurrengana
zinez maite dut batik bat bada
beste norbaitek ukana
nere harreman frakasatuok
ez pentsa direnik drama
bihar baten bat ezagutu ta
esango diot: “Laztana
bizi berri bat erditze hori
zeure gaitasun bakana
beste ama bat erditu’zazu
ez dena izango ama”. (bis)

Sortu aurretik amagai bati
eransten zaion baldintza
besteen begitan bizkarrean du
ekar lezakeen bizitza
eta behin ama izanez gero
ezin etzan, ezin zintza
barkatu baina nik ez nuke nahi
arau horietara iltza
aita ta ama, ama ta aita
torturatutako hitza
zer den irudi romantikoen
presioaren bortitza! (bis)

J. Illarregi

Gaia: Lortzea hainbertze kostatu zaizun epaile lana utzi duzu. Lasaiago bizi zara orain.

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz

Doinua: *Neska zaharrak eta apaizak I*

Erabakia hartu nuen ta
une horretan lasaitu
zama gehiegitxo baitu
askotan guk nahi dugun guztiak
irentsi egiten gaitu. (bis)
Ilusioa baneukan, baina
kokoteraino amaitu
sarri bi begiak blaitu
hona heltzeko lana egin dut
baina ezin dut jarraitu
errespeturik ez den zelaian
ezin da ezer epaitu. (bis)

Erabakia gogorra izan da
haseratik neretzako
pasiotzat nuelako
ta gustokoa uztea beti
nahiko mingarri delako. (bis)
Beraz, orain bai, ikus naiteke
joko-zelaitatik kanpo
gustora egin dut salto
orain partidak harmailetatik
beti ikusi beharko
baina badakit nere ahotik
ze hitz ez den aterako. (bis)

Hasera baten eutsi ahal nion
hasiera baten nonbait hor
baina ondoren zein gogor!
Futbol epaile izatez utzi
eta betorrena betor. (bis)
Insultoren bat, hitz itsusi bat
entzun behar zen derrigor
denak horren abegikor...
Putasemea deitzen ninduten
baldin ta bazeuden jator
igual ez dira ohartu baina
ni ere lanera nator. (bis)



A. Mendiluze

Gaia: Urtero lagunekin zure hirian egiten diren zezenketak ikustera joaten zara. Gaur lehenbiziko aldiz ez zara zezen-plazara agertu.

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 8 puntuz

Doinua: *Kas pote batzuk, txarroko ura*

Zezen-plazako nere trantzea
a ze tortura hara sartzea
pasako zena begitantzea
eta bizkarra tenso jartzea!
Baina urtero nere lagunen
ohitura izan da deitzea
betebehartzat hartua neukan
euren gisa aritzea
erabaki det behingoagatik
eurek ezetz aditzea
begiak ixten aritu ordez
ahoa irekitzea.

Uztailaren zazpi eguna
Nafarroako festa duguna
Iruñean zezen-hiltze jarduna
mundu osoan festa ezaguna
hango marru ta hango odola
buztan, belarri bilduma
nere lagunek esango dute
“Hi haiz hi tipo biguna!”
Baina ez nago jasateko prest
ta ez naiz ni erruduna
itxurengatik gordetzen degu
barruan daramaguna. (bis)

Denbora-tarte oso luzean
aritu naiz ni zuen klasean
denbora lasai ezin pasean
nere begiak itxi ezean.
Baina pausorik ez det eman gaur
zuek plazara deitzean
ta ez naiz berriz hara sartuko
zuek zoazten antzean
baina, hori bai, berriz San Fermin
eguna ailegatzean
plaza kanpoan zai egongo naiz
pankarta baten atzean. (bis)

BURUZ BURUKOA

IPARRAGIRRE ABILA DELA

Gaia: Gehiegizko lotsa lantzeko terapian ezagutu duzue elkar. Hitz egiten hasteko ordua da.

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Iparragirre abila dela*

A. Arzallus

Ia berrogei urte beteak
ta edozerk nau lotsatzen
eta hemen zu ezagutzerik
ene ez nuen pentsatzen!
Maitasun harremanak
sortzen dizkidan lanak
beti mutu naiz geratzen
ezpainetatik musua beste
gauzik ez zait ateratzen. (bis)

M. Lujanbio

Eta lurrera begira nengon
ni nere lotsa tarteko
zure ahotsa hor aditu det
ta ez horren aparteko
ta aipatu du musua
lehenengotikan sua
pentsatu ze danbateko!
Bai, zu bastante ausarta zara
lotsatia izateko! (bis)

A. Arzallus

Halaxe bainaiz nunbait hala zen
neuk ikasi nuen era
maiz hitzek traba eiten didate
ta beste guztia fuera!
Halaxe naiz izatez
neure argi ta itzalpez
ta aitortzea hobe da
batzutan lotsa falta duenak
bestetan dauka sobera. (bis)

M. Lujanbio

Beraz lotsaren bulimia horretan
ibilia zara lehendik
lotsati ustez nahiko ausarta
zinela uste nun lehenik
ba ni nauzu Maialen
hori esan al det lehen?
Begira nago hemendik
zure antiejutan nere isladak
ere lotsa ematen dit! (bis)

A. Arzallus

Ene! Maialen hain lotsatia
ta poemak nola trentza?
Zure hitz denei jarraitzen ere
baina ez zait hain erreza
baietz lotsak erantzi
ta traba denak ahantzi
eta josi hitzen ertza
gehiago kostatzen behar zaizu kentzen
zure begitarte beltza. (bis)

M. Lujanbio

Beltzak badauka gozotik ere
ta egon zaitez seguru
baina hortarako beharko ditut
ehun bat sesio inguru
berriz jantzi ta erantzi
baina ze atrebentzi
tipo honek ze helburu du?
Lehen eguna izateko ja
nahikoa hitz egin dugu! (bis)



ZORTZIKO TXIKIA

A. Arzallus – M. Lujanbio

Gaia: Maialen, zuri buruzko pelikula biografiko bat egin behar dute. Amets da zure rola jokatu duen aktorea.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Gizona da zoroa*

M. Lujanbio

Nik bai zerbait nuela
androgino kutsu
norbait aukeratuko
eta hautatu zu!
Kortxo puntari eman
metxeroakin su
betartea pixka bat
belztu beharko duzu! (bis)

A. Arzallus

Lasai, ni ere banaiz
mira beltzekoa
ta hemen sentitzen naiz
aski etxekoa
errea egiteko
zure antzekoa
nahita hautatu naute
Iparraldekoa. (bis)

M. Lujanbio

Bastante ona zara
errear kopian
nere kolorerik ez
dezu bekokian.
Burua nola jarri
pinta egokian?
Ilea dugu justu
kontrako tokian! (bis)

A. Arzallus

Ai! Gure lepo gainak
nolako kulunka!
Zu sotana bat zara
ni elur maluta
kostako da berdintzen
zuk daukazun *looka*⁴
ez dakit nork egin behar
didan ba peluka! (bis)

M. Lujanbio

Filmari aukera bat
emango diogu
gero beharko ditu
atrezzo ta koru
extra batzuk ere bai
eta hor gero gu
Amets Arzallusena
zeinek egingo du? (bis)

A. Arzallus

Ba doble baten bila
hor hasi naiz soaz
hautagairen batzuk jo
ditut lehen pausoaz
Egaña, Mendiluze
aukeretan doaz
ta beste batzuk ere
bidean gogoaz. (bis)

4 Bertsolariak “Luka” ahoskatu du

GANBARAKO LANA

A. Arzallus

HITZA: Oreka

Neurria: Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz

Doinua: *Horra sei bertso kale I*

Hizkuntzetan badira
hemen zenbait talde
ta batetik bestera
pentsa ze alde!
Diglosiaz egingo
bagenuke galde
erdera ta euskera
noizko parez pare?
Gu beti herabe
mutu eta grabe
sarri hitzik gabe
ta besteak jabe
orekatikan oso
urruti gaude! (bis)



A. Arzallus

Gaia: Ez dago B planik.

Neurria: Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, zazpi puntuz

Doinua: *Kantuz sortu naiz eta II*

Behin alabak esan zidan:
“Ikilimiliklik!
Aita ni mutiko bat naiz”
ta aita isilik
ez zen mugitu ezpainik
eulirik, aulkirik
ia bi ordu pasatu
nituen geldirik
geroztik ez da izutzen
ez nauen zubirik
ederra dela dionak
ez dio egirik
erreza dela dionak
ez dauka begirik. (bis)

Dudak argitzeko berriz
hitzak zirri-zarra
“Ez, aita ez da B-planik
hautsi lege zaharra!”
Zer da neska, zer mutila
zer eme, zer arra?
Nork demontrek ekarri du
zehaztu beharra?
Gurasoa ohi da haurren
lehen hezkuntz adarra
baina guk hegoaldean
daukagu iparra
harengandik ikastea
da bide bakarra! (bis)

Normalaren esanahiak
gauzka beste puntan
zorionaren planaren
bilaketa huntan
alaba bat zen, seme bat
baikenuen ukan
edo alderantziz, hitzekin
hor gabiltz burrukan.
Zertan ukatu? Malkotan
urtzen naiz batzutan
gero gaizki sentitzeko
neronen putzutan
negarraren iturria
nork dauka eskutan? (bis)

M. Lujanbio

Hitza: Oreka

Neurria: Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz

Doinua: *Gaztalondo handian*

Desorekatik bada
hamaika genero
prensan ikusten dugu
hori egunero
landun ta langabetu
ipar eta hego
etxedun ta etxegabe
hamaika endredo!
Zaudenean bero
ongizatez edo
dena bertan bego
gerokoak gero
zail da berreskuratzen
galdu ezkerro! (bis)



M. Lujanbio

Gaia: Ez dago B planik.

Neurria: Hamalauko handia

Doinua: *Loreak udan ihintza bezala I*

Ez dago planik, ez da B-planik
dagon plan bakarra A da
gure buruak ezagutzeko
garaia genuke jada
gure ustetan ondo bizioi
ai Covidak ze zartada!
Errezelotsu jarri genion
auzoari begirada
ta galdu dugu lehengo arnasa
eta balizko patxada
eta ez gara saretu eta
protestan irten plazara
hobeak irten behar genuen
ta lehengo berberak gara! (bis)

Orain dena da pribatizatze
ezker-eskuin, dinbi-danba!
Osasungintza adibide bat
nola jeitsi duten langa
hezkuntzak ere latza pasa du
ta ai gazteen demanda!
Bi urte luzez musuko hori
klaseetan eramanda
egin genuen elkar zaintza ta
auzo-zaintzen propaganda
baina aukera heldu denean
edo ekiteko txanda
komuna izan zitekeen dena
komun zulotik joan da! (bis)

Ez nago ziur agintaritzan
dagon jende arlotea
ez dakit zer den gauza hobe
Santxo ala Kixotea
ze amestea garai batzutan
ez da hain gauza torpea
mentalitate Excel honekin
galdu baitugu zortea
eta aurrera begira dugu
apustu haundikotea
etorkizuna gure eskutan
dago bai, hala ote'a?
Beldurgarria da etorkizuna
gure esku egotea! (bis)

BUKAERAKO AGURRAK

J. Illarregi

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Gure herri ttiki hau da*

Zorionak Amets, Maialen
berriz ere goiko kotan
hori entzungo zenuten
beste norbaiten ahotan
lehenik besarkada bat
daudenei ziega zulotan
berdin euskera zabaltzen
dutenei nafar txokotan
zer garen nondik gatozen
ahaztu arren askotan
gaur hau dena bete dugu
birgogoratu asmotan
aurrera ere luzaro
segi nahi nuke bertsoan
haundi sentiarazi ohi
gaitun mundu txiki hontan! (bis)



N. Ibarzabal

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Baserrian jaio nintzan*

Maialen, badakin zer den
historia irutea
merezi dun Olinpora
sorbaldetan erutea!
Eskertzen dut pentsalari
feministen bertutea
militante euskaltzaleek
nekaezin jardutea
denontzat edertasuna
duintasuna ta arkupea
erretako mundu honek
sari saltzen digu kea
guztia denean bortxa
presa ta diru trukea
ekintza iraultzaile bat
da elkarri entzutea!

B. Gaztelumendi

Neurria: Hamaseiko handia

Doinua: *Haizea dator ifarraldetik*

Mila zorion zuri Maialen
ezetz eraman ahanzturak
gaur berriz ere sortu dituzun
kilimak eta azkurak
eta behin hiri buruzagian
hautsi ditugunez mugak
pentsa dezagun hemen ze leku
merezi duen kulturak
eta irauli nahi dituenak
gure arteko egiturak
elkarrizketan eraiki bere
ziurtasun eta dudak
arrakalatu fosildutako
inertziak ta ohiturak
bertsolaritzan aurki dezala
eragiteko leku bat!

A. Martin

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Norbere mundu intimo*

Maialen maite zaitugu
zorionak eta *chapeau*⁵
argazki berri honentzat
zu izan zaitugu marko
beste musu bat hor zehar
nire hiru amonetzako
Getxotik hona bidea
plazer bat zen niretzako
zuen babesean egin
dit bihotzak gorantz salto
baina eskertu nahi nuke
beste zenbait norbanako
ahizpei eta konplizeei
bihotzez eskerrik asko
gu ahalduntzeko sare bat
josi diguzuelako! (bis)

S. Colina

Neurria: Hamabostekoa, handiaren moldekoa, 11 puntuz

Doinua: *Izarren hautsa egun batean*

Lehen topa gure dekadentziaren
onenean gaudenentzat
gorantz erori eta josteko
justiziaren larru beltzak
baina garenez jendez eginak
gora Maialen ta lagun minak
segi hauspotzen ametsak!
Etorkizun bat nahi dut zuentzat
Ekaintzat, Aiurrentzat
emakumezko asterisko ta
gizon berri ikasientzat
hitzek ekintza eskatzen dute
baina gaurkoak izan nahi luke
bihotz taupada bat behintzat
gutasun berri batentzat!

A. Mendiluze

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 8 puntuz

Doinua: *Baneza eta banitu*

Zorionak mito pare
orain mitoago are
ta zuei gure zutabe
milesker, zorretan gaude.
Baina ez nuke joan nahi ama
zutaz gogoratu gabe
inoiz ez degu euskeraz egin
ez zera hizkuntzaren jabe
bertso eskolara zure eskutik
iritsi nintzen halare
ta gaur ez zaude Arenan baina
oholtzan nerekin zaude! (bis)

A. Arzallus

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Baserrian jaio nintzan*

Zorionak Maialen maite
denok gaituzu goratzen!
Ez dut terapia beharrik
postuaz ez naiz lotsatzen
euskaldun bat sor liteke
Zumaian edo Goiatzen
euskalduna sor liteke
Konakryn edo La Pazen
euskara da beltzik beltzen
euskara da transik transen
gorputz onartu gabe bat
mundu berriak asmatzen
ta ibili gabe inori
pasaportetik eskatzen
euskaratik has gaitezen
bizitza oro askatzen!

M. Lujanbio


Neurria: Hamaseiko txikia

Doinua: *Mando baten gainean I*

Herriak ta hizkuntzak
zuten norantzari
gai gehio lotu zaio
lehengo ardatzari
ta munduak hartu dun
itxura latzari
aurre egiteko, beraz
laguna altza hadi!
Bultza hainbat borroka
ederren martxari
kontrapisu eginez
eskuin balantzari
txapela bete indar
mingaina dantzari
borroka irabazteko
desesperantzari!







The image features a dark gray background with a series of light gray, wavy, parallel lines that curve from the top left towards the bottom right. A horizontal gray band is positioned across the middle of the image, containing the word "IRITZIAK" in white, bold, uppercase letters. In the bottom right corner, there is a large, white, irregularly shaped circle that overlaps with the wavy lines.

IRITZIAK

Artikuluak txapelketako webgunean (www.bertsozale.eus) argitaratu dira eta bertan daude irakurgai.
Egileen azpian webgunean argitaratu ziren egunak agertzen dira.



TXAPELKETEN HISTORIA DA GURE HISTORIA

ANTXOKA AGIRRE MAIORA
EHU-KO IRAKASLEA
2022-09-19

Badator. Hemen da. Pandemia dela medio urtebete beranduago, eta hamarkada bat igaro den sentsazioak luzetsita, iritsi da, azkenean, asteburu honetan Getxon hasi eta abenduaren 18an Nafarroa Arenako finalera eramango gaituen Bertsolari Txapelketa Nagusia.

Hilabete hauetan berriro entzungo da euskal kulturaren festa dela txapelketa. Komunitate txikiaren handitasunaren parte sentitzeko errituala aipatuko du batek, kultura popularrak masa kulturaren surfeatzeko egiten duen ariketa harrigarria seinalatu besteak... Jada esanda eta idatzita dauden kontuak izanik, eta bizi dugun mundua, baita bertso-mundua ere, abaila bizian doanez, planteamendu hauek ajatzen hasita ote dauden errezeloaren aurrean, horixe egin nahi nuke atariko honetan: bertsogintzaz haratago doan txapelketaren “beste” dimentsio horri erreparatu.

Bertsozale Elkarteak John Miles Foley aditu estatubatuarra gonbidatu zuen 2005eko finalera, eta bere bizipenez honela idatzi zuen *Oral Tradition* aldizkarian: “Imajina ezazue 13.025 sarrera saltzen direla ahozko poesia emanaldi baterako. Imajina ezazue sei edo zazpi ordutako emanaldia tokiko telebistak zuzenean emana. Imajina ezazue egun osoko jaialdi bat (...) munduan parekorik ez duen etnizitatearen eta nortasun nazionalaren uztarketa gauzatuz”. Artikuluaren amaieran ere ideia bera errepikatzen zuen: *Unique in the word* da bertsolaritzak euskal jendartearen lortzen duen oihartzuna. Hau zioena ahozko kulturak mundu mailan izan duen aditu garrantzitsuena zela jakinda, bada kontutan hartzeko modukoa.

Amerikarra aho zabalik utzi zuten bertsolaritzaren oihartzun sozial eta mediatikoa, edo nortasun kolektiboarekiko lotura, beste inon parekorik ikusi ez ziena, ia bi mendetako garapen erabat ezohiko baten emaitza dira, eta garapen honen atzean euskal kulturgintzako hainbat belaunaldik korrontearen aurka eraikitako historia harrigarri bat soma daiteke.

XIX. mendean lehen euskal kulturgile modernoek euren kultura hauspotzeari ekin ziotenean, bere ertzekotasunaren kariatara kultura idatzirik apenas zuen komunitate batekin egin zuten topo, eta herriak bizi zezakeen horri, ahozketasunari, heldu behar izan zioten: Abbadiek bat-bateko lehiaketak sartu zituen 1850eko hamarraldian abiarazi zituen bere Lore Jokoetan, ingurukoetan lehiaketa idatzira mugatzen zirenean; Manterolaren kantutegiak bertsolari zahar guztien biografiak argitaratu zituen 1880ko hamarraldiko Lehen Euskal Pizkundearen baitan; edo Aitzolen kuadrillak, euskarazko olerkigintza modernoak irakurlerik ez zuela ikusi ondoren, 1930eko hamarraldiko txapelketak antolatzeari ekin zion... Idatzia etorkizunarekin eta ahozketasuna atzerapenarekin lotzen ziren garai haietan, debeku eta mesprezu artean, bertsolaritzaren aldeko apustua egin zuten, kultura modernoan txertatu ahal zedin janzkera nahiz oihartzun berrituak emanaz. Plazatik frontoira eraman zuen Abbadiek, frontoitik antzokira ekarri Campion, Manterola eta enparauek, prentsaren bidez ez ezik irratia ere edo zinemaren bidez ere zabaldu Aitzolen kuadrillak...

Gerora kultura idatzi bat garatu ahal izan du euskararen komunitateak. Eskerrak. Baina bertsolaritzarekin tradizioa eta berritasuna uztartzeko apustu horri ez zaio inoiz bizkarrik eman. Garaian garaiko bertsolariek euren publikoekin konektatzen asmatu dutelako gertatu da hori, noski, baina baita lehen eragile haiek hautu hura egin zutenetik bertsolaria gure nortasun kolektiboaren ikur bat delako ere.

Bistakoa da txapelketa lehia deseroso bat dela bertsolarientzat. Joseba Zulaika antropologoak azaldu zuen ederki; bertsoa jolasa eta txapelketa jokia dela seinatu eta biak ezkontzean sortzen diren karrankak azpimarratuz. Esaterako, txapelketa formatuak gai-jartzailtza eta epailtza ekarri ditu, eta hauek beti izango dira eztabaidagai. Jada Abbadieren Jokoetan lehiaketa paralelo bat sortu zen kontu hauen inguruko liskarreatatik. Eta, txapelketen historiak bertsolaritzaren historian daukan pisuaren adierazgarri, Bertsozale Elkarte bera ere gisako eztabaida baten ondorioz jarri zen martxan. Bestalde, txapelketa formatuak bertsogintzari ere eragin dio, nola ez, eta tarteka bere onera ekartzeko antzokitik (edo erabilera anitzeko pabilioi ultramodernotik) plazara itzuli beharra ere aipatzen da, besteak beste.

Lehia deseroso honi gogotsu eutsi dio, hala ere, bertso-munduak. Bertsozale Elkartearen proiektuaren ardatzetako bat da, aurretik proiektua garai ezberdinetako eragileen eskuetatik pasa den bakoitzean gertatu izan den bezala, bistakoa baita

funtsezkoa suertatu dela bertsolaritza kulturaren eremuan emandako metamorfosi anitzetara egokitzeko.

Nafarroako erregeak oso atzean gelditu zaizkigu. Geroztik erregeen historiak ez dira gureak, gure historia, izatekotan, euskal kulturgintzaren historia da, biziraupen, egokitze eta garapen ariketa singular bat.

Hemen da, esan bezala, txapelketa. Goza dezagun bertsolarien aztikeria eta sorginkeriez, eta baita txapelketaren “beste” dimentsio horrekin ere, bere balioa eta meritua ditu eta.



ZOMORROA ETA GU

MAIALEN BELARRA ENETERREAGA
IRAKASLEA
2022-09-27

Erantzukizuna. Kezka. Bi kontzeptu, bi sentsazio, baina ezinbertzean lotuta daudenak. Ziurrenik, gai-jartzaile munduan dabilen edonork behin eta berriz sentituko ditu, bai bata eta bai bertzea. Era berean, biek zubi beraren bi ertzetan egiten dute topo: horixe da *ardura*.

Azkenean hasi da txapelketa. Irrika nabari da bertsozalearengan; urduritasuna ere bai, akaso. Denbora luzez zain egon da zaletua; bortz urte luzez. Baina iritsi da; hemen da. *Tttak ttak ttakun...* Bozgorailuak martxan, sintonia gure belarrietan. Bertsolariak oholtzara igo dira. Jertsea kendu, eseri, publikoari begiratu, ura edan, arnasa sakon hartu, eta aurrera. Hasi da txapelketa.

Guk aspaldi hasi genuen, ordea. Egin dezagun une batez atzera. Maiatzean elkartu ginen lehenengoz aurtengo gai-jartzaile taldea osatzen dugunok. Aurpegi zahar-berriak ikusi, eta urte erdiz elkarren bidelagun izanen ditugunen lehenengo keinu konplizeak bilatzen hasi ginen. Baita aurkitu ere. Gogoa nabari zen giroan, poza. Bortz urteren ondoren, hemen da txapelketa. Baina barruan denok bagenuen hasieran ezkututzen saiatu ginen zerbait; zomorro txiki bat bueltaka. *Ardura*.

Etixerako lanekin bukatu genuen egun hartan bilera: gai poltsa osatzen hasi behar genuen. Eguneko edozein gertakariri gai itxura ematen hasi ginen; harri azpian ideiak bilatzen, onddoen gisan aurtengo emaria saski osoa betetzeko adina izanen ote zen ongi jakin gabe. Baina azkenean osatu genuen poltsatxo. Eta horrekin batera, handitzen joan da zomorro txikia.

Udan bizpahiru aldiz elkartu gara, lehendik osatutako poltsari galbahea pasatzen hasteko. Behin filtroa pasatu, eta berriz ere irakurtzean, berriz filtroa pasatu. Eta berriz. “Gai honek agian eman dezake, baina formulazioan ez dut asmatu”. Zaila izaten da talde osoak bat egitea. Batzuetan frustrazio puntu bat ere nabaritzen dugu, gogoz orraztu arren ilea, beti ez baitzaigu nahi bezala gelditzen. Geroago errepasatzeko poltsara. “Gogoratu puntu-erantzunak behar ditugula”.

Iritsi da iraila. Hemen da txapelketa. Lehen bi saioak lotuta ditugu; ala ez? “Ez zaizue iruditzen gai horretan argudio posible bat kentzen ari garela?”. Berriz filtroa pasatu. Eta puntu-erantzunak ahantzi gabe: lau ordu luze, lehendik egindako puntu erantzunak erreparatzeko. Zurrunbiloa, urduritasuna, kezka, erantzukizuna. *Ardura*. Hemen da txapelketa.

Iritsi da eguna. Zomorroak pentsamendua jan nahi digu, baina oraingoan ilusioak gaina hartu dio. Goizean txakurrarekin mendira joan, lagunekin infusio bat hartu, txokolatez ase... eta denboraz abiatu gara bertso saioa izaneren den herrira. “Ulertuko al dira gai guztiak? Balio al dute gaiak bertsolariek beren onena ateratzen laguntzeko?”. Ingurukoen animo mezuek irriño bat marraztu dute gure ezpainetan. Iritsi da ordua.

Bertsolariekin elkartu bezain laster, haiek animatzen eta lasaitzen saiatzearekin batera, mentalki gaiak erreparatzen ari gara gaurko nire bidelaguna eta biok. “Bai, puntu-erantzun hau mundiala gelditu zaigu”. *Ttakun-ttakun...* goazen oholtzara. Protokoloa irakurtzen hasterako, zomorroak gorputz osoa hartu digu. Badakit taldekide guztiok gauza bera sentitzen ari garela, nahiz eta ni egon oholtzan. Kolorez ongi markatu dugu abizenak ahoskatzerakoan non jarri behar dugun azentua. Zozketak erabakitako ordenan, ezkerretik eskuinera entzun ditugu hasierako agur guztiak.

Badoa lehenengo gai puntuagarria. Bi bertsolariek buruarekin baietz egin dute gaia entzun bezain laster. Ongi. Ulertu dute. Bigarren bertsoak ihes egin dio bertsolariari; agian zailegia zen jarri diogun rola. Sufritzen ari dela dirudi. Zomorroak itzala ere jan digu dagoeneko. Hirugarrenarekin salbatu du ofizioa; eskerrak.

Gogoan dut bigarren puntu-erantzunean errima argi abestu behar dudala, zalantzarik egon ez dadin. Nahita nabarmendu dut bukaera. Oholtzaren azpitik gai-jartzaile taldeko kideen irribarretxo sumatu dut. Konplizitatea. Eskertzen da.

Azken gai honi filtroa zortzi aldiz pasatu genion, gutxienez. Gai luzea da, baina ona. Bertsolariek bazuten nondik jo, eta aurrez pentsatu genituen bide posible batzuk arakatu dituzte gainera. Zer nolako plazera!

Bukatu da saioa. Puntuazioak ematea falta da. Bertsolariei begiratu diet; urduri daude. Ni ere bai, baina ez dadila nabaritu, arren. “Ongi entrenatu dituzu zenbakiak, lasai egon”. Listo; bota ditut. Jendeak gogotik egin du txalo. Arnasa hartu dugu. Denok.

Oholtzatik jaitsi, eta feedbacka jasotzeko ordua da. Zorion hitzak, besarkadak eta hitz goxoak. Horiek dira nagusi. Baina bai, gairen batek ihes egin digu. Ustez zirrikitu guztiak zigilatu genituen arren, baten batean ez genituen aukera guztiak kontuan izan. Hanka-sartzeak ere onartu behar dira. Zomorroak txiki bilakatu gaitu. Gaur ez dugu lorik eginen.

Biharamuna heldu da; biharamun emozionala ere bai. Mezuak sakelako telefonoan: “Atzo ongi eh! Zorionak egindako lanarengatik; zoriondu talde osoa”. Irribarre txikia atera zait. Egia da. Taldea ederra da, baita egindako lana ere. Zomorroak hor jarraitzen du, baina badakit denon artean aurre eginen diogula; elkarrekin gaudela.

Poltsa betetzen jarraitzeko tenorea iritsi da. Hau hasi bertzerik ez da egin.

Ttakun-ttakun-ttakun da...



BERTSOLARI EMAKUMEAK DENAK FEMINISTAK OTE DIRA?

PAULINE GUELLE LEFORT
IKERTZAILEA
2022-10-03

Gotaine-Irabarneko lehen faseko saioan, hiru emazteek lehen puntuazioak lortu bazituzten, hiru gizonak azken lekuak eskuratu zituzten. Ohiz kanpoko irudi honetatik baino haratago joan gintezke hiru bertsolarien performantzia azpimarratzeko; hori ez dela kasualitatea erakusteko. Gaur egun, bertsolari emakume horien maila dudan ezartzea anakronikoa izan beharko litzateke. Besteak beste, dudatzen duenak so egin diezaiola Nerea Ibarzabal Salegik eta Oihana Iguaran Barandiaranek zortziko handian osatu zuten ariketari. Gero, ganbarako lanean, hiru emazteek haurdun geratzeari buruzko pertsonaien istorioak kantatu zituzten; gizonak berriz gaixotasunari lotutako gaietan murgildu ziren. Bi genero, bi eredu. Hori da saioa eta gero ondorioztatu genuena; hain irudimen, bizipen eta kontaketa ezberdinak agertu baitziren taula gainean. Laburbilduz; Oihanak hormonon bidez hirugarren aldikoz esperantzetan geratzen saiatu zen emazte bakarraren ahotik kantatu zuen. Nerea hamasei urteko neska baten larruan sartu zen, mutiko batekin bizpahiru aldiz etzan eta abortatzera bakarrik joaten zenaren rolean.

Aldiz, azken hamarkada honetan, emazte bertsolariei erreferentzia egiten diegularik, iduri du multzo koherente eta homogeen bat aipatzen dugula. Hots denak *feministak* direla. Bai, 1980. urtetik aitzina, bertsolarien munduan emazteen presentzia ugartu egin da. Gainera, diskurtso feministak plazaratu dira. Gorputz eta gaitegi berriei irekitzea eragin du emazteen leku hartze horrek. Euskal munduan, edota Euskal Herrian, ideologia feministak bertsolaritzan bozgorailu paregabe bat aurkitu du. Miren Artetxe Sarasolak azaltzen duen bezala, emakume indibidual batzuen agerpenak ahalduntze prozesu kolektibo batekin lotuak dira. Hain zuzen ere, Maialen Lujanbioren txapelaren lortzeak jendarte prozesu osoago batekin egiten du bat, nahiz eta izatez bere ibilbide indibidualetik aldaketa nagusi bat eraman. Prozesu kolektibo honetan parte hartzeaz gain, Lujanbioren lorpenek eragina izan dute hainbat arau deseraikitzeke. Konparazione, bertsolariaren figura desmaskulinizatzeko, bertsolari unibertsalaren figura emakume batekin identifikatu den heinean.

Gurera itzulita, 2022ko edizio honetan, 15 emakumek hartuko dute parte Bertsolari Txapelketa Nagusian (BTN). 42 bertsolari dira guztira, hots, 27 gizonek kantatuko dute aurten. Proporzionalki sekula ez da hainbeste emakumerik izan. Hala ere, gizon eta emakumeen arteko parte hartze kopuruaren desoreka nabarmena da. Ohikoa bilakatu da azpimarratzea txapelketak aitzina egin arau emazteen proportzioa ttipitzen doala fase batetik bestera. Froga hauxe da: BTNren historian Maialen Lujanbio izan da emazte bakarra finaleko zortzikotean; 1997an, 2001ean, 2005ean, 2009an, 2013an eta 2017an. Bertso eskoletan logika bera gertatzen dela nabarmentzen dute Artetxe Sarasolak eta Zaira Latasak. Aurtengo txapelketak, agian, aldaketa ekarriko du.

Joan gaitezen zenbakietatik haratago. Elixabete Perez Gazteluk argitan eman zuen, Joxepa Antoni Aranberri *Xenpelar* (1865-1943) bertsolaria ez zuela feminista bezala definitzen ahal, haren garaian *feminista* hitza ez zelako. Aldiz, bere jokabidea feminista bezala azter zitekeela aipatzen zuen. Joxepa Antoni *plazandre* gisa agertzeak emakumeen presentzia bideratzen zuen eta feminizazio prozesu bat eragiten zuen. Emakume guziak ezberdinak garela ez da dudarik; baina gaur egun gure identitate publikoak emazteen emantzipaziorako bideak urratzen dituela ez da hain begi bistakoa.

Adibidez, jendarte kapitalista baten baitan emazte kapitalistak ere badira. Orduan, feministak izan al daitezke sistema horren ezaugarri nagusiak elikatzen dituzten emakumeak? Enpresa handietako nagusi direnak edo estatuburuak?

Kulturgintzan ere posizio eraldatzaileak gerta daitezke. Baina arte diruztatu edo politikoki zuzena eta sistemaren arauetara egiten diena feminista izaten al da? Beraz, *feminismoa* zer den behar genuke definitu. Feminismoa emakumeen emantzipaziorako mugimendu bat baldin bada, emantzipazio horrek zer suposatzen duen jakin behar dugu. Arau juridiko, politiko, ekonomiko eta sozialen aldaketa dela medio, gizonarekiko berdintasunerantz doan mugimendua da feminismoa. Hain definizio zabala da ezen, Christine Brard-en arabera, feminismoaren definizioa *harrapaezina* baita.

Hala ere, Brard-ek lanjer bat seinalatzen du: esentzialismoan (emazte guziak feministak kontsideratzea emazte direlako) aritzeak eskuin-muturreko emazteei *feminista* deitzea ekartzen ahal duela. Bertsolaritzan bertsolariak kritikari ekin diezaioke bere hitzetan. Jendarteari so den puntutik bere posizioa eraldatzailea

izan daiteke maiz. Beti hala ez bada ere, bertsolari emazteen ahotsak feminista gisa kalifikatzen dira; lehenik eta behin plazandre izateak oraindik emazteen emantzipaziorako bidea urratzen duelako, Uxue Alberdiren lekukotasun bilketak adierazten duen bezala. Bigarrenik, emazteen ahalduntze prozesu hori kontzienteki eta kolektiboki eramaten delako. Baztertuak ziren emakumeek erdigunerako bide zuzena hartu dutela dirudi. Orain egin dezagun posible mugimendu horrek beste periferiei arnas eman ahal izatea.



TXALOEN AURRETIK

LEIRE VARGAS NIETO

IDAZLEA

2022-10-11

Uste dut Bertsolari Txapelketa Nagusia hasi zenetik ez dudala egun bakarrik igaro Bertsolari Txapelketa Nagusiaren inguruan pentsatu barik. Bai, duela bost urteko Leire, zortziko txikiaren definizio bat ahots-dardararik gabe emateko gai izango ez zinatekeen hori, ondo entzun duzu. Zeinek esango zizun hurrengo bost urteetan tarte izango zenuela ustez bertsozaletzeko, bertsolaritzatzat zeneukan hori bertsolaritzaren sektore bat baino ez zela ohartzeko, gainontzeko sektoreetatik itzulitxo bat egin eta gehienetatik espantuka ihes egiteko, bertso-munduaz hezkuntza arautuko eskoletan ohi zinen baino are sakonago nazkatzeko, eta hala ere bertara itzultzeko berriz. Eta berriz. Eta berriz. (Eta halako batean irrati-elkarrizketa batean zaude bertso-emanaldi baten inguruan berbetan, eta halako batean bertso-emanaldi bat oholtzaratzen ari zara! Zuk zeuk hein batean edo, inoiz, goitik behera sortutako bertsoekin! Edo bat-batean bertsotan. Eta jendea zuri begira. Baina beste kapitulu bat da hori. Ez gaude hemen zutaz, edo nitaz, hitz egiteko).

Ezer gutxi dakit Bertsolari Txapelketa Nagusiaz. Aurten ari naiz lehenengoz bizitzen nire egunerokotasunarekiko paraleloki eta ratio erlatiboki txikian gertatzen den edozer baino era hurbilekoagoan. (Hara, zeure buruaz ari zara berriz!). Behin honaino iritsita eta neure burua ezagututa ez dut uste inoiz sentituko dudarik bertsolaritzaz *dakidanik*. (Begira, honegatik ari naiz lehen pertsonan. Pozik?). Baina, tira, zer da jakintza, zer da ezagutza, non dago jakitearen eta ez jakitearen arteko muga. Uste dut Egañak zioela bertsolariak denari buruz jakin behar duela apur bat. Apustu badaudela bertsolari batzuk bere buruari jakintza apur hori ere nekez aitortzen diotenak. Apustu neuk ere asma dezakedala, *grosso modo*, zeintzuk diren.

Bada, niri atari hau eman didate eta pentsatu nahi dut horrek esan gura duela inork ezagutu nahi duela nire iritzirik. Eta, gaur-gaurkoz horretarako zer pertsona(ia)-kategoriatan (poeta amateur, NGP, sasibertsolari, protoitzultzaile...) sartuko ote ninduten jakitearen faltan, niretik idatziko dut, asko-asko ezer gutxiren inguruan dakien nor desegituratu honetatik. Nolabait eta nik inork baino gutxiago espero nuen eran bukatu baitut hemen korapilatua, ezezagunak oholtzan ikusiz gozatzen, lagunak oholtzan ikusiz gozatzen, oholtzan lagunekin sufritzen, oholtzan ezezagunekin gozatzen, eta tarteko konbinazio guztiak. Azken urteetan lagunak ikusi ditut mikro

atzean jausten, jausi izan naiz lagunek jaso zutena baino puntuazio altuagoa edukiko zutelako ilusioan, eta txalo egin dut malkotan, txalo egin dut haserre, txalo egin dut sututa, minduta, asperturik. Txalo egin bitartean, gorrotatu izan dut lehia lehen lerroan jartzen duen sistema hori. Gorrotatu izan *gaitut* gu, emaitzari behar baino gehiago begiratzearren.

Baina, zeri ari natzaio txaloka, orduan?

Izan zitekeen ehundaka ahoren isiltasun erneari. Ahots fin bat frontoi osoan zehar zabal dadin egiten zaion bideari. Aste betez buruan bueltaka ibilitako agurrari, eta minutu erdi lehenago pentsatutakoari. Errima mugagabea puntuan kokatzeko proposatzen den egitura berri perfektuari. Besteren oinetakoak jantzen dituen bertsolariari eta bereei kolorea aldatzen dienari. Behetik gorako umorez aurpegian irribarre bat iltzatzen digunari. Eta sortzen duen azkurari. Aurreko astean albistegiak kontatutakoa neurritan sartzen ausartu denari. Zu ezagutu gabe zuri buruz hitz egiten duenari. Akastuna izanagatik beti gogoratuko duzun bertsoari. Emaitzarekin harri eta zur geratutako artistaren barreari. Oholta gaineko aulkitik aulkira entseatutako pseudobesarkadei. Saioan zehar aurkitu duzun begirada konplizeari. Saioetan baino ikusten ez dituzun lagunei eta saio guztietan ikusten dituzun ezezagunei. Bertsolari kopetilunekin amesten duten gai-jartzaileei eta neurtezina neurtzen saiatzen diren epaileei. Ados ez nagoenean ere. Lau urterik behin artean bertsolaritza existitzen zela ere erdi-ahaztuta zeukaten milaka laguni tokia atontzeko hilabeteetan lanean aritu diren guztiei. Txapelketa eta txapelketa artean honek zentzua eduki dezan egunero-egunero bertsoari ematen diotenei.

Eta lagun batek “txapelketa” aipatzen dudanean zertaz ari naizen galdetzen didanean, une batez pentsatuko dut inbidia ematen didala, hobeto nengoela lehen, nire egoera emozionala nire antzeko subjektibitateen kontra dagoen sistema baten menpe jarri barik, eta askoz hobe genukeela jende guzti hau erakartzeko eta bertsolariak haien onenean aritzera motibatuzeko beste biderik aurkitzea. Baina, egia esan, oraingoz, ez zait otutzen besterik.

Bien bitartean, hemen jarraituko dugu, lehia den porlanezko munstro erraldoi horren inguruan loratzen diren kima eta zuhaitzak ureztatzen. Handiago egin dezan bertsolaritza, handiago egin gaitzan gu, eta, ahal dela, ez alderantziz. Nori galdetzen diogun, hori guztia izango da txapelketa, eta hori baino ez. Biribil irregular batzuk udazken-egutegi batean. Milaka lagunuen arnasa, aho bakar batek eutsia.



ELEKAGAIEN BURUJABETZA

MANEX FUCHS CASTAGNET

JOKALARIA

2022-10-25

Bertsolari Txapelketa Nagusia bete-betean ari da bere bisurtea ospatzen. Frankismoak edo birus txar batek bertozaleon egutegia doi bat makurtzen ahal badu ere, berdin dio. Euskara da gure fede bakarra, eta negu luzearen atarian, milaka eta gogotsu joango gara abenduko meza nagusira. Guhaurren predikuak ezin baditugu ekidin gaitz erdi, diskriminazio guzien gainetik euskaraz eta bat-batean kantatzearekin bizi dugun askatasun kolektiboak dena irabazten du.


Antzerkia bere zentzurik funtsezkoenean ulertzen badugu, arte guzien kooperaziotik bere garaiaren antza hartu eta ematen duen artea da. Inautez, Antton Lukuren hamarkadetako lanaren ondotik apailatzen diren libertimenduetan, arte hau herritar guzien eskumenera jartzen da. Musikariak, dantzariak, antzerkilariak eta bertsolariak biltzen dira lurra esnatzeko ahalegin horretan. Dantzariak jada errotua den gizartea gorpuzten dute, eta jendarte horrek belaunaldi berriari nolabaiteko zerga bat eskatzen dio: baloreak eta kontsentsuala den oro zangoz gora ezartzeko erronka jotzearen truk, gazteek bereber bizitzeko edo taldean antolatzeo gaitasuna frogatzen duen sarbide-erritua betetzen dute. Dantzak, edertasuna eskainiz, antzerkiaren joko eremua bermatzen du, zirtzilek urteko gai minberak jorra ditzaten. Ondotik heldu diren bertsolariei hautuzko lekua ematen zaie: plazaratutako trufa eta ziztaden gainetik, ustez erran gabe doana galdekatzen dute, perspektiba berri baten menturan. Baina ez zaie gairik ematen. Ikusitakoaren haritik nahi dutena kantatzen dute.

Lerro hauek ez dute gai-jartzailtza edo epailtza zalantzan jartzeko xederik. Txapelketak bere arauak ditu eta jo aitzina. Izatekotan, bertozaleei luzatzen diedan gonbidapen bat da. Jakina da gaia bera baino, garrantzitsuagoa dela bertsolariak gaia nola egiten duen bere. Agian hor dago koska: publikoak gaitasun handia du berak entzun nahi duena molde batera edo bestera bideratzeko. Izan gaitezen zintzoak; ongi dakigu bertsolariek kantatuko dutena gure eredu moral edo politikoki zuzenen arabera hertsatzen dugula. Eta erabat dikotomikoak garenez, epaimahaia edo gai-jartzaileen kontra jotzen dugu gero, gure jarraibideak kontsentsualegiak direlako.

Lagun batek gorai patzen zidan bertsolariaren alukeria, eta zilegi bekit gogoan hartzea hitz hori ez dela ezertan feminismoarekin kontrajarria: alukeriak jeinu edo talentu zerbait suposatzen duenean, pitokeriak zozokeriarik arruntena definitzen du. Lagun horrentzat beraz, alukeriarik gabeko bertsolaria, hitzaren kirolari on bat besterik ez da. Eta ez gara harrituko puntuazioaren eruedetan gaitasun hori ez bada baloratzen. Testutik at iradokitzen denak ematen al du abantailarik? Alta, deitoratzen dugu Bertsolari Txapelketa Nagusian entzuten diren bertsoek ez diotela umorea edo arrailerari nahi genukeen presentzia ematen. Baina nola ariko gara irriz karkailaka zirtolarien krudelkeria gutxiesten badugu?

Kolapsoen gurgil zoroan sartu omen garen aldi honetan, pantailek intimoa baldintzatzen dutenean, nortasuna QR kode bat izan daitekeenean, badirudi gure mintzagaien hautua algoritmoen menpe dagoela. Gure eguneroko solasen edukia Data Center batek akuilatzen badu, ez al gara egoera giga-diglosikoan bizi? Eta sinesgaitza bada ere, guti edo aski denok egiten diogu hondamendiari gure ekarpen xume eta eraginkorra. Ez da hutsaren pareko kontua: kasik bi urte pasa ditugu euskara plazara jalgi gabe, eta itzalaldi horren ondotik, hitzordu erraldoiak salbuetsirik, antzerki, bertso, dantza eta musika emanaldi xumeagoak publikoz odolustu dira. Eta zertaz hitz egin dugu denbora guzi horretan? Ez al dugu gure eztabaiden mamia ehuntzeko gaitasuna deslokalizatu?

Baina ez gaitu izutzen negu hurbilak. Alerta gorrian ere bizia ospatzen ikasi dugu. *Happy-kolapsoa* gure baitan dugu. Beraz saioz saio joango gara bertsolarien erabateko askatasunari leku egitera. Aitzinako Greziatik datorkigun errefracuaren arabera, mundu osoa eszenatoki bat da, eta begi-bistan ditugun zernahikerien ondotik, bertsolariak nahi duten haria tira dezatela; gure ziurtasunak irauli ditzaten. Haien bertsoekin irriz leher gaitezen eta egiak gure zintzurretan iltza ditzaten. Aparteko bertsolariak ongi dakite zein menditik egiten duten tiro. Harri batez bi txori: gaia beren esku hartuz euskaldunon *elekagaien* burujabetza ereiten dute.



HENDAIATIK VARSOVIARA

ENEKO BIDEGAIN AIRE
MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA
2022-10-28

Bertso Txapelketa Nagusiko epaimahaikide izatea bidaia bat da. Bidaia bat Euskal Herrian barna. Bidaia bat bertsolari bakoitzak kantatzen dituen munduetara. Bidaia bat gai bakoitzak gure baitan pizten dituen ideien erresumara. Bidaia bat zenbakien bidez kontatzen duguna. Neurtzen duguna. Kilometroak. Minutuak. Silabak. Oinak. Puntuak. Eta puntuak.

Zer dira 6 puntu? Zer dira 7,5 puntu? 8,5? Zer dira 6 segundo, 2 minutu eta 44 segundo edo 4 minutu eta 37 segundo? Zer dira ordu bat eta 39 minutu? Zer dira 129 kilometro? 92 kilometro? Hendaiatik Lizarrara, 140 kilometro. Geldialdi bat Oiartzunen, beste epaimahaikide batzuekin egiteko bidea. Autobidean barna, Andoain, A15, Bi Aizpeak, Iruñeko sarrera, udako suteek utzitako arrastoa Erreniaga bazterretan, Lizarrako arkitektura kontrastedunak eskaintzen duen bidaia denboran... 128 kilometro Gotaine-Irabarnetik Hendaiara, itzulera, Oxxaxen gauari oraindik erresistentzia egiten dion egunaren azken hasperenaren printzaren poesian, saioan entzundako –eta puntuatutako– maisulan batzuk komentatuz bidenabar.

Hain segur, bidaia emozionanteena Hendaiatik Getxorako 129 kilometroetakoa da. Txapelketatik txapelketarako lau urteak luze badira, pentsa bost urte! Eta pandemia 2021ean izan balitz? Sei urteko etena? Badakigu lanera goazela. Badakigu antzokiko aulkiak ipurdiarentzat erosoak badira ere, toki hain murrizterako antolatu den nolabaiteko mahaian idazteak eskatzen duen posturak nekea eragiten diola bizkarrari. Eta badakigu Hendaiatik Gasteizera 121 kilometro diren bezala, bertso baten neurria ez dela termometro batekin hartzen.

Urte bat lehenago hasi ginen biltzen –eta txapelketatik txapelketara ere izan genituen ikastaroak–, berriz ere xeheki irakurri genituen epai irizpideak, eztabaidatu genuen... Baita bertso epaitze modu distopikoez ere: adimen artifizialak neur ote lezake bertsoa? Eta ezinezkoa dela ebatzi genuen. Nola uztartu bertsoak komunikatzen duen egoera eta eragiten duen –edo ez duen– emozioa, beste hainbat ezaugarri teknikorekin

(oinak, gramatika, silabak...)? Ez dago formula matematikorik. Puntuazioa sekula ezin da izan perfektua, ezin baita makinekin puntuatu. Edo, horrexegatik, bere inperfekzioagatik izan liteke makinarena baino fidagarriagoa. Kantariaren ahotik entzulearen belarrira, bertsolariaren bihotzetik zalearen erraietara nola heltzen den islatzen da, hein handi batez, puntuazioan. Hori egokitzen da bertso horretatik ihes egin duten akatsak zigortuz eta bertsoa ongi jantzi duten merituak sarituz.


Kantuen, filmen edo liburuen gisan –baita ere pertsonen gisan– bertso bakoitzak lortuko du edo ez gure larru-azaletik barnago sartzea. Badira larru-azala ferekatzea ere lortzen ez dutenak. Badira gustagarri zaizkigunak, entzuteko atseginak direlako, ikusteko politak, baina ez duena epidermisa zeharkatuko euriak plastikozko geruza baino gehiago. Badira bertsoak larrua zulatu eta bibrazioa eragin digutenak. Eta badira bihotz erdiraino heldu zaizkigunak. Bertsoak entzuleari bat-batean eragin dion inpaktu hori ekar ote daiteke, nolabait, puntuetara? Hori da gure lana.

Subjektiboa dela? Bistan da. Horregatik, zazpi epaimahaikideren, zazpi sentsibilitateren eta zazpi emozioen batuketa da azken emaitza. Zazpiak bat bihurtzen gara. Zazpi erreka batzen dituen ibaia da puntuazioa.

Bai, badakigu lanera goazela. Badakigu puntuazioak beti sor dezakeela eztabaida. Baina buruko-min horien gainetik, pozik joan ginen Getxora (eta hurrengoetara), bertsoa maite dugulako, Txapelketa Nagusia ekitaldia bera bihotz altxagarri zaigulako euskaldun gisa, aspaldi elekatu gabeko edo maiz ikusten ez ditugun lagunak agurtuko ditugulako, komunitate maitagarri baten parte izateak alaitzen gaituelako...

Beraz, kilometroak... erregai litroak... batzuk-batzuk badira. Kanporaketan fasea eta finala epaitzea egokitu zait. Kanporaketetan, hiru asteburuz jarraian (hots, hamasei eguneko tartean) 1.270 kilometro –hamabost ordu– zeharkatu ditut. Ia-ia Hendaiatik Amsterdamera joango banintz bezala. Txapelketa osoa epaituz gero (edo txapelketako saio guztien jarraipena egiten duen kazetaria izanez gero), Amsterdametik segi eta Varsoviaraino iritsiko nintzateke, 2.500 kilometro pasa direlako joan-etorri guztiak.

Kilometroak errealak dira. Baina bidaia bertsoei esker egiten dugu. Bidean era askotako paisaiak zeharkatzen diren bezala, bertsoetan ere badago denetarik, eta gozamina ugari. Varsoviara ez; batzuek ilargiraino ere eramaten gaituzte.



BERTSOLARITZA LITERARIO BATEN ALDE (ETA KONTRA)

KEPA MATXAIN IZTUETA
IKERTZAILEA
2022-11-14

“Bertsoa komunikazio ekintza da” irakurri diot aurtengo Txapelketa Nagusiaz ari zen bati baino gehiagori, eta bertsoaren espezifikotasuna definitu nahia antzeman uste izan dut baieztapen ez oso espezifiko horren atzean. Aspaldiko kontua da –Antonio Zavalak 1956rako aipatzen zuen halako zerbait, eta egungo epai irizpide asko ideia horretan funtsaturik daude–, baina baieztapena klixek bilakatzeak kezkatzen nau, esaten duenagatik baino esan gabe uzten duenagatik. 70eko hamarkadako teoria oralisten eta folkloristen printzipio bat dakar, funtsean –Joxerra Garziaren tesiak bertsolaritzara gaurkotua–: azpimarratu nahi du ahozko inprobisazioa ezin dela osoki hautemana izan bere testuinguruan besterik; hots, bertsoa ezin dela gertatzen deneko situaziotik bereizi, une eta toki jakin batean gauzatzen dela, eta testua bertso-performancearen alderdi bat gehiago soilik denez, hura komunikazio-esparrutik kanpo epaitzeko saiakera oro ezinbestean dela murriztailea. Bertsoa komunikazio ekintza dela azpimarratzen duenak, neurri batean, esan gabe dio joko arau horietan lehenetsi behar zaiola piezaren efikazia –bertsoak hartzaileari zirrara bat pizteko duen gaitasun apelatiboa– piezaren estetikari –bertso-testuaren kalitate literarioari–. Edo, errotiko bereizketa behartua izanik ere, estetika efikaziaren zerbitzura dagoela.

Deigarria zait bertsolaritzaren komunikazio dimentsioa non eta txapelketan nabarmentzea, komunikaziorako dagoenik eta espazio zurrunenean, non bertsolariak klase guztietako egiaztapenak gainditu behar dituen –kideari erantzun gaitik atera gabe, situazio abstraktuak elementu lurtarrekin zehaztatu, arrazoiketa koherente baten izenean norbere posizioa irmo mantendu, puntu gatzgabetuei graziaz erantzun, eta hori guztia potarik egin gabe, errima ahalik eta estuena erabiliz eta al bait denbora laburrean–. Zenbat du komunikazio ekintzatik estutasun horretatik sortzen den “tekno-bertsoak”? Ez al du sarri konstruktio mekaniko bat izaten amaitzen? Eta, komunikazio izenda daitekeen zerbaitetara gerturatzea lortzen badu, ez al da izaten ia beti bere sortze-baldintza arautuak gainditzea lortzen

duelako –ariketaren marko aseptikoa unean uneko errealitate-erreferentziekin nola edo hala zartatuz–? Txapelketako bertsoa komunikazioaren muga-mugan dabil: hango joko arauak bertsoaren alderdi testuala indartzen dute, eta komunikazio kanala hertsatzen. Bertsolaria situazioari gailentzen zaionean, baldintzarik antikomunikatiboenetan egindako komunikazio ekintza izango da –eta, hortaz, bi aldiz komunikatiboago–. Situazioaren baldintzak erabat ezartzen direnean, ordea, zuzeneko pieza testual bat sortzera joko du bertsolariak, kantatzen ari den unetik eta tokitik erauzia, osoro streamingarria –eta biralizagarria–: poetikoagoa, narratiboagoa, diskurtsiboagoa, baina ezinbestean testuala.

Joseba Zulaikak orain ia lau hamarkada lehia bertsoaren aberrazio bat zela baieztatzean, bertsoa eta jolasa naturalizatu zituen ziur asko, dikotomia gotor samar bat eraikiz. Egun, ba ote txapelketa bera baino ezer berezkoagorik eta naturalagorik? –Xabi Payaren Ahozko Euskal Literaturaren Antologian, esaterako, bertsolaritzaren modalitate bat gehiago bezala ageri dira txapelketak, nahiz eta argitu ez direla “gainerako saioak” bezalakoak–. Baiki, epai irizpide txostena gorabehera –ezin “eraikiagoa”, bidenabar–, txapelketan sarri lehenesten dira pertsuasioaz edota efikaziaz bestelako balioak, lehia puntuatuak mediatuta baizik funtziona ez dezaketenak. Baina lehia puntuatuak tarte luzea darama bertsolaritzan, ez du ematen desagerrarazteko asmorik dagoenik, eta, behin honetara iritsita, soberan ez onartzea agian testua ez dela bertsolaritzaren oinarria, baina bai haren alderdi oso garrantzitsu bat –idatzizko literaturarekin partekatzen duena–, eta situazio mota batzuetako baldintzek –txapelketetakoek, zenbait ariketetakoek– indartu egiten dutela haren garrantzia. Eta partzial samarra dela bertsolaritzaz hitz egitean beti haren alderdi komunikatiboa azpimarratzea, alderdi testuala –gero eta funtsezkoagoa– bazter utzirik. Kubako dezima bertsolaritza baino jardun “literarioagoa” dela esaten den bezala, zergatik ez esan saio-formatu batzuk egonkortzeak indartu egin dituela bertso-molde “literarioenak”?

Txapelketek egun baino askoz pisu gutxiago zutenean ere zenbaitek aldarrikatzen zuten bertsolaritzaren dimentsio literarioa –Manuel Lekuonak, Aitzolek, Ez Dok Amairukoek, eta abar–. Urrunago, bertsolaritza euskal literatura garaikideko genero garrantzitsuenetakoa dela babestu du Joseba Gabilondok berriki –idatzizko literatura baino puskaz konplexuagoa–. Harentzat, Maialen Lujanbiok “idazle auratiko” birsortuaren irudia gorpuzten du, eta eredu behar luke gainerako euskal

literaturagileentzat. Posizioa –asmo nabarmen probokatzailerako– partekatu zein ez, mesedegarri litzaiguke bertsolaritza garaikideko zenbait joeraren ondorio bezala ulertzea.

Horregatik da aski zentzuzkoa orain gutxi Ion Ansak iradokitakoa: badela ordua bertsolaritza bloke monolitikotzat jo beharrean bere baitan askotariko logikak eta estiloak dituen fenomeno bezala ulertzeko. Espezifikotasunaren bila dabilenak beti du determinismoetan eta dikotomia murriztaileetan erortzeko arriskua –neu ere erori naiz inoiz–, baina bertsolaritza ulertzen badugu fenomeno eta testuinguru berriak barneratu ahala izaera moldatzen duen zerbait bezala, agian unea da haren definizioa ñabartzeko. Ziur asko, egun bertsolaritzaren espezifikotasunaz aritzeak estetika askotarikoak dituzten bertsolaritez aritzea eskatzen du. Bakoitzak zertarako eman ohi duen, beste poto bateko garagardoa da.



ENTZUMENAREN IRAULTZA

JONE M. HERNÁNDEZ GARCÍA

EHU-KO IRAKASLEA

2022-11-23

Munduko kultura guztiak genero hierarkiek gurutzatuta direla frogatu zuen jada antropologiak joan den mendeko 60. hamarkadan, Euskal Herria barne. Horren ondorio bat izan da emakumeek gizartean egindako ekarpenen isilarazpena. Adibidez, mendeetan zehar *jakina* izan da emakumeek ezin zutela bertsolari izan. Eta *jakina* zelako, onartuta zegoen. Ondorioz, emakumeak *naturalki* isiltasunean bizi izan dira; orain dela gutxi arte.

Emakumeak bertsoak sortzeko eta kantatzeko gai zirela, eta, are gehiago, txapelketak irabazteko gai zirela erakustek ahalegin eta konstantzia handia eskatu du. Inertzien kontra egiteak ekarri duen energia galeraz, horretan murgilduta egon direnak bakarrik hitz egin dezakete. Estereotipoak iraultzea, gizarte arau zorrotzak apurtzea, sustraitutako usadioak kinkan jartzea edota hierarkiak zalantzan jartzea suposatu du, besteak beste, lan horrek. Oinarrian korrontearen kontra igeri egitea izan da.

Halere, 2009ko Txapelketa Nagusiak irudi tentagarria utzi zuen: Maialen Lujanbio txapela jantzita. Berdintasunaren lorpenaren seinale, edo? Ematen zuen keinu sinple eta xume horrek (Joxe Agirrek txapela Lujanbioren buru gainean maitekiro uzten) amaiera jartzen ziola Joseba Zulaikak (1990) dotore deskribatutako euskal kulturaren eredu nagusiari. Eredu nagusi horrek hainbat praktika (hertsiki) maskulinoak zituen oinarri, besteak beste bertsolaritzarekin lotutakoak. Zaila dirudi txapel janzte horrek mendeetan zehar izandako isiltasun eta ikusezintasuna iraultzea. Nago, Harry Potter, Hermione Granger eta euren koadrila guztiak ere, ez luketela lortuko.

Zalantzak zalantza, artean badago egiaztatu daitekeen alderdi bat: Lujanbioren txapela une berezi batean iritsi zen. 2010ean hasten zen hamarkadaren atarian, Euskal Herrian eszenatoki soziopolitiko eta kultural berri bat sortzen ari zenean, hain zuzen ere. Horri egiten dio erreferentzia Zulaikak berak (2019), berriagoa den testu batean. Eta horrela dio: *generoarena da nabarmenki euskal gizarteak bizi duen impass kultural larriena*. XX. mendeko 80-90 hamarkadetan kokatutako ikerketan, gizezko bertsolaria euskararen indarra eta hizkuntzaren sinbolo gisa irudikatu

zuen Zulaikak. Hainbat urte geroago, Maialen Lujanbioren txapelak eragindako aldaketak aztertzen ditu eta galdetzen du: *What is the sex of a bertsolaria?* Zein da bertsolariaren sexua?

Teoriak dio bertsolaria dela publiko aurrean bertsoak bat-batean kantatzeko gai dena (Garzia 2012). Arrazoiak ardatz, burua ezinbestekotzat jo da bertsoak sortzeko orduan; bertsolaritzarako gorputz atal garrantzitsuena omen da. Hori horrela izanda, zeini axola zaizkio kantatzen duenaren genitalak, genero nortasuna edota orientazio sexuala? Baina praktikan badirudi garrantzia duela. Bai? Garrantzia du oraindik?

Jokoari buruz idatzitako saiakeran Johan Huizingak (1972) hauxe dio: *kultura jokoa da*. Eta honekin lotuta, hau gaineratzen du: *lehia bizitza sozialaren elementu nagusienetariko bat da*. Izan ere, jokoa eta lehiaren inguruan eduki erritual eta sinbolikoz beteriko esparruak sortzen dira, ekoizpen kulturala eta nortasunezkoari lotuta daudenak. Kultura eta nortasuna erdigunean egonik, erraz ulertu daiteke zergatik jokoan dabilenaren sexua den garrantzitsua; baita irabazlearena, eta, zergatik ez, publikoarena.

Publikorik gabe ez dago bertsorik, ezta bertsolaritzarik, ez bederen, bere esanahi garaikidean. Publikoa bertsoaren parte da, hasieratik bukaeraraino. Parte hartze horri *kognizio partekatua* deitu zion Denis Labordek (2011). Bertsaldia kantatzen hasi aurreko isilunea, isilune hau apurtze duten ezitulak, eztarri garbitzeak, aulkien karraskak, azken lerroen errepikapenak, oihuak eta txaloak; bertsoa, nire iritiz, hori dena da. Protagonismo ezberdinekin baina guztia eta guztiak dira horren parte. Modu honetan, bertsoak sortzen eta kantatzen duenari seinatzen dio, baina baita ere, entzuten eta jasotzen duenari, bertsolaritza elkar entzute ariketa bat ere badelako.

Jordi Carmonak (2018) gizarte mugimenduen testuinguruan entzumenak duen garrantzia azpimarratzen du: besteak esateko duenarekiko interesa eta arreta lirateke gizarte mugimenduek duten indargune nagusienetarikoak. Eta horri beste ideia pare bat gehitzen dio, baliagarria dena generoa eta feminismoarekin lotutako eztabaidetan txertatzeko. Entzumenak -dio Carmonak- laguntzen du *beste*a prozesu politiko batean barnebiltzen, lotura bat sortzen duelako. Baina, gainera, entzule bakoitzarengan ezustekoa eta harridura azaleratzen laguntzen du, eta horrela,

entzumena, gaineratzen du Carmonak, eraldatzailea izan daiteke, iraultzailea. Maila pertsonalean, zein kolektiboan.

Modernitatean, komunitatea *gu* maskulino, menderaezin eta suntsiezin baten inguruan bildu eta trinkotzea omen zen erronka. Eta egun, zein da jomuga? Hizkuntz eta kultur gutxituen iraupena negoziatziorako eta elkar lanerako espazioen sorreren baitan dagoela dirudi; bizitza bizigarriago eta gizarte justuagoaren alde egingo duten guneak. Entzumenak dakarren inplikazioari, enpatiari eta eraldaketari uko egin ahal diegu, baina keinu horrek pertsona gisa, zein gizarte gisa erretratatu gaitu, isiltasunaren garaitik gortasunaren garaira igaroz.

Bibliografia

Carmona, Jordi. 2018. *Paciencia de la acción. Ensayo sobre la política de asambleas*. Madrid: Akal.


Garzia, Joxerra. 2012. *Bertsolaritza*. Donostia: Etxepare Euskal Institutua.

Huizinga, Johan. 1972. *Homo ludens*. Madrid: Alianza editorial.

Laborde, Denis. 2011. “De l’inventaire des traditions à l’action située: analyser le bertsularisme après Joxemartin Apalategi”. In: Rosa García Orellán, Aitzpea Leizaola, Inmaculada Sánchez Martín (arg.): *Joxemartin Apalategi Begiristainen oroimenez*. Donostia: Eusko Ikaskuntza; 49-63.

Zulaika, Joseba. 1990. *Violencia Vasca. Metáfora y sacramento*. Madrid: Nerea.

Zulaika, Joseba. 2019. “What is the sex of a bertsolaria?”. In: Xabier Irujo, Iñaki Arrieta(arg.): *Female Improvisational Poets*. Reno: Center for Basque Studies. University of Reno; 141-172.



KANTAERAK DIOENA

MADDI SOROA NAVARRO

MUSIKA IRAKASLEA

2022-11-29

Hitzek bere kabuz esaten dutenaz gain, zerbait gehiago esan dezake ahots batek? Zer? Ahotsak hitzari zerbait gehitzen al dio? Ba al da kentzen dion zerbait? Hitz berak berdin jasotzen al ditugu pertsona desberdinen ahotik? Edota ahots bereko hitzak baina testuinguru desberdinetan? Eta zenbat aldatu daiteke bertso bat irakurtzetik entzutera edo kantatzera?

Ahotsaren eta hitzaren arteko ekuazioari musika gehitzen zaionean, lehenengo biek elkarrekin duten komunikazio gaitasuna biderkatu egiten da. Beraz, musika horrek badu esateko, iristeko, gogoratzeko eta emozio zein egoeretan kokatzeko ahalmen berezia.

Bertsolaritzak ongi frogatzen du hori, bere izanaren ezaugarri izanik aipatutako hirurak. Ahotsak berak, doinuek eta hitzek bezala, esateko hainbat modu onartzen ditu. Ahotsa da bat-bateko bertsolaritzan kantaerari forma ematen diona; hitza eta doinua modu uztartuan aurkezteko gai den bakarra. Hitza eta doinua ez baitira interpretatuko dituen ahotsik gabe. Doinuen eta hitzen osagaiak berdinak izanagatik ere, osagai horiek aurkezteko modu desberdin ugari daudela esan genezake; eta horretan datza, hain zuzen ere, kantaera. Nola interpretatu baina? Zeintzuk dira bertsolarien esparru horretan dituzten aukerak?

Aukerakoak eduki behar dira, ordea, aukeraketa hori posible egiteko. Bertsolariak horietako asko ditu eskura; eta badituela jakinik, edo jakin gabe, horien arabera aurkeztu ohi du nahitaez bertsoa. Aukerak aurrez lantzeak bere hautuaren erabilera kontzienteagoa ahalbideratuko lioke bertsolariari. Gainera, norberaren ahotsak zer dioen eta zer esan dezakeen jakiteak ahotsaren gaineko kontrol handiagoa emango lioke bertsolariari; eta aldi berean, erabilera eraginkorragoa bermatuko lioke. Askotariko erabilera eskura edukita, adierazkortasunaren arabera erabilera bat ala bestea gauzatuko luke horrela.

Musikaren arloan frogatuta dago ahotsa hezi daitekeen instrumentu bat dela. Hala izanagatik ere, ahots heziketa hori musikarenak ez diren beste helburu batzuetara egokitutakoa izan daiteke. Kasu honetan, bertsolarien beharretara egokitutako ahots lanketa bat antolatzea litzateke egokiena. Baina gainditu al dugu ikasiaren eta ez ikasiaren arteko eztabaida? Ala oraindik ba al du lekurik ika-mika horrek bertsolaritzan? Proposamen honen aurrean, susmoa daukat ez ote garen ezbaian geratzen bertsolariak lanketa horretatik jaso lezakeena baino gehiago, galduko lukeena zerrendatzen.

Galera horien zerrenda, agian, bertsolaritza bereak ez dituen arauen menpe jartzearen beldurretik abiatuko litzateke, kantaeran eraldaketa estetiko baten sorrera emanaz, esaterako. Ba ote dago orduan, bertsoen kantaerari dagokionez, galtzea nahiko ez genukeen, eta idatzirik ez dagoen, estilo onartu bat? Entzule moduan, nola onartzen dugu aurkeztea bertsoa? Zer dugu gustuko eta zer ez?

Testu edukiari dagokionez, agerikoa da bertsolariek egiten duten ahalegin estetikoa. Aitor Sarriegik *bertsoa.eus*-eko *Ganbaran bai* atalean, *Estetikaren balioaz* (2022) artikuluan aipatzen du, joera hori diskurtsoaren mesedetan gero eta bazterrerago uzten ari bada ere, horren alde egiten duela apustu. Diskurtsiboki bikainak bezain estetikoki ederrak diren bertsoaldien alde egiten duela, alegia. Mezua eder esateko bilaketa hori onartua dago, beraz, bai bertsolarien eta baita entzuleen artean ere. Aldiz, ahotsari dagokionean, ez da jarrera hori babesten, ez hainbesteko ziurtasunez behintzat; zenbaitetan ahots kantatuegiez edo bertsotarako ederregiez definitzeraino bertsolaria. Musikaren mundura hurbiltzen gaituzten ahotsak direlako sor dezakete errezero hori entzuleen artean? Ahots interpretazio horiek bertsolaritzatik kanpo gelditzen direla uste delako?

Zer da, baina, bertsoaren parte izatea? Musikatik duen galdetu genezakeen bezala, interpretaziotik, antzerkitik, literaturatik edo oratoriatik ere duen galdetu genezake. Bertsolariarentzat interesgarria litzateke bertsogintzak beste arte adierazpenekin dituen loturen eta mugen jakitun izatea? Eta hala balitz, zertarako? Nahasteko ala ez nahasteko? Arlo desberdinetan metatzen den jakintza ezagutu eta etekina lortzeko aukera hor legoke; moldatu beharrekoa moldatuz, interesgarria litzatekeena hartuz eta hala ez litzatekeena bazterrean utziz.

Bertsolaritza arte adierazpen bat den aldetik, bere osotasuneko edertasunaren bilaketa zilegi dela nabarmenduko nuke. Bertsoaren testu eduki eder batengatik ez ezik, ahots bidezko interpretazio bateratu bati esker ere entzulegoa harrapatzea ederra litzateke. Ahots ederra ez delako “ongi kantatzen duen” ahots bat soilik, ezta gutxiago ere. Ahots eder bat inprobisatutako testuari eta aukeratutako doinuari egokitzen zaiena da, testuaren eta hautatutako doinuaren komunikazio asmo bera duena, eta bere aurkezpena horretara egokituko duena. Mezuari lagunduko dion interpretazio bidea alegia, kantaerarena.

Bibliografia

Sarriegi, A. (2022/10/11). Estetikaren balioaz. Ganbaran bai. Bertsogintza iruzkina.
<https://bertsoa.eus/albisteak/8910-estetikaren-balioaz>



ZE MUNDU POSIBLERAINO IRITSIKO DIRA AHOTS HORIEK?

MARTA FERNANDEZ VILAR
IKERTZAILEA
2022-12-31

Azken urteotan, musika tradizionalari lotutako zenbait doinu eta estetika sortzen ari dira *mainstream* panoraman: Tanxugueiras muiñeira batekin Eurovisionetik pauso bakarrera geratu dira; Rozaleneke penintsulako folklorea errepasatu du disko berrian; Rosaliak flamenko *poligonea* egiten du eta jotak biral bihurtzen dira TikTok-en. Ziurgabetasun eta egonezinezko garaiok identitate berri baten bilaketa sustatzen dute. Eta horretarako musika eta kultura oro har, tresna ezin hobeak dira; barrura begiratzeko ez ezik, mundu garaikidean norbere burua birdefinitzeko ere bai. Hala ere, ez penintsulan, ezta beharbada Europa osoan ere, ez dago praktika folklorikorik, bertsolaritzak bere komunitateari ematen dion marko identitarioa bezain sendorik eragiten duenik.

Gradu amaierako lana ulertzen ez nuen hizkuntza batean zertzen den diziplina bati buruz zergatik ari nintzen egiten Eskozian galdetzen zidatenei, paregabeko zerbait zela erantzuten nien; eta harrigarria iruditzen zitzaidala, praktika tradizional bat nola bihur daitekeen hain fenomeno jendetsua, XXI. mende betean. Ondare immaterial honen salbuardiaren edo zaintzaren metodoaren bila iritsi nintzen Bertsozale Elkartera; metodoaren eta metodoa bera beste kultura gutxituetara eredu esportagarri izateko aukeren bila. Ikerlanak, hein batean bertsolaritza-komunitateko kide ezberdinei egindako elkarrizketei esker egindakoa, agerian utzi zuen zainketen etikan oinarritutako sistema baten garapena zela ondare immaterial honen zaintza metodoaren alderdi indartsuenetako bat. Patrimonializazio prozesuak ezaugarritu ohi dituen logika estruktibistatik kanpo kokatzen da salbuardia, eta alde batetik, nahi dugun gizartea sortzeko modu gisa ulertzen da; eta bestetik, bizi, mutatu eta nabarmentzen den organismo baten mantentze prozesu gisa konprenitzen da.


Abenduaren 18ko finalean, berriz ere egiaztatu ahal izan nuen zaintza-prozesu horren garapena, hari dagozkion faseekin: transmisio “beharraren onarpena” eta praktikaren gozamina; ezaugarri horiek dituen ekitaldi baten antolaketan “ardura hartzea”; bertaratze jendetsu, txalo eta emozio forman gertatuko “zainketen eskaintza

eta harrera”. Bertsozaletasunaren prozeduretan datzan zaintza politika horretaz gain, Bertsozale Elkarteko kideek ikerketan zehar aipatu zizkidaten beste xede batzuk nola gauzatu ziren ere ikusi ahal izan nuen. Nik bezala finala itzulpen zoragarri baten bitartez jarraitu zutenentzat, behaketa ez parte hartzaileak nabarmenago egin zuen salbagueardiako helburuetako bat, hain zuzen ere, elkarrizketatuek ezinbestekotzat aurkeztu zidatena: loturak eta kolektibitateak sortzea. Nire atzerriko talaiatik, ukaezina zen azkeneko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean komunitate sentimendu baten presentzia bazela, bertsoaldietan barrena zenbait bertsoetan sendotua eta gogoratua izan zena. Izan ere, Zizek berreskuratuz, bizitzeko modu bakanarengatik ezaugarritzen da komunitate bat, baina haren identifikazioa bere gozamenaren antolaketa moduan datza. Talde gorpuzte bat, Nafarroa Arenan nagusi diren afektibitate eta gozamenarekin agerikoa bihurtzen dena. Gorpuzte horrek, ondareak ongi izatean eduki dezakeen eraginaz ohartarazi beharko liguken; eta halaber, zeinen zentzuzkoa izango litzatekeen kontutuan hartzea pertsonen bizitzaren alderdi askoren hobekuntzarako.

Nire ikerketako elkarrizketetan gehien aipatu ziren alderdietako batzuk, bertsoen bidez transmititutako baloreak eta etorkizuneko gune alternatiboak sortzeko gaitasuna izan ziren. Abenduaren hemezortziko ariketa guztietan, bertaratutakoek erne eta jarrera kritikoz jarraitu zituzten gaurretasunezko gaiak, bertsolariak zinezko “ikuskatzaile sozial” gisa ziharduten bitartean. Bertsolarien hitza, urte osoan gaindi ikerkuntza, transmisio eta sustapen sistemen bidez bereziki zaindua izan dena, “bertsolaritzaren balioetan” eta “bertsolaritzaren bidezko balioetan” oinarritutako etorkizun hobe baterako inbertsio gisa ageri dela dirudi ezberrik gabe.

Laburbilduz, Bertsolari Txapelketa Nagusiko Final honek bere komunitateak ematen dion duintasun inbidiagarri eta iraunkortasun bermea erakutsi du beste urte batez. Nerea Ibarzabalen finaleko hasierako agurreko puntuak transkribatuz, ikusiko dugu «ahots hauek zein mundu posibleraino iristen diren».

(Bertsozale Elkartek itzulua)



AGURRAREN LEZIOA, AGURREN LEZIOAK

HARKAITZ ZUBIRI ESNAOLA
EHU-KO IRAKASLEA
2023-01-16

Gauza onak ez dira kasualitatez indartzen. Kasualitatearen menpe dabiltzanak, desagertu egiten dira, denbora kontua besterik ez da. Kausalitatez bakarrik indartzen dira gauza onak, eraikinaren zutabeak sendoak direnean.

Desesperantzari ihes

Artea eta kultura baliabide oso eraginkorrak izan daitezke ametsak bizirik mantentzeko. Elikatu egiten dute gutako bakoitzaren begirada eta sentitzeko era. Errealitatea nola bizi dugun nabarmen baldintzatzen dute. Bertsotan dabilena, mundua mugitzen duten gauzetan ari da lanean. Behinola, bertsolaritza gainbehera zetorrenean, etsipenaren gaitzetik ihesi, etorkizuneko bertsolaritza amestu zuten. Ez zen ameskeria. Erabat irreal zen, baina egia bihurtu da. Desioak eta printzipioak ekoizten dituen faktoria horrek indar betean jarraitzen du orain.

Pasaportetik eskatu gabe

Zabalerak, sakonerak eta altuerak nabarmen baldintzatzen dute artearen eta kulturaren osasuna. Ez alferrik, hainbat futbol talde erruz saiatzen dira harrobia lantzen, nonahi, bai baitakite haren baitan dagoela beren etorkizuna. Kultura eta hizkuntza ez dira gutxiago. Ziur aski, inork ez du zalantzan jartzen txapelketan ikusi genuenak harrobia lantzearekin ere zerikusia duela. Pozgarria da garai bateko sineskeriak zaharkitu izana. Emakumeak bertsolari eta familia erdaldunetakoak bertsolari, bai, jakina. Orain galdera izan liteke, adibidez, ea bertsolariaren jatorria Konakry, Tangerang, Cali edo Timisoara izan daitezkeen.

Ez da naturalki gertatzen. Gizartean ezer ez da naturalki gertatzen. Kulturalki, sozialki, emozionalki, ekonomikoki gertatzen da, lantzen dugunaren arabera.

Eskutik eraman ninduzun

Urtean zehar egiten diren bertso-saioretan, publikoan dagoen jendearen erdiak lotura du bertso-eskolekin: publikoaren puska bat bertso-eskolan ibilia da, eta beste zati handi batek hurbilekoren bat dauka edo izan du bertso-eskolan. Bertsolaritzaren funtsezko zutabe dira bertso-eskolak. Plazak erakarri edo barne hartzen ez zituen hainbatentzat ireki izan dituzte atea bertso-eskolek.

Eta atea irekitzeari buruz ari garela, ikerketek agerian uzten dute txapelketek lan hori bera egiten dutela bertsozale periferikoekin; hau da, bertsozaleen gehiengo zabalarekin.

Gutasun berri bat

Arreta eskaintzea da bizitzan disputan dagoen baliabiderik garrantzitsuenetako bat. Ume jaioberriari inork inolako arretarik eskaintzen ez badio, hil egiten da, literalki, baita jatekoa eta edatekoa duenean ere. Horregatik da funtsezkoa arretaren ekonomia. Nabarmenkerian erortzen denari begiratzen badiogu, nabarmenkeria elikatzen dugu. Ederki ari dena ikusezin bada, ea nork ateratzen duen etxea aurrera osasuna horretan galdu gabe.

Askotarikoek osatzen dute gutasuna, eta gutasun berrian arretaren banaketa nola egin pentsatzen jarraitu behar da, dirdira egiten dutenak dirdira egiten dutela konuratzea ezinbestekoa baita etxea aurrera ateratzeko, eta bai, jakina, justiziagatik.

Zorionez, batzuen dirdira oso agerikoa da, guztion mesedetan gainera.

Ahalduntzeko sareak

Bada gure artean Leviathan maite duen jendea. Baina bada baita jendearen eraldaketa ahalmenean sinesten duen jendea ere. Lan hori eginez goaz aurrera. Hunkigarria da bertsolaritzan hori topatzea.

Eragiteko leku bat

Artea eta kultura beti dira gizarteen zementua. Ez dira inoiz kontsumogai soilak. Margareth Thatcher-ek garbi esan zuen helburua bihotzak eta arimak aldatzea zela, ekonomia tresna besterik ez zela. Ikuspegi hori galtzen duenak ez daki artea eta kultura zer diren. Arotzaren eskuek eskailerak edo hilkutzak egin ditzaketen bezala, arteak eta kulturak bizitza hauspotu edo abaildu dezakete.

Ekintza iraultzailea da elkarri entzutea

Txapelketari buruz hamaika lagunekin hitz egin duenak, bertsozale periferikoen artean behintzat, harriduraz entzun ahal izan du finalari buruz haietako bakoitzak azaltzen diona. Argi dago Nafarroa Arena asko daudela, eta entzule bakoitzak gertatu zenaren bertsio pertsonala daukala. Horrela funtzionatzen du bizitzak. Bertso-larritza multipolarra. Gero eta gutxiago joaten gara bertsolariak entzutera, gero eta gehiago bertsolari jakin batzuk entzutera, gustuen arabera.

Handi sentiarazi

Behetik gora sortzen dira eraldaketa onenak. Goian daudenen zain dagoena, bego, baina ez da hori hobekuntzak lortzeko modurik eraginkorrena. Eskatzea ondo dago, eskatu beharra dago, eta zuzen eskatutakoari goitik jaramon egiten diotenean, ederra izaten da, eta gertatzen da tarteka, baina hasi eta eutsi behetik gora egiten da. Txikiak handi sentitzea errealismo ariketa bat baino ez da. Jakina, ez du txikitakunak txikia handi egiten. Fundamentuzko lankidetzak bakarrik egiten du txikia handi. Askoren arteko lankidetzan hazi da bertso-larritza, eta izatekotan, ez da desberdina izango etorkizunean. Gizarte mugimendu bat da bertso-larritza, eta horrek egiten du txikia handi.



KORTXO PUNTARI SU

ANDONI EGAÑA MAKAZAGA

BERTSOLARIA

2023-01-17

“Kortxo puntari eman metxeroakin su...”. Txapelketa Nagusi honek oparitu digun esaldietako bat. Bertso bukaera arrunt samar bat bikain bihurtzeko bidea. Hala aholkatu zion Maialen Lujanbiok Amets Arzallusi bere bizitzari buruzko filma egitekotan begitartea belztu egin beharko zuela bota zionean. Ez makilaje, ez pintura, ez UVA izpirik eta ez Benidormeko eguzkitan aste bete. Soiltasun ezinbestekoa da gurea. Baina soiltasun estetikoa ere bai. Daukagunarekin moldatu beste irtenbiderik ez duen jolasa da bat-bateko bertsoena.

Guztiok gara seme-alaba eta asko guraso. Eta guraso ez denak ere maiz izaten ditu haurrak inguruan. Familia edo lagunarte otordu osteetako klasiko bat da haurrak mahaira hurbildu eta metxero eskean hastea. Jolasean, begitartea belztu nahi izaten dute. Eta horretarako modurik errazen eta eskuragarriena helduek metxeroarekin kortxo puntari su eman ondoren, hozten utzi eta kortxoa margo -“aldarrikapen”, baldin bait ere hurrengo batean!- bihurtzea izaten da...

Adi entzun ditut Txapelketa Nagusi honetako saiorik gehienak. Eta ez dut begitartea belzteko arrazoirik aurkitu. Finalaurreetako maila izugarri altua iruditu zait. Baita finalekoa ere, aurreikuspenak aurreikuspen. Zortzigarren geratu zen bertsolariaren lanari erreparatu bestela. Bertsolariak prestatuta iristen dira lehiara. Esango nuke, prestakuntza moduak doitu egin direla garai batetik hona, eta horrek bertsogintzaren kalitateari onera eragin diola. Hitz eta errima berriz kargaturik, bestelako doinuak probatzeko asmoz, esateko gogoz eta bakoitza bere estilo propioa landuz sumatu ditut bertsolariak. Neure mamuak izango dira akaso, baina burutazioren batzuk izan ditut saioak entzuten ari naizela orain paperera ekarriko ditudanak. Bakarkako lanetan, ez al dago akitu samarra *Habanera* neurria? Zortzi zortzi-zortziko. Behin baino gehiagotan eragin izan dit “adreilu” efektua. Edo “inpresora” batena. Tarratata, tarratata, tarratata... eta bukatu! Norberak ertzak topatu ezean, -eta hori ez da batere lan samurra istorio bat osatzea eskatzen duten gaiekin- oso zurrun gerta daiteke hogeita hamar urte honetan nobedade punttua galtzen joan den egitura ezaguna. Iguaranek *Xorieri mintzo zen* doinuak, Colinak *Izarren hautsan* edo Bizkarrak bi puntu motz tartekatuz lortu duten arrakastak zerbait esan nahi du.

Teman berriz, zenbait unetan, “elkarrizketa” gehitxo sumatu dut. Badakit sakrilegio hutsa dela horrelako zerbait botatzea, beti esan izan dugunean teman elkarrizketa bat osatzea dela funtsezkoa. Baina norberak ere bota behar du berea. Norberak ere jo behar du, gaiak hala ahalbidetzen dionean. Eta irudipena daukat hortik herren pittinen bat egin ote dugun.

Akaso, “politikoki polita” kontzeptuari oso lotua dator aipaturiko joera hori. “Tasun” asko azaldu da eta “keria” gutxi. Kirol gaietan, esaterako. Aztartzekoa litzateke zenbateko onberatasuna azaldu duten bertsolariek, lehia bat edo kirol jardun bat proposatu zaien edo ateratzea erabaki duten garaian.

Baina nire mamu txikiak baino ez dira horiek. Txapelketa Nagusia oso ongi joan da bertsolarien lanari, antolatzaileenari, epaileenari, gaijartzaileenari... begira. Bertsozaleak bikain erantzun du. Puntuaketak diren sudoku askagaitz horrek ere balirudike begiak dituela kokotean. Fase bakoitzean ateetan geratu den bertsolariak izango du bere erremina eta pena, baina harritzekoa da nola Elkartearen laneko zehar-lerro guztiek isla izan duten txapelketan: parekidetasunak, lurraldetasunak, adinartekotasunak...

Eta etorkizunari begira zer? Laurogeiko hamarraldiaren hasieran, bertso-eskolak sortu eta Bertsozale Elkartearen premia sumatu genuen sasoi hartan, bertsolaritza genuen kezka. Bertsolaritzaren iraupena bera. Ia berrogei urte joan diren honetan, bertsolaritzak aurrera egingo duela suma daiteke. Badugu antolakuntza gaitasun bat. Baditugu etorkizunerako bertsolari bikainak. Badugu berritzen doan bertsozalego leial bat eta ongi ehundurik daukagu eskolan bertsoa-bertso eskolak-plaza ibilbidea ere. Gure lehengaiak gehiago kezkatzen nau egun. Zein izango da euskararen egoera etorkizunean? Bertso-mugimenduak segi segiko du. Baina ez ote gara erdi euskaraz eta erdi erderaz mintzatuko den jendarte baten friki-zaletasun bihurtuko? Ez dakit... Ez nuke hain jendarte ezpaldurik desio. Eragiten segi beharko genuke etxean bezala atarian. Gure hizkuntzaren eta kulturaren ekosisteman, alegia.

Datorrena datorrela, gurea ez da kultur-industria. Gurea, hitzekin burutzen den jolas soila da. Ez dugu makilatu beharrik. Metxero bat eta kortxo mutur bat edukiz gero, jolasean segitzeko prest gaude.



XORIEZ MINTZO

**BTN22KO DOINUEN ERABILERAZ ZENBAIT DATU
ETA GOGOETA**

**MARTIN ARAMENDI ARANA. IRAKASLEA
AINHOA AIZPURUA INSAUSTI. IKERTZAILEA
2023-01-15**

Sarrera

Txapelketa bukatuta lasaitua hartu dugu Doinutegi Batzordeko kideok ere. Alde batetik, pena, ohartzerako amaitu zaigu-eta asteburueta gozamen, eta txapelketak aurrera egin ahala apaldu egin delako taldekideon arteko doinu honi eta hari buruzko mezu-trukea; bestetik, ordea, sosegua, eginkizunak menderatuta izateak dakarren sentsazio gozoa.

2017ko txapelketan izan zen doinu berrien emanak ezustean harrapatu gintuen. Lanak izan genituen bertsolariak jarritako erritmoari eusteko, baina ondo etorri zitzaigun konturatzeko antolatuta eta taldean lan egin beharrean geundela egitekoa egoki gauzatuko bagenuen. Harrezkero talde-lanean ari gara, koordinatuta, kate-lanean, aldi behin bilerak eginez; bakoitzak badaki zer egin behar duen, badaki nork zer egin behar duen, eta horrela dena da errazagoa. Gainera, aurtengo txapelketan askoz doinu berri gutxiago plazaratu dira (7) aurreko txapelketarekin alderatuta (23). Lehenengo faseko joera ikusita— sei doinu berri atera zituzten—, bazirudien doinu berri ugari izango genituela, baina finalaurrekoetan eta finalean bertsolariak doinu ezagunak erabiltzeko edo zaharrak berritzeko hautua egin dute, eta, azkenean, guztira zazpi doinu berri bildu ditugu 2022ko Txapelketa Nagusian. Ekarpak horiek guztiak biltzen, sailkatzen eta aztertzen saiatuko gara artikulu honetan.

Horrekin batera, doinuok bertsolarien ahotan sorkuntzarako ema(te)n dituzten aukera edo dimentsio posible batzuei erreparatu nahi diegu labur. Doinu hautua bera esanguratsua da bertso gintzan (ikus Lujanbio 2017, esaterako) eta airea kantatutako hitzekin eta ahotsarekin *nola* uztartzen den ere kontuan hartu beharreko alorra delakoan gaude.

Doinutegi Batzordeak doinuen erabilera eta doinu berriak dokumentatzen azken urteetan egin duen lanarekin batera, doinu hautuaren esanguraz, bertsolarien kantaeraz eta ahotsaz, edo bertsozaleok horiek entzuteko ditugun moduez ikerketa-

lan, gogoeta eta saio ugari egin dira. Aipagarri dira, besteak beste, bertsolarien kantaeraz musikologiatik (Navarro 2018) eta musikaren —kantuaren— pedagogiatik (Soroa 2020) eginiko lanak; genero-ikuspegitik abiatuta doinu hautuez, kantaeraz eta ahotsaz zein horiek entzuteko moduez gauzatutako gogoeta eta ikerketak (Labaka 2019: 219-220, Alberdi 2019: 23-27 edo Hernández 2019, besteak beste); edo bertsogintzaren (a)hotsezko alderdi horiei erreparatuz ...*Gerturatu eta lau* zikloaren baitan antolatutako ‘Gauzkaten eztarri lerratuak’ saio esperimental¹, kantaeraz egun bertsogintzan dauden kanonak zalantzan jarri eta hausnartzeko asmoz egina. Datozen lerroetan, beraz, 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusian erabilitako doinuen kokapen orokorra egingo dugu zenbakitan, lehenik. Doinu berriak izango ditugu aipagai gero, zahar-berrituez aritzeko jarraian. Bukatzeko, doinu eta kantaerak bertsolarien sormenean eta entzuleon hautematean uki ditzaketen alor batzuez arituko gara.

Doinuak zenbakitan

Atzera begira jarrita, 1967ko txapelketan 20 doinu erabili zituzten guztira; 1980an, aldiz, 38 eta 1982an 73. Erabilitako doinu-kopuruak nabarmen egin zuen gora 1986ko txapelketan: 136; 1989an jo zuen goia, 156 doinurekin. Aipatu behar da 80ko eta 90eko hamarkadetako txapelketetan sari bat ematen zitzaiola doinu gehien erabiltzen zuen bertsolariari lehenbizi, eta, gerora, doinu berri gehien ekartzen zituenari. Horrek ere izango zuen, noski, eragina gorako joera horretan. Hurrengo txapelketetan doinu gutxiago erabili ziren: 1993an 109, 1997an 105, 2001ean 103, 2005ean 110, 2009an 105, 2013an 118 eta 2017an 161. 2022ko Txapelketa Nagusian, berriz, orotara 151 doinu erabili dituzte.

Doinu guztietan ez da berdin pentsatzen, doinu guztiak ez dira berdin sartzen bertsozaleen belarrietatik, eta, zalantzarik gabe, eragina izaten dute sortzen eta komunikatzen den testuan, komunikatu nahi den mezuan. Bertsogintzarekin batera aldatuz doaz doinuak ere. Duela hamarkada batzuk atertu gabe entzuten ziren zenbait — *Txoriak eta txoriburuak*, *Nafarroako mendi gainetan*, *Santa Barbara zure bizitza...* — ia erabat desagertu dira plazatik. Badira, ordea, beste batzuk txapelketa joan txapelketa etorri hor jarraitzen dutenak —*Kantatzera nijoa*, *Nere senarrarekin I*,

1 Informazio gehiagorako, ikus: <https://www.bertsozale.eus/eu/plaza-biziberritzen/gerturatu-eta-lau> (azken kontsulta: 2023-01-11).

Dama gazte xarmant bat...—; bertsolarien sormen-mekanismoetara ondo egokitzen diren seinale, bai eta bertsozaleen belarrietara ere.

2022ko Txapelketa Nagusian hauek izan dira doinurik erabilienak agurretan eta ariketaz ariketa:

- Agurrak: *Baserrian jaiotzen nintzan* (9), *Mundu honetan holako gauzak* (8), *ETAren su-etenetik* (7), *Izarren hautsa egun batean* (6), *Nehoz ez da senditzen* (6).
- Zortziko handia. *Beti penetan beti penetan* (9 aldiz), *Beste bateko inularretan* (6), *Menditarra naiz eta gogoan* (5), *Oraindik hango oihartzun hots bat* (5) eta *Kintak jarrita ondorenia* (4). Azken hiru doinu horiek 2017ko txapelketan berreskuratu zituzten, eta txapelketa honetan sarritan entzun ditugu.
- Zortziko txikia: *Gizona da zoroa* (11), *Orioko balearena* (9), *Kantatzera nioa* (7), *Nere senarrarekin* (7) eta *Dama gazte xarmant bat* (4). *Gizona da zoroa* doinua 2017ko txapelketan Julio Sotok erabili zuen Leitzako saioan agurra kantatzeko, eta harrezkero, bai txapelketa hartan bai plazetan bai aurtengo txapelketan maiz askotan baliatu dute.
- Hamarreko txikia: *Hamalau heriotzeta* (7), *Zer da gaur Donostian* (5), *Lagundurikan danoi I* (4), *Lagundurikan danoi II* (4), *Antton eta Maria* (3). Hamarreko txikian ia beti doinu berberak ibiltzen dira joan-etorrian, baina txapelketa honetan agertu dira beste batzuk ere (*Gizakiak harri bat* eta *Seme ezarri bainauk*)
- Puntutan: *Mendiko umea naiz* (5), *Ezagutu zuenak* (3), *Lurren dena dabil* (2), *Igaran egun batez* (1), *Mando batean gainean I* (1).
- Seiko motza: *Aresoarren bandera* (10), *Dozena bat bertso berri* (6)
- Bakarka: *Goizean altxatu eta* (7), *Larogeita hamar urte* (6), *Norbere mundu intimo* (6), *Beste bateko inularretan* (5), *ETAren su-etenetik* (4), *Izarren hautsa egun batean* (4). Miren Amurizak 2016ko Bizkaiko Txapelketaren finalean plazaratu zuen doinua erabili da gehien.

Doinu berriak

Sarreran adierazi bezala, zazpi doinu berri plazaratu dituzte aurtengo txapelketan, eta horietatik hiru agurretan soilik erabili dituzte, doinu bat agurrean zein ganbarako lanetan, eta gainerako hirurak ganbarako lanean soilik. Jatorriaren arabera, bi multzotan sailkatu ditugu doinu berri hauek guztiak:

1.- Musikari batek bertsolariarentzat berariaz sortutako doinuak.

- *Nire barrua ze emozio.* Nerea Urbizu musikari lekunberriarrak Julio Sotorentzat sortutako doinua. Gotaine-Irabarneko kanporaketa-saioan atera zuen ganbarako lana gauzatzeko. Neurritz hamaseiko handia da, eta izaeraz sentimenduzko doinuen sailean sartzeko modukoa.
- *Neure burua landu dut.* Gorka Urbizuk egindako doinua, Baionako finalaurrekoan erabili zuen lehenengo aldiz Julio Sotok ganbarako lanean. Neurri berdineko doinua da: hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz.

2.- Kantari edo musika talderen baten doinua, bertsolariak moldatua edo egokitua

Kantari baten doinua hartu, moldatu eta bertsolariak ekartzea ez da joera berria. Doinutegian era horretara sortutako doinuen hainbat adibide dauzkagu, gure kantu tradizional asko bertso neurrikoak dira eta. Joera berriagoa da, ordea, kantari erdaldunen doinuak ekartzea. Azken bi hamarkadetan hala sortutako doinu ugari entzun ditugu bertsolarien ahotan, eta horietako batzuk plazan dabilta oraindik: *Gure herri ttiki hau da, Azken tragotxo hori hartu, Geldirik ezin naizela egon...* . 2017ko txapelketan sail honetan zazpi doinu bildu genituen, eta 2022koan hiru izan dira:

- *Irrintziekin esnatzen dira.* Maurizia eta Leonen *Artolak deuko* kantuan oinarrituta Miren Amurizak berak moldatutako doinua. Hamabiko handiko neurrian erabili zuen Arrasaten hasierako agurra kantatzeko.
- *Larunbat gauean hamar.* Zea Mays taldearen *Negua joan da ta* kantu ezaguna moldatu zuen Miren Amurizak, eta ganbarako lanean erabili zuen. Azken urteetan plazaratu diren doinu berri gehienek joerari jarraitzen dio, neurri berdinekoa baita: hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz.

- *Hor bide eguzkitsu bat / Xorieri mintzo zen.* Mixel Labegerie kantari lapurtarraren doinua moldatu eta Gotaine-Irabarnen plazaratu zuen Oihana Iguaranek, hasierako agurrean. Ondoren, ganbarako lanetan erabili zuen Gotaine-Irabarnen bertan, Donibane Garazin eta Amurrion. Neurri berdineko doinua da —hamahiruko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz—, amaieran errepika bihurria bezain jostaria duena, eta efektu polita egiten duena ondo josten asmatuz gero.
- *Unian ikasten nabil.* Luis Eduardo Aute kantari madrildarraren *Al alba* kantua moldatu eta bertsoara ekarri zuen Miren Artetxek, Gasteizko kanporaketa-saioan, ganbarako lanean. Hau ere berdinen sailekoa da: hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz
- *Kaixo Elizondo.* La Oreja de Van Gogh taldearen *Jueves* abestia egokitu zuen Iñaki Apalategik, eta doinu hori baliatu zuen Elizondoko finalaurrekoan hasierako agurra kantatzeko. Neurri bereziko doinua da; izan ere, hogeita bat lerro ditu, eta hogeita bat puntu ditu, guztiek baitute errima-oina, baina hainbat errima ditu.

Zaharrak berritzen

Doinu zaharrak berreskuratu eta plazara ekartzeko ahalegin handia egin zuten bertsolari zenbaitek 2017ko Txapelketa Nagusian. Horietako batzuk, ariketaz ariketako sailean aipatu bezala, berriro entzun ditugu txapelketa honetan, eta esan daiteke bolada batean behintzat entzuten jarraituko dugula.

Bestalde, azken txapelketetako joerari segituz, bakarkako lanetan ere erabili dituzte doinu zaharrak, luzatuta edo moldatuta. Eta, egia esan, doinu berriak lehenbiziko aldietan baino askoz errazago eta gozoago sartzen dira doinu zaharrak entzuleen belarrietan. Azken txapelketetan erabilitakoez gain — *Beste bateko inularretan, Lurraren pean sar nindaiteke, Eguzkiak urtzen du han goian* B...— , honako hauek atera dituzte plazara:

- *Elizan sartu ziradenian* A. Manex Agirrek erabili zuen, 14ko handira luzatuta, Gasteizko kanporaketan, ganbarako lanean. Garai batean erruz erabili zen doinua da, eta hainbat aldaera ditu.

- *Haize hegoa gau epela I.* Aitor Mendiluzek erabili zuen azken finalaurrekoan, Bilbon, ganbarako lanean. Izatez zortziko ertainekoa da doinu hau eta Mendiluzek hamalaukora luzatu zuen.
- *Kantuz sortu naiz eta II.* Amets Arzallusek erabili zuen Garaziko finalaurrekoan eta Iruñean, goizeko eta buruz buruko ganbarakoetan. Mikel Laboak egin zuen ezagun doinu hau, Jose Mendiage aldudarraren hamarreko txikiko bertsoak kantatuta. Amets Arzallusek hamalaukora luzatuta kantatu zuen, baina bai doinua eta bai neurria zertxobait moldatuta, lerro bakoitiak 8 silabakoak egin baitzituen.
- *Loreak udan ihintza bezela I.* Bilintxen bertsoz ezagutzen dugun doinu klasiko hau erabili zuen Maialen Lujanbiok buruz buruko ganbarako lanean. Zortziko handia da berez, eta hamalauko handira luzatu zuen, aurreko txapelketetan *Beste bateko inularretan* edo *Lurraren pean sar nindaiteke* doinuekin egin zuen antzera.
- *Mando baten gainean I.* Zortziko eta hamarreko txikiko bertsoak osatzeko erabili izan den doinu klasiko hau hamalauko txiki bihurtu zuen Lujanbiok txapeldunaren agurra kantatzeko.

Interesgarria ez ezik polita eta emankorra da doinu zaharrak berreskuratzeko eta itxuraberritzeko joera hau. Bertso-doinutegia den itsaso zabal horretan murgiltzea eta arrantzan aritzea abentura ederra da gero. Bada hor pieza ederrik, bere horretan, edo norberaren komenentziara moldatuta, plazara ekartzeko modukorik. Eta, ezer arrantzatu ezean ere, ez da denbora alferrik galdua izango.

Aukerak abiapuntu

Bertso batek hunkitzen, harritzen, barrez leherrarazten, urduritzen, pentsatzen jartzen... gaituenean asko dira hori eragin dezaketen faktoreak. Artikuluan ukitzen ari garen gaietara etorrira, esan genezake testuinguru jakinean kokatutako eragile-sare konplexu horretan bertsoaren soinuzko —ahots eta doinuzko— alderdiek sarri eragiten dutela bizipen horietan, oso modu desberdinetan izan badaiteke ere.

Horregatik, aurreko ataletan 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusian erabilitako doinuen nondik norakoak aurkeztuta, doinuek eta, horiei ezinbestean loturik,

askotariko hitz, ahots eta kantaerek bertsolarien sormenean eta entzuleon harreran duten eta izan dezaketen tokia mahai-gaineratu nahiko genuke, hautatutako hiru hari-muturren bidez: egiturak, konnotazioak eta estiloak.

1.- Egiturak

Doinuek bertso-neurri bat izan ohi dute hezurduran, oinarrizko antolakuntza ematen diena. Airea hemistikioen (bertso-lerroen) eta puntuen arabera antolatzen da normalean, bere eredu erritmiko eta melodikoak osagai metriko horien arabera egituratuz, besteak beste —gero besterik da doinu bakoitzak taldekatze hori markatzen duen (beti), bertsolariak kantatzean multzokatze metriko horiek gauzatzen ote dituen aldiro edo kantatzean aldaera melodiko zein erritmikoak egiten dituen kasuan kasuan, etab.—. Bertsoaren alderdi metrikoa da, beraz, doinua antolatzen duen osagaietako bat.

Horrekin batera, alderdi musikalak barne-antolaketa propioa ematen dio ezinbestean bertsoari, metrikatik harago, osagai txikienen —silaben— ezaugarritze eta taldekatzetik hasi eta doinuaren atal nagusiak, puntuak multzokatzen dituztenak, zehaztu arte. Bertsozaleok² egituraketa hori identifikatu ohi dugu, gutxiago edo gehiago, ezagunak egiten zaizkigun doinuetan. Doinu bat entzun eta ezagutzen dugun unetik badakigu nola “funtzionatzen duen”, entzun ahala “zer datorren”... Ezagutza partekatu horrek askatasun handiagoa ematen dio bertsolariari entzuleekiko komunikazio-haria eten gabe ezarritako doinu-eredu nagusietatik aldentzeko: bertso-neurria markatzen duten etenak ez egitea erabakitzeke, eredu erritmiko eta melodikoetan aldaera nabarmenak egiteko, etab.

Doinu berriak plazaratzen direnean, bertsolaria ez da hasiera batean ezagutza partekatu horretatik abiatzen. Entzuleok ez dakigu, bertsoa aire horretan entzun ahala, nola “funtzionatzen duen”, “zer datorren”... Ez dugu doinuaren egitura metriko-musikala ezagutzen. Hala ere, bertsolaria kantari entzun ahala horri buruzko aurreiskuspenak egiten aritu ohi gara, modu kontziente edo inkontzientean. Bertsolari bat doinu berri batean abesten entzuten dugunean, batzuetan erraz jarraitzen dugu bertsoa eta, beste batzuetan, aldiz, kosta egiten zaigu (ikus, esaterako, Ekhi Erremundegik, Oihana Aranak, Josu Goikoetxeak eta Xan Alkhatek BTN22ko finalaurreetako

² Artikuluan zehar “bertsozaleak” aipatzean entzule guztiak zaku berean sartu ditugu, gure esperientziatik abiatzen garen arren baieztapenetan. Ohartzen gara mota askotako entzuleak daudela eta beharbada artikuluan denei auresuposatzen dieguna gehiegi orokortzea dela.

bertsogintzari buruzko solasaldian gai horretaz esandakoak³). Gakoetako bat izan daiteke, beharbada, doinuak egitura metrikoa musikalki —erritmo eta melodiaren bitartez— markatzen duenean eta bertsolariak, kantaeraren bitartez, egitura hori argi(ago) ematen duenean errazago ulertzen dela, berria edo ezezaguna izanagatik. Gakoak gako, entzule gisa garrantzitsua da onartzea berritasunak batzuetan ahalegina eskatzen duela, eta eskema metriko eta mentalak zabaltzeko prest behar dugula bertsozaleok ere.

Musika eta neurriaz aritu gara orain arte, baina horiek ezinbestean hizkuntzarekin uztarturik entzuten ditugu bertsoetan, ahotsaren bidez. Hizketak (ahoskatutako hizkuntzak) bere egiturak eta geruzak gehitzen dizkio bertsoari. Hitz lauz, hizketan ari garela, silabak taldekatzen ditugu modu jakinetan, isiluneak egin, intonazio eta lastertasun zehatz bat eman aldiro esaten dugunari, hitz edo esaldi batzuk nabarmendu... Bertsogintzan ere horixe egiten du bertsolariak kantuan ari dela. Doinuak aurrez eskaintzen dio hotsezko alor horren halako zirriborro osatugabea, bertsolariaren diskurtso, ahots eta kantaeraz zehazten dena azkenean.

2.- Konnotazioak

Doinuak hautemateko dugun erak horietako bakoitza emozio, adjektibo edota kontzeptu batzuekin lotzera garamatza, besteak beste (Patel 2008; Juslin eta Sloboda 2013). Doinutegiko sailkapenean, garai batean “doinu mota” zehazteko aukeretako batzuek ere hori uzten dute agerian: “tragikoa”, “kontakizuneko”, “amodiozkoa”, “irrizkoa”... gisa sailkatu izan baitira doinuak. Beste ideia asko gehi genitzake, norbere subjektibotasunaren eta doinuaren arabera. Hitz lauz “tonu” batean edo bestean aritu ez dira gauzak berdin esaten eta interpretatzen. Antzera gertatzen da bertsoetan, doinu eta kantaerekin. Seiko motzerako erabiltzen diren bi doinuak izan daitezke horren adibide argi. Gai bera *Aresoarren bandera* edo *Dozena bat bertso berri* doinuarekin kantatu, aski bertsoaldi desberdina sortuko litzateke seguruena eta, bertso berberak izanda ere, entzuleok zertxobait desberdin hautemango genituzke ziurrenik.

Doinu bakoitzari darion konnotazio horrek, “kutsu” horrek, aukera ematen du “funtzionatzen duten” ohiko bideekin batera askotariko konbinazioak eginez

3 Solasaldiaren berri izateko, ikus: <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolari-txapelketa-nagusia/albisteak/finalaurreetako-bertsogintza-aztergai-ekhi-erremundegi-oihana-arana-josu-goikoetxea-eta-xan-alkhat> (azken kontsulta: 2023-01-11)

frogatzeko, jada hainbat bertsolari egiten ari den gisan. Horrela, doinu “alaia, bizia” umorea egiteko eta doinu “goibela, solemnea” diskurtso sakonagoetarako⁴ erabiltzeaz gain, umorea bestelako tonu “serioagoetan” egin daiteke, diskurtso sakon edo landuagoak “horren dramatikoak ez den” beste kutsu batez, etab.

3.- Nork bere (eginez) doinua(k)

Azkenik, bertsolari bakoitza ezaugarri dezakeen osagai gisa aipatuko ditugu doinu hautua eta doinua kantatzeko modua. Eremu estilistiko-artistikoa eta identifikatiboa ukitzen dute bertsolarien doinu proposamen edo hautu pertsonalek. Txapelketa honetan bereziki nabarmentzekoa izan da akaso bertsolari zenbaitek doinu ohikoak “berenganatzeko” egindako lanketa: aldaera melodiko eta erritmiko txikiak egin dituzte —beste batzuetan baino gehiago izan ote den, aztergai—, euren ukitua emanaz doinuei.

Izan ere, gai honetan ezin da kantaera aipatu gabe utzi, doinu bera oso desberdin kanta baitezakete bi bertsolarik, eta baita bertsolari berak ere, testuinguru desberdinetan —testuingurua zentzurik zabal eta anitzenean ulertuz—. Aldakortasun-ardatz bat aipatzearren, batzuetan —batzuek— modu erregularragoan kantatuko dute bertsoa, musikak eskaintzen dituen dimentsio erritmiko eta melodiko horietan sakonduz (ikus Soroaren artikulua⁵, esaterako). Beste batzuetan —beste batzuek—, berriz, hitz lauко adierazmoldeetatik gertuago kantatuko dute, hizketan erabili ohi ditugun hotsezko baliabideak azaleratuz neurri handiagoan. Bertsolari beraren bertso berean aurki daitezke bi joerak batzuetan, kontrastea bera ere baliabide baita. Azpimarratzekoa da osagai askok parte hartzen duten joera jarraitu eta aldakorrez ari garela hemen, *continuum* bateko bi muturrez; ez bi talde itxi eta dikotomikoz.

Orain arte aipatutako guztiei lotuta, berriro bertsozaleak aipatu beharrean gaude ezinbestean. Beste behin ere, entzule gisa egin behar dugun lanketa geratzen da agerian kantaerez eta ahotsez ari garela (ikus Jone M. Hernándezen artikulua⁶, besteak beste). Sarri gertatzen da ahots eta kantaera jakin batzuk entzunda aurreiritzi eta estereotipo batzuk aktibatzen zaizkigula eta kokapen horretatik interpretatzen ditugula bertsolari horiek kantatuak (ikus Alberdi 2019, besteak beste). Horrela,

4 Hemen ere oharra egin behar: bi muturretan eta bi taldetan ezarri dira doinuak azalpenaren ulergarritasunaren mesedetan, baina uler bedi askotariko doinuak daudela, molde askotako ezaugarriak dituztenak nahasian, eta aipatutako adjektiboekin izendatuko ez genituzkeenak seguruena.

5 Maddi Soroaren artikulua irakurtzeko: <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolari-txapelketa-nagusia/albisteak/kantaerak-dioena> (azken kontsulta: 2023-01-11).

6 Jone M. Hernándezen artikulua irakurtzeko: <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolari-txapelketa-nagusia/albisteak/entzumenaren-iraultza> (azken kontsulta: 2023-01-11).

koordinada horietatik kanpo izan ditzaketen bestelako nabardurak ukatzen dizkiegu bertsolariei, beren bertsoaldiak oker interpretatzeko arriskua areagotzeaz gain.

Doinu berriak ezagun bilakatzean gertatzen den bezala, bertsolariak zenbat eta gehiago ezagutu euren alor sortzailean, zenbat eta gehiago entzun, orduan eta hobeto ulertu eta balioetsiko dugu bakoitzaren adierazmoldea, bakoitzaren kantaera eta ahotsa, eta bertsolariek askatasun handiagoz jardun ahalko dute entzuleokiko komunikazio-haria eten gabe.

Plazan jarraituko du(gu)

Txapelketa hau ez da, doinu berriei dagokienez, horren oparoa izan beharbada, baina akaso doinuen —eta kantaeren, ahotsen— erabileraren eta hautematearen gaineko kontzientzia gero eta handiagoa hartzen ari gara, pixkanaka. Plaza izan ohi da askotan gerora txapelketan islatzen diren gertakarien aitzindari. Bada hemendik aurrera ere plazan izan dezala jarraipena doinu, kantaera eta ahotsen emariak!

Erreferentziak:

Alberdi, Uxue. (2019). *Kontrako eztarritik. Emakume bertsolarien testigantzak*, Lisipe 5. Susa.

Juslin, Patrik eta John Sloboda. (2013). Music and emotion. In Diana Deutsch (arg.), *The Psychology of Music (Third Edition)*. Elsevier Academic Press. 683-645.

Hernández, Jone M. (2019). Gorputz bat ikusten dut zure ahotsean. Gorputz generizatuak bertsolaritzaren soinu-bidean. In Miren Artetxe eta Ane Labaka (koord.), *Bertsolaritza feminismitik (bir)pentsatzen*. UEU. 134-153.

Labaka, Ane. (2019). Irribarre erditik irribarre osora. Bertsolaritzan garatutako umorea(k) aztergai, genero-ikuspegitik. In Miren Artetxe eta Ane Labaka (koord.), *Bertsolaritza feminismitik (bir)pentsatzen*. UEU. 2013-225.

Lujanbio, Maialen. (2017). Zer da doinua, zer da kantaera bertsolariarentzat?, *Bertsolarien kantaera eta sormena* (Donostia, 2017-08-24). EHUren Uda Ikastaroak.

Navarro, Itziar. (2018). *Transformations in the Bertsolaris' Singing Style in Oiartzun since the Mid-20th Century*. Georg-August-Universität-en (Göttingen) aurkeztutako Master Amaierako Lana (argitaragabea).

Patel, Aniruddh. (2008). *Music, language and the brain*. Oxford University Press.

Soroa, Maddi. (2020). *Bertsolariaren formazioan bertsoa sortzeko eta interpretatzeko kompetentzia arloak*. Musikenen aurkeztutako Ikasketa Amaierako Lana (argitaragabea).

The image features a dark gray background with a series of light gray, wavy, concentric lines that create a sense of depth and movement. A horizontal gray band is positioned across the middle of the image, containing the text 'DOINUTEGIA'. Below this band, a large, white, rounded shape resembling a donut or a thick slice of bread is visible, partially overlapping the wavy lines.

DOINUTEGIA

2022KO TXAPELKETA NAGUSIAN ERABILITAKO DOINUAK

Txapelketan bertsolariek erabili dituzten doinuak multzokatu ditugu, lanen arabera. Doinu horietako gehienak, bertsotan bat-batean erabiltzeko modukoak direnak, <http://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia> webgunean aurkituko dituzu, eta txapelketa honetan plazaratu diren doinu berrien (zerrendan lodiz eta etzanean daudenak) partiturak lan honen amaieran jaso ditugu.

DOINUEN ZERRENDA LANEN ARABERA

ZORTZIKO HANDIA

<i>Beti penetan beti penetan</i>	9
<i>Beste bateko inularretan</i>	6
<i>Menditarra naiz eta gogoan</i>	5
<i>Oraindik hango oihartzun hots bat</i>	5
<i>Kintak jarrita ondorenan</i>	4
<i>Egun lanerat abiatu zait</i>	3
<i>Goizian goizik jeiki ninduzun I</i>	3
<i>Haurtxo txikia negarrez dago I</i>	1
<i>Ama Birjina Erkudengoa I</i>	1
<i>Garai bateko baserritarra</i>	1
<i>Komeni zaigun ixtoria bat A</i>	1
<i>Oihan beltzean zoinen eder den</i>	1
<i>Uso zuri bat inguratu zait A</i>	1

ZORTZIKO TXIKIA

Binaka, gaia emanda

<i>Gizona da zoroa</i>	11
<i>Orioko balearena</i>	9
<i>Kantatzera nijoa</i>	7
<i>Nere senarrarekin I</i>	7
<i>Dama gazte xarmant bat</i>	4
<i>Behin batean Loiolan III</i>	3
<i>Durangotik gorako</i>	3
<i>Gazteak Lizargatez</i>	1

Binaka, gaia emanda, puntutan

<i>Mendiko umea naiz</i>	5
<i>Ezagutu zuenak</i>	3
<i>Lurralde dena dabil I</i>	2
<i>Igaran egun batez</i>	1
<i>Mando baten gainean I</i>	1
<i>Maritxu nora zoaz I</i>	1

Banaka, lehen puntua emanda ¹

<i>Haizeak bidali du</i>	40
<i>Orain hasi biagu</i>	22

HAMARREKO TXIKIAK

<i>Hamalau heriotzena I</i>	7
<i>Zer da gaur Donostian</i>	5
<i>Lagundurikan danoi I</i>	4
<i>Lagundurikan danoi II</i>	4
<i>Antton eta Maria I</i>	3
<i>Gizakiak harri bat</i>	3
<i>Agur sagar beltzeran</i>	2
<i>Espainian behera</i>	2
<i>Ezagutu zuenak</i>	1
<i>Lurralde dena dabil I</i>	1
<i>Mando baten gainean I</i>	1
<i>Seme ezarri bainauk</i>	1

SEIKO MOTZA**(Zortzikoa, berdinarean moldekoa, 6 puntuz)**

<i>Aresoarren bandera</i>	10
<i>Dozena bat bertso berri A</i>	6

1 Behartuta emandako doinuak

BAKARKA

<i>Goizean altxatu eta</i>	7
<i>Larogeita hamar urte</i>	6
<i>Norbere mundu intimo</i>	6
<i>Beste bateko inularretan</i>	5
<i>ETAren su-etenetik</i>	4
<i>Izarren hautsa egun batean</i>	4
<i>Atmosferatik atera eta</i>	3
<i>Baneza eta banitu</i>	3
<i>Baserrian jaio nintzan</i>	3
<i>Hor bide eguzkitsu bat</i>	3
<i>Kantuz sortu naiz eta II</i>	3
<i>Lurraren pean sar nindaiteke</i>	3
<i>Maitasuna izan leike</i>	3
<i>Maite gaituzten soro zelaiak</i>	3
<i>Ze ederra ta ze polita</i>	3
<i>Ai zer plazerra bost urten buruan II</i>	2
<i>Bizkorra ez naiz baina badaukat</i>	2
<i>Cola Caorikan ez edatea</i>	2
<i>Eguzkiak urtzen du goian B</i>	2
<i>Gure herri ttiki hau da</i>	2
<i>Kas pote batzuk, txarroko ura</i>	2
<i>Kintak jarrita ondorenian</i>	2
<i>Lumak ezin nindezakeen</i>	2
<i>Nire barrua ze emozio</i>	2
<i>Albizturtikan Bldaniraino</i>	1
<i>Azken urteetan gure herrian</i>	1
<i>Bazkaltzean gogoa neukan</i>	1
<i>Dozena bat bertso berri B</i>	1
<i>Egunsenti batean</i>	1
<i>Elizan sartu ziradenian A</i>	1
<i>Ez nau izutzen negu hurbilak III</i>	1
<i>Gregario edo laguntzaile naiz</i>	1
<i>Haize hegoa gau epela I</i>	1
<i>Nere burua landu dut</i>	1

<i>Kirolarion bizitza</i>	1
<i>Larunbat gauean hamar</i>	1
<i>Munduko ilunabarra</i>	1
<i>Neska zaharrak eta apaizak I</i>	1
<i>Oso polita zara izatez</i>	1
<i>Txikitatikan edukia dut</i>	1
<i>Unian ikasten nabil</i>	1

IPARRAGIRRE ABILA DELA 2

(Bederatzikoa, handiaren moldekoa, sei puntuz)

<i>Iparragirre abila dela</i>	1
-------------------------------	---

BEDERATZIKO TXIKIAK

(Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, bederatzi puntuz)

<i>Horra sei bertso kale I</i>	1
<i>Gaztalondo handian</i>	1

AGURRAK

<i>Baserrian jaio nintzen</i>	9
<i>Mundu honetan holako gauzak</i>	8
<i>ETAren su-etenetik</i>	7
<i>Izarren hautsa egun batean</i>	6
<i>Nehoz ez da senditzen</i>	6
<i>Nik zonbat pertsu alde</i>	5
<i>Norbere mundu intimo</i>	5
<i>Aita asmo hartu det</i>	4
<i>Bazkaltzean gogoa neukan</i>	4
<i>Horra sei bertso kale I</i>	4
<i>Mundu hau uzten bazun</i>	4
<i>Anderea gorarik</i>	3
<i>Egunsenti batean</i>	3
<i>Inork badakizute</i>	3
<i>Irun badaukazu zerbait</i>	3
<i>Kantuz egin behar det</i>	3

<i>Motibo bat nigana</i>	3
<i>Oilarra kukurruka</i>	3
<i>Zer da gaur Donostian</i>	3
<i>Ai gure antzinako</i>	2
<i>Ai hori begi ederra A</i>	2
<i>Barrua ez det biluzten</i>	2
<i>Betroiarena A</i>	2
<i>Bizkaiko aberatsak</i>	2
<i>Dozena bat bertso berri A</i>	2
<i>Ez nau izutzen negu hurbilak III</i>	2
<i>Goizean altxatu eta</i>	2
<i>Gregario edo laguntzailie naiz</i>	2
<i>Haizea dator ifarraldetik</i>	2
<i>Hor bide eguzkitsu bat</i>	2
<i>Iparragirre abila dela</i>	2
<i>Irrintziekin esnatzen dira</i>	2
<i>Ke azpitik su gainetik</i>	2
<i>Mando baten gainean I</i>	2
<i>Munduko ilunabarra</i>	2
<i>Nagusi jauna hauxe da lana A</i>	2
<i>Nere gorputza dardarka daukat</i>	2
<i>Sagutxo batzuekin</i>	2
<i>Trumoa ortzi beltzean hoska</i>	2
<i>Agur eta ohore I</i>	1
<i>Alegrantzi on baten</i>	1
<i>Antton eta Maria</i>	1
<i>Aranora joan ziran I</i>	1
<i>Astearte eguna I-A</i>	1
<i>Ata asmo hartu det</i>	1
<i>Baneza eta banitu</i>	1
<i>Beste bateko inularretan</i>	1
<i>Bizkorra ez naiz baina badaukat</i>	1
<i>Derbiaren beroketa</i>	1
<i>Duela hogeit urte</i>	1
<i>Emozino zurrumbilo</i>	1

<i>Ene Lukas maitea</i>	1
<i>Ez hormigoizko lur sakratuak</i>	1
<i>Gai honek badu mamia</i>	1
<i>Gaixo nengoen joan dan aspaldin</i>	1
<i>Garai bateko baserritarra</i>	1
<i>Garaziko herria</i>	1
<i>Gaur gurutzatu gara</i>	1
<i>Gaztalondo handian</i>	1
<i>Gure herri ttiki hau da</i>	1
<i>Hauxen da gaia zelebrezkua</i>	1
<i>Hemen zizurkildar bat</i>	1
<i>Hogeigarren urtera</i>	1
<i>Hormatxoriak negu gorrian</i>	1
<i>Ia gureak egin du</i>	1
<i>Itziarren semea</i>	1
<i>Izar azpian desira zoroz</i>	1
<i>Jesus maitea zan</i>	1
<i>Kaixo Elizondo</i>	1
<i>Kantatzera noazu I</i>	1
<i>Kantu lanian edo bertsotan</i>	1
<i>Kintak jarrita ondorenian</i>	1
<i>Lagundurikan danoi I</i>	1
<i>Lagunen bat desterruan / Motxila barruan</i>	1
<i>Laurogeita hamar urte</i>	1
<i>Lehiak kinielan</i>	1
<i>Lurraren pean sar nindaiteke</i>	1
<i>Maitasuna izan leike</i>	1
<i>Manuel Narruk atzo esan dit C</i>	1
<i>Mendian gora haritza</i>	1
<i>Motel guk ere garai batean</i>	1
<i>Neskazahar bat tentatzen</i>	1
<i>Norbait bilatzen duenak</i>	1
<i>Oies errondan dabil</i>	1
<i>Oihan beltzean zoinen eder den</i>	1
<i>Ondarrutarrak haiek mutilak</i>	1

<i>Sofa dago puskatuta</i>	1
<i>Sortu naiz iparrean II</i>	1
<i>Udaletxean badut</i>	1
<i>Xori erresinula I</i>	1
<i>Zer buruzbide bihotz gabe</i>	1
<i>Zibilak esan naute</i>	1

The image features a dark grey background with a series of light grey, wavy, concentric lines that create a sense of depth and movement. A prominent white circle is positioned in the lower right quadrant, partially overlapping the wavy lines. A horizontal grey band across the middle of the image contains the text.

BERTSO DOINU BERRIAK TXAPELKETAN

Hor bide eguzkitsu bat

Doinua: *Xorieri mintzo zen*, E. Martikorena, mold.

Bertsoa: Oihana Iguaran

♩ = 90

The musical score is written on ten staves in a single system. It features a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a 3/4 time signature. The tempo is marked as ♩ = 90. The lyrics are written below the notes, with hyphens indicating syllables across notes. The lyrics are: Hor bi - de e - guz - ki - tsu bat
ber - tso - a - ren i - bi - le - ran
or - tzi - mu - gan zu - riz dei - ka
Pi - ri - ne - o - ak i - le - ran
hi - tzak gu - re gan - ba - ra - ra
da - toz oi - nez es - ki - le - ran
da - toz oi - nez es - ki - le - ran
ar - te - an e - go - nak zie - gan
haz - ten na - ba - ri - tzen du - gu
txo - rro - txi - o bat gu - re - gan.

Ai - re - a be - te nahi du - gu
 zu - ek i - kus - te - ko e - ran
 za - bal di - tza - gun ka - io - lak
 ta has dai - te - ze - la he - gan
 ta has dai - te - ze - la he - gan
 zu - ek i - kus - te - ko e - ran

Irrintziekin esnatzen dira

Bertsoa: M. Amuriza

Doinua: *Artolako martxa*, mold.

♩. = 80

The musical score is written in 3/8 time with a key signature of two flats (B-flat and E-flat). It consists of eight staves of music, each with a corresponding line of lyrics underneath. The lyrics are in Basque and describe a scene of waking up in a noisy, bustling environment.

I - rrin - tzi - e - kin es - na - tzen di - ra
e - rro - me - ri - e - tan pla - zak
e - do - hi - le - te - tan mi - nak uz - kur - tu
di - tza - ke - en gi - har ma - sak
I - rrin - tzi - e - kin Pi - ri - ni - o - ak
A - pa - la - che ak, A - tla - sak
zu - tik lo - kar - tzen di - ren zal - di - ak
ta - eu - ren be - gi - ra - da ba - sak

The image shows a musical score for a song. It consists of four staves of music, each with a treble clef and a key signature of two flats (B-flat and E-flat). The lyrics are written below the notes. The first staff has the lyrics 'a - rra - tsal - de - on dar - dar di - tu - gu'. The second staff has 'e - rre - so - nan - tzi - a ka - xak'. The third staff has 'e - ta goi - a jo ar - te - an i - raun'. The fourth staff has 'di - e - za - gu - la ar - na - sak'. The music is written in a simple, folk-like style with mostly quarter and eighth notes.

a - rra - tsal - de - on dar - dar di - tu - gu

e - rre - so - nan - tzi - a ka - xak

e - ta goi - a jo ar - te - an i - raun

di - e - za - gu - la ar - na - sak

Kaixo, Elizondo

Doinua: I. Apalategi (O. de Van Gogh)

Bertsoa: I. Apalategi

$\text{♩} = 50$

The musical score is written on ten staves in a single system. It features a treble clef, a key signature of two flats (B-flat and E-flat), and a 2/2 time signature. The tempo is marked as quarter note = 50. The lyrics are written below the notes, with hyphens indicating syllables that span across multiple notes. The lyrics are: Kai - xo, E - li - zon - do; ez ze - ra e - gon - go; as - pal - di - tik ber - tso go - se - ak; u - ler - tzen di - zut ze; gu - re - tza - ko lu - ze; joan di - ra bost ur - te pa - se - ak; be - raz go - goz ba - po; ga - toz ber - tso - ta - ko; goi, er - di e - ta behe kla - se - ak; ze he - men nik us - te; ba - na - tzen di - tuz - te.

hu - rren - go.e - rron - da - ko pa - se - ak
i - lu - sio gor - di - na
guz - ti - oi ber - di - na
sor - tzen di - gu ber - tan sar - tze - ak
deus ez da zi - u - rrik
ta be - raz bel - du - rrik
ez du e-man be - har sa - ia - tze - ak
ho - ri da po - li - ta
su - tan i - pi - ni ta
pro - ba - tu di - tza - gun el - tze - ak
pro - ba - tu di - tza - gun el - tze - ak

Larunbat gauean hamar

Doinua: *Negua joan da ta, Zea mays, mold.*

Bertsoa: Miren Amuriza

$\text{♩} = 100$

The musical score is written in 3/8 time with a tempo of 100. It consists of 12 staves of music, each with a corresponding line of lyrics in Basque. The lyrics are: "La - run - bat gau - e - an ha - mar e - ta er - di - e - tan la - na a - mai - tu - ta e - se - ri naiz so - fa - ra jaur - ti - az za - ma hi - ru - lau ka - te pa - sa - tu dut pe - li - ku - la an - da - na ta li - bu - ru bat har - tu dut to - tal ber - di - na da da - na ta ba - pa - te - an mo - bi - la ta a - lar - ma a - la - ba - ga - na "bai, zer nahi du - zu?" e san di - ot na - ba - ri - tzen di - zut xar - ma". The score includes various musical notations such as notes, rests, and bar lines.

La - run - bat gau - e - an ha - mar
e - ta er - di - e - tan la - na
a - mai - tu - ta e - se - ri naiz
so - fa - ra jaur - ti - az za - ma
hi - ru - lau ka - te pa - sa - tu
dut pe - li - ku - la an - da - na
ta li - bu - ru bat har - tu dut
to - tal ber - di - na da da - na
ta ba - pa - te - an mo - bi - la
ta a - lar - ma a - la - ba - ga - na
"bai, zer nahi du - zu?" e san di - ot
na - ba - ri - tzen di - zut xar - ma

The image shows a musical score for a piece titled 'Kanporaketak: Amasa-Villabona'. The score is written on five staves of music, each with a treble clef. The lyrics are written below the notes. The lyrics are: 'ez dut ba - ka - rrik jo - an nahi', 'ba - ka - rrik e - txe - ra bar - na', 'bai - na_as - per - tu - ta na - go ta', '17 e - tor zai - tez bi - la a - ma', and 'e - tor zai - tez bi - la a - ma'. The score ends with a double bar line.

ez dut ba - ka - rrik jo - an nahi
ba - ka - rrik e - txe - ra bar - na
bai - na_as - per - tu - ta na - go ta
17 e - tor zai - tez bi - la a - ma
e - tor zai - tez bi - la a - ma

Neure burua landu dut

Doinua: G. Urbizu
Bertsoa: Julio Soto

♩. = 60

The musical score is written in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 6/8 time signature. It consists of ten staves of music, each with a line of lyrics underneath. The lyrics are in Basque and describe a journey of personal growth and reflection.

Neu - re bu - ru - a lan - du dut
e - rri - maz, doi - nuz e - ta gaiz
Go - tai - nen ha - si zen de - na
ta han bi zan - go - en sus - traiz
Du - ran - go - tik Ba - io - na - ra
bai - na a - mets bat a - mets - kaitz
az - ken zi - ta han - di hor - tan
jar - dun bai - nin - tzen go - za - kaitz
bi - har da fi - nal han - di - a
ai - pa - tzen a - ri di - ra maiz

The image shows a musical score for a song. It consists of six staves of music, each with a treble clef and a key signature of one sharp (F#). The lyrics are written below the notes. The first five staves contain the main body of the song, and the last two staves provide two different endings for the phrase 'he - zur - ha - ra - giz - ko - a naiz'. The first ending is marked with a '1.' and the second with a '2.'. The music is written in a simple, folk-like style with a mix of quarter and eighth notes.

ta_e ra - ba - kiz al - da - tze - ko
nahiz o - rain - dik na - gon ga - raiz
ez naiz jo - an - go ba - da - kit
gaiz - ki pa - sa - ko nu - ke haitz
bar - ka - tu - ko di - da - zu - e
1.
he - zur - ha - ra - giz - ko - a naiz
2.
he - zur - ha - ra - giz - ko - a naiz

Nire barrua ze emozio

Doinua: Nerea Urbizu

Bertsoa: Julio Soto

$\text{♩} = 80$

The musical score is written in a single system with 12 staves. The key signature is one sharp (F#) and the time signature is 6/8. The tempo is marked as quarter note = 80. The lyrics are written below the notes on each staff. The lyrics are: Ni - re ba - rru - a ze e - mo - zi - o e - ta sen - ti - pen kok - te - la os - pi - ta - le - a be - ti ez bai - ta bost i - za - rre - ko ho - te - la ha - mai - ka - tan nun hi - tzor - du - a ta ne - ka - rren pau - so mo - te - la e - san dit "sar - tu" ta su - ma - tu dut kon - tsul - ta hon - ta - ko os - pe - la ba - da - ki - zu - e ba - ta txu - ri - an i - ka - ra bi - zi ohi de - la or - de - a be - ti in - for - me - ak ez da - kar - ki be - rri goi - be - la

sa - ke - le - ko - a es - ku - tan har - tu
ta mar - ka - tu dut ho - rre - la
e - maz - te - a - ri e - san nahi di - ot
1.
sen - da - tu - ta na - go - e - la
2.
sen - da - tu - ta na - go - e - la

Unian ikasten nabil

Doinua: *Al alba*, L.E. Aute, mold.

Bertsoa: Miren Artetxe

♩ = 60

The musical score is written in a single system with ten staves. It features a treble clef, a key signature of two flats (B-flat and E-flat), and a 3/4 time signature. The tempo is marked as ♩ = 60. The lyrics are written below the notes, with some words hyphenated across lines. There are several triplet markings (indicated by a '3' over a bracket) over the notes for 'ez us - te', 'hau da ha - mar - ga - rren', and 'ez sus - to ta ez e - zus - te'. The lyrics are: U - ni - an i - kas - ten na - bil; di - tut ho - gei - ta bi ur - te; Jaur - la - ri - tzan aur - ten be - ka; u - ka - tu e - gin di - gu - te; ta s - cort web - gu - ne ba - tek; ba - zu - en nahi - ko en - tzu - te; i - ze - na e - man nu - en ber - tan; nahiz ta ha - se - ran ez us - te; hau da ha - mar - ga - rren es - kain - tza; ez sus - to ta ez e - zus - te.


mi - la eu - ro or - du er - di - ko

la - rru - al - di ba - ten tru - ke

lan guz - ti - ak ho - la - ko - ak

1.
i - za - te - a nahi - ko nu - ke

2.
i - za - te - a nahi - ko nu - ke



The image features a dark gray background with a series of light gray, wavy, parallel lines that curve from the top left towards the bottom right. A horizontal band of a slightly darker gray color spans across the middle of the image, containing the text 'ERANSKINAK'. Below this band, a large, white, rounded, irregular shape is positioned in the lower right quadrant, partially overlapping the wavy lines.

ERANSKINAK

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIAREN HISTORIA

1935-01-20 Euskaltzaleak eta Eusko Gaztedi Elkarteek antolatu zuten. Donostiako Poxpolin antzokian jokatu zen eta Basarrik eskuratu zuen txapela.

1936-01-19 Euskaltzaleak eta Eusko Gaztedi Elkarteak antolatuta, Donostiako Victoria Eugenia antzokian jokatu zen. Txirrita izan zen Txapeldun.

1960-12-18 Lehen aldiz Euskaltzaindiak antolatu zuen. Finaleko ekitaldia Donostiako Victoria Eugenia antzokian jokatu zen eta Basarrik jantzi zuen txapela.

1962-12-30 Euskaltzaindiak antolatu zuen. Uztapide izan zen txapeldun Donostiako Astorian jokatu zen finalean.

1965-01-01 Euskaltzaindiak antolaturik, Donostiako Anoeta pilotalekuan burutu zen finaleko ekitaldia eta bigarren aldiz Uztapide izan zen txapeldun.

1967-06-11 Euskaltzaindiak antolatu zuen eta Donostiako Anoeta pilotalekuan eman zitzaion amaiera txapelketari, hirugarren aldiz Uztapidek irabazi zuen.

1980-01-06 Euskaltzaindiak antolatu zuen laugarrena, Donostiako Balda pilotalekuan egin zen finala eta Xabier Amurizak eskuratu zuen txapela.

1982-12-20 Euskaltzaindiak antolatuta, Donostiako Balda pilotalekuan jokatu zen azken ekitaldia eta Xabier Amuriza izan zen txapeldun.

1986-03-23 Lehen aldiz Bertsolari Elkarteak antolaturik, Donostiako belodromoan egin zen finala eta Xebastian Lizaso izan zen txapeldun.

1989-12-17 Bertsolari Elkarteak antolatu zuen eta Donostiako Anoeta Belodromoan Jon Lopategik eskuratu zuen txapela.

1993-12-19 Bertsozale Elkarteak antolatu zuen eta Donostiako Anoeta Belodromoan eman zitzaion amaiera txapelketari. Andoni Egañak irabazi zuen.

1997-12-14 Bertsozale Elkarateak antolatu zuen eta Donostiako Anoeta Belodromoan Andoni Egaña izan zen txapeldun, bigarrenenez.

2001-12-16 Bertsozale Elkarateak antolatutako bosgarren finala, Andoni Egaña izan zen irabazle Donostiako Anoeta belodromoan jokatu zen finalean.

2005-12-18 Bertsozale Elkarateak antolatu zuen eta lehen aldiz Barakaldon izan zen finala, Bilbao Exhibition Centren. Laugarren aldiz Andoni Egaña izan zen txapeldun.

2009-12-13 Bertsozale Elkarateak antolatuta, Barakaldoko Bilbao Exhibition Centren izan zen finala. Maialen Lujanbio izan zen irabazle.

2013-12-15 Bertsozale Elkarateak antolatu zuen eta hirugarrenegoz finala Bilbao Centren egin zen, Barakaldon. Amets Arzallusek irabazi zuen txapela.

2017-12-17 Bertsozale Elkarateak laugarren aldiz antolatu zuen finala BECecko Bikaia Arenan Maialen Lujanbiok jantzi zuen bigarren txapela.



TXAPELKETAREN EGITURA

Talde Antolatzailea

Amaia Goikoetxea
Ander Perez
Gontzal Agote
Idoia Trenor
Jon Agirresarobe
Maddi Ibaibarriaga
Oier Iurramendi

Bertsogintza Taldea

Ainhoa Urien
Antton Fernandez
Asier Galartza
Idoia Trenor
Maidar Arregi
Oier Iurramendi
Oihana Arana

Komunikazioa Taldea

Amaia Goikoetxea
Ane Zuazubiskar
Eneko Salaberria
Eneritz Urkola
Gaizka Azkarate
Kerman Diaz
Maddi Ibaibarriaga
Oihana Aranburu

Ekoizpen Taldea

Ander Perez
Eneritz Artetxe
Gaizka Azkarate
Ione Narbaiza
Jon Agirresarobe
Oier Iurramendi
Ortzi Idoate
Uxue Diaz de Cerio
Xabi Torres

BERTSOLARIEN LANAK

Lehenengo Fasea

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.

Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian.

Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Finalaurrekoak

Lehen itzulian

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.

Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte.

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean¹.

Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Bigarren itzulian

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian.

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.

Kartzelako lana: banaka, lehen puntua emanda, bi bertso zortziko txikian eta gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Finala

Goizean

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.

Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean.

Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

1 Bertso-estrofak izendatzeko irizpideak lanaren arabera:

- “Zortzikoa, berdinarean moldekoa, 6 puntuz” deitzen zaio seiko motzari Hegoaldean, eta “Sei puntukoa, berdinarean moldekoa” Iparraldean.

Arratsaldean

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian.
Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte.
Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Buruz burukoan

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso Iparragirre abila dela doinuan².
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.
Kartzelako lana:
Banaka, hitza gaitzat emanda, bertso bat bederatziko txikian³.
Gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

2 Bertso-estofak izendatzeko irizpideak lanaren arabera:

- “Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz” deitzen zaio doinu horri Hegoaldean, eta “Sei puntukoa, handiaren moldekoa” Iparraldean.

3 Bertso-estofak izendatzeko irizpideak lanaren arabera:

- “Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz” deitzen zaio bederatziko txikiari Hegoaldean, eta “Bederatzi puntukoa, txikiaren moldekoa” Iparraldean.

EGUTEGIA

Lehen fasea

Getxo, 2022/09/24, Larunbata, 17:00	Muxikebarri Zentroa
Arrasate, 2022/09/25, Igandea, 17:00	Amaia Udal Antzokia
Gotaine-Irabarne, 2022/10/01, Larunbata, 17:00	Herriko Gela
Gasteiz, 2022/10/02, Igandea, 17:00	M ^a De Maeztu Entzunaretoa Europa Biltzar Jauregia
Donostia, 2022/10/08, Larunbata, 17:00	Victoria Eugenia Antzokia
Lizarra, 2022/10/09, Igandea, 17:00	Los Llanos Aretoa

Finalaurrekoak

Elizondo, 2022/10/22, Larunbata, 17:00	Baztan Pilotalekua
Donibane Garazi, 2022/10/29, Larunbata, 17:00	Jai Alai
Irun, 2022/11/05, Larunbata, 17:00	Ficoba
Durango, 2022/11/12, Larunbata, 17:00	Landako gunea
Amurrio, 2022/11/12, Larunbata, 17:00	Bañueta Kiroldegia
Baiona, 2022/11/26, Larunbata, 17:00	Lauga
Bilbo, 2022/12/03, Larunbata, 17:00	Bizkaia Frontoia

Finala

Iruñea, 2022/12/18, Igandea, 11:00- 17:00	Nafarroa Arena
---	----------------

TXAPELKETA OSOAN ZEHAR PARTE HARTU DUTEN BERTSOLARIAK

Bertsolari Txapelketa Nagusiak herrialdeetako txapelketetan du abiapuntu. Zerrenda honetan Bertsolari Txapelketa Nagusia 2022 egitasmoan parte hartu duten bertsolari guztiak daude. Beltzez nabarmenduta daude txapelketarako txartela lortu dutenak, 2017ko txapelketako finalista legez edo herrialdeetako txapelketetan sailkatzea lortuta.

ARABA

Aitor Najera Saez de Vicuña
Aitor Ugarte Eriz
Ander Aranburu Amenabarro
Andere Arriolabengoa Bengoa
Asier Otamendi Alkorta
Asier Rubio Hidalgo
Danel Herrarte Nafarrate
Ekaitz Samaniego Curiel
Eukene de los Aires Amundarain
Felipe Zelaieta Txurruka
Iñaki Cabeza Conejo
Iñaki Viñaspre Simon
Irati Anda Villanueva
Maddi Agirre Epelde
Manex Agirre Arriolabengoa

Manuel Bendala Garcia-Donas
Markel Yoller Lopez de Arroyabe
Oier Arbina Vadillo
Oihane Perea Perez de Mendiola
Orlando Arreitunandia Arinas
Paula Amilburu Izargarai
Peru Abarrategi Sarrionaindia
Rikardo Gonzalez de Durana Alzola
Unai Anda Delika
Unai Bengoetxea Mujika
Unai Gomez Garde
Unai Mendibil Etxeberria
Xabi Igoa Eriz
Xabier Antia Zuaznabar
Xabier Lasa Arrizabalaga

BIZKAIA

Aissa Intxausti Aburruza
Aitor Arrutia Azkueta
Aitor Bizkarra Ruiz
Aitor Etxebarriazarraga Gabiola
Ander Elortegi Garatea
Ander Ucelay Aristi
Arkaitz Zipitria Medizabal
Asier Alcedo Cano
Asier Galarza Garai
Beñat Bilbao Landa
Enare Muniategi Etxabe

Eneko Abasolo Txabarri
Eneko Aldana Carrasco
Etxahun Lekue Etxebarria
Garazi Navarro Ugarteburu
Garikoitz Sarriugarte Onaindia
Gorka Pagonabarraga Agorria
Ibai Amillategi Omaetxebarria
Ibon Ajuriagojeaskoa Garmendia
Igor Galarza Intxausti
Imanol Arrutia Azkueta
Imanol Uria Albizuri

Inazio Vidal Gurrutxaga
Iñaki Iturriotz Zuluaga
Iruri Altzerreka Martinez
Jone Uria Albizuri
Josune Aramendi Perez
Julen Arzanegi Erezuma
Julen Ibaranguoitia Ordorika
Koldo Gezuraga Seijido
Koldo Muñiz Aldamizetxebarria
Malen Amenabar Larrañaga
Mikel Goiriena Larrazabal

GIPUZKOA

Agin Laburu Rezola
Ainhoa Agirreazaldegi Rekondo
Aitor Salegi Martija
Aitor Urbietta Aizpurua
Alaia Martin Etxebeste
Amaia Iturriotz Etxaniz
Ander Lizarralde Jimeno
Andoni Mujika Izagirre
Ane Labaka Mayo
Ane Zuazubiskar Iñarra
Aratz Igartzabal Bidegain
Asier Azpiroz Iztueta
Beñat Gaztelumendi Arandia
Beñat Iguaran Amondarain
Beñat Jauregi Etxeberria
Beñat Lizaso Alberdi
Eli Pagola Apezetxea
Eñaut Martikorena Lizaso
Endika Igarzabal Murua
Eneko Araiztegi Agirre
Felix Zubia Olaskoaga
Gorka Maiz Alustiza
Haritz Mujika Lasa
Iban Urdangarin Lardizabal

Mikel Retolaza Etxebarria
Miren Amuriza Plaza
Nerea Ibarzabal Salegi
Oihana Bartra Arenas
Onintza Enbeita Maguregi
Paule Ixiar Loizaga Legarra
Peru de Pedro Larrea
Peru Vidal Gurrutxaga
Txaber Altube Sarrionandia
Unai Mendiburu Valor
Xabat Gallettebeitia Abaroa

Iker Ormazabal Ojeda
Iñaki Apalategi Astigarraga
Iñaki Gurrutxaga Zubimendi
Iñaki Zelaia Irazusta
Iñigo Gorostazu Etxebeste
Iñigo Izagirre Urteaga
Iñigo Mantzizidor Larrañaga
Jokin Bergara Eguren
Jokin Uranga Isuskiza
Jon Maia Soria
Maialen Akizu Bidegain
Maider Arregi Markuleta
Manex Mujika Amunarriz
Mikel Artola Izagirre
Mikel Tapia Aierbe
Nerea Elustondo Plazaola
Odei Lopez Larrauri
Oier Aizpurua Olaizola
Oier Etxeberria Zubimendi
Oihana Iguaran Barandiaran
Unai Gaztelumendi Arandia
Unai Izagirre Etxeberria
Unai Mendizabal Jauregi
Unai Muñoa Amundarain

NAFARROA

Aitor Irastortza Arrizurieta
Alazne Untxalo Erregerena
Egoitz gorosterrazu elizagoyen
Ekain Alegre Gil
Ekhiñe Zapiain Arlegi
Endika Legarra Nuin
Eneko Fernandez Maritxalar
Eneko Lazkoz Martinez
Erika Lagoma Pombar
Idoia Granizo Uribarrena
Iker Gorosterrazu Elizagoien
Joanes Illarregi Marzol

Josu sanjurjo alzuri
Julen Zelaieta Iriarte
Julio Soto Ezkurdia
Mikel Lasarte Cia
Oier Lakuntza Irigoien
Patxi Castillo Graciarena
Sahats Aleman Sadaba
Saioa Alkaiza Guallar
Sarai Robes Vitas
Urko gartzia aleman
Xabat Illarregi Marzol
Xabier silveira etxeberria

XILABA

Aitor Servier Etxexuri
Ametz Arzallus Antia
Battitt Crouspeyre
Bittor Thicoipe
Egoitz Zelaia
Gillen Hiribarren
Iker Altuna
Irati Alcantarilla Urdanpilleta
Johaine Sarraillet
Josu Txoperena Iribarren
Karlos Aizpurua Etxarte
Kerman Diaz
Maddalen Arzallus Antia

Maddi Ane Txoperena Iribarren
Maddi Sarasua Laskarai
Maindi Murua Berra
Miren Artetxe Sarasola
Mizel Mateo Sallaberri
Odei Barroso Gomila
Oier Urreizti
Patxi Iriart Hiribarren
Pettan Prebende
Ramuntxo Christy
Xan Alkhat
Xumai Murua Berra

		Finala	Finalurrekoak	Final laurdenak
1	Maialen Lujanbio	2240	Zuzenean sailkatua	Zuzenean sailkatua
2	Ametz Arzallus	2166	1350	Zuzenean sailkatua
3	Aitor Mendiluze	1507	1387,5	Zuzenean sailkatua
4	Sustrai Colina	1495	1378	Zuzenean sailkatua
5	Alaia Martin	1493,5	1405,5	738
6	Beñat Gaztelumendi	1443,5	1373	Zuzenean sailkatua
7	Nerea Ibarzabal	1435,5	1344,5	738
8	Joanes Illarregi	1421,5	1332	678
9	Julio Soto		1329,5	691
10	Aitor Bizkarra		1329	693,5
11	Oihana Iguaran		1321	737,5
12	Agin Laburu		1301	685
13	Jone Uria		1298	706
14	Unai Agirre		1292	Zuzenean sailkatua
15	Onintza Enbeita		1272	688
16	Saioa Alkaiza		1270,5	673
17	Maddalen Arzallus		1244,5	678
18	Miren Artetxe		1240	670
19	Eñaut Martikorena		1220,5	674,5
20	Ane Labaka		631,5	694,5
21	Nerea Elustondo		628	695
22	Iñaki Apalategi		623	664
23	Asier Azpiroz		616,5	666
24	Haritz Mujika		615	695,5
25	Aitor Etxebarriazarraga		612	682,5
26	Iban Urdangarin			660,5
27	Xabat Illarregi Marzol			659
28	Beñat Iguaran			659
29	Maialen Akizu			658,5
30	Xabat Galletebeitia			655,5
31	Oihana Bartra			653,5
32	Imanol Uria			652
33	Eneko Lazkoz			649,5
34	Amaia Iturriotz			648
35	Miren Amuriza			646,5
36	Unai Mendizabal			635
37	Unai Gaztelumendi			630,5
38	Peru Abarrategi			627
39	Iñigo Mantzizidor 'Mantxi'			622,5
40	Gorka Pagonabarraga			616
41	Patxi Iriart			604,5
42	Manex Agirre			573,5

